Ai gure Bermio
esakerak eta izakerak

Joseba Mikel Ugalde

Aurkibidea

Hitzaurrea

Ai nire Bermio !

Gu Geu

Pertsonie, ezebezetik ezebezera
Gaztiek, lehen eta orain
Etxekotasune
Itxuraz
Izatez

Hil arte bizi

Jan da jan
Bermio munduan eta jateko orduan
Herriko kantak
Edan da edan, kuberta laban
Tonineko kantak
Erre ke erre, tabakue
Kaka ta txise, eguneroko larridse
Lotara
Lolo bidsotza
Geure geusexuek

Adorez ta osasunez

Dana okasiñue
Itsue ta mutille
Ikaragarrizko ikarie
Beste egoera batzuk
Osasune

Aurkibidea

Bestiek

Beste herriak
Kanpotarrak

Izenak eta ezizenak

Izenak
Baporan izenak
Ezizenak
Lekuen ezizenak
Bermeo Bermiotik kanpo
Izaro izena, Bermiotik mundura

Lanbideak eta diruak

1900. urtean
Áñek
Biarrak
Zaratak
Diruek
Ekonomia
Itsosoko kanta bat
Itsosorako ordue

Heriotza ta erlijioa

Jaingoikue eta Santuek
Abadeen inguruko upiñek
Errezaten
Heriotza
Kanpaiak
Erbestean hil

Aurkibidea

Tutiliklas

Azau eta urre
Berbetan ez dakidsen piztidsek
Mendire
Internet
Denporie
Jantzidsek
Egualdidse
Koloriek
Ay que tio
Udie
Olgetan
Amuma olgetan
Amuma ta atxitxe barrakatan
Futboleko herri kantak
Atsa ta usiñe
Gabonak

Geure berbakerie

Amatxu, aitxetxu
Txu, txu, txu gozotasunaren trena
Umeei
Olatuek ekarrikuek
Silaba bakarrekoak
Hika
Halan edo holan
Zarata-berbak
Erderatik
Erositako berbak
Errepikamenak
Agurrak eta deiak
Erantzunak
Konparaketak

Aurkibidea

Nasteborrastie

Masamórrie
Ea > Ia > Bia
Iso edo Uie izan
Éne edo ené
Erre edo Ege
Bermion DA
Daídsola (Dariola)
Ri (Zelako, a zelako)
Zer da ! (a zenbat, a zelakoa)
Óstidse
Demoniñué eta beran famílidse
Erdi euskeraz, erdi erderaz
Berbak jateko ordue
Jatorrago
Bermion "gauze" asko
ETA Bermion
Gure bideak
Zera zertzien
Ondo entzun dot ?

Pertsonaiak

Itsastegitxoa

San Juan, gure irudirik ederrena

Bermiotarron zaratarik bermiotarrena **ENTZUN**

Hitzaurrea

Gabriel Arestik esana da, " Nire poesía oso merkea da, herriaren ahotik hartu nuen debalde eta debalde ematen diot herriaen belarriari ".
Nire lan hau ere, merkea, herritik debalde hartutakoa eta herriari debalde ematen dena da. Apaltasunez herriarekin batera egindakoa eta apaltasunez herriari eskeintzen dena.

Bere helburua, herrian entzuten dena, herriak berak noiznahi eta non-nahi, irakurtzeko moduan jartzea izan da, bermiotarron bermiotartasuna indartzeko asmoz.

Orain munduratzen bada ere, ezin ahaztu lehen pausuak. Kalean entzuten nituen berbak, esaerak, ohiturak edo gertakizunak, papertxoetan idazten hasi nintzenean, igaro dira 35 urte ordudanik.

Urteetan zehar, papertxoak gehitzen eta etxeko kajoiak betetzen ibili dira. Gero, 1994ko urrian, Akatz aldizkarikoek esan zidaten, interesgarria izango litzatekela noizbehinka artikulutxoren bat argitaratzea. Eta halan izan zan aldizkaria desagertu arte.

Hasieratik banekien, nire lanak nondik jo behar zuen. Ni ez naiz gramatikan eta abarretan jantzia, egia esateko nahiko eszeptikoa naiz gainera hizkuntza arloan, sarritan erabaki asko teknikoegiak ikusten bait ditut. Nire lana apala eta herrikoia izan behar zuen. Denok irakurtzeko modukoa, irribarrea sortzekoa eta naturala.

Etxeko ganbaretan edo arrantzaleen etxabeetan, gauzek zaharkituta eta ordenarik gabe egoten badira ere, erakargarri egiten zaigu bilatzen ibiltzea, badakigulako, bertan geure geureak diran gauzak aurkituko ditugula. Baita famili giroan edo lagun artean, aintzinako zerbaitetaz edo gure berbakeretaz berba egiten dugunean, salto-saltoka, batek hau besteak ha esatean sortzen den giroa, ez da izango ordenaren eredu, baina bai aberatsa eta gure herritartasuna indartzen duena.

Idazterakoan ez naiz ibili orrazketak egiten, modu gordinean agertzen dira esakerak eta berbak, inor mintzen bada, klik bat egin dezala eta agur. Esan dudan bezala, lehenengo helburua esakerek batzea izan bada, bigarrena hasiera hasieratik barre eragitea izan da .
Ez dut sekula ahaztuko, ezagunak diren emakume biren barreak. Biak etxeko bat galdu zuten, batek alabatxoa eta besteak senar gaztea. Beraien bizimodua apur bat "normaltzen" hasi zenean, aitortu zidaten nire artikuluak irakurtzean barre egin zutela. Egun horretan, negar anpuluak begietan neuzkala, konturatu nintzen, lan honetan emandako eta emango nituen ordu denak, ondo emanak izango zirala.

Bermiotartasunaren birusa sortu behar da, ahalik eta kutsakorrena gainera, denok harrotasunez gaisotu eta "hilko" gaituena. Baina mundu zabal eta aldakor honetan, gauzak berasmatu beharra dago, ez dute balio lehengo tresnek, ezta orainarte ikusitako eskemek ere, egunero asmatu behar dira bide berriak.

Gaurko umeak izango dira biharko bermiotarrak eta euskaldunak. Umeei euskara irakastean, herriko euskereak tarte handiagoa izan behar luke. Herriko berba edo esakera bat edanez, erosiz, maitatuz, tatuaituz, txateatuz, kutsatuz, ikertuz..., Bermioko euskereari behar duen arnasa emango diogu.

Interneten bidez, lan hau mundu guztian zabaldua izango da, gure etxeetan, txokoetan, dendetan, tabernetan, itsasontzietan, eskoletan, gure bidaietan, ikusgai izango dugularik.

Etorkizunean zeozertarako balioko duelakoan, hemen dago denon eskura.

Joseba Mikel Ugalde 2010 Bermeon

Eskerrak

Amaitezina izango litzateke banan-banan danak eskertzea, lan honetan hainbat personen laguntza izan bait dut. Hala ere, familikoak urteetan jasan izan duten txapa, txapela kentzekoa izan da, egunaro jo ta su, galdezka ibili naizelako edo sarritan euren ondoan egon arren, nire burua beste leku batetan egon dalako. Lagunak eta ezagunak antzean. Baina danak, kiroltasunez edo pazientzi handiaz hartu dute nire "hobby" hau.

Lagunen artean bereziki, sasoi baten nire lankide izandako, Ander Alboniga "Maison", Joseba Egaña eta Joseba Itxasori, edozein kontsultarako nire aginduetara egon diralako, ezin ahaztu euren etxeko lanak.

Batzuoi eta besteoi, eskerrik asko, zuen lana ere badalako.

Baina norbaiti eskerrak eman behar badiot, gauza askogaitik gainera, hau Aingeru Astui Zarraga da. Bere jakintasun guztia, esku-zabaltasunez niregan jarri duelako, berarekin hitzegitea gozamena dalako, batez ere bera entzutea. Lan honen mamian ez ezik, itxuran edo formatoan ere Aingeruren ikutua dago, bera izan bait da lana interneten jartzen lagundu zidana.

Eskerrik asko Aingeru.

Eskaintza

Fernando ta Alejori,
Iker eta Itsasori,
Arantzari

“ Ai nire Bermio !”

Doinua - *Xabier Leteren “Xalbadorren* h*eriotza”*

1

Itsas ertze bat bazen
olatuen indarrez
bere besoek oldartzen
itsasoek arakatzen
kresalen egarriez

2

Ohoretan hazia
isiltasun apalaz
munduetan ibilia
txori guztien kabia
esku zuri zabala, zabala

3 Estribiloa

4

Heriotzan kantari
biziari lotuaz
negar ostean zantzua
minbera ta kementsua
umearen laztana

5

Suak hauts bihurturik
itsasoak kolpatuz
ur tantak hondoratua
hautsen suak gaisotua
bizirik dirauena, dirauena

6 Estribiloa

Estribiloa

Bermio, neure herri
bihotzeko sustraia
garrastasunean ezti
eguneroko eguzki
nire arnasaren geroa

Bermio, neure herri
bihotzeko sustraia
garrastasunean ezti
eguneroko eguzki
nire itsasoko faroa

Kantie ENTZUN

Bermiotarrok

Arrokeri barik baie arrotasun guztidsegaz, esan leikegu gure herria berezia dala,

herri abestiak be badiño, **ez tauela Bermiolakorik !**

Non daukie ba, gure Jaune baño modernuaue,

gurea **Jaingoiko fraka zábala** bada

Non jende handiagoak, NB Akoek altuak badira,

hemen **goidse jjótekuek** bagara

Non safari gehiago egindakoak,

hemen **legoien azálak** pilloka badaukaguz

Non entzuten da, kanpotik ibili ta gero, herria ikustean, arnasa hartu ta **Ai gure Bermio !** baño suspiro gozoagorik

Bermioko portuan kantie > **ENTZUN**

2010-11-09

“ Haizetan zara Bermio,
haitzetan, ekaitzetan
bitsetan,
bi hitzetan zara Bermio,
olatuen indarra ”.



2010-11-09

ENTZUN

Pedro Texeira kartografoak (Lisboa 1595 – Madrid 1662), 1622. urtean Felipe IV.aren aginduz egindako marrazkia. Beharbada gure herriaren irudirik zaharrena.



Luis Paret y Alcazar 1783 - "Vista de Bermeo"

Bermiori buruz ezagutzen dan margorik zaharrena da, Luis Paret y Alcazarrek (Madrid 1746-1799) , Espainiako Carlos III.tzat egindakoa.

Madrileko Ritz Hotelean 1990-10-30ean Edmund Peel y Asociadosek egindako enkantean 123,2 miloi pezetatan saldu zan, inoiz Pareten kuadroengatik ordaindu dan dirutzarik handiena. Antza danez gaur egun Varéz-Fisa bildumak dau jabetza.

Jakintsuen esanetan Paret izan da, rokoko estiloan Espainiak izan duen margolaririk handiena.



Gernikako Juntetxean dagoen "Lírica y Religión" izeneko triptikoa, Gustavo de Maeztu Whitney (1887 – 1947) gazteiztarrak egindakoa. Margolanak, 1878ko apirilaren 20an (Zapatu guren egunean) Kantauri itsasoan gertaturiko galarrena gogora arazten digu. Egun hartan 332 arrantzale ito ziran, haietatik 85 bermeotarrak.



Gu geu

- Ezebezetik, ezebezera
- Gaztetan
- Etxekotasune
- Itxuraz
- Izatez

Joseba Barrenetxean argazkia

Pertsonie, ezebezetik ezebezera

Pertsonie edo gizakia, munduaren misterorik handiena da, zeren ezebezetatik sortu eta sarritan mundua jateko balego lez agertzen bada ere, **gero ta gero be** ezebezera itzultzera behartuta dago, zorionez gainera, bestela **ia nok aguantako lekidoskun.**

Gizaki hori, bere itxura edo ezaugarri fisiko eta baita beren izakeregaitik deitua izango da (hurrengo orrialdeetan ikusiko dogun bezala), baie gure Bermio honetan, bakoitzaren adina edo urteak kontuan harturik, **gitxi gora bera** ondorengo historia izango dau.

Antziñeko zeozertaz berbetan gagozanean, norbera oraindik jaio barik egon garala adierazteko, **"Ni orduen aitxen arrotzatan on naitzen !"** esaten dogu.

tuntuxégaz

tuntúxek

Gure andraren bat **kargáta** edo **tuntuxégaz** dauenien, **txitxié barruen** edo **ime barridse dakarrela** diñogu, behar bada beste herrietako andrak **begirátak** izango diez, bigarren eskuko imiek ekarten dauie ta, guriek geidsau kostata be barridse ekarten dauie.

Momentue allegata, **amak imie hazurren dakola** diñogu, sarritzen **andana kórridsen** jjun bizaten dira klinikera, tellapeko danak esanez **"ia ordu laburtxu bet badakozu"** (berrogeita hemeretzi minutu ta pikukue). Ordu laburtxu bet okitzeko, **San Ramoneri** eskatzen jakon, bere estanpa baten aurrean, kandela bat biztuz.

Eskue apurtute dogunean, besoa ez mobiduteko lepotik tela batégaz lotzen dogu. Halan dagoen norbait ikusten dogunean, **"Umie ondo jabon gero ¡"**, **"Umie dakozu hor"**, **"Seiñe jjagoten zauz"** e.a esaten dogu, ikusten doguna oidseletako umea gogora arazten deuskulako.

Esakerie - **"Tire! ez takozu imie hazurrien eta ! "** – Ez istutu, ez ta horrenbesterako ta.

Esakera - **Sardiñe otzaran jaidsota** Etxe apalean jaiotakoa

Sasoia baino lehenago jaiotzen bada umea, **zazpíkidse** edo **zortzi tse maridse** dala esaten da.

Imie errez eta arazo barik **errie** dauenari, **"uzkerra botatie lez"** ekar dauela diñotsagu, baña askotan **Sesariagaz** okin behar izaten da, biar pillue dako matrona honek gero!.

Orduan ama **seiñe eíndse** edo **libréta** dauela esaten dogu. Lehen, umeak etxean bertan jaiotzen ziran eta ohitura zan, amaren plazentie senarrak balde batetan eroatea Frantxun atxetara, bertan botateko.

Garrantzitsuena, jaiotzen dana mutil edo neska, osasunez izan dadila esateko, " **Hamar hatzamarrak euki deidsela beran lekuen"** esaten da, eta helburu berdinegaz baina jaio ondoren, **"Atz-begidsek ondo dakoz ?"** galdetzen da.

Ama ta **infantie** etxera datozenien, amuman lagunek pe imie ikusi bidauie, esanez, **"Ai zelako aitxen koroskérie dako baie"** ta igual etxien kuadra dana eletrisistie izan edo **"Aman begidsek takoz"** ta justo imigaz dauena tellapeko Juli izan. Gure nagusiek **total** diez abillek antzak atrapaten ta hori bistie gitxitxute dakoiela gero !. Umeak aitxen antza dakola esateko, **"bera ta bat" , "Aitxe ta bat", "Aitxek popatik eñikue"** edo **"Aitxen babillegaz eñikue"** dala diñogu. Baita gurasoen izena erabiliz, umea **Tomas kumié** (kúmie azentoa aldatuz, sehaska) dala be esaten da.
Norbaitek itxuraz beste baten antza daukanean, **"Tomasen aidie dako!"**, aldiz antza, ohituretan edo egikeratan danean, **"Amen bigarren Tómas !"** (izena adibidea da).
Berba egiterakoan, zeozer esatea edo aipatzea, **aitxetú** da guretzat, "Zeuk aitxetú zu", "Aitxetú be ez egin". Aitxetú, zeozer esatea ta igual etxien aitxek berbarik pez.

Hasikeran pertsonie, **Jjaidso barridse** edo gozotasunez **jjaidso parritxue, ime freskue**, gero **oidseletakue, titiko imie** ta gero **hillitakue** dala diñogu.

Jaiotakoak hiru izan badira, hirukotzak edo baita modu bitxian esanda **hiru bikotzak** dirala be esaten da.

Umea euki barik, kanpotik ekarten danean, umea **askakue** edo **urikue**, eta jjaidso barri dakargunean, **Jjaidso ta garbitsu be ein barik hartuikue** dala diñogu. Antzinan jaiotako umea, amak ez baeban nahi, etxeren baten atepostan isten eban, ume horreri **atitan itzikue** deitzen jakon.

Urrengo erreferentzia, eskolara hastea da, orduan **ime txikitxue** dala esango dogu, baita , **ime mokue, ime pirridse, imi mántarra, ime betérrie** edo **ime potozórridse,** geure umorearen arabera.

Urte gitxi barru, **Jaun hartzie** edo **komuniñue** izango da neurria, orduan **ime bardingue, mutil-koskorra** edo **birlórie**, **neskatiltxue** egin jakula diñogu.

Mundua ezbeharrez beteta dagoenez, guraso barik geratzen dan umea, **ime zurtz** geratzen dala esaten dogu.

Urte batetik bestera, umea **kaskóndute** edo hazitxe ikusiko dogu. Gero **maridserdikue, mutil bardingue, biberuko arrañe, monikakillue, aitxen** edo **aman gañekue, neska bardingue, gazte birloratxue, neskatillie** edo **andratxue, gizon cñé, andra cñé, neska matxue, mutil matxue** edo **mutil gaztaie** (mutil gaztie txantxetan).

Urte gitxi barru, **gizon-mutille** eta **neska gaztie**, orduan erreferentzia **serbisidsue** eindse edo ez, **neska lagune** edo **mutil lagune** dakola edo ez izango dalarik.
Maite dogunari botateko lorie edo piropue, **" Neure Afrikako amapola berdie ! ".**



Ana pozarren iminzu, baie tellapekuek atrapaten bazaitsuie…..

Gauzak onerako egin eta txarto urten doskunean, **"Ezkontza txarra"** egin dogula diñogu.

Esakera - **"Ezkondu naitzen Morgará, eta jjo nauen eperdiz hormará !"**

Mutila gizona egitera heldu danean, **"Zorrari arpi emoteko moduko gizona"** dala diñogu, nahiz eta gero zorretan bizi.
Nagusiek gazteei zerbait irakasten ari direnean, **"Ikasi neu bizi naien artien"** esaten deutsoe.

Batek diñonean	besteak erantzun
Zarrák (pertsonengatik)	**" Zaharrak trapuek"**
Zarrá !	**"Zarrák izen txarra !"**
Artritis dakot	**" Hori bakizu zer dan, zartritis "**
Zeu be gaztie zara	**" Bai, gaztie izanikue"**
Zartzara	**" Zartzara, Artzara"**
Ama ta ?	**" Amataten !"**

" Urtiek berez pasaten diez gero ! "

Ezkondu aurretik, ohitura da nobidsuek euren gurasoek aurkeztea, momentu horreri **arpei-haustie** deitzen jako. Egun horretan ez, baie gero arpi asko hausten dira.

Esakera – **"Andrié, etxeko lemié"** **>> IKUSI**

Ezkondu ondoren **andra gaztie** edo **gizon gaztie**, baña laster entera orduko danakaitxik **edadekuek** dirala esango dogu, **"urtiek berez pasaten diez gero !"** esanez.

Alargun geratzen danari, hasieran behintzat dana txokaten jjatsola esateko **"Andra alargunek, kaleko harridse guztidsek pe beran kontra"** eta norbaiti emazteak edo senarrak eskapaten deutsonean, **bizi alargune** dala diñogu.

Sarritan nahiz eta ezkonduta izan, persona batzuk euren izaera dala ta amaren esanetara jarraitzen dabe, orduan **"aman gonápien"** edo **"aman kamisepien"** bizi dirala esaen dogu.

Itxuraz ondo badago personie **beti gazte** dala, **txetxita lez, txirta lez, mutil txíkidse lez, makatza lez** edo **ondiño leber** dauela diñogu.

Azkenez, arpeidse tximurrez beteta, **zartzie jjota** gagozanean, **atzo zarra** edo **atsotsue** eta **agure maspasie.**

Personaren bat oso zaharra dala esateko, **Artzie baño zárraue** edo **Muxuxu urtekue** dala diñogu.

Norbaitetaz hitz egiten dogunean, bera be nahiz eta itxura ona izan, adinean sartutakoa dala adierazteko, **"Bera be ez ta atzo goizekue"** esaten dogu.

Pertsonea bere bizi guztian txarra izan danean edo ohitura ez egokiak izan dauanean, zahartzaroak ez dauala gauzak hobetzen esateko, **zarrau eta txarrau !** esaten dogu.

Pertsona miskillosue, mi,mi,mi ibiltzen danari, **jjiritxu agurie** esaten jako.

Esakera- **"Txikitzen ikasi eziñik, ta zartzara ibili eziñik".**

Batek, **Gizonak ez gazak pa !** - Besteak, **Bai, gizon eskasak !** , hitz jokoa eginez.

Jaiotzen garanean ezebeza bagara, **belak etxata** edo **errieta** gagozanean, ezebezerako bidean gara. Hau baieztatzeko, **"Ume jjaidso ta ume hil"** be esaten dogu.

Istripuz edo beste batek eraginda hiltzen dana, **garbitsu egin dala** edo **garbitsu egin dauiela** diñogu. Norbait gaztetan edo ezustean hiltzen danean, **hilbiarra !, ordue !** edo **destiñue !.**

Batek- **"Ondo !"** - Besteak - **"Ondo, zeruen dauen atsue !"**

"Artritis dakozu ?" **"Artritis ez, zartritis !"**

Batabat gazte-gaztetan hiltzen danean, **"Gordin-gordinik jjun da", "Pertsonie gordin egon dana"** edo antzekoa esaten dogu.

Esakera - **"Zure mimueri itxaroten banau, arrak pe jjango nau "**

Esakera: **" Agurie, agurie ona da, a gurie, bestie gurie,**
atsue da txarra, han tsue, bestien tsue ".

Galdera **" Ze eindse, ze eindse ?" ,**
Erantzuna **" Ze eindse ?, Atso bat seiñe eindse, ta bera be titi bakue !".**

Ezkontza kantak > ENTZUN

Pertsona nagusiren bat, daukan adinerako gazte eta osasuntsu ikusten badogu, **"Begizkune eitzeko moduen zauz"** esaten deutsagu. Berak orduan, **"Kutune imin bikot, begizkune ein barik"** erantzungo deuskularik.

Begizkuné – Pertsona batek, beste baten txarra nahian, jautitzen dauan madarikazioa. Erd. Mal de ojo.
Kutuné – Begizkunek uxatzeko jartzen zan eskapulario txikia.

Behin gizon alargun bat, neskazar batengana hurbildu zan bere historia kontatzen, errekadue eitzen, baie andreak bere sasoia pasata zegoela esateko, gure esakera batez, zera erantzun eutson, **"Hospitsalera zatoz mántatan !"**.

EZIZENAK
Amakiñé, Primera comunion, Gaztie, Txabal, Hombre, Gaztie. Gaztetxu. Multiltxú. Purgatoidsoko arimie.....

Barreka zatitsu

Telefonuen entzundakoa. Zartzien itzela.

- **Nor da ?**
- **Juliiii !**
- **Ez, erretu ein zara e !**
- **Juliiiiiii !**
- **Amen ez tauela Julirik !**
- **Entzun Juli, gure Juanek diño...**

Ezetz igarri

Lapiko tipi-tapié, kolore biko saldié. Badakizu edo popitas ? **Popitas ?**

Zer diez ?

Herriko kanta baten agertuten diez.

Gaztiek, lehen eta orain

Gaur egungo gazteek, sarri askotan entzun behar izaten dabe, inoiz ere ez dagozala konforme, ez nagusiek esaten dabenakaz, ezta jaietan izaten dan musikiegaz. Baie hala ta guzti be, nagusiek sarri esaten dabe, **Zer ete da gazte izatie !, Gaztiri zer tsok pa !** , **Horrek gaztiek ta gu gastauek !**, e.a.

Nagusiek berba horreek esaterakoan, gogo handiz gogoratzen dabez euren gazte denporak, errezki eurek pe euren sasoien zeozer egindakoak diralako. Gaur egun neska-mutilak gauzetxuek egiteko, edur fabriken atzera, talara edo ronpiolasera joaten badira, lehen be izaten eben nora joan.

Hori dana baieztatzeko, ikusi daigun 1902. urtean idatzitako bertsoak. Bertsoen izenburua "Bermeoko mutilen pozak" da, baie uste dot neskek be, ez ebiela hain txarto pasatuko.

" Bermeoko mutilen pozak "

Neska mutilak oraingo aldian, daukazuz pozez beterik
bermeoko plazan ez dagolako, euren gustuko soinurik
tanbolinian dantzan egiteko, ez daukie harek gogorik
ta domekia heldu ezkero, ezin egon dantzan egin barik

Eta horregatik dagoz batzuek, Arene ondora joateko
eta bestiak Albonigara, dantzaldi batzuk egiteko
filarmonika soinulariak, han dagoz listo joteko
txakur txikia paga ezkero, gaztiak dantzan egiteko

Arratsaldia pasako dabe, jira biraka gaztiak
ta ilun abarra heldu ezkero, faltako ez dira nastiak
hagatik dagoz pozez beterik, hemeko gazte guztiak
ardura barik han ibilteko, ta eurentzat baster guztiak

Erromerian gautu ezkero, batuko dira bitsuak
harek orduan zer egiten daben, ikusiko ez dau itsuak
isil ostuka sarri askotan, izango dira mosuak
beste egunian egondo dira, txarto esaten auzuak

Etxerantzian gau ilunian, mutilak neskak hartuta
sarri askotan ibiliko dira, bideak bere galduta
arbola onduan laban eginda, sasi artean jausita
biderik bere topa ezinda, euren lagunak itzita

Egia bada esan eizue, argiro gazte maitiak
guzurra bada zuzenduteko, esan dodazan guztiak
halan badira isilik egon, jakin ez daien frailiak
ezpabere faltako ez dira, pulpituetatik sermoiak

Atsotxu batek niri esan deustaz, kontau dodazan guztiak
ta ikaraturik gelditu ei dira, buru arinak guztiak
ordurik hona ei dabilz harek, joan etorri handiak
zelan da nondik egingo dituen, soinu jotzaile barriak

.....

Sasoien sasoikuek, lehen lehenguek ta orain orainguek

Barreka zatitsu

Antziñan, jaietan bandeak pasakallie jotzen ebanean, gazteak musikeagaz batera, honela kantaten eben , **"Ay Jalisco, Ramon bizko, ez tau ikusten portuko erlojue, Ay Jalisco, Ramon Bizko, ez tau ikusten portuko elizie".** Argi dago norbaiten kontura egindako kanta bat zala.

Ezetz igarri

Popitas ?



ARROTZIE

Etxekotasune

Makiñetxu bet esakera erabiltzen doguz besteengana zuzentzerakoan, oraingoan ikusi daigun gure laguntasuna eta batez be gure etxekotasuna kontuan harturik, besteekaz zelan konpontzen garan.

Zelan ez, **ama** da ikasten dogun lehenengo berbea. Barru barruko sentimentuaz izaten dala adierazteko, **"amma, ago beteko ama !"** esaten dogu. Batzuetan aman ikarie be izaten dogu, abestiak diñon moduan **"amak atako tsuela, amak atako tsu, amak atako tsu, amak atako tsuela, parrandan zabiltzelako".**

𝄞

Batera dagozan ama ta alabie antzekoak dirala esateko, **"ama ta alabie, zein ete da hobie"**, baita **"amuma ta lobie, zein ete da hobie"**esaten da..

" Ama ta alabie, zein ete da hobie ! "

Euren erantzuna **"Bata nahi bestie, zu baño hobie"**, sarritan gustukoa ez bada be erantzun hau entzutea. Esataridsek, entzunlaridse be izan behar dau eta.

Amaren gozotasune aitxena baño handiagoa dala esateko, **"ama, arnasie be barrora, ta aitxe kanpora"**. Egoera edo momentu larrietan ere, ama gogoratzen dogu, **Ai ama !** edo **Ai amatxue !** esanez.

Kirolean futbolean, pelotaka edo beste zerbait egiterakoan kolpea emon behar danean, **"Emon, aman burue be ez da ta !"** animatzen dogu.

Zeozer aberiatzen jakunean, adibidez telebisioa, **" Telebisiñue jjun da amaneko etxera"** esaten da. Orain norbaitek ulertu leike, ETBkoak amaren etxera elkarrizketa bat egitera joan dirala.
Gazteen ibilkerak dirala ta nagusiek hasarre diranean, **"Halan dabil hau, amak eingo dau, aitxek ekarko dau"** esaten dabe, kalinpan ibiltzea gustatzen jakela eta ez etxean laguntzea esateko.

Okasiñoren bat ikusi eta hurbiltzean, berba asko baie sustantzi gitxi ikusten badogu, **"Hor iñok ez daki ama ta aitxe nor dan"** esaten dogu.

Arazoren baten aurrean edo zorrari lepoa emoteko, **"Ama ez tau etxien"** diñogu, ama beti ardura guztien buru.

Guk esandakoa, besteren batek ez dauancan ulertu ta barriro galdetzen euskunean**, Zer esanzu? ,** guk berak ez ulertuteko moduko erantzuna emoten deutsagu, **"Amak aistek ta jjan gurez"** , esatilez edozer.

Etxeko edo inguruko ume danakaz ibili bagara, **"Ime txirri guztidsekaz"** ibili garala esango dogu.

Ama eta aitxe batzen dauan esakerea ere badago, **"Ama, aitxe, ta Peru ta Maridse",** esate baterako danak guztidsek. Urrengoa ez da esakera politxe baie oso erabilia danez aipatu beharra dago. Zeozer txarto egiten dogunean, zera urteten deusku **Ama putie !,** hori entzuterakoan besteek zera erantzungo deuskue - **Ta aitxe mal pescador !.** Andrazkoek berba hau biguntzeko, **"Ama txitxie !"** esaten dabe.

Umeren batek ama ernegaten ipintzen dauanean, amak aldarrike , **"Ama perrién imie"** edo **"Ama txitxién imie"** eta baita " **Nongo amak eñikue zara.. ? "** esango deutso . Bera dalez ama libre dako esatea, txarra beste batek diñonean izaten da.

Etxeko seme-alabei, izenaz ez ezik, beste modu bitxi batez ere aipatzen dira; **" Lorié, Pitxié ta kakié"**– lehena, **Lorié,** bigarrena- **Pitxié** eta hirugarrena – **Kakié**. Neba-arreba askoren arten azkenengoari edo txikienari, **ondákiñe** be esaten jako.

Etxeko nebarrebek, euren artean urte gitxiko aldea dabenean, **alkarren átzekuek** eta umeak badira, **alkarren átxekotxuek** dirala esaten dogu.

Ene alabié ! edo **Ene semié !** entzuten badogu, ez daigun pentsa beti ama bat seme alabei berbetan dagoala, ze bai alabiek amari, neska lagun artean edo emaztea senarrari deika izan leikelako. Herrien gozotasuna, bere eguneroko esakeretan nabarmentzen da.

Esakerak - **Esaizu be ene alabié !** (alabátxi esan ba !)

Gizonek eta umeak kaltzetiñek zulotuta, frakak apurtute edo antzeko zeozegaz kalera urteten dogunean, andrak zera esaten deuskue " **Imiek eta gizonak, agiridsek"**, ardura gabekotasunean antzekoak garala esateko. Gurasoek beti seme-alabak dezbideratzeko ikaraz,

"Umiri emoten batsazu, kordela luze, harek eingotsu edozer gauze "

Seme alaben edukazioa gurasoen ardura dala adierazteko, **"Zer ikusi, ha ikasi"** eta **"Imien zentzune, etxien entzune"** esaten dogu.

Senar emazteak esateko **andra-gizonak** erabiltzen da. Emakume bat eta gizon bat lehengusuak dirala esateko aldiz, ez lenguso ta ez lengusiñe, **lenguso-lengusiñek** dirala diñogu.

Kalean lagun edo ezagunei kasu egiteko, **Da lenguz !** erabiltzen dogu gizonok eta batabatek badoala esateko -**Banuen !** - badiño, besteak " *b*ai j*jun zaitez* " esateko, **Gorantzidsek amañarrabari !**, esaten deutso.

Etxekoak, etxe-etxekuek eta lagunak ez diranak, baina eurekaz kasu egiten garala esateko, **aurrezpidié** egin dogula, **ezeunek** dirala diñogu, edo **hartu-emona** edo **ezeupidie** dakula eurekaz. Eta nahiz eta behin ezagutu, esate baterako autobusen berbetan egon garelako, gure bidaian **berba lagune** izan dogula diñogu.

Amañarraba eta errenen artean sarritan goraberak sortzen dira. Horren lekuko, amañarrabak errenari " **Errena erren dungulu ",** ta errenak amañarrabari, **"Pepetxu neurie, ta bidsotatik bat zein ete da hobie",** zure semea neurie da, ta ni txarra ba naiz, bera be ez ta hobie zentzunean.

Dana ezin dala izan adierazteko, besteari " **Zer gudok pa, amañarraba ordirik ta sagidse beterik ? "** galdetzen deutsagu.

Zeozer txarto egin edo apurtu dogunean, **"Zugaz daku guk etxe bete !"** entzun beharko dogu, esate baterako zeu zara nahiko etxe dana hondatuteko. Eskerrak erdi olgetan esaten dala.

Seme-alaben harremanetan, esate baterako olgetan dabiltzanean, zaharrena umeena bihurtzen danean, **"Zárrena ta txárrena !"** esaten deutsagu.

Etxeko gazteek, nagusien ohiturak hartzen dabenean, eta ez diranean besteen gustukoak, **"Atxitxe tomasen antzak atrapa barik gero !"** esaten jake, atxitxek be bardin egiten zauela esateko.

𝄞

Amuma ta atxitxe, gure herrian baita **amatxu** eta **aitxetxu** agertzen diran lo kanta bat ere badago, **"atxitxe dala txutxulunberde, amuma dala masuste, atxitxe jjun dala Bittoridsera, amuma lepuen hartunde".**

Gurasoa ez danean **odolekué**, bigarren ezkontza batekoa danenan, gurasoa **usamá** eta **usaitxé** edo **ama órdie** eta **aitxe órdie** izaten da. Nahiz eta azken hau oso txarto emon belarrire, pentsa leikelako, aitxe ardau zalea dala. Harek ekarritakoak **odolekúek** ez diranez, guretzat **usaiztie, usarrebie**, **usanaidsie, usnebie** eta baita **usamuma** eta **usatxitxe**.

Gure amak guri ez ezik beste ume bateri bularra emon badeutso edo guk hartu beste andra baten bularra, ume biak **bulabatekuek** dirala esaten dogu.

Gure familikoei deitzeko, beste iñon erabilten ez diran moduak daukaguz, besteak beste, **Anai !, Aiste !, Tie !, Lengus !** edo **Neure lobie !** . Ez daiguzan galdu, deitzeko izenak eurak baño berotasun gehiago bait dabe. Ai eta norbaiti entzuten badiozue **anaidse txikidse**taz berbertan, kontuz zeren benetako anaietaz baño beste zeozetaz ibili leike eta.

Besteak diodanari, zeozer gehitzea edo luzatzea da gure berezitasunetariko bat, horrela :

Norbaiten guraso nagusien egoereagaitik **Ama ta ?** galdetzean, erantzun bitxia hartu daikegu, gordin ta hitz jolasaz, **Amataten !** .

Ai amatxue ! entzutean **Amatxue eta Pepetxue !**

Tie ! entzuterakoan – **" Bai odola metuteko dala ona ! "** erantzuten dau tiek bromatan, teie entzun daualakoan.

Errena ! entzutean - **" Errena , erren dungulu ! "**, kontuz errenagaz adierazteko.

Amañarraba ! entzutean - **" Amañarrabak errre asko dakola ! "**, errebuelta larrei . errena izan bada esan dauana, amañarrabak zera erantzungo deutso, **"Ta errenak pe bai !"**.

Kontuek ! entzutean - **"Kontu-kontulari, senar emaztiek hiru begi"**,(bat otzólue zalako).

Lobie ! entzutean - **" Lobie bai, baie lóbie ! "**, Otsoalako jenidsue daukanean.

Subiñe ! entzutean – **" Subiñe, beste ama batek iñe "**, baezpada

Subiñe ! entzutean - **"Hobeto subiñe, subillé baño ! "** - (Subille- Idiaren kikillé sikatute (larru itxura). Antzinan maisuak umeak joteko erabiltzen zan.). Subillé tertzien txikot zati mehe bati ere deitzen jako.Irisillegaz (hesteekaz egindado baratxoa) edo mimenagaz be jotzen eben.

Besutakue ! entzutean **"Besutakue ta isterratakue " ,** hitz jokoa eginez

Mekauen la puñeta entzutean **"Mekauen la puñeta, andra ta koñeta ! "** esaten da.

Parientie ! entzutean - **“ Parientiek parientiri, txarridsé ostu ! ”-** Parientie bai, baie txarridse enbárka.

Parientie berbie entzuterakoan, beste erantzun bitxi bat ere badaukagu, **“Parientie ta arrañe etxien, hiru egun da neikue”**, handik gora etxean eukiteko egun larregi diralako.

Parientetasune urrunetik datorrenean, **ister pariéntie** dala diñogu, baita **mezabíarrekuek** urrunekoak baie norbait hiltzerakoan meza atarateko konpromisoa daukagunean. Atzerrian bizi diran parientiei, **pariente amerikanue** esaten jake, nahiz eta Alemanian bizi.

Bihar edo etzi gure familian sartuko diranai, “kidse” (gaia-kia) atzizkia gehitzen deutsagu, horrela **errénkidse, subínkidse, koñatákidse** edo **koñatókidse** (ata kontu koñak tokia edo tabernie dala), **amañarrábakidse** edo **aitxeñarrábakidse** eta **mutil lágune** (senargaia) edo **neska lágune** (emazte gaia) esateko, **andrákidse** edo **gizónkidse** ere esaten diralarik.

Ezagunen artean, batzun hartu emonak besteenak baño sakonagoak izaten dira, orduan, **etxekó** dirala, **etxekuek, etxe-etxekúek, etxeko-handí, hartu emon handikuek, lagun kutunek** edo **lagun urkúek** dirala esaten da. Azken hau guraso bardiñeko anai, arreba, neba edo aiste naturalei ere, **anai urkúek** adibidez. Gure etxekotasuna edo kidetasuna adierazteko beste modu bitxi bat, antziñeko arrain-salgailuaren bolak gogoratzen dalarik, **bola barrukuek** da, adibidez **“ Bola barrotik taitx, saldutcko dakoicla”.**

Famili artean barriz, anaidsek, koñatak eta abar ondo konpondu eta maite diranai, **laztanak, maitxiek** edo **uniño handikuek** dirala diñogu.

Geure lagunek kantie > ENTZUN



Gaur egun **aitxebítxi** edo **aitxebesútakue** eta **amabítxi** edo **amabesútakue** izatea formalismo bat baño ez bada, lehen gurasoen faltaz eurak ziran askotan besutakuen arduradurak.

Gure herrian **tellápekue** (ta ez beziñue), sarritan familikoa baño gehiago izaten da, hori diñosku esakeriek ere , **"Atziñeko tellapie, atie kisketan ganien da familidse baño hobie"**. Kontutan izan behar da, antzinan tellápekuen artean asko laguntzen zala, aldiz gaur egun sarritan ezagutu be ez doguz egiten.

Tellapekutatik aparte, gazte denporako gure kalekoak ere gogoratzen doguz, **txikitxeko laguné** edo **geure kalekué** esaten dogularik, nahiz eta orain kanpoan bizi.

Amaitzeko, etxeko seme edo alabigaz ezkonduta bizi diran subin edo errenei, kariñosamentien famili horretara kanpotik etorritakoak dirala adierazteko, geure modu bitxi eta bizi batez, **kalien topaíkuek** edo **moko pegáuek** dirala diñotsagu.

EZIZENAK- Amakiñe, Aita, Aita Karmelo, Aita Sorrillas, Aitona, Alaba bakarra, Ama kaka, Ama guapa, Amasulo, Atxitxe barikue, Atxitxe Pransisko, Pariente,Viuda hermosa, Erriberako Lengusue, Lagun zarra, Mi suegra, Oker ezkondu,...

Barreka zatitsu

Pasadiso barregarri bat. Senar emazteak joan ziran pasitan bere alabatxugaz Mundekabidetik Lamerapunterantz. Bikotea berbetan egoan, atziñen bertatik ibiltzen ziran lekuak gogoratzen, ta umeak orduan galdetzen eutsie -**"Ama ta ni orduen nogaz egon naitzen ba ?"** , ta amak esaten deutso, **"Zu bidsotza, gorantzien aitxegaz, ta berantzien amagaz".**



Juan Aranoa (1901-1973) **Txo**

Txo ez zarie lotsatuten, Gibraltarreri popie emoten ! (Algeciasen)

Itxuraz

Bermio bezalako herri txiki eta dinamiko batek, bertakoek euren ezaugarri fisiko edo itxuraz zeozelan bereizteko, bere eguneroko bizitzan hainbat izen asmatzen dauz. Hala ere, hizkuntza eta herri danak, ez dira bardin moldatzen lan horretan. Ezizenak asmatzeko gure erraztasuna batetik eta euskera bera ere ondo egokitzea bestetik, gu benetan emankorrak izatea egiten dabe.

Hona hemen, norberaren itxura kontutan harturik, gure izakerak.

BURU ETA AURPEGIAZ

Buru handi, besau burue, txarri markaue, arpi zuridse, tremesa (arpi zabala), **pitxarrosie** (arpi istue ta luzengie), **arpi luzengie, mikue, plastangie, plastangonie, papusia/o taluen arpidune, paparduen antzekue, papo lodi, arrotza gorríngotxue** edo **papo górri, okotz handi, belarri handi, belarri urten, ulépue, ulie hegaberie lez, ule fírue, ule plántxau, ule béra** (saskela), **txirikillos, kalbosue, soídse-labaná, guardakola hutsik, bizardo, begitelá** (begi epel), **begi epel, begi kátarra** (betule ori eta begi argiak), **begi oker, begidsek gobiernuen kontra, begilloie** (handi), **begi txiki, begi urten, begi tortol, besauen begidsek, lanproien begidune** (begi urtenak), **betulaz, otzolie** (tuertue), **otzólue** (tuertue), **sur górie, sur jjana, sur handi, sur oker, sur tongo, surtzillo handi, agiñandi, agiñ úrten, agiñ ústel, agiño** (agiñ motzak), **atxapeko txarrue** (mosolue), **durdoie** (mosolue), **mosolue, moso katillo, moso oker,....**

Begidsek gobiernuen kontra

Agiñ ústel

Papúsio



Ulépue
Antzinan, ulépuri – **"Txo, alfiok segikotsu atzien !".** Alfio, Lameran egoan barberu bat izan zan.



Txirikílluek
Ule errízaue, kiskurra.

Soídse labaná
Soídsie, apaijjuek karela ez kaltetzeko ipintzen dan egurra.

GORPUTZ ETA ITXURAZ

Baltzuzkiñe, baltzikiñe, baltzamue, iketxa baño baltzaue, txibidsie baño zuridsaue, Zuringie, geisokidse, galanta, Anbotoko señorie (itxurosie), **beti gazte, afroié, etxurosue, etxure bakue, etxure bako monue, etxure gogorrekue, etxure tristedune, hilbizikue, koko luze, koko lodidse, titi bako, titi handi, titi ximel, mantxue, esko labur, hego labur, hanka oker, hanka luze, ister sanbo, koixue, gizon txiki tranko handi, potozórridse, kakanárrue, kaskarratoié, bázpidse, ezébeza, miséritsue, pillotxue, píngue, pizkázurrelakue, tutuelakue, oskille** (gizon txikidse), **Katalan bárrille** (txiki lodidse), **potue** (txiki lodidse), **tótue** (txiki lodidse),

Zeren gaíñekue da baie !

manduen gañekue, manduek eñikue, goidse jjoteko gizona, gáraue, handillue, andolle, gangille, gangilloie, ganguse, mandokerisie, Habanako palue, luze, me ta bistoso, zozpalalakue, makallo sikue, atze-aurrie jjota, tanbolin palo, txistulakue, Garizimie baño luziaue, Arime fiela (argala ta

zuria), **Hazurre ta azala, lau kuadrokue, dsezena, sakatué bóldrue, itsotxoridsen kontue lez, zarrau eta ederrau, grakue, ,astozatidse, otsulakue, Ogoñon gañekue, trongille, kukuxé, loditxónie,**

mardue/mardonie, marmoka, morróskue, morroskónie, amarra bako sakue, baso-txarridse, buzkentza, mostrongie, Motrikuko budsie,

potolodidse, totolodidse, ,totobillue, trapalotie (txiki lodia), **tronbolintxu, trongillé, eperdi labur, popa handi, popa urten, Motrikuko kaskue** (popa altoduna)....



Tanbolin pálo

Ogoñon gáñekue

baso txárridse

potozórridse

ITXURA EZ EZIK, BAITA

Sama kaka (garramatue) , **Sama érre** (ahotz errea), **Txantoié** (gizon gorrá), **Txantónie** (andra gorrá)

Antzinan, kuadrila batean beste danak baño handilloagoa izan eta besteak abusatzen ebazanari, besteak **"amako"** deitzen eutsien, behar bada joterakoan "amalako" zalako.

Ikusten edo entzuten ari garana, ikusgarria edo bitxia danean, esakera

– **"Honek kontuek ez dau kontako mutuek eta ikusi bez itxuek".**

GAUZA TXIKIDSEK ETA HANDIDSEK

Potozórridse, pizkázurrelakue, iñuzéntilakue, kakanárrue, ezébeza, bápeza, miséridse, píngue, tútulakue, ez geúzie, ...

Itsosúpetekue, manduen gáñekue, lau kuádrokue, mátxue, mándue, oídalakue, ederrá,...

Arrainak - **Txakurren besteko atune, toletan besteko bokartá**

Esakera - **"Zure ederraren ez da etorko".** Ez da etorriko ez zugaitik ez zure edertasunagaitik, beste interés bategaitik baizik".

Hatzamárrak, txikiak eta lodiak diranean, hatzamar **tónguek** dirala diñogu.

Neurrietan ez ezik, badagoz aipatutako ezaugarri batzuk beste arlo ezberdinetan be erabiltzen diranak.
Esate baterako, filma edo pelikula bat gure gustukoa danean, **itsosúpeteko pelíkulie** edo **pelíkule mándue** dala esaten dogu. Aldiz, pelikulie ganorabakue iruditzen jakunean, **iñuzentilako pelikulie** dala diñogu.

EZIZENAK

Agin handi, Andra luzié, Antolin koixo, Anton begigorri, Arpi politz, Azal eder, Atzamar tongo, Baltzamo, Begigorri, Begilloie, Bekoki, Belarri, Bella aldeana, Betulas, Bibotas, Bizargorri, Bular gorri, Buruhandi, Emili Txikidse, Esku politz, Espanitxi, Espanbaltz, Feotxu, Gorputz politz, Hankaluze, Hermosa, Horrek uliok, Juan handidse, Kokotza, Kokot oker, lejietako lastué (Ulé oridune), **Mosolue, Mosokatillo, Otzolie, Ojitos de kanika, Ojos de buey, Papargorri, Papu oker, Patas largas, Paula gorda, Pedro feo, Pedro gordo, Pedro okotz, Pedro papu, Pedro patas, Pedro rubio, Peka, Peka begigorri, Pekasto, Pepa begigorri, Petra begigorri, Petra txiki, Pies planos, Rubia pastora, Rubio, San Migeleko arbolie, Santi patitas, Silbot, Surgorri, Sur gora, Surjan, Sur handi, Sur oker, Sur zapal, Sur ustel, Titi handi, Titi bako, Titi espan, Tomasa lodi, Tomas handi, Trentza luze, Tripandi, Tripa llena, Triparriba, Turtulu, Ule gorri, Ule plantxau, Ule zuri, ...**

"Nok esan zauen, tximúrrek ederrak dizela ?".



Etxure bako mónue

Batu sei ta lau,.....ta zeure koroskériek urteten dau !

Izatez

Edozein gizartetan bezala, gure herrian ere, besteen balore on edo positiboak baiño, akatsak edo balore negatiboak azaldu eta kaleratzeko, askoz ere izen gehiago asmatzen doguz. Horrela gehienak txarrak badira ere, geure geureak dira danak.

Bitxikeri modura eta izakerei lagunduz, esakera batzuk ere sartzen dira. Gehienetan, arinegi hartzen dogu erabakia, beste zelakoa dan esateko, ta sarritan erretu egiten gara. Hori halan dala adierazteko, **"Pertsonie ondo esetuteko, ogidse jan bi de beragaz"** eta nahiz eta batzuetan egia ez izan, **"Tartera bateko sardiñek, danak bardiñek"** be esaten dogu.

GANORA BAKOAK, ODOL GITXIKOAK ETA ALPERRAK

Abuxé, abuxék baño odol gitxiaukue, adubakue, aiztie, ali-ali, aliadue, alper untzidse, alperrarridse, alperran justisidse, amuma kontsola, argi bako mariposie, arto amasie, arto sopie, Artzako basie baño santarraue, arrain zuridse, arranke bakue, arrotz handidse, asta bako tarterie, asto kantsaue, atalue, atxapeko birgiñie, baba lorie, baleko jan, ban-bai, bartolie, basié baño tentélaue, bobo arraidsue , brus-gorridse, dana biarrekotxue, dejeme la plast, ebai bakue, esne bakue, esne epela, esne epeletako sopie, esne galdue, gabiloie, galgoli parrie, ganbelue edo ganbeloie, gandule, ganora bakue, ganora bako trena, gauez eñikue, gibel handi, herri txakurre (itsosuri dar-dart), **ikopasie, iñusentie, itzidse, jan txakurre, juzidso bakue, kable bako entxufie, kakatan plaust, kalai-malai, killora ez tana allegaten, koipe-gasié, kokolue/ie, kokolo tres, konpostolie, laixé, loguraz, malbakue, malmosá, mamalie, mamaue, Mamerto, mano-manokue, manokue, Mari-deskantsu, Mari-téntel, marmok arrañe, marmoka, misólie, mistika flor, molda bako trena, moldabakue, moldakatza, motela, munduek itzikue** (rarue), **odol bakue, orko morko, oskola-handi, ososoko santue, pálpalekue, papaue, papel bakue, patata ságarra, pastela, peto bakue, peto gitxikue, pla eitzeko patatie, popértsakue, santa infansia, santarra, santar magaridse, santarran andaparie, santarrillo, santarrua, sastarratako apaijjue, sensilla maria, sensillamentien kredo, sensillotres, sin-son, sinfónia, singanoria/o edo Singapur, subillé, taidso bakue, tentel untzidse, tentelá maria, tollé, tonto arraidsue, tortola bedeinkatie,**

trabeseko paela, trauski mauski, trená, trentrin bakue, trula, txiko fáltaue, txistu bako trena, ur lotue, ur hotzeko sopie, ur txikiko arrasterue, ustela, zuridse, zuringa.

Alkarren antzekuek batzen dirala esateko, **"Taraskan sastarrak batzien dizen moduen, batzien dizela santarrak pe"**, esaten da.

Ganorabakoren bategaitik berba egiterakoan, **"Horren ayuntamientuen,eztauz kontzejal danak "**, **"Zemat tontotzako altxa bide panaderue goizaldien ogidse eitzeko"**, eta antzekoak esaten dira.

Norbait odol bakuen antzagaz eta berbetan be energi gitxikoa ikusten dogunean, **"Horrek arrotzarik pe elekidau apurtuko, eperdi azpidsen imindse"** esaten da. Oiloaren antzekoa dalako.

Zeozer egiterakoan, batabatek lasaiegi hartzen dauanean, **"Zetako hilko dau bidsotza ba ?, "Zetako ernegako dau ba ?**, edo antzekoak diñoguz.

Pertsonca ausarta danean, **"Hauri de potruek okitzie !"**, aldiz alperra bada, **"Hauri de arrotzak okitzie !"** esaten jako.
Batzuk lanean dabiltzala, beste bat egoten badago, **"Zugaz daku guk laguntziño makala!"** edo **"Zugaz askatuko guk Euskal Herridse ¡"**.

Molda bako txakur edo biargiñeri, hitz jokoz **pedro mariano** deitzen jake, itsasorako "perro marino" ez dirala esateko.

LAGUN GITXIKOAK

Arpi garratza, arpei mingotxa, arpei santarra, arpei itzala, arpei txarridse, begikunaz, bekoki illune, burugiñe (berekoia), **erdi frantzesa, errié, esko arin, esnien bitse** (edozegaitik kejaten dana), **gaue, ligorrá, mamaue, mari mustur, maskárie, mats-garratza, munduek itzikue** (rarue), **mustur- ítxidse, nokierokaldo, odol bero** (pellekarako listo dauenari), **otábarra** (ligorrá) **pazentzi, pitxa-rosic, sumurutue, tripérrie, turtúlue, urru búrue.**

txingaué edo **txingau fuétie,**

Esakerak- Norbait hasarratzen danean, **" Hasarratutiek gatx bi dako gero, lelau hasarratutie ta gero lagun eitxie ".**

" Hori da onez apartatekue ! " – Hobeto da horrega bakez ibili

BIARGIÑEK

Fiñe, urre zatidse, urre gorridse, urrie lakue,

berakatsan atala.

GARBITASUNA

Arpikaka. arrikotrápo, japonesan uzkerra, koipien mamárrue,

koipe lustre, koipéstue,

lanbasalakue, maja zalie, perro-txikue, saskela, sarnasto, sastarra, sastoie, sastroie, siri-sarakotxue (jo ta pasa egiten dauena),

ugerdo, urrie baño garbidsaue, ur karo, urrien bitselakue, urrielakue, zantar-magaridse, zantarrosa, zantarrua, zórristue.

Esakerak- Garbitasuna eta sexua, hitz jokoaz nahasturik.

"Mundekan jo dauela tanborra, bakotzak beran aurrie garbitzuteko".

Norbaitetaz, **andra garbidsé** dala diñogunean, garbi zálie dala esan nahi dogu, aldiz, **gizon garbidsé**, jan,edan gitxikoa, erreten ez dauana edo gizon sanoa dala esaten dogu.

BAPEZ MODOSUEK

Asto zatidse, astokillue, frakurrutu, sakillanue, saskela, torpie, aldeano troskille, trauski-mauski.

Beti bardiñe izan danari, **" Asto jaidso ta mando hazi ".**

MOSU EDO BERBA ZALIE

Abogadesie, barrekaritsue, berba lapiko, berbaldune, engañadorie, gangarra, koplosue, lamiñe, lamiñen bizarra, lanbasá, lar jakiñe, min gózo, moso mérke, paristosue, saladie-ue, salamerié, sartená.

HOTZA, BERUE TA URETARAKO ZALETASUNA

Bero bero, hotzakille , izurdie, ur arratoie, ur-txóridse, ur-karo, uren íso.

Baña lana, ura edo beste edozeren aurkakoari, beste modu bitxi batetara ere deitzen jako.

"**Biharran íso**" (alperra)," **uren íso**" (ur karo) edo " **Bermion íso**" (Bermion jaio, kanpoan bizi baña iñoiz ez datorrena, beharbada gitxiegi eritziko jakolako).

Astoa ere, " isó" esanez (azentoa aldatuz), atzez botatzen danez, hortik dator antza gure izakerak adierazteko esakera bitxi hau.

SEXUA

Adarrastue, arperie edo **arpillerie, arponerue, bero-bero, ime lapur, arrain sántarra, atorra kaka, mari mutille** edo **gizon eitzen hasikue, mariketxue** edo **andra eitzen hasikue, sarten bero, uso bero, santarrillie, santarrua.**

Esakerak – Apetitoa eta sexua ikusi dogunez, badago esakera zahar eta adierazgarri bat, biak alkartzen dauzana. " **Jan da jan, kiñe ta kiñe, hau da binboliñetako miñe** ", edo baita " **Ez edateko be sagidsen albuen** ", zeozer atarako dan itxaropena adierazteko.

Sexuari buruzko izakera edo azalpen gehiago, Hil arte bizi / sexuan.

DIRUE TA SUERTIE

Balbie, balekojjan, begiratie, dana barru, dana biharrekotxue, arrapiñie, diru errementeridse, diruen kirrikie, diruen

kukurrukue, esko zabala, etxe kalte, eukitsue, ez beteteko usená, fiñe, jan txakurre, mixolie edo **miskiñie, ondo bízidse, pelénkie, potrosué, sikaterié.**

Esakerak – **Aberatsa** hitza entzuterakoan **"Aberatsa popan atsa, infernuko lebatza".**

Bazter biak antzekoak dirala adierazteko, " **Fin-fiñe ei de, santarran urrengokue".**

Kanpotik diru barik etorrikuri, **"maletie itsosora jjeusitxe etorrikue Amerikatik".**

ARRUEK IZATEZ EDO JAZTEN

Arro kaka , atxa ganeko birjiñie, dándidse, eritzidse, eritzitsue, fota baño arruau, gizon erdi arrue, handi gure, jjentelmana, kaballo ganekue, maja-zalie, mari-arro, undo a /ie, pintxue, pipitxie, postiñerie/ue, txilipitxerue, ur handiko arrañe, zorri bíztue edo **zorri hil biztue.**

"Ezer ez ta zaratie, iñor ez da gerizie" – Dana zaratie, berba ta berba ta ezer ez dauala esaten.

"Non jjeuzi be ez tako ta, zer diño ba ?" – Miskiñie izan arren, harrokerietan dabilena

"Badeitso beran bururi" – Arroa, beran burua handitzat daukana

UMEAK ETA GAZTEAK

Alajie, ama perrien imie, ama txitxien imie, ama putien imie, ama txitxien imie, ama zulo, andra-andratxue, aurre etorridsé, barrabaná, barrabasá, barrabasan hankilakue, biríkidse, diputaue, domabakué, elemento argidse, enbeléjue, éraiñe, esan onekue, esan txarrekue, gazte ezan bako zarra, gizon-gizontxue, gosue, ime beterrie , ime demoniñué, ime letxie, ime lupué, ime madarikatue, ime mantarra, ime mokue, ime pendejue, ime potozórridse, ime zentéllie, ime tristie, ime urtena, intsentsue (pélmie),

lamiñé, lamiñén bizarra, lar-jákiñe,

misketue edo **miskindo, ondo hazidse, patatxá** (trebea, bizkorra), **pustillie, sartená, zentellíe, zentélle-barrabasá, tabardíllie, tanboliñe , tarrabalderue, tirri-tirridse, txarto ikasidse, urtená, zarkillie, ziriñé.**

Esakerak – Umeren bat pelmadie emoten dauenean, orain arte **"Jjuen amumañe eta esan hiru pesetako tardantzie emoteko"** , antziñan **" hiru txikidsen tardantzie"**, oraindik gora beharbada, **" euro erdiko tardantzie emoteko"** esan beharko dogu.

LOTSIE, NAHASTIE ETA BESTE BATZUK

Abogadesie, afrontue, exajeras, arpi gogorrekue, arpi handidse, arpi lodidse, arpi bikue, ago handidse, ariñ-ariñ, arrañe, atxapeko txarrue, auen bolo, azaleko arrañe, babastue, baezpadakue, barre faltso, batun batun, buru áriñe, buru gógorra, burutóie, deseo txarrekue, domabakué, ekando txarrekue (kostunbre txarrekue), **emblémie, entzun txarrekue, eperdi karie, erríe, erromerúe, esko áriñe, espitxie, fardela, farrasá, fratzesa, freno bako bizikletie, geiztonie, geiztue, guzurren abídsie, guzurren amá, guzurren enplástue, guzurren handiko mándie, guzurren abídsie, guzurren kamárie, guzurren kikirríki, guzurren kirríkidse, guzurren kukurrúku,**

guzurrén mamárrue,

hiru txikiko fuetie baño ariñaue, intzéntsue, ispítxie, kaka pírridse, kanpo éder, karta fáltso, kaza txákurre, krientzá bakue, kondeziño txarrekue, Kurtzioko txiliñe, lar jákiñe, lotsa bakué, lotsa biztekué, lotsa txarrekué, lotsa geistukué, lotsa galdué, lótsorra, maldizientie, mari fándero, mari mandónie, mari mútil,

mari pótro, mari kákie , marraísue, maskárie, matarrásie, matarráskie, mi,mi,mi, mísi mísi, miskíllie, jjíritxu agurie, monjákidse, muxarrá, naskíllie, nasterie, non zer barri, okasíntie, okasínte mamarraue, pallásue, papaúa, pápaue, papel bakue, pendoié, pendónie, pepíñue, perejillé, piperrá, pírridse, popa áriñe, popáize, puntxetá (beti berak errozoie), **saltsa guztidsetako perejillé, Santo gustidsen kandélie, sarjentónie, sartená, sínsona, somatená, sorgiñé, zorónga/ue, Taraskien arpídune, temósue/ie, tertza fáltso, tripérrie, txakurrek popatik eñikué** (txarra), **txarto pentsáue, txingaué, txikiko fuetie baño aríñaue, usúsue, zazpi suétas.**

Esakera – **"Bat ariñe ta bestie andanadaz"**- Biak antzekoak

Bokartak jan badoguz esaterako, baña bakar bat geratu bada jan barik, "**Akaba hori lotsabakue !**" esango deuskue, baña ez esateko lotsabakue garala, halan azkenari deitsuten jakolako baizik.

Norbaitek guzurre esan badeusku, gerorantzean gugaz gehiago ez kontatzeko esateko, "**Niri itxaroten bazauz, guzurrek errementako tsu**" esaten deutsagu.

Esakerak – Azpi jokoa edo txarra isillean egiten danean. " **Tomasak emoten dauela lanbasagaz eta Xixilik isisilik".**

Izakerea bera aipatu barik ere, esaten da "**jente modue",** geure gustokue ez danean, **"Halako jente modurik".**

Guzur asko esaten dauanagaitik, " **Guzurre egidse lez"** edo "**Guzurre egidsen beste"** esaten dauala, eta baita **"Guzurreri jjeusten be etso itzitzen"** esaten da.

KALE ZALEAK

Fandangerie, gaueko txoridse, ibiltsune, Mari urten, kalinpan, parrandien kukurrúku,

Madalenak kantie > ENTZUN



parrándien ugt, parrándien ugérie, kále-kále, eta baita **Kosepa kále-kále** edo **Teodora Laparránda** ere , ezizenak izan arren, oso erabiliak dira izakera moduan.

Kale zalea, etxean nekez topaten dala esateko, **"Felísia ezu topaten etxien, farolagaz bez".** Beheko solairuan edo "planta bajatan" jaio danagaitik, **" Kalien jaidso ta kalien bizi ",** esaten da. Jai guztietan ibiltzen danari, **" Non jjaidse han isterra ¡ ".**

Parrandara doanari, **"Ondo ibilli, gitxi gasta ta bueltak etxera "** eta atzo parrandan ibili danari, **"Gauien ibilli, goizien agiri",** esaten jako

IZAKERA ONEKUEK

Artesa, arto amasie, Hatzamar bategaz eruteko modukue, koitxadue, ganorazkue, bidsotz onekue, destrosue (katxondue), estidselakue, gizajue, itsosupeteko pertsonie, Jaingoikuen katue, kanta kláro (gauzak argi eta aurpegira esaten dauana) **kunplesito** (modosue), **kelmeriñotxue** (koitxadue), **kunplimento bakue, lanosie** (saladie),

legoié, legoien azalá,

undo bakue, monjakidse, ogi zatidse, ogidselako gizona, ososoko santue, ostidselako morroie, txar bakue, saladie, salaue, zintsue...

Pertsona izatez gozoegia, labana, fiñegia danean, **baresárie lakue** da.
Ikusi >>> **BARESÁRIE (Baresarea)**

Esakerak- **"Oneidseri. Txise eitzen tsoie burutik bera".**
"Ai zuuu !, zuelakue bat egon zan, ta bera katuek jan zauen ! "

BESTE IZAKERA BATZUK

Beti gauza bardinak esaten edo beti modu berean jantzita dabilenari, **betibát** edo **Elias betibát**.

Txar guztidsek pegaten jakonari, **miskíllie**, Beti andreak diñoana egiten dauana, **andrápekue,** Suerte txarrekoari, **argi bako maripósie**, Azkarra, ariña dana, **ezpadiñé,** Gaztetasunik izan ez dauenari, **gaztie ezan bako zarrá**, Atziñeko modura pentsatzen edo bizi dana, **Atziñeko undo eskólakue,** Ganora eskasa eta umekerietan dabilena, **Santa infánsia,** Bizkorra dana, **artázidse.**

TXORIEN IZENAK ETA PERTSONEN IZAKERAK

Txori batzuen izenak eta izakerak kontuan harturik, pertsonei ere esaten jake haren izenak, adibidez:

BRAIE –Itsu mendidsen dabillenari, halan ibiltzen bait da txori hori.

TIRRI TIRRIDSE- Eraiñe, lotuten ez dana.

MARI KÁKIE - Pelmic, berak nahi dauana lortu arte lotzen ez dana. Txori hau txirleten atzetik ibiltzen da, harek auen daroena bota arte, gero berak jateko.

JJÍRIÑE – Azkarra, ziriñé.

USUSUE - Leko danatan burue sartzen dauanari, non zer barri dabillenari.

ELIZE TXÓRIDSE - Elizen sartute bizi danari.

TORRA-TXÓRIDSE edo **ERROIDSE** – Abadie

EPERDIKARIE - Ziriñé, popa ariñe.

KÓFRIE - Ariñegi jaten dauanari. **>> IKUSI**

LAPA TXÓRIDSE - Lapa zalie.

TXORI ERRESÁLAUE – Bere asmoak igartzen jakon pertsonea

EZIZENAK

Amali bedinkatie, Apala, Arruenekue, Baba lora, Barrabana, Berba lapiko, Bertanbera, Biargin, Bietz guzur, Bizkorra, Bizimodu, Don importante, Epela, Hemeretzi txakur da erdiko arpidse, Txartxarra, Kanpo eder, Kariñoso, Karta faltso, Korason de hierro, Traste iñusente, Triperre, Zazpi sueta, No kiero mariñero, Manu arrotxu, Demikuko markesie, Don importante. ....

Barreka zatitsu

Askotan esaten da, usabak ez dauala izaten errurik, erruek beti izaten dira besteenak. Horren adibide argia, antzineko patroien esanak.

"Mille arru bokart atrapa dot" -**"Enbarka dot, seirehun kintxel atun"**

"Felix mutuek (helizek) **atrapa txoie artie"** **"Enbarranka ein dsauie"**

Anbrikis kantie > ENTZUN

Hil arte bizi

- Jan
- Kantak
- Edan
- Kantak
- Erre
- Kumunera
- Lotara
- Sexua

Joseba Barrenetxean argazkia

Jan da jan

Bero, epel edo hotz, gozo, garratz edo mingots

Gizaki guztiontzat, eguneroko zereginik garrantzitsuenetarikoa jateko ordua bada ere, batzuk zoritxarrez egunero ogi barik, beste batzuk larregi daukagun artean. Horregaitik edo ogi zatiak sastarratara botatzeak ere pena emoten deusku, hori dala ta mosue emonda botatzen dogu. Baña artikulu honetan, gure Bermion eta jateko orduan doguzan beste ohiturei edo esakerei errepasoa emon nahi deutset.

Jaten hasi orduko, " **Probetxo on bat", "On egin janak eta edanak gatxik ez** " edo **"On egin"** esaten dogu. Nahiz eta azken hau, jan ondoren **grokadie** entzutean be esaten dogun.

Probetxo berbeak beste erabilera bat ere badauka. Pertsonaren batek ez deuskula laguntzarik edo aukerarik, emoten, berarekin ez dogula probetxurik esaten dogu, "**Horregaz ez taku probetxurik**".

Bardin zentzuan, **"Adu onerako eta suberta onerako"**, adu edo zoriontasuna eskatzeko.

Estomangue zarataka hasten dancan, **gosekíltzen, gosigaz bidsortute, gosigaz jjosítxe, gosigaz urrutute, gosigaz enbaltxámata, gosigaz nokau eindse, gosigaz okertute,** eta abar diñogu, baita **"Astunak pe albardata jjango lekidotaz", "Jango lekidot Tribis da Enpare", "Katuek dakotaz aldárrike estománguen"** eta itsosugaz zer ikusi daukien modu batzuk ere badaukaguz noski, **"Gosie dakot brageratararte"** (kaeletik-kaelera), **"Arkadak pe apurtute dakotaz gosigaz", "Gosie dakot paelik pael"** (paeletik paelera edo mandarik mandara) eta baita **"Gosie dakot bidsorko la marina", "Gosie dakot trasbal"** edo **"Gosie dakot zubanket"** (batek taki nondik datozen azken honeek).

"Arrausi luzie, loguré edo gosié"

Batek - " **Baguez emoten dauiena jaten"**
Besteak – " **Ez badauie emoten, jan barik ohire** "

Batek - **"Baguez dauena jaten"**
Besteak – **" Ez tauena saltxa berdien "** (saltxa berdie hutsik be gozo)

Norbait jatune danien, **apetitue, entramie** edo **sakie** dakola diñogu. Esakerak - **"Horrek jan, konozimiento barik"**, **"Jaten dau, iñondik dizenak"**, **"Horren usená beteteko asko bide"** edo **"Horrek, agié be jango lekidau"**. Jan da jan dabilenagaitik, **papo bidsetatik jaten** dabilela diñogu, berari **Jan koño !** esanez.

Asko jateaz gain, arin jaten badauen **"Kofrie lez jaten dau"** diñogu, korridsen jaten dauan itsasoko txoridse lez. Halan jan ezkero, **okerreko samatik** (umeari **Kusún**) joateko arriskuan gagoz, grazidse, ze benetako samatik joan ezkero, orduen itxoten jarriko lekigara.

Odola emoteko gagozanean, jan barik**, baraurik** edo **barauten** egon behar izaten gara eta beste batzutan, gorputzen ondo ezaren **ondorioz,** jateko gogo barik gagoz edo **jan-jan barik** ibiltzen gara. Baie normalean jan gitxikoak bagara, **jan bako, jakana, jan gangarra, mikie** edo **míkue** garala esango deuskue. Aldiz asko jatekoak bagara, **jan onekue, jan askatan, jandun, jatune, tragarroie** edo **lau tripiano. Asko ta arin** jaten badogu, **kofrie gara,** jateko onak bakarrik jaten badogu**, tripe zuri**, eta gozoak gogoko badogu**, gozo jjale.**

Esakera -Zeozer txarto urteten jakunean, **"Hauri, patata prijidukaz** !".

Jan bidsotza, neska handidse eitzeko !

Gozez gabiltzanean eta norbaitek galdetzen deuskunean **Nora zuez ba ?, Emoten badauie jaten !** , erantzuten dogu.

Baie noski, gogoagaz ez da nahiko eta norbaitek jateko, besteren batek prestatu beharko dau jatekoa. Hori adierazten dauan esakerea ere badago ; **"Nok ein badau, nok jan badau".**

Herri abestia – **"Erramuneke, erramuneke, astuen potruek jango neuke".**

Norbaitek jateko ikustean gogo handia dauanean, baña gero ez dauala askorik jaten, **begidsekaz** jaten dauala esaten da.

Bermion ezkatzari, **Suétie** ere deitzen jako eta aintziñako tellapeetan etxeko ateak irekita egoten ziranez, arin jakiten zan zer eukien jateko, bestela **"sueta ganien katue"** edo **"txapien ganien katue"** esanez, argi egoan etxe haretan ez zegoala jatekorik. Behar bada gaur egunean hobeto esan beharko geunke **"bitruen ganien txakurre"**, (gaur egungo etxeetan, katuek eta txapie baño txakurrek eta bitrozeramikie ikustea errezago diralako).

Bazkal ordua edo afari aurrean zeozer piketen badogu, normalean **Gozo !** esaten dogu, baña besteek **Gozo ta gose !,** edo **Ordue makala !** esaten deuskue, sasoi horretan normalena gosea eukitea dala esateko. Ordua heldu ezkero beti gosez ibiltzen garala esateko, badago esakera bat, **" Hamabidsetan, platerera begire begi bidsek".**

Bazkaria adierazteko, **bazkaidse** edo **bezkaidse**, **jatorduc**, **jatekue** edo **eguerdidse** be, erabiltzen dira, baserri ingururokak edo kaletarrak garen arabera.

Uruné eralgí

Káfie eidsóteko errotié

Indsábak beratúten

Esakera bitxia – **"Saludo prijidue ein dsost berak !"** (saludo nagósidse)

Saldie da jatekoetatik urtsuena, baie ha ta guzti be ondo egin ezkero gauza ederra da zanga-zanga edateko, horrela ez bada, **"Bertute barik"** (gustu barik) edo **"Onure barik"** (sustantzi barik) dagoala diñogu, onurie eukitzeko pastillek baño beste zerbait gehiago bota behar jakolako.

Esakera **" Sopie ta ezkontzie, berotan "**

Pasadiso barregarri bat , taberan dagoan lagun batek zera irakurten dau **Hay caldo !** ta alboan egoan mutil laguneri diñotso, **"Kaldo danak paño hobeto, katillo salda bat".**

Lapiko, **tartera** edo **kasule** tartean ibiltzen danari, **"Uso kosiñera, begidsek erreta"** esaten deutsagu. Suegaz dabillena erreten da, ibilli dabillenari gertatzen jako, beti.

Kosiñeriek eskuek sikatuteko erabiltzen dauan trapue, **esko-trápue** esaten jako eta ezkatza garbitsuteko erabiltzen dauan trapo buztiari, **harriko-trapué**. Hori dala ta, **kapaz ez tan moduen** edo **ondo ezagaz** gagozanean, **harriko-trapulez** gabiltzala diñogu.

Ezkatzeko platerak (**azalak** eta **sakonak**) eta abar garbitzeari, **harrikue eitzie** esaten jako eta **harridsé** tokiari (antzinakoak harrizkoak ziralako).

Harrikué eitzen

Platerak jalgítzen

Antzinan ezkatzeko tresnak arraskateko, **estérie** (espartuzko estropajue) egoten zan. Beno, ezkatzeko tresnak, biringánie, eskilarak eta etxeko umeen belaun-búruek garbitsu edo arraskateko be bai.

Jatekoa egiten ari danean heltzen bagara, sarritan zera esaten deuskue **"Ikusi zelan dauen gazi-gazán"**, egia esan ni ez naiz oso ona igartzen, nire betaurrekoekin ez bait dot lar ondo ikusten.

Janariak gatz gehiegi daukanean, **gazí** dagoela esaten badogu, gatz gitxiegi daukanean, erderazko soso, **gazá** edo **liké** be esaten dogu. **"Okelie liké asmaten dot".**

Umeak eta gazteak ardure barik bizi dirala esateko, nagusiek **"Ez takoie gatzan ardurerik"** esaten dabe.

Zeozer txiki-txiki eginda bota behar danean lapikora, **ze-ze, ze-ze** eginda bota behar dala esaten da, hori sukaldaria **tartanie** edo **berba-hartue** ez pada, ze ostantzien, lapikue be erreko da horrenbeste zezeogaz.

Esakera - Pazentzidse! eskatzeko baña esan barik
" Intsentsue, berakatza ta porrue ! ".

Badagoz jatekoak, **eiñ ariñ, gitxi eindse**, **sutérik hará** edo **ein barrí** jan beharrekoak, sikatu barik, adibidez arrañe edo okelie eta beste batzuk, **lapikokue lez, eitzen-eitzen, pil-pil, loditzuten** edo **gardostuten** egon behar izaten dabenak. Esnea berotu ta gero hotzitzean, natie egiten jakon moduan, esnea ez dan beste janari edo saltxei hotzitzean egiten jaken azaltxoari, **terrié** deitzen jako.

Arrotzak iribídse

Patatak zuritsú

Txokolatie erain

Mahaian ipinitakoa ez danean norbaiten gustokoa, **"El que no quiere makallo saltxa, atie igiri tse kanpora martxa"** entzun beharko dau, aldiz, jan doguna gozo egon bada, **"hille biztuteko moduen"** egon dala diñogu.

Gaur egungo eta antziñako patatak ez dira bardinak, ze lehen egoera txarragoa zanez, patata hutsek ipintzen ziran saltxan, **patata alargunek** deitzen jaken, gaur egungo patatak zemakure lagun daukie lez, ez dira iñoiz alarguntzen.

Bizitzeko ezin bestekoa da jatea, jakina, baie hiltzerakoan ere elkartzen dira bizia (hobeto esanda heriotza eta jana). Batabat gazte-gaztetan hiltzen danean, **"Gordin-gordinik jjun da", "Pertsonie gordin egon dana"** edo antzekoa esaten dogu.

Esakera – **"Patatak arroskuen eta okelak barruen"**. Patatak buelta-bueltaka, iñok kuzik eta okelak sabelien.

Umeek gehienetan arazoak izaten dabe etxeko jatekoagaz, misketúte dauzkagulako, baina etxetik kanpo ez dabe arazorik izaten. Hori dala ta, **"Imientzat alboko ogidsé be gozúaue"** esaten dogu. Nahiz eta okindegi bardinean erositakoa izan.

Jatekoa eta pertsonea alkarten dauan esakereak, gizon nagusia tximurrez beteta izaten dala diño, **"agure maspasie"** (mahatspasa).

Gurean dalia lorei, **papata lorié** deitzen jako.

Arin ernegaten paraten danari, **"Patata prijiduen keie zara la ? "** esaten deutsagu. Eta besteak esandakoaz, gu bagara ernegaten paraten garanak, "Bai zera ! " zentzunean, **"Boluek saltxan"** edo **"Potruek saltxan "** esaten deutsagu.

Aldiz, gauzak ondo doazenean, **"Hau bada gerrie, benga okela errie"** esaten dogu.

Bizitzan gauzak gitxika-gitxika hartu behar dirala, gero hobeto joateko, **"Lelau jan bidiez asúnek, gero jateko lasúnek",** esaten dogu.

Gaur egun modan badagozan ere, barazkiak edo berdurek, ez ziran lehen gehiegi jaten, hori baieztatzeko sarritan entzun dogun esakera, " **Berdurek, tripien ibilli edo lepuen ibilli, bardin".**

Ganorabakoren bategaitik berba egiterakoan, **"Zemat tontotzako altxa bide panaderue goizaldien ogidse eitzeko", "Tontuaue da ...., armosue jan orduko ta gero egun guztidsen"** edo antzekoak esaten dira.

Kirrí-kirrí

Kuskurré



Ogi-mámiñe

Ogidse jateko, batzuk **zuri-zuri** nahiago dabe, beste batzuk **kirrí-kirrí** eta beste batzuk okasiñue atarako lekidauie **azala**gaitzik, **ogi-mamiñe**gaitzik edo baitxe **kuskurre**gaitzik.

Gaur egun **ogi-gáztaie** entzutean, askok pentsatuko dabe gaztai ogitartekoaz gabiltzala, ez ogi-gaztaia ia ahaztuta dogun piztia (erd comadreja) dogu. Bardin **menbríllue** entzutean, kontuz beharbada, ez da gaztaiegaz jateko, nopaitxek atzamarra belarrietan daualako baño.

Dana dala, pertsonca jatekoaren aurrean alaitu egiten da, esakcreak ere badiño, **" Aue dabillenien , tripie poz ".**

Erosketak ere egin behar izaten dira eta bakoitzak daki bere neurria, nahiz eta ondorengo esaldi honcetan, neurria galduta egon, **"Zatike ta potrike ibil barik, imiñi hiru txakurren kafie ta lau txakurren azukarie"** edo **"Zatike ta potrike ibil barik, iminstazu liber lauren okela",** gero igual kalien esateko okelien pasiñugaz beteta dagoela.

Kazulen liber lauren ipini ezkero, ezin atara kilo bi, hori halan dala esateko, esakera polit bat, **" Papelien eta platerien, imintzen dana etorten da".**

Estérie

Lanbasá

Eguraldi txarra dagoela esateko, **" Egualdidse dau, amañarraban konture jan eta alabigaz lo eitzeko modukue "** edo **" Egualdidse jan da**

lo ". Behar bada egun horretan asko jan badogu beste hau, **" Jan da jan, kiñe ta kiñe, hau da binboliñetako miñe ".**

Ondorengoa, behar bada aintziñan gertatutako pasadiso baten ondorioz sortutako esakerea da. Norbaitek zeozegaitik **"Ay que lio"** badiño, besteak erantzun gisa esaten deutso **"Ay que lio Juan Mantxuek, katuek jan tsonien txorisuek".** Katuek ez dakit, baie gaur egungo etxeetako txakurrek, txorisuek baño zeozer gehiago jaten dabe, bestela gure kaleetara begiratzea besterik ez dago.

Esakeriek be badiño, **"Enero, Febrero, Marzo, Abril, txakurren tutue ondo dabil" , " txakurren popie arin dabil "** baita **"txakurren buztena abil-abil " edo " txakurren buztena arin-arin",** azken honeek txakurrak kaka edo txisa eginda doanean.

Tripe txárridse beti dauelez prest, jarraitu daigun jatekoaren inguruko gure ohiturek eta esakerak errepasatzen, **silbotá urten** edo **erreménta** arte. Lodi dagoen norbaitetaz besteren batek esaten badau, **"Ez dau askorik jaten "**, zera erantzuten dogu, **"Jan bako lodirik ez tau !"** edo **"Jan barik ez tau lodirik !".**

Bokartak jan badoguz esaterako, baña bakar bat geratu bada jan barik, **"Akaba hori lotsabakue !"** esango deuskue, baña ez esateko lotsabakue garala, halan azkenari deitsuten jakolako baizik.

Mahaian jaten gagozanean hasarratzen bagara, añen bat esaterakoan, **"Mahai Santue apartata"** luzatzen jako, Jaingoikoak emondako janariak errespetatuz.

Jatekoa prestatzeari edo baita jateari berari **tripeko mandamientuctan** ibiltzea esaten jako.

Itsosuen, **baltzótik** (kazule edo tartera beretik) jaten hasteko eta errezaten denpora larrei galdu barik, gure arrantzaleek, **Á Jesus!, Á Jesus mutillek !** edo **Á Jesus y kruses !** esaten dabe. Jesus ez ezik, Santuek eta jatekoa batzen dauan esakerea be badogu. Elizen sartunde edo elize bidekue izan, eta gero kalean gaiztoa, maltzurra edo egozkorra danagaitik, **"Santuek jjaten da gero...."** esaten dogu.

Batzuei kostatu egiten jake konturatzea beste batzukaz jaten dagozala, eta ariñegi jaten dabiltzanari, **Txo, txanpie trankillau gero !,** esaten jake. Beran partie baño geidsau jan dauenak, honako hau entzun beharko dau, **"Txo, zeure prorratibue baño geidsau janzu gero ! ".**

Gero kazulen egon dan jakia amaitu danean, hondakiñek sopaten hasteko ere beste dei bat dago, **Erríe batela !** . Lehen korrika ibili danak, orain ere bestiek baño arinago esango daualarik, **Erríe lei batela ?.** Nori ez guste ogi zati bat hartu ta **maute-maute** ibiltzie.
Janari zatitxoak, esate baterako atun, okela, tximiñoien zatxitxoei, **tátuek** edo **tátutxuek** esaten jake, baita karnada tatutxuek esaten da.

Lotan egon dan batek badiño -**Ez tau jatekorik ?,** gauza bi batera egitea ezinezkoa dala adierazteko, **"Lué eta akulié ezin dse"** esaten jako, (akulie arrain mota bat).

Antziñan gizonek tabernara **"jakidse"** eroaten eben, hamaiketako modure jateko. Gero tabernariak jaki hori prestatzeagaitik zeozer kobratzen eutsien, **"imintzaidsé"** . Horrela entzuten ziralarik, **" Itsukidsen imintzaidsegaitxik lau peseta".**

Jateko orduan, berandu datorrenak ez dau gauza handirik topaten, hori adierazteko badaukagu esakera bitxi bat, **"Berandu datorrenantzat, amúskirik pez"** (karnadarik pez), amue txupe ta konforme egon behar.

Aratuztitako tostadak, modu bitara egiten dira, ogiarekin **fotezkuek** (fotá antzinako ogi bat) eta urunegaz **aidsezkuek**.
Antzinako ogi batzuen izenak aipatzean, **Rítxie**, **gallófie**, **plamítxie**, **Fotá** eta **pistolie**, badirudi bakeroen pelikulen baten izena dala.

Asko ta ondo jan dogunean, **banketá, jan torpie, ápatxa, móndsorra** edo **atrakáldidse** euki dogula diñogu. Antziñan atablie euki dogula esaten bazan, gaur egun, **majo jan, elegante jan, erregilez** edo **ostidse lez** jan dogula esaten dogu. Jatekue **jan da lo** edo **itsosupetekulez** egon bada, **pepe lez, pepe eindse, atrakaldidsegaz, betekadigaz, betetasunegaz, astuntasunegaz, kartolataraiño** edo **artiek hartun eziñik** geratuten garala esaten da.

Ardsué (sagarran eta madaidsen arrá)

Allié (frutuen buztena)

Sagarran **muskillé**



Sagarra laurendute. **Laurendú** – lau zati egin.

Erdibitsúte

Sagar mota asko dagoz, **madari-sagarra, limoi-sagarra, kának, erreinetak, San pedro sagarrak, sagar-gasíe, góldena**,.e.a.. Madaidsetan, **gabon-mádaidse, orandíllie, kutxíllo-mádaidse** (conferencia), **agustú-mádaidse**, **makatsá**, e.a.

Frutuen hazurrei **pizkázurre** esaten jake. Antzinan mutillek, albertxíkuen hazurrekaz olgetan ibiltzen giñan. Kaleetan, kolarren aurrean egoten ziran zulotxoetan, hatzamarrekaz bota eta zuluen sartzen zan jokoa. Pizkázurre bchengainean gasta, zulotxoa egin ta hazidse kenduta, txístue egiteko erabiltzen gendun.



Popako hazurreri be **pizkakázurre** esaten jako. Denpora luzean jesarrita egon bagara, "Pizkázurreko miñe be eindse dakot" esaten dogu.

Esakera bitxi batez ere azaltzen dogu ederto geratu garala, **"Jan du erregilez, berak txarridsek jan badau geurelez"**. Jan da gero, daukagun ondocza ez bada janagaitik, **"Ez ta lar jana, tenplamentu zantarrana baño"** esaten dogu.

Batek uzkerra bota, ta besteak **"Arrastro!"** diñotso, tute karta jokoa gogoratuz, huts egin duela esanez edo.

Sarritan, ondo jan ondoren, **"Han ! , jan da gero, kamarako atie igiri de !"** (uzkerra), esakerie entzuten da. Nik uste dot kazulie kamarara eruteko ezango dala. Kamarako atie ez ezik, gchiago be egin bcharrean izaten gara, orduan, **"Kaltxak errieten"** edo **"Gonbisetako apaijjue errieten"** goazela diñogu.

Beste batzuetan, lar janak **Bihotz érrie** eta **bókako** edo **bihotz-kollárako** mina dakarkigu, horrelakoetan ondo jan badogu ere, arpi garratza jartzen jaku. Estomanguko ondo ezá dogunean, baina ez gehiegi jan dogulako, **"Ez ta lar jana, barruko tenplamento santarra baño !".**

Esakera- **Auko ogidse lez** – Derrigorrez, nahi ta ez.

"Derrigorrez auko ogidse lez bidu etxe handidsaue, ez gara sartzien seirok eta".

Askotan, jan da gero, hotza sentitzen dogu, orduan **"Euskaldun ona, jan da hotz"** esaten da. Halan balitz, neguen danak euskaldunek.

Jan da gero, umeei ulie hartziko, zera egiten da. Ukubillegaz euren bekokian jo ta, **Zer jan zu ?** galdetu, berak ez deuskunez ezer esango, eta guk badakigu lez zer jan dauan, gure ukubila usindu ta zer jan dauan esaten deutsagu, umea harrituta utziz.

Bidsar zer jango zuie ba ? -galderari **Gogue arrain !** erantzuten dogu, bidsar ikusi gogue esateko.

Lebatza entzuterakoan ere, ondorengo erantzuna emoten dogu, **"Lebatza, para la gente aberatsa, da atune, para la gente komune".**

Jose ! entzutean, **"Jose, jan da beti gose, edan da beti egarri, Jose beti baragarri ! "** erantzuten da.

Akabo ! entzutean, **"Akabose Martin gose, beti jan da beti gose ¡ "**, erantzuten da.

Amandrongillek entzutean, **"Amandrongillek eta potrorroskillek"** edo **"Amanak barik aitxenak ezango diez"** esaten da.

Que dices ? galdetzen euskunean, txantxetan, **"Kerises en mayo ! "** erantzuten dogu.

Lehen baporatan arrañe erreteko, **ogalá** erabiltzen zan, kubertan egoten zan kasetatxoa.

Arrantzaleek flana ikusten dabenean, **Ondarrun flanari, dardarak**, esaten dabe.

Sasoi baten bulego berean lan egiten eben epailea eta notarioa, euren gustoen arabera, **"Egarriaga"** eta **"Goseaga"** ezizenez ezagunagoak ziran .

ARTUÉ -

Arto-búruek

Artué

Arto-gárauek

Antzinan artoak garrantzi handia zeukan gure herrietan, ze dana aprobetxatzen zan. **Arto-úrunegaz, taloak, labártoa** (labásuen egindako talo txikia ta lodia,) edo **morokillé** (talo-amásie egositze) jatekoak egiten baziran, **burutzié** (arto-búrue garandute) sutera botatzen zan. Arto-urune oiloei, txarriei eta beidsei be emoten jaken, beste zeozegaz nahastata.

Baserrietako **labásue**, kanpokaldean egoten zan eta egurrez berotzen zan. Arto-gárauek urunduteko, errotara eroaten ziran eidsóteko. Arto-úrune kaixatan gordetzen zan eta haizetu barik, soinean kaltzetin zuridsekaz ipini ta zapaldu egiten zan. Epe laburrean erabiltzeko uruné, **azpírie** izeneko armairu batetan gordetzen zan, amasie be berta egiten zalarik.

Arto-búrue kendute gero, landare osoa, **lastáana** (goikaldea), **lastué** (behekaldea) edo **arta-berdié** (arto-buru gaztea eta biguna) ganaduari jaten emoten jakon. Arto-gárauek, urune egiteko ez ezik baita oiloei jaten emoteko.

Errotié

Labié (izandakoa)



Arto-txóridse

Arto-buruen inguruan daukan orridseri, **Garafié, garáfak** edo **zapié** deitzen jako. Fumeteko papel barik geratu eskero, **garáfak** sikatute erabiltzen ziran eta tabakorik ez egoanean **arto-bízarrak** be erre egiten ziran.
Arto-bízarrak, osasun kontuetan be erabiltzen ziran. Txisá egin ezinik ibili eskero, arto-bízarrak egosi ta haren ura edaten zan, txisá eragiteko.

Norbaitek esan deuskuna, ez ulertuteko moduan esan dauala esateko, " **Al frantzez, al ingles, artué ta berákatsa jan gurez** ".

San Juan bezperan, Mañuko baserrietan ere sua egiten zan gauza zaharrak erretzeko, eta bertakoak abestitxo bat kantatzen eben;

"San Juan, San Juan bagillien, denpora ederrien, sugoiek eta sapuek erre, garidsek eta artuek kaixan gorde", eta jarraian zantzue botaten zan. Baserri danak egiten ebenez bardina, ikustekoa eta entzutekoa zan auzo guztian sortzen zan giroa.

Baserrietan lastúek, bedarrak eta abar gordetzen dan lekuari, **lastátidse** (lastategia) deitzen jako.

Umetan erropa gantzuekaz pistolatxu bat egiten gendun, gantzuek eta **arto-garauek** be perdigoi modura erabiltzen genduzalarik. Ikusi >>>Pistólie
Arto-amasie edo **arto-sopié** – Pertsona ona, lasaia, odol bakue.
Arta-burue – Kokoloa, argi gitxikoa.
Arto-txóridse – Hormatxori, kurloi. (Erd. Gorrión).
Lastórridse – Korbatie. Ikusi korbatien beste izen batzuk. **Klik**
Hau dok upiñe, talo burdiñe – Upiñe amaitsurerakoan.

Lastué

Arrantzaleek artoaren orriari, lastúe deitzen deutsie. Antzinan atunetan amúde modura, lastuek jartzen ziran. **Lasto gordiñé**, lastue dagoen dagoenean, eta **lejietako lastué,** áskatan lejiagaz zuritsutakoa. Lastuek **arráspie**gaz (egur zatia edo kortxo bat orrotzakaz) haritzuten ziran. Gordiñe barrutik jartzen zan ilunagoa zalako eta lejiatakue zuriagoa zanez kanpotik, eta amuen zintze gorridse be jartzen zan. Horrela amudiék emoten eban itxureak, atune erakartzen eban, amorrotza edo zeozer bizia zalakoan.

>> IKUSI

Lejietako lastué ule oridunei be esaten jako (ezizena be baegoan), eta baita arin ernegaten dauanari .

Gure baporetan katreko koltxoieri, **kamañé** edo **lastamárrie** (antziñan lasto orridsekaz eginda zalako) deitzen jake, hori dala ta, lo asko egiten dauanari **"Lastamárriek edo kamañék paño lo geidsau"** egiten dauala be diñotsagu.

Urrengo kantien talué agertzen bada be, ez dauka jatekoekaz zer ikusirik. **"Madalen busturiko, amari negarrez, amental barri barik, ezkonduko danentz, amental gorriak pe, erdian zulué, handik ikusten jatso, erdiko talué".**

EZIZENAK

Afai apur, Aikáfe, Akatzeko arrotzie, Altxa porru, Anjela txoríso, Aporgarbantxos, Arroskonletxe, Asa lapur, Berakatsa, Binagres, Dungulu, Haiziek mantenidukue, Hermanas bocadillo, Josepa talo, Juan patatas, Kasulas, Kinpule papu, Komer debalde, Lapikotxu, Lebatz jale, Maskomieras, Mis alubias, Ogi kóskor, Okela fresko, Okela mérke, Ollo baltza, Pan jale, Saltxa gózo, Solómo, Txokolate. .....

La Flor" baporekuek kubertan jaten Sananderen (1953-1954)

Bermio munduan eta jateko orduan

Gure herriko arrainak eta kontserbak munduan ezagunak dirala gauza jakina da, baina Bermeo izena ere, gure herritik kanpo eta jateko orduan, guk pentsaten doguna baño ezagunagoa da.

Errezeta arloan, **Bokartak Bermeoko erara, Beseue Bermeo erara, Marmitako Bermeo erara, Hegaluzea Bermeo erara, Lebatza Bermeo erara** edo **Karakolak Bermeotar erara,** sarritan entzun badogu, **Makailua Bermeo erara, Rodabailua Bermeo erara, Arrain sopa Bermeo erara, Bermeoko txangurroa, Entsalada Bermeo,** e.a., ez dira guretzat hain ezagunak, eta ondiño gitxiago, **Fetuccini Bermeo – Fetuccini pasta, lebatzagaz, Filetea Bermeo erara Mexiko D.F.ean** edo **Merua Bermeo erara (Venezuelako errezeta)** esate baterako.

Liburuen artean, "**La cocina Bermeana**", Akordako Katalina Azpiri Lamikizek 1951 urtean, Gaubeka argitaletxean argitaratuko liburutxoa. Bertan geure geureak diran, "**Tximiñoyek**", "**Lapa-Saltza**" , "**Anpurrek**" eta "**Marmitxe**" agertzen dira, eta baita gaur egun ahaztutako "**Enpanadak**" eta "**Saltza- gorriko Sardiñek**".

Jatetxeen izenetan be agertzen da gure herria, besteak beste, **Resturante Bermeo Hotel Ercilla Bilbon, Restaurante Bermeo Zahara de los Atunes Cadizen, Resturante Bermeo Salamancan, Resturante Bermeo Madriden** edo baita **Restaurante Casa Bermeo - La Candelaria**-Caracas – Venezuelako punten.

Vichyssoise sopié be bermiotarra

Antza danez, **Vichyssoise** sopa famatua, bermiotar batek asmatua da. Teoria hau, Zaragozan bizi dan edo bizi izandako Gregorio Izuzquizana da. Gergórion esanetan, bere senide bat bermiotarra, José Felix de Lequericagaz sukaldari joan zan. Lequerica jauna, Espainiako enbajadorea izan zan Pétainen Vichyko gobernuan.

Porrusalda zalea zan gure Gergório, baina enbajadako inbitatuei emoteko jateko xumea iruditu jakon eta porrusaldari barazkien krema eta esnegaina gehitzen eutson.

Lequerica jauna Espainera itzultzerakoan, sukaldaria be beragaz etorri zan, baina gero New Yorkera joan zan (edo aliatuak Vichyn sartu zirancan New Yorkera ihez egin zuen) eta bertako Ritz hotelean egin eban lan eta bertan izan zan bere "porrusalda" berezian Vichyssoise izena jarri eutsonean.

Baliteke gure herritarra sukaldari ona izateaz gain, euskaltzale aurreratua be izatea eta beran porrusaldeari ikutu batzuk egin eta gero, itxura ederrean ikusiz, porrusaldeari **"Bitxi zoaz"** esatea. Notaki ba .

Barreka zatitsu

Antzinan, herriko andrak sarritan joaten ziran erosketak egitera. Erosketat egin aurretik edo geroago, ohitura zan Pedro Bilbaoren kafetegira joatea, kafea edo txokolatea eta pastekal jatera.

Behin, joan ziran lagun bi eta txokolatea eskatu eben. Atara eutsoen txokolatea, eta batek jarraian emon eutson txurrustadie. Txokolatea bero-bero egoanez, oidsé erre eta negar anpuruek be urten , orduan besteak zera galdetu eutson, **" Zer, nogaz akorda zara ba ?"**, eta berak erantzun **"Zeure ama txarridsegaz !"**.

Ume papo gorritxuri be, "**Geure arrotza gorringotxue !**" esaten jako.

Ezetz igarri

Zer da ez dakonak dakonari emon leikitsona ?.Badakizu edo popitas ? Popitas ?.

Maria Uriondo "Màri saregiñé"

Herriko kantak

Noiz behinka, ondo etorten jaku gure antzinako kantak gogoratzea, euretan geure historia zati bat bait dago. Ondorengo kantan, sasoi hareetako jateko ohiturak, istualdiak eta diru eskasa adierazten da. Erdi euskeraz eta erdi erderaz eginikoa, makiñetxu bider abestuko zan portuan.

En epoca de invierno
Bermioko herrian
se ve muy poca gente
gabez tabernetan

Se ve que no hay dinero
geure partikeratan
Bis **a las madres pidiendo** **Bis**
beti errijjetan

Me gusta hacer meriendas
neure lagunakin
cuando no hay besugo
kabratxu biakin

Cojidos con el anzuelo
toillen gibelakin
Bis **se hace buen guisado** **Bis**
patata biakin

Kanta honen jatorria, beharbada Ondarru izango da, Kirmen Uriberen "Portu-koplak" liburu zoragarrian agertzen dalako luzeago eta bertako tokien aipamen ta guzti.

Ezetz igarri

Popitas .

LOTSIÉ

PAPARDUE, TANGO ZALIE

Gure tanguek gehienetan, herriko gertaerei buruzko kontakizunak, euskera eta erdera nahasturik izaten dira, baña jatorrizko musikaz noski. "Zortzi papardo" tanguaren antzean, tango honetan ere papardoa da nagusi.

"ALMA DE PAPARDO" Tangue "Alma de payaso" musikaz

Alma de papardo, se come de mil maneras
asado, frito , en salsa verde y mejor asado
con un poco aceite, con un poco de ajo,
suele estar muy majo, mejor que el bacalao

...

Detras de este papardo, anda todo Bermeo
y cuando nos escapa, mucha lata nos da
los hijos que tenemos, se van a morir de hambre
porque los paparduchos, nunca suelen dar pán

...

Estribilloa - **Alma de papardo, come tu carnada**
para que luego, a poco a poco podamos embarcar

...

Aurrie zuritsute, berrela zuritsute
popa ganie zuritsute, bodegie beterik
etxadun bentara ta iñok pe ez tau hartzien
militarrak guztiek pe enfadata dagoz

...

Estribilloa - **Alma de papardo, come tu carnada**
para que luego, a poco a poco podamos embarcar

...

Pobre marinerito que siempre está en la mar
y cuando se envejece, se va al hospital
yo no quiero ser viejo, prefiero reengancharme
porque todos los viejos suelen ser despreciaus

...

Estribilloa - **Alma de papardo, come tu carnada**
para que luego, a poco a poco podamos embarcar

Zortzi papardo kantie > ENTZUN

Aintziñan papardo pillue egoten zan gure inguruan, aspaldiko urteetan aldiz guztiz desagertuta dago, beharbada tangoak kantatzeko ohitura joan jakunez, papardoak berak ere beste bide batzuk hartungo ebazan.
Zapatu gauetan gure gazteek goiko kaleetan tangoak abestuko balekidauie, seguru seguru gure arrantzaliek kartolataraino beteta etorriko leikidiezela papardugaz.

Berrelá - Baporatan, koziñen atzeko mandiri - **Zuritsúte** - Arrañegaz ganezka.

Barreka zatitsu

Behin, Itsaso txarra egoala ta, Gijonen sartu beharra izan eben gure motor batzuk. Zeozer hartzera urten eben gizonak herrira eta taberna batetan pianoa joten egoan gizon bat entzuten jarri ziran. Gizon harek hainbat eta hainbat kanta jotzen eban, bezeroak zelan eskatu, berak halan jo. Halako baten, gure herritar batek zera esan eustson, " **Oyes kanta isila pues**". Piano joleak erantzun, "**No se que canción es esa**", ta gizonak **"Si hombre es tango muy conosido"**. Musikariak ezjakinaren itxura jarri eban esanez, "**Me puede tararear ó cantar el estribillo**", ta gure gizona kantaten hasi zan " **Y si la ven, amigos diganle, ...**" , piano jolearen irribarrea sortaraziz.

1956an, Frantzin, **Royan**go portuan, "Digno de amor" motorra.

Edan da edan, kuberta laban

Izenburuak diñoanez, neurriz kanpo edaten dogunean, ez dogu aitortu nahi txarto gagozenik ta zeozeri bota behar errua, orduan **behie laban** edo **kuberta laban** dagoala diñogu, azken hau zelan ez gure itsasoak eta arrantzak daukan eraginez.

Tabernak modu figuratiboan adierazteko, eliza deitzen jake, **"Nongo elizetatik ibil zarie ba?".**

Ura edo esnea edaten dogunean, **zanga-zanga** edo **dsanga-dsanga** edaten badogu, ardaua edo antzeko zerbait danean **txurrust** esaten dogu, argi dago astiroago edaten dogulako, ariñegi edaten dogunean sarritan **okerreko samátik** (umeari **Kusun!**) joaten jakulako.

Gaur egun, lehen beste edaten bada ere, lehen goizien-goizetik lanera joan aurrean ere edaten zan kopie (normalean koñaka), **káñie, goizekue, albakue** edo **mamárrue hiltzen** deitzen zalarik.

Edateko tresnak ere bere izenak dabe, aluminiozko basuri **tolie,** jarrieri **jjarra-katillue** edo **edárrie,** garrafoieri **kankilloie**, eta barrilleri **bukoie;** horrela **"Horrek, bukoie be edango lekidau"** esakerie. Baita **"Horrek edan, pitxé be bai"**, breie be edango lekidauela esateko. Eta baita esakera barregarri bat be, **"Horrek edan kamelluen izerdidse be bai !".**

Egarridse edateko gogoa ez ezik, esne saltzaileak edo ardau saltzaileak emoten eban propinatxoari ere deitzen jakon.

Antziñeko Txistu tabernie

Gure esakeretan ere edanak badauka tokia, adibidez, gauzak ahaztu, erdi marieta edo norez gabiltzenien, **"edan bako mozkorrá dakot",** gauzaren bat erderazko ni fu ni fa dagoala esateko, **"ez ardautzeko, ez uretako"** eta edatien neurriak dirala ta, **"Apur bet edanda, txise barriek, ta larrei edanda txise negarrak".**

Txikitoak hartzeko orduan, txikiteuen hartzen dan ardau korrientiri, **"korriko ardaue"** esaten jako, eta hobeagoetan, kriantzara heltzen ez danari **eskillarapekue**.

Parranda zalea danari, **gaueri gau erdi** ibiltzen dala, **parrandien ugt**, **parrandien ugérie**, **parrandien kukurrúku**, e.a. Antzinan modu bitxian **"Parrandien sakatza ta ardauen eskobillie"** zala esaten jakon.

Izenburuak diñoanez, larrei edaten dogunean gure buruek eta isterrak norez jartzen dira eta sarritan horrela ibiltzen danari, **alpístiri emoten tsola, ardautxu, egarriaga, mozkórtidse, ordidsé, ordíllue, ardautsu, bankalé, petrolerue, edatune, arrasterue, lebazalie, sagidse, txopitea, ákel**, edo baita ironiazko **enekitx edango** izenaz deitzen deutsagu. Baina benetan barregaria, **Alcoli Perkins** da, Anthony Perkins artiste famatuaren izena gogoratuz.

Beste zeozetaz berbetan, batek, **Errozoie !** badiño, besteak zera luzetuten deutso, **Errozoie ordidseri ! .** Eta batek diodanari besteak "Ez ta makala !" edo antzekoa adierazteko, **"Ederto sagardaue !"** esaten deutso, nahiz eta sagardau zalea ez izan.

Norbait mozkorragaz ikusten dogunean, **"horrek tako korronta !"** esaten dogu. Bere gorputze **okin eziñik, sidsaue eitzen**, **balantzadaka, guarda-guardaka, alboz-albozka, eskorata, mandaz-mandazka** edo **kónkan** izango dau, orduan bera **edanda, mozkorragaz, kakágaz, kakotágaz, burlezar, bustitze, tajadígaz, bankalé, egosítxe, fatúreta, felpúdugaz, erlauegaz, mozkor matxugaz, mozkor mándugaz, mozkorra trasbal, mamáta, kolokata, meloperigaz, melakatoiegaz, paitarragaz, kastañigaz, úfugaz, lústrigaz, bufándigaz, turtúlugaz, míkugaz, urdídsegaz, ikopásigaz, kinpúligaz, sopígaz, sastarrágaz** edo **ákelegaz,** dagoala edo doala diñogu, aintziñan baita **burlezar,** orduan entzun leike **Halako buzkentzik !, Hik takostak ufue !** edo antzekoak.

Norbait mozkorrik ikustean, **Bañoseneko txakurrek hainke tso horreri,** esaten da. Antzinan, Baños familiak eukan ardotegia gogoratuz.

Zelan ez, hasieran esan dogun bezela, gure itsasoaren eragiñez beste modu geureagoak ere badaukaguz, **Behie** edo **kuberta laban, kontrakaclatararte, kartólataraiño beteta, kargata, samararte kargata, korrontágaz, manejadígaz, tópigaz, onduen, pópararte beteta, meládigaz, lebatz matxúgaz, takartágaz, sapúgaz** edo **berdelágaz.** Tabernara joateari, **tómara** joatea be esaten da.

Antziñeko Elorriaga tabernie

Urrengo goizien zera entzun beharko daualarik, **"Gauien ibilli, goizien agiri"**, bere gorputza **harriko trapulez** edo **lebatzak auen ibilliko moduen**, bere burua **untzez beteta, bidsámonagaz, untzígaz, elastágaz, úfugaz, turtúlugaz, óstigaz, astelenagaz** edo **erresakígaz**, eta bere aurpegia **ur handiko lotsien begidsekaz** izango daualarik.

Egindakoaren damuz gagozancan, **"Hori erosi nauen egunien, hobeto mozkor handi bat atrapa bananuen"** esaten dogu. Dana ezin da, erdaraz esaten dan "sopas y sorber, no puede ser" esateko. **"Zer gudok pa, amañarraba ordirik ta sagidse beterik ?"** esakera jatorra erabiltzen dogu.

Gaur egun gitxi erabili arren, edanari buruzko geure geureak diran esakera eder bi.

"Gauien parrandan da goizien logure, ez zabiltzez maitxie osasunen gure"

" Edan korrientie eta pagatie ahaztu, holan tabernerie ezin aberastu"

EZIZENAK

Ardau maisu, Ardau merke, Egarriaga, Katalan barrille, Parrandaridse, Pitxarrá, Sagidsé, Tabernero, ...

Edan korrientie kantie > ENTZUN

Barreka zatitsu

Antziñan San Juan egunean gertatutakoa. Ohitura zanez, joan ziran gazteak euren zapata kajatan jatekoa eta fraka zuriak soñien dala. Dirua eskaz egoanez, fraka gehienak serbizidsokuek izaten ziran, kontuan izan zelan eukiko ebien frakak zortzi urte geroago.

Herrian ezaguna izan zan gizon alai eta ibiltsun bateri, zera gertatu jakon. Jatekoen truke kuadrilla bateri txistek kontaten egoala makurtu eta frakak apurtu jakozan, kantzontzilluek agiridsen geratuz. Zuloa handia zanez, lagun batek ardaua bota eutson bertara. Bidsamo egunien bere amak erropak hartu ebazanean, kantzontzilloak ikusirik, ikaratu eta alaurike hasi zan, pentsaten ebalako, bere semeak hain ardau asko edan zauela, popatik be urten egin eutsola. Amak beti txarto pentzaten.



Kálberra ikusitze, argi dau ze egun dan, Udalekuek be herriko banderea okerretara.

Zuek takozuie brekeké !!!

EGUNARO EGUNARO KALIEN KANTIE > ENTZUN

Tonineko kantak

Toni bere alaba Arantzari trakasten txikitoak zelan ataraten diran.

Gaur egungo Bar Athletik dagoan tokian, antziñan Toninecko tabernie egoan. Antza danez oso taberna famatua zan, batez ere bere jabea Antonio Garai musikaz eban zaletasunagaitik. Ezagutu ebenak, Toninen tabernie, sasoi haretako tabernarik "martxosocna" zala diñoe

Toni New Jorkera joandakoa zan eta beharbada bertatik ekarriko ebezan bai fonografoa eta bertako musika plakak. Modan egozan beste musika asko ere ipintzen ebazan bere tabernan. Gero esateko guri "diskjockey"ak Ibizatik datozela.

Josefa Akarregi "Toni"ren emaztea bera ere oso alaia eta musika zalea zan, hori dala ta, Andra Mari bezperan Sestaoko Bandeak taberna aurrean kontzierto txiki bat emoten eban, amaieran Josefak zantzo indartsu bat botaten ebalarik.

Ondoren Tonin tabernako kanta bat. Sasoi haretako umorea eta ironia ikusteko eta gaur egungo nagusiek kantaten ipintzeko, uste dot benetan egokia dala.

El año cuarenta y pico, según dicen los profetas será el año de la paz
volverán las vacas gordas, los pollos a tres pesetas y los pisos para alquilar

El soldado combatiente, volverá a comer caliente junto a la calefacción
y tendremos los inventos que la guerra trajo a cientos

En vez de cafiaspirina, tomaras penicilina para curar todo el mal
gracias a los aviones, podrás ver cinco ó seis naciones en paseo matinal

No tendremos enemigos, ni en la calle los mendigos pedirán para comer
ese año habrá que verlo, será el fin del estraperlo, quien lo pudiera creer

El año cuarenta y pico, comprara por veinte duros, un buen coche familiar
y los perros pobrecitos, no tendrán ya mas apuros, con chorizos de collar

Urte asko pasatu dira, baña oraindik abestiak diñon gauza gehienak ez dira lortu. Baie txakurrek ez daukiela goserik hori egia da, ez dago gure kalcetara begiratutea baño. **Etxe askotan, txakurrek pertsona lez bizitzen eta pertsona asko txakurre lez.**

Urteak pasata, Tomi eta Josefa Akarregi bere emaztea barra atzean, baña alaba gazteak oraiu kalea nahiago dau. Juan Madariaga "Arrakéro" txikitue hartzien.

Amaitzeko, guda sasoioko gudarien abesti bat, bertan Tonin tabernien joerea ere aipatzen dalarik .

Los gudaris de Bermeo tenemos que agradecer
a los bermeanos pesqueros, que nos daban de beber
el primero donde Atutxa, el segundo en el Expres
y agarrando de la manga nos llevaban a comer

Vamos al Toni a merendar y a Casa Blas a ver si nos dan de cenar

Sasoi haretako gora-beratan, errepublikanoei baltzak deitzen jaken, hori dala ta, azken honeek kanta bat egin eben.

" Baltzak garizela diñoe,
bai halan diñoie,
bai halan garie
ardaue baltza ezan arren,
danak gure dauie,
danak gure dauie "

Erre ke erre, tabakue

Bai, tabakoa erre ta kea botaten jarraitzen dau munduak, nahiz eta oso kaltegarria izan. Baña ni ez naiz iñor zure etxean sartzeko, tabakoaren alde txarrak gogoratuz, neu ere "erre ke erre" ibiltzen naizelako. Artikulu honetan bilatu nahi izan dodana, gure Bermion eta tabakoaren inguruan sortu diran esakera edo gertaerak izan dira.

Aintziñan normalean, tabako baltza erreten zan, adibidez **kapatxa** edo **kuarteroie** deitzen ziranak, hala ere; rubidsue ere baegoan, adibidez **bugi-bugi**. Gehienetan tabakue "eitzekue" izaten zan, hau da, norberak egin behar izaten eban zigarroa, adibidez **paiseko tabakue**, estartzazko papelan emoten ebena.

Zelan ez, tabako ezberdinak euren izenetatik aparte, beste izen batzugaitik ere ezagutzen ziran, horrelaa "Finos" izenekoak **Reketiek**, "Caldo" izenekoak **Caldo gallina** izenagaz ezagutzen ziran eta beste batzuk baita beren balioagaitik, hau da **Otxeintaisinko** deituak.

Aintziñan diruaren faltaz, ez eban edonok ta edonoiz tabakoa eukitzen eta orduan bestei eskatu behar. Tabakoa eukanak, bere zigarroa atara ta arin gordetzen eban paketea, orduan besteek eskatzeko modu bitxi batez esaten eutsoen- **Euk erreik ¡.** Tabakoa eukanak, besteak ez konturatzeko, biztuta eukan zigarroa ere gorde egiten eban, baña besteek hori ikusirik esaten eutsien – **Partikeriek hartungotsu su ¡.**

Ondoren, eskaleei diplomaziaz botatako iraiñe **"Erretzailliek, erreten duzuienak eta iñon konture bizi zarienak, eskatu biarren, zegaitzik ez erosi "?,** eta modue onean emondako erantzuna **" Erretzaillek, erreten dunek eta iñon konture bizi garienak, zeitzik erosiku, munduen dauen beste iñuzentegaz ¿".**

Horrela argazki zaharretan gure nagusiek ikusten dogunean Torronterutik edo Portutik itsasora begira, normalean **"Agurek aguen tongue dala"** egoten zirala diñogu.

Gure gaurko umeak misketúte bizi dizela esaten dogu, eurek gura dabena erosi arte ez diralako gelditzen, baña aintziñan ere gure nagusiak tabakoa erostera, **"Italiara"** joaten ziran, bisidsue da okitzie gero ¡.

Gaur ere bai, baña lehen sarritan, besteen zigarroaren **azkana** edo **tongue** eskatzen zan, ta behar izana gogorra zanez, batek eskatu arren –**Azkana**, bigarren batek – **Azkanan, azkana** eta bai hirugarren batek ere- **Azkanan, azkanan, azkana** edo **tonguen, tonguen, tongue** eskatzen eben. Azkenean geratzen zan pinguri, etxatekue edo botatekue deitzen jakon.

Azkanán-azkaná

Baña tabakoaren **tiraziñue** benetan gogorra danez, iñoiz bedar sikukaz, pediorikuen orridsekaz, estartzazko papelakaz edo arto bizarrakaz ere zigarroak egiñak gara, nesesidadien gogorra.

Erretzaile amorratuei, lotu barik erre ke erre dabiltzanai, **"ke ta lañú"** ibiltzen dirala diñotsagu, kearen keaz lañua ere egiñez. Norbaitek galdetzen badeusku hirugarren bategaitik erretzailea bada, pillo bat erreten dauela esateko – **"Horrek fume ?, hillen hazurrez pe bai"** erantzuten deutsegu.

Aintziñan estankora goizean joan da sarritan estankoa hutsik egoten zan, estankeroak orduan, "Etorri arratsaldien gero datost **sakie** eta", jentiek gero gogo handidsauegaz, **sakie** ataraten eutsen tabakoari.

Tabakoa saltzeko, estankoetatik aparte be egoan beste modu bitxi batzuk, adibidez **estankoandando** deitzen jakon Demetrio kulo-handiri, kalez kale ibiltzen zalako saltzen, tabakue partikeretan dala.

Baita barregarria, Aste Santuko prozeziñuen gertatzen zana. Gizon bat ibiltzen zan bandejigaz dirue batzien, alto esanez, **"Ama Dolorietakuri argi eitzeko ¡"**, **"Ama Dolorietakuri argi eitzeko ¡"** , eta halako baten isisillik esaten eban **"Tabakue dakot kero"**, hauri da benetan denporie ez galtzie.

Egia esan, gero ta gehiago dira tabakoa uzten dabenak, behintzat ahalegintzen diranak, horregaitik sarritan entzuten da gure artean, **"Ezik erre ¡".**

Besteei sua eskatzeko, **"Ekaik sue"** edo **"etxaik sue"** oso erabiliak dira eta nahiz eta eskaera honeetan mesedez berbie faltan bota, gaur egungo **"emon sue"** baño jatorragoak dira, azken hau arriskutsua dalako, Bonzo modura ez badogu erre nahi.

Zigarroak bistuteko, **mistuek** edo **metxeruek** izan dira erabilienak, lehen gasolina edo alkoholezkoak izaten baziran ere eta orain gasezkoak, aintziñan metxadunek izaten ziran , **txiskérue** edo **tundie**. Gainera, itsosorako ere oraingoak baño hobeagoak ziran, zeren, **"zenbat eta haize geidsau, su geidsau"** eta atziñeko baporan makiñek pe metxigaz biztuten ziran.



Txiskérue

Metxien beste erabilpen kurioso bat, Andra Maidsetan kuadrillek alkar lotuteko izaten zan, hori dala ta, lagunak batera ibiltzen ziran.

Tabakoa gure beste eguneroko egoeretan ere erabiltzen dogu, adibidez, persona batek esandakoak edo galdetutakoak ardura ez deuskunean, ondorengo erantzuna emoten deutsegu,

Galdera - **Txo Tomas, beste eguneko mille pesetak ¿**

Erantzuna - **Ez tot fumeten!.** Ondo ez dogulakuen entzun.

Norbaitek beste bat ernegaten ipintzen dauancan, besteak zera diñotso, **"Iñor ez imiñi pipen fumeten gero ¡"**, ta benetan berotuten bada **"Estraperloko tabakugaz jjoten bazaitsut, zakie atarako tsut".**

Senar emazteen arazoetan ere tabakoak bere tokia dauka, horrela gizonak andrie joten dauala esateko, **"Horrek tabakue emoten tso andriri"** diñogu eta azkenez makiñetxu **bizi-alargun** dagoz, euren gizonek tabakue bille etxetik bajatu ta geidsau etxera etor barik daukienak, behar bada Amerikan, kuarteroie prezidso erdidsen egongo zan.

"Erreten lamerie" igiri zanean, gazteek **"Fumeten lamerie"** be esaten eben.

Ezizenak -

Ezizenak ipintzerakoan abillek gara lez, Alonso dentistien kotxe txikidseri, **misto kajie** deitzen jakon, oso txikia zalako.

Beste ezizen batzuk, **Juan purillos, Kesunde, Zigarrerue, Zigarrutxu, Lazaro Pipas, Estankoandando, Estanko ambulante, Barrunto humo, Domingo Pipas, Geron Pipas,...**

Barreka zatitsu

Izenak dirala ta, behin baten zera gertatu zan, gizon batek aguazil bat ikusi eban beste gizon bat preso eroala, ta beste gizonari galdetu eutson- **¿Por qué te llevan a la carsel ¿,** ta honek erantzun **¡ Por mis ideales ¡,** gure gizonak orduan – **"Entonses que me va pasar a mi por mis cuarterones ¿".**

Argi dago errakuntza, tabakoaren izena **Ideales** zalako izan zala.

Nire ikasle denporan ere gertatu zan antzekoa, Institutoan irakasle batek ikasle bat bota eban tabakoa erostera, esanez –**Ekarri caldo pakete bat ¡,** Bost minutu beranduago han dator ikaslea ta zer ekarri ta "starlux" paketea, irakasleak ez eutson aldarririk egin, - **Bueno neure andrientzat balidsoko dau** esanez.

Ezetz igarri

Punten-punten punte bi, atzien-atzien zulo bi, popitas diez, ta ezetz igarri .
Badakizu edo popitas ? **Popitas ?.**

Ez eik erre ¡

Euk Erreik ¡

Kaka ta txise, eguneroko larridse

Izenburua irakurriz, pentsatu leikegu gai hau gustu txarrekoa izango dala, baña hala ere gaiak badauka bere alde berezia. Nahiz eta mundu guztiak eta egunero egiten doguzan gauzak izan, ohiturak, esakerak, eta abar kontutan izanik, esan leikegu ikara barik, kaka eitzeko orduan be Bermio beste mundu bat dala.

Aintzinan etxe askok ez ebien kumunik, gainera jendeak etxetik goizetik urteteko ohitura eben . Hori dala ta, sarritan txise egiteko portuko eskillaretara edo kaka eitzeko, karrutara, atxetara, Santa Klarara, Frantxun atxetara eta abar joaten ziran.

Behin baten, Francon denporan joan zan herritar bat portu zaharretik Frantxun atxetara kaka egitera, ta behean botata egoan paper bat hartu eban geroko. Baña propaganda politikoa debekatuta egoanez, karabiñeruek ikusirik eta irakurtzeko zala pentsatuz, gizona harrapatu eta kuartelera eroan ebien. Ohitura zanez **kaka atara** eutsien (ederrak emon), karabiñeruek euren jarrera frankistekin **kakatan** edo **kaka daidsola** (ikaraz) ipintzen ebiezan herritarrak. Baña egiteko orduan, herriak askatasun guztia eukan norberak nahi eban orduan egiteko. Ikusten danez "askakatasuna" ere baegoan.

. . . . . .

Oraingo hau barregarria dan era berean, batzuentzat gustu txarrekoa izango da, halan bada pasatu egizue hurrengo orrialdera, ni ez naiz geratuko kontatu barik eta.

Baegoan gizon bat Frantxun atxetan kaka egiten, ta begiek ia itxita indarrez egoala, konturatu zan berak egin ala, karramarruek berak egindakoa eroaten ebiela. Ez eutson garrantzi gehiagorik emon, zeozer esateko ere ez zan momenturik egokiena eta.

Beste egun batean, gizon bera, oraingoan berazkotan, toki bardinera joan zan. Ikusi ebanean karramarroa hurbiltzen, zera bururatu jakon karramarroari esatea, " **Gaur txarto ikusko zara ba, kollararik ezu ekarri tse".**

Konturatu barik gure esakeretan "kaka" hitza sarritan sartzen dogu, nahiz eta beste zentzun batez izan, adibidez;

Kaka eitzeko be moldie bide gero ! - Edozein gauza egiteko moldie behar dala.

Kaka ein tsat ! / kaka eintzen tsat Zeozer txarto urten dauenean

Erropak kaka móltzue lez itzi zuz – Edozelan pillotute.

Zelako kaka dako baie, kakari txo, kakagaz egon - Edanda egoteari.

Hor kakatza dau - Hor asuntuen nahastea dago.

Bai karamelo, ez kakatza – Erdi bidean, ez bat ez beste.

Kakak pe jan eingo gaitsuz – Gagozan tokia, benetan loituta dagoanean

Kaka zarra ! - Zeozer egiterakoan, gauzak txarto urten jakunean.

Kaka meie egin – Atesuen, ekonomikoki ezinean edo egoera larrian bizi direnengaitik.

Kaka eitzeko makiñie – Estomangotik ondo dabillena

Kakatan be lo – Edonon lo egiten dauanari

Zuk takozu kakatza - Zer diñostazu ? - Zer zauz esaten ?

Arrañe kaka lez – Asko, ganezka

Kakabelenie/kakamelenie – Itsas beheran (mari behien) portuan ikusten dan basa zikiñe

Nora zatoz kakaz beteta? edo **arpi kaka** - Loitsute

Kakatan plaust - Bertan bera ezer egin barik edo ugerratan dagoanari

Kaka mókordue lez - Erdi-erdidsen lotuta egotea

Kaka zarra zuretzako ! edo **Jun zaitzez kaka saltzien !** - Norbait pikutara bidaltzeko.

Sama kaka - Eztarria garramatuta daukan norbaiti.

Hauri dok e, kakagaz arpidsen jjotie personie - Erantzun txarra hartzen dogunean.

Hauri de alabiek kaka burutik bera eitzie - Gurasoen gainetik bere gogoa egitea, ganez egitea.

Euli kákak – Loi tantak.

Kaka atará – Norbait jo edo mánga-mánga egin.

Kaka-kolorie dako - Zerbait beige, okre edo antzeko kolorea daukala adierazteko.

Orain pelotiek kaka dako - Zeozer gertatuta gero, danak lepue altza.

Ez ta kaka badan bez ! - Zegan dan bez ! Norbaitek gu ikusi eta kasu egin barik doanean.

Txo, zelako kaka larridse zara baie - Ikaratsua edo urduria.

Kaka daidsola edo kakatan – Ikaraz dagoana

Jateko orduan, mahaian gagozanean eta zeozer jausi, txarto urten edo batabatek esaten deuskuna gure gustukua ez danean, hasarrez **Kaka !** edo añén bat esatean, **Kaka, mahai Santue apartata !** esaten dogu, Jaingoikoak emondako janariak errespetatuz.

Norbaitek lanen bat edo gertakizunen bat arin gertatu edo errez egin dala esateko, **Berez !** diñoanean, besteak gauza guztiek bere lana emoten dabela esateko, zera erantzungo deutsolarik, **"Berez, kaka be ez ta eitzen gero !".** Sarri bera egiteak ere, makiñetxu biar emoten deusku eta.

Kaka egitera goazenean normalean **kumunera**, **irolera** edo **kaka eitzen** goazela badiñogu ere, badaukaguz beste modu bitxi eta geure geureak diranak, adibidez, **eskusaure**, **hagiñe ataten**, **obraten, deskargaten**, **kaltzak errieten**, eta abar.

Norbaitek jaterakoan erraziño handiegia badauka, besteak zera esango deutso, **Hori dana janda, gero jjuen Kofraditaneko solora kaka eitzen.**

Kaka móltzue



Aidsudié edo **labatíbie**

Obramientue kristiño guztidsen behar izana dala esateko, **" Ez tauela monjarik, ez tauela frailerik, atzeko latiñetik kaka eitzen ez tauenik "** esaten dogu.

Estomangotik siku edo ein eziñik ibili danari, **"Zer libre jjatsu estomangue la ?"** esaten deutsagu.

Batek, " **Nora zuez ba ? ",** besteak erantzun, " **Eindse dauena botaten ! ".**

Etxeko seme-alabei, izenaz ez ezik, beste modu bitxi batez ere aipatzen dira; " **Lorié, Pitxié ta kakié"**– lehena, **Lorié,** bigarrena **Pitxié** eta hirugarrena – **Kakié.**

Kaka berbea beste esakera, galdera erantzunetan eta errimaz eginiko esakeretan ere erabiltzen dogu, adibidez.

Zelan ? - Kaka zure belan !

Zer ? Kaka pareser !

Ez tako ! Ez tako, ta badako, kamisen kaka dako !

Katalin Katillo barridsen kaka egin !

Kaka Kakak tako atsa, bera dalakon baltza ! edo **Kaka ein dse maska !**

Norbaitek gauzaren bat txarto egin ta bertan izten dauanean, txotisen doinuaz ondorengo kantie entzun beharko dau - **"Pitxi, kaka ein ta bertan itzi"**-

Izakeraz edo jazterakoan **arro kaka** dana, baña jaterakoan jan-jan barik dabilenagaitik, **Erropatan bai, baie jan kaka !** esaten jako. Arroa danagaitik, **"Ez teitso kaka beran bururi "** esaten dogu.

Pertsonie txikidse edo potozórridse danean, **kakanárrue** dala diñogu.

Andren arteko aintzinako iraiñe eta eurentzat ofensarik handienetarikoa, **"kamise káka".**

Itsas bera edo mari behien, portuan geratzen dan fangoari, **kaka belénie** deitzen jako.

Sarri jan bai baie gero "siku" bagagoz, **ardi kakak** edo **txinguek** egiten dogula esaten dogu. Anzinan **obramientue** egin nahian baina **ezin libre** bagina, **labatíbie** edo **aidsudié** hartu edo hobeto esanda sartuta **libreten** ginan. Diñoe antzinan goiko plazako iturrian, kanpotar batek bere baldea igotzeko herriko andra bateri zera esan eutsoala "ayudeme señora". Andrea gora goraka hasi jakon, pentsaturik aidsudie emoteko eskatu eutsolakoan.
Zerbaiti kasurik pe ez egiteari be **aidsudié** emotea esaten jako, esate baterako, **"Gure kartie hartzien dauienien, aidsudié emoten tsoie".**

Beste batzuetan, **berazkotán, bajératan, pirrilérigaz** edo **atzeko tírigaz** dagoenagaitik, **kaka pírrike** dabilela badiñogu eta arin hasarratzen dan pertsoneagaitik be, **kaka pirridse** dala esaten dogu.

Ondo janda, egindakoa "gauza" ederra izan bada, **kaka mókordue** edo **kaka móltzue** dala esaten dogu.

Arraintzaleek afrikarrei, **"arpi káka"** deitzen deutsie, baina ez zentzun txarrean, azalen koloreagaitik baizik.

Aintzinako baporek, ez ebien kumunik noski, eta gogoa etorri ezkero itsasora egiten zan. Gainera goizero kafea zanga-zanga edaten zanez, lehenengo ordutik egoten zan jendea estu ta larri.

Baporetan popa ganetik egiten zan egitekoa, horretarako atzean barandila mugikor bat egoten bait zan. Barandila zabaldu, ondo oratu eta bakea. Baporen **atzekaldetik** edo **popa ganetik** botaten ziran baita sastar edo biberan ondakin guztiak, hori dala ta, atzean jartzen zan apaidsuari, **"Sastarratako apaijjue", "kaka lekuko apaijjue"** edo **"Kakatako apaijjue"** deitzen jakon.

Atzetik ez ezik, batzuk kaletik kanpora ere egiten ebien euren "egin beharrak", modu horreri **gonbisetako apaijjue errieten** deitzen jakon.

Jende asko baporen atzekaldetik egiten ikaratu egiten zan, hori dala ta baldara egitea nahiago eben. Baegoan ikaratuteko motiborik, zoritzarrez baten baño gehiagotan itsasoan gizonak galdu bait ziran.

Aldiz, gero motor barrietan kumune edo irola erabiltzea baño, batzuk betiko moduan nahiago eben. Gizon batzuei asko kostatu jaken ohitura aldatzea.

Karneka edo txikotagaz olgetako kanta bat ;

" Juan tonto, aitxe non dakozu ? , soluen, soluen zer eitzen ? artue eraitzen, artue zetako ?, talue eitzeko, talue zetako ?, jateko, jan zetako ?, kaka eitzeko " edo baita **ama non dakozu?, soluen, soluen zetako?, arrotzak batuten, arrotzak zetako?, olatie eitzako** (tartie), **olatie zetako ?,** ....

Esakera - "**Kakán purrustadié ta txisen zarrastadié**"

Nagusiek lehenago txiseri **garnué** deitzen eutsien, txisé umeen berbea lez sortutakoa da antza.

Barre gehiegiak **txise larridse** dakarrela diñoskue esakerak, **Txise barriek, txise daidsola, txise erridsuek, txise erridsotan** (asko), **"Andrak txise da berton!", barre masie** eindse edo **barreka-barreka txise pe urten**. Umeak negarretik barrera arin pasatzen dira, orduan gurasoek zera kantaten eutsie, **"negar da barre txise bolue ! ".** Sarritan txisá gura egin eta egin ezinik ibiltzen gara. Antzinan, **arto-bízarrak** egosi ta haren ura edaten zan, txisá eragiteko.

Jaleo edo naste asko dabilenean, **"Hor badakizu zer dauen, txise sunde handidse".**

Hasarrakuntzek eta antzeko arazoak sortzea gustaten jakonari, **"Arrañe ezan balekizara, gardie, ha txise atsa dakona! "** be esaten jako

Eguraldia euria egiteko gogoz dagoanean, **egualdidse dau txise ein guren** dagoala diñogu.

Kaka edo txise eginda dagozan umeei, txantxetan eta gozotasunez, **txise súnde, txilino káka, kaka súnde, txise bólo, popa káka** edo **bolo káka,** esaten jake.

Behin baten Portaleko kumunetan zera gertatu zan. Aguazil bat txise larri zan, baña kumun barrora sartu barik, eskillaratik edo lehiotik hasi zan txise egiten, konturatu barik barruen gizon bat egoala. Noski buzti-buztita ipini zauen gizona. Gizona aldarrika hasi jakon, baña aguazillek ez ebien lez onartuten eurei ezer esatea, erretenera eroan eban gizona eta "kaka atara eutson" (jo).

EZIZENAK

Txiseti, zapata txise, kaka baltz, kaka belena, kaka eitzeko makiñie, kaka freska, kaka jale, kakatza, kaka sunde, popa vientos, popatxu, popa kaka, kakapur, kakatitxu, kamara kaka, kamisen txise, kaka eiñ, kaka trosko, kaka usin, kakatzena, kumuneko tapie, tripe ustel, kumunetik bera, ama kaka eta baita **balda kaka.**



Txise barríek

“ Negar da barre, txise bolue ! ”

Barreka zatitsu

Baña barre egiteko ere emoten eban gai nahikorik. Baporen abiadea beti izan da gai, besteekaz konpetitzeko. Hori dala ta ondorengo erantzuna ere entzuna da “ **Gure baporak zuenak paño sidsau hobiaue dako”**, besteak **“Guriek hobiaue, hain sidsau ariñe dako, sidsaue eikeran aurreko gizonak atzeko gizonari popie garbitsuten tso”.**

.....

Beste egun baten, gizon bat baporan atzekaldean kaka egiten ari zala, euren albotik ebilan beste bapor bat hurbildu ta bertako gizon batek diñotso mutilleri **“Kutxillue dakozu ?”**, mutillek erantzun - **“Bai !”.** Gizonak orduan diñotso mutilleri **“Hauri erraidsie garbitsuik !”** (Erraidsien esan nahi biekaz (arraina eta marra) hitz jokoa eginez)

Behin baten portuan, lobatxo batek zera esan eutson amumari, **“amuma txise larri ”.** Amuma arraina saltzen egoan eta beste andra batzukaz berbertan, kasu gehiegi egin barik lobatxoari, zera esan eutson txantxetan, **“Egin auna amentalara”**, (“niri zer diñostazu ba txetxotxu, egidsona eskiñe baten” zentzunean). Diñoe, zelan ez umeak amuman esana egin ebala.

Ezetz igarri

Popitas ?.

ARTAZIDSEK

Lotara

Jan da jan ibili ondoren, normalena logurie etortie dalez, oraingoan lue eta loguriri buruz gure herrian dagozan esakerei errepasoa emotea da nire asmoa.

Ikusi dogun moduen **"Jan da lo"** eta **"Egualdidse dau amañarraban konture jateko ta alabigaz lo eitzeko modukue"** esakerek, jatekoa ta logurea alkartzen dabez.

Logurea datozkunean normalena **arrausike** hasi ta **logure nai** (eta ez logurie dakot iñoiz esaten dogun bezala) edo **loguriri !** esaten bada ere, gure esakerarik erabiliena eta jatorrena **" Lo eingot kanta barik ! "** da.

Sarritan ezin egin lo ibiltzen gara, nahi eta ezin, orduan **"Ez datost logurerik begidsetara"** edo **"Nire begidsetara ez datost logurerik"** esaten dogu.

Logureak gure gorputzean eragiten deuskuna adierazteko, **logurie dakot ehun da hamar, begiko tapak jeusitse, dungulugaz** edo **turtulugaz** gagozala esaten dogu. Baita be **logurigaz erreta, beterriek daidsola** edo **logurigaz begidsek lakrieta** gagozala esaten dogu. Eta modu barregarri batetan, logurea asmaten doguenan, **"Pelikuliek izena, perseguido hasta el catre"**, esaten dogu.

Esakera – **"Arrausi luzie, logure edo gosie"**

Norbaitek, **"Logure nai"** están dauanean, **"Imiek etsu itzi lo eitzen ela?"** entzungo dau, batez be umerik ez daukanak edo seme alabak nagusiak diranean.

Arrausike dagoanari, ahoa bete-betean igiritzen dauanean, **"Han zapatan numerue be igarri !"** esaten jako.

Logurie etorten daukagunean, **momérie** jatorkula diñogu, **laster morukañe entregata** ikusiko dogu geure burue edo **"Amorrotzak etxadost errue"** esaten dogu.

Altzateko ordua pasatu jakonak, **"Luek hartu nau"** esango dau, nahiz eta orduan eroan lotan edo luek hartute.

Ikusten dogunean besteren bat erdi lo **" Iñori beitu gurez zauz"** diñotsagu, eta luek hartute dauan bategaitik, **"Luek agarra dau"** edo **"Ha gizona dau, Dios te Salve".**

Egongelako sofan loguriegaz erdi etzanda eta gero erdi jezarrita, lekua hartu eziñik, **"Eingozu habidsie ba ! "** esaten jako.

Norbait ikusten dogunean arrausike ¨Dana da logurie ?, galdetzen deutsagu, gehienetan beran erantzuna **"Apur bet bai !."** (apurbepai).

Itsasoan, arrain ezaren errua norbaiti botateko, patroiek zera esaten eban, **"Amen bata batek amagaz eitzen dau lo".**

Normalean baño lo gehiago egiten dauanari, **lolo, loti, beti lo, loguraz, lo gogorrekue, luen** edo **logurien kukue, kukurruku, mamarrue** eta abar esaten deutsagu. Benetan lotidse danagaitik **lo gogorrekue** dala eta **lo askatan, lo masie, lo sakue lez** edo **kakatan be lo** egiten dauala esaten deutsagu, benetako logurie euki behar da egoera horreetan lo egiteko gero.

Umetan **lolo, lolito, angerotxue lez** edo **Niño Jesuse** lez lo egin badogu ere, zartzara eta gaisoz **ohiretute , arrantzaka** eta **lotan lotan** pasatuko doguz gure egunek.

Gauen parrandan ibilteagaitik edo beste arazoren bategaitik **lo eziñik** ibili bagara, urrengo egunean **lue galdute** gabiltzala diñogu. Non dau ba ?

Ohean sartu eta **grogi** dagoenagaitik, **lo baten** (gau guztian izartu barik lo egiteari be **lo baten** lo egitea esaten jako), **lo sakue lez, lo satsa lez, lo mukurre lez, roke, lo ta sats, lo san-sanien** edo **hazten dauela** diñogu, eta altzaten danean **Lo eingo lekizu ! , Hazko zara !** edo **hazko zuz !** entzun beharko dau. Parrandan ibili ta gero, urrengo eguerdian zemat gaztek entzun beharko dabe, **"Txo, zemat lo txo !", "Alabátxi, zemat lo!", "Altxa gora !".** Halan dagoanari, amak Jose Guardiola eta bere alabatxoaren **"Di papa"** abestiaren estribiloa erabiliz, **"Ez altza, bai altza, on berton, ez altza, bai altza, on berton"** abestuko deutso.

𝄞

Amesetan egin badogu, eta ona izan bada izan dadila egia, aldiz txarra izan bada ez izateko, **"San Mames, bart ein dsot ames, ona bada bidson**

partez, txarra bada bapez" edo baita **"gaur ona bada bai, txarra bada bapez"** esaten zan.

Esakera – **"Ein lo gerizpetan !"**- Beste batek diodanari kasurik pez edo beraren jarrera ez jakunean gustatzen. Egon berton !, Bai zera !

Lotan-lotan egon ondoren eta bapatean itzartuten garenean **lo sumustuen** altzaten garala diñogu, sarritan gelako atie be joten dogularik, gero **nagidsek ataten** denpora bat behar dogu benetan itzartuteko, ondiño **turtulugaz**, **turtubetute** gagozala edo **bidsotza lo** daukagula diñogu.

Nagídsek atáten

Ondíño bidsotza lo dako !

Esnatzeari edo iratzartzeari gure herrian **izartu** edo **akorda** esaten deutsagu, hori dala ta behin Zumaian pasatu jatan pasadiso bat kontatzera noa. Joan ginen lagun bi bertako lagun baten etxera jaiak egitera, ta beste goizean lagunen aitak lanetik etorrela galdetzen deusku, **Esnatu zarete ?,** ta nik erantzun, **Ondiño ez !** , pentzatzen nuelako esnie edo armosue hartu dogun galdetzen euskula. **"Dakidsenak daki ta ez dakidsenak baleki "**, egunero ikasten dogu zeozer.

Norbaitegaz hasarratuten garanean eta beran mesede edo laguntzaren behar izanik ez dogula adierazteko, **"Ez takot zure kuartotik ohire biderik "** esaten deutsagu.

Kanpoan gagozanean norbaitek deitzen badeusku - **Oye !** , hitz joko batez erantzun bitxi hau emoten deutsagu - **Ohie en mi tierra cama !.** Guri zuzenduta ez joan arren, **Oye !** entzuten badogu, ohie, bueno pa dormir edo **ohie, lo eitzeko ona !** be esaten dogu.

Larreidsek kalte eitzen dauelez, **Luen pasiñugaz momotute** egoten gara eta beste arazo batzuk ere ekarri leikez eta hori adierazteko **Luek luen pague dako** eta **Lue eta akulie ezin dse** (akulie–arrain mota bat) esakerek, lo eindse ez dauela maridserik edo lue denpora galtzea dala diñoskue.

Gure baporetan katreko koltxoieri, **kamañé** edo **lastamárrie** (antziñan lasto orridsekaz eginda zalako) deitzen jake, hori dala ta, lo asko egiten dauanari **"Kamañek paño lo geidsau"** egiten dauala be diñotsagu.

Ohera goazela esateko, **izara tártera** edo erderaren eraginez baita **sóbrera** be esaten dogu, eta itsosoko ohitura dala ta, etxean ere **kátrera** goazala diñogu.

Bazkaldu ostean ohera bagoaz denpora laburrerako, **luzetuten nue apur bet**, apur bet bakarrik, dana luzetute baitxe kabidu bez edo **ohien ganera nue** be esaten da, beste batzuk antza ohien azpire joaten dira. Lotara goazenean eta gure asmoa arin itzartu edo esnatzea danean, **lo aldítxue** , **lo kúkue** edo **lo kúkutxue** egitera goazela diñogu.

Logurigaz erreta gagozanean eta ohireko gogue daukagunean, **"Hiru kikumera eindse ohire barrure"** goazala diñogu. Ohire sartu ta batzuk **luze-luze eindse** egoten badira ere, beste batzuk barritz **koidsíte**, **batunde** edo **otxo formata** egoten dira.

Norbaitek, erabaki bat hartu behar dauanean, eta ez daukanean argi zer egin, **"Almodigaz lo egin da pentsa"** esaten deutsagu.

Antziñan, arrantzaleek batzuetan txalupetan bertan egin behar izaten eben lo, orduan erramuek uretatik atara beso azpian ipini eta lo, modu horreri **erramútara lo** esaten jakon.

Logureak ez daualez parkatuten, sarritan leman dauen patroie be ez dau errespetaten eta iñoiz Asturiasen ebilen Bermioko patroi bat lo geratu zan eta barrukuek, **"Bisentiko levanta los tapes "**esaten eutsoen.

Itsosuen norbait katrera doala esateko, **"San Felisisimon posturie hartzien nuen"** ere esaten da, ta ez dago txarto esanda, bestela begira ezazue Santa Marian dagoan santuak daukan posturie. Baporan norbait zeozer topaten badabil eta beste bateri galdetzen badeutso, **Non dau nire ...? ,** sarritan olgetan honako hau entzun beharko dau, **" Neure katrien , isterratako mandan ".**

lo kúkutxue

lo ta sats edo lo san-sanien

Barreka zatitsu

Telebista etor zanien gure etxeetara eta ardore sasoia zanean, argi nabaritzen zan nor egoten zan gauez telebista aurrean. Beste goizean itsosorantzien barroko mandan egoten ziran defentsatan belauniko jarri ta gizonak lo ikusten ziran, orduan besteek esaten eutsien, **"Han ! , noche de estrellas"**, zergaitik, ba sasoi haretako gauetan, izen bereko programa bat egoalako.

Loguriri buruzko gaiari amaiera emoteko, **"Gabon danoi da angerukaz lo egin"**.

Ezetz igarri

Zer da biribille tronko ta luzien Gernikeraino . Badakizu edo popitas ?. Popitas ?

Manuel Losada - Los remeros

Manuel Losada bermiotarra izan bazan, beharbada abizena apur bat aldatuko jakon, Manuel "**Lo zara ?**" esanez.

Lolo bidsotza,...

Bermeoko andrek, betidanik izan dute ganora eta gozotasun berezia, umeek zaindu eta lo ipintzerakoan. Edozein kanta (bardin tangoa izan) bihurtu dute erraz, lo kanta ederrean.

Sarritan ikusi dogu ama edo amuma umea besoetan lo ipintzen dala eta era berean, seme alabei agindua emoten naturaltasunez, **"Sutekue beitu eta irikitzen badauen atara .."**, hori bai, kantaren doinua galdu barik. Gure andrek, gauza bi batera eta ondo egiten, beti jakin dute.

𝄞

Gaurko gurasoek ez dute ohitura gehiegirik ez besoetan umea lo ipintzeko ezta kantatzeko ere. Kantatzen badute, eskolako kantak izaten dira, *"Pintxo pintxo, gure txakurra da ta.."* edo antzekoak. Baita lotarakoak, esate baterako, **Lotan nago, begiak itxita (Bis), Rrin eta rrin, ezin lorik egin.** Ez dot ulertzen kanta hau, edo lo dago edo ezin dau lo egin,baina biak ?.

Lo kanten artean, erderazko *"Urrurrun corderito divino,.."*, "Este niño tiene sueño, este niño va a dormir,.... ", *"Duérmete niño, duérmete ya,... "*, eta beste batzuk ("Tengo una muñeca *vestida de azul,.."*esaterako) ere kantatu izan dira.

Euskarazkoen artean danatarikoak, esate baterako "Isil isilik dago, kaia *barrenian,.."*, *"Bermiok daukaz kale barridsek,.... "*, " Haurtxo txikia askan *dago, amak esan tso lo egiteko,.."*, eta abar, nahiz eta herri kantak edo Gabon kantak izan.

Herri kanta bada ere, gaur egun oraindik lo kanta modura erabiltzen da,

"Atxitxe dala txutxulunberde, amuma dala masuste
atxitxe jun dala Bitoridsera, amuma lepuen hartunde"

Ikusi daiguzan orain, amumek gogoratzen duten lo kanta bitxi batzuk,

Obabatxue lo ta lo, zeuk orain eta neuk gero,
zeuk guzun orduren baten, bidsok eingula lo eta lo"

𝄞

Kanta bera laburrago,

"Lo ta lo, neuk eitzeko gero
Lo ta lo, zeuk orain ta nik gero"

.....

Oraindik amumak gogoan daben kanta ederra. Bakoitzak beran doinua jartzen dau, nik "Santa Ageda, Ageda, bidsar da Santa Ageda...." Doinuaz entzun dot.

"Neure laztana laztango, kalien negarrez dago,
haren negarra gozuaue da, askoren barrie baño"

𝄞

Benetan polita urrengoa, nahiz eta hitzetan aipatzen dana, dendako bezeroren batek burlaz egindakoa dirudien.

Mari fandangon dendie, sagar ustelez beti
guatxin bai elekin bai, similikiton

Umetxuek aitxe be hil jazku
arto handidse be suten daku
ta harek janbidauena be geuk jangu

Mari fandangon dendie, sagar ustelez beti
guatxin bai elekin bai, similikiton

Esan dan lez, sarritan kanta asko bertan momentuen atarakoak ziran. Urrengo beharbada horretarikoa.

Txikitxue zara baña hasiko zara ondiño, hasitzen ezbazara be, ezaitsutela itziko,a,a,a,a,a,a,a,a

Amak esan dost fulano, enaiela zuretzat, eskerrik asko, milla mesede, baina ni bere enai zuretzat. a,a,a,a,a,a,a,a

Geure geusexuek

Mundue mundue danik, pertsonen arteko sexu harremanak izan dira, ta Bermio ezin dalez kanpuen geratu, berak pe badako zer konta horretaz .
Gai hau irakurtzerakoan, behar bada norbait mindu leiteke, baña nire asmoa hori ez danez, esakera batez esango deutsat, **" Esanakaitxik parkatu, ta urren dan lekuen sakatu".**

ANDRAK

BERANA - **Afafánie, Añená, arrakálie, atorrá, erdíko tálue, estánpie, beko geuzie, fundaméntue, ikopásie, lamaídse, lamaikue, langaníkie, maripósie, maspásie, masustié, mikéli, mikélie, mikelíta, motxolíñie, motxónie, muxillé, orri biko líbrue, óskolie, potorrué, potxolíñie, tortólie, trebérie, txirlórie, uxué.**

Pertsona onagaitik edo gibel handia danagaitik **Tortóla bedeinkatié !** dala diñogu.

ESAKERAK- **"Herriko haizie, oskolie sikatuteko ona".**

Hilerokoen zain dagoanak, gorputzean zepaitxe asmaten dauanean **etorkerie** dala esaten dau.

HILEROKOAK ETORTEN DIRANEAN

Ama negarrez, amerikanuek bajata, bandéra gorridse eskeitxe, bandera gorridsegaz, beste kóntukaz, beste morroíekaz, béstikaz egon, emoidségaz egon, enblémakaz, enpaduékaz, enplástugaz, errekadúkaz, erropak eskeitze, etxégunegaz, farol gorridségaz, Gerníkarrak allegata, hillekúkaz, kamísekaz, kaidsólie pintxeta, legoie eridúte, meládigaz, patente gorridsegaz, Santue tapata, tertxíñckaz, tio amerikanue etorritxe, tio amerikanuegaz.

ESAKERAK - **"Ama dauenien negarrez, aitxe ernegaten".**

HILEROKOAK DOAZENEAN

Amerikanuek jjuen diez, azkaningoko ostikadak, beste enpaduek, beste morroiek jjun diez, erretiruek, jjun diez nabegantiek, menopausidsegaz.

IZAERAZ

Andrea beroa dala esateko, **Sarten béro, "Sartenan popie baño berúaue", béro-béro, uso-béro, arrañé, arrain-zántarra, zantarríllie, arperié** edo **arpillerié,** dala esaten da.

Gaisotasunak – **Andra-miñek, henbra geisuek** edo **andra-geisuek** (purgaziñuek)

Batek "**Geuzétxu bet** ", besteak " **Geuzétxue aldien, falta barik**".

Titi bien arteko erraidsie – **Frantziko erraídsie**

Begidsen golpie hartzen dogunean edo **txotorrá** dogunean, **begidse tortólie lez** edo **begidse tortólatute** izaten dogu.



begidse **tortolie lez**

Frantziko erraídsie

GIZONAK

BERANA - **Anaidse txikidsé, hatzamar lodidsé, babillé, beko burue, beste morroié, bustená, kikillé, mangérie, pistólie, pitxiliñé, pítue, sangille, sankarroie, txilinue, txístue, txitxárrue, txitxilíñue, xoxoliñe, xoxue, zeregumille.**

Andrak gizonen sexuari, **"bera jenerue", "bera geuzie",** edo antzeko modu bigunagoan deitzen deutsie.

BESTE BIAK – **Arrotzak, barrabíllek, binbolíñek, bóluek, borlak, hamar-erriélak, galdará-makiñek, kinpúlek, kirrikílluek, mille errielak, pótruek, takétak.**

Gizonak beran **esperma** edo **semenari**, **yogurré** be esaten deutso, andrak aldiz, **esnié**, **adurré** edo baita **beste errekadué**.
Besteak esandakoaz, ernegaten paraten bagara, "Bai zera ! " zentzunean, **"Boluek saltxan"** edo **"Potruek saltxan "** esaten deutsagu.
Norbait ausarta danean, **"Hauri de pótruek okítzie !"**, aldiz alperra bada, **"Hauri de arrotzak okitzie !"** esaten jako.

ESAKERAK

Lagun bi berbetan antzinan gertatutako zerbaitetaz, ta batek diño, **"Orduen, zu fraka laburrekaz ibiltzen zan zaran ",** ta bestiek bera jaio barik egozala esateko, **"Bai, aitxen arrotzatan"** erantzuten deutso.

Norbait arrotz handia edo plaust eindse badago, sarritan **Askozuz !** (Hasiko Dozuz !) entzun beharko dau.

Sexu kontuak berotsunagaz lotzen badogu be, hotzikaratan gagozanean **Kikille lez, Ene kikillélez** edo **kikildsúte** gagozala diñogu.

Esakera - **"Beko buruek galtzien dauela goiko burue".**

Batek, **"Zartzara"** , besteak **"Zartzara, pausue txikitsu, ta kikille handitsu".**

Mutil zaharrei sasoia joan jakela esateko, **esniek galdute , esniek ganez eindse** edo **esniek gorantz eindse** dagozala esaten jake.

IZAERAZ - **Arponerue, arrain santarra, kikil-bero, pajerue** edo **pajillerue, gure kaleko mariko, bero-bero, ime lapur, pintxue, santarrua.**

GOGO ARRAIN – **Astue, atzelaridse, atzeko bodegatik, beste losakue, beste mandakue, boziñetik ure, enbrakille, floripondio, flor margarita, julito, marikie , mari-mutille, sínge lékotik eitzen dau, sínge lékue apurtute .**

BIDSENIARTIEN

HASTEKO - **Karnadie bille, errekadue egin , karnadie eskatu, zirridsek eitzen, mangreuen, eskue sartzien, xafran,...**

GERO - **Añená egin, apaijjue egin, andratan egin, ardorera jjuen, errie apaijjue, eskandalutatik egin, etxadie eitzen, kitxie bota, beste biarrak egin, beste errekadue egin, fonduek garbitsu, Gerniketik biejie egin, karnadie egin, ... karnadie emon, masustie egin, txortan egin, ..tertzak erríe..**

LEKUTARA DOANA - **Austekantaletik bueltatxue egin, beste kontukañe, lekutara jjuen, beste arrainen etxera, monjakañe, santarrillene, arrain santarrañe, muxilletan,..**

Putetxie berbea gure herrian, bere zentzun literaletik kanpo gehiago erabiltzen da, ze putetxie, nahastea edo desordenatuta edo laskituta adierazten dau. Horrela, "**Halako putetxerik ¡!**", "**Zelako putetxie arma dauie ba !**", "**Zer da berton putetxie !**", esakera arruntak dira.

HIRUGARREN BAT DAGOANEAN – **Adarrak** edo **botabérak imiñi.** (**adarrastue** edo **botabéradune**)

>> IKUSI

HAURDUN GERATZERAKOAN - **Agarrakerak** (sintomak) , **txitxigaz, tuntuxegaz** (haurdun) eta **libreta** edo **errieta** (umea euki ondoren).

UMEA Sasoia baino lehenago jaiotzen bada umea, **zazpikidse** edo **zortzi tse maridse** dala esaten da.

ESAKERAK - "**Zelako nobídsie, halako habídsie** ", "**Jan da jan, kiñe ta kiñe, hau da binboliñetako miñe**", "**Ez edateko be sagidsen albuen**" (azken hau, zeozer atarako dan itxaropena adierazteko).

Norbait ikusten badogu **tuntuxegaz** dagoala, gure artean, Andramaidsetan abesten dan, Polinesiako doinuaz "Tamure" abestuaren estribiloa abesten dogu, **"Horreri emon tsoie !".**

Esakera- **"Sopie ta ezkontzie, berotan"**

Izakera edo ibilkera, mistikie edo errefiñaue eukienagaitik, **"Handikidsen andratie lez"** ibiltzen zala esaten zan. Antza, handikiek andratan egiteko be, ez eben galtzen euren errefiñamientue.

Batek, **"Zartzien itzela "**, bestearen erantzuna **" Sartzie ez ta txarra, ataratie da txarraue" ,** sartzíe entzun daualakoan.

Batek, **" Subertie"** , bestearen erantzuna **"Suerte de potro, tener marido y dormir con otro ".**

Batek, **"Brasil"**, besteak, **"Brasil, andratan fasil".**

Sexu sendagileari **Xoxologoa**, xoxoan arazoak **andramiñek**, edo **henbragaisuek** aztertzen dauelako.

ANTZINAN – Aratuztitan mutil gazteek marro jantzita, ezkondu barik tuntuxegaz geratzen ziran neskei, kaletik lehiora kantaten eutsien. Horrela, ordurarte ez ekianak be jakiten eban neskearen egoera.

BOTABERADUNEN UPIÑE – Andriek adarrak imiñi eutson gizonari ta gizona entera dancan, aldarrika hasi ta diño, **"Balkoitzik botako nai"**, ta alabatxoa negarrez. Orduan amak diñotso alabeari, **"Ez kaisé, adarrak imintsatez, baie ez heguek ".**

BESTE ZENTZUN BATEGAZ

.....

Aintziñan entzundakoa: **Martzela, nora zuez ba ?** ta berak **"Andratan, fulana dau hildse ta" !**
Baña bera benetan, Karmengo Amaren taldeko andren billa joian, entierroetan euren eskapularioakaz joaten ziralako.

Hitz jokoa **- Eingule ?** (Lanen bat egiteko asmoz) -
- Eidsok amari ! (Karnadie eskatu deutsolakuen).

Eguraldi txarra dala ta itsosotik etxera datorren gizonak, honako hau entzuten eban, " **Ilunpiri eskapaten zatoz, beste ilunpe batera**".

Behin, Kontzidsopien gozokiak saltzen egoan andra batek, zera esan eutson ingurutik pasatzen zan karabineroari, **"Estreñame karabiñero ! "** . Karabiñerue harrituta geratu zan, berak gauza gogorrak pentsatu baeban, saltzaileak, eguneko lehen salmenta egitea baño ez zuen nahi.

KANTA PIKAROA

Batek – **" Hiru txikitxik, sartun da atara "**
Bestick – **" Txakur bitxik, bertan itxi** edo **bertan okin"**

Lehen esan dodan bezala, norbaiti **"santarkeri hutsa"** irudituko jako gai hau, eritziak eritzi, niretzat garbi dago, gure herriko hizkuntzaren, beste aberastasun bat dala, bestela ea iñork topaten dauan beste herriren bat, gauza bat esateko horrenbeste modu dauzkana.

EZIZENAK

Adarrasto, Andrabiko, Aurre eder, Viuda hermosa, Busten bako, Busten gogor, Eperdi galant, Eulari gozame, Kanikas, Medio polvo, Oker ezkondu, Tortola matesta, Uso bero, Uso kaka, Uso eder, Uso politz, ...

Ezetz igarri

Popitas ?

ARIDSEN KARRETIE

Igarkizuna bertokoa, polita, baina apur bat exajeratua.

Adorez ta osasunez

Dana okasiñue
Itsue ta mutille
Ikarie
Beste egoera batzuk
Osasune

Joseba Barrenetxean argazkia

Dana okasiñue

Gure herrian, umeak lagun artean hasarratuten diranean, **E nai zure lagune !** edo **Urrun da fitx, betiko ta betiko !** esaten badabe, nagusiek imajinazio gehiago daukagunez, amaigabeko esakera, erantzun eta iraiñak esaten deutseguz alkar hasarratuten garenean. **Okasiñue** berbie guretzako ez da aukera, baie aukera badogu okasiño barik hobeto guretzako.

Askotan, okasiñue, folloie, edo pellikadie baño lehenago, irain edo berba txarren bat izaten da. Hala ere, badago berba bako iraina. Norbaiten ala, begiekaz, ahoagaz edo miñegaz egiten diran burlek, hau da **siñuke** gabiltzanean. **"Berari siñuke ibili zara"**. Besteak ikusten badau, beran kontura ibili dirala siñuke, **"Barreketa gitxi e !"**, kontuz bromakaz gero! esateko.

Egoeraren baten aurrean, gure ezadostasuna, harridura edo zalantza adierazteko, **begikúnie** egiten dogu, hau da, begiekin keinuren bat, guk momento horretan sentitzen doguna argi geratzeko. Baina ikusitakoak edo entzundakoak hasarratzen gaituenean, bekainek okertuz eta bekokia tximurtuz, **betondué** ipintzen dogu, gure haserrea adierazteko.

Betondué imíndse

Baina zeozer ahaztu jakunean edo txarto urten deuskunean, geugaz hasarratuten gara, **kaka zarra, kaka eitzen tsat, ama putie !, ama perrie !, ama txitxie !**, eta antzekoak esaten doguz.

Pellekan eitzeko, gure nagusiek **Erdu tonpoire** edo **talara** esaten baebien, guk gazteagoek **Etorri Kansara** esaten gendun. Zorionez gaur egun gauzak beste modu batetara konpontzen dira. Oraingo umeek euren **pellikadak** beharbada ordenagailuz egingo dabez, halan, begidse baltzitsu barik, disko gogorra zuritsuko dabe.

Esakera – **"Miñék miñe dakar"** (Mihiak min egiten dau)

Hasarratuten garenenan, andrentzat esakera normalenak bestiri **Tire haiziek hartzien**, **Zeure tentelan arpi tse guzti ¡, Jjun zaitzez hortik horrantz** edo **Jjun zaitzez kaka saltzien** esatea da.

Gizonezkoek **Tire popatk hartzien** edo **Jjun zaitzez popatik hartzien** (parkatu baie halan da), esakera horreri **zeure txingauen arpi tse guzti** luzetuten deutsagularik. Antzinan zentzu berean, andrak **Andekidsola !** be esaten eben.

Esaten da popako uleak ganorabakoak dirala, ze jakinda zer datorren mobidu be ez dira egiten, hori dala ta, gure gustuko pertsonea be, **Popako uliek paño tentelaue** edo **popako uliek paño txingauaue** da.

Itsosuen eraginez, norbait pikutara bidaltzeko, **Jun zaitzez hiru eguneko ogidsegaz, Jun zaitzez sínge lékotik** edo **Jun zaitzez atzeko bodegatik** esaten da.

Besteak diñoskuna ez bada gure gustokoa eta haserrea sortzen badeusku, **Bai, berori pentsaten egon !, Politxo emoten tsu !, Eguno halakorik , Nora dator hau desigualeko berbakaz !,! Hauri da kakagaz arpidsen jotie !, Zer da berau !, Iñor enpatxa barik gero !, Iñor enbolike barik gero !, Iñor ez imiñi kañuek konponduten gero !, Kartolataraino nau zeugaz !, Iñori ez atrapa kankámuek gero !, kirikidsuek imiñi barik iñori aidien gero !, Nongo ? , Zera ! , Esnien bitxe zara la ?, Esan be eitzie !, Holakuen bost ! , Boluek saltxan, potruek saltxan, No tiño !, Zuri mandru !, Etxa horreri pala bete iketz, , brekeké zuri !, Itzistek bakien, Zer dakaztak hona !, Itxi berton** eta abar eta abar esaten deutsagu. Zelan ez itsasoa kontutan harturik baita !, **Etxa gatza zuri ! , Gatz frankue etxa horreri , Emoistek amure ! , Etxamon zuri !** edo **Emoistek amure, bietz punten !.**

Baña bestea danean guk esandoagaitik hasarratzen dana, guri **okasiñue armaten** edo **lotsak emoten badabil,** guk orduan **Nora zatoz potozórrikeidsekaz !, Hamen hau ! , Nora dator hau perostute ?, Isilik on hadi mataraski hori !, Bertsolaridsek, entzunlaridse be esan bidau gero ¡, Nora dator hau sublebata !, Neupatzen be !, Delikadá zatoz!, txútxue zara la?, meréngie zara la ?, patata prijiduen keie zara la ?** eta abar esaten deutsagu, ernegaten arin paraten dala adierazteko. Itsosue kontutan harturik baita **Lejiatako lastue zara la ?** (atunetan erabiltzen ziran lastuak, arin apurtutekoak).

Aldiz beste batzuetan gure artean **konbertzaziño gogorrak** izaten doguz, baña ez dau gura esan okasuñiue dabilgunik, konbertsaziño luzeak baizik. **"Konbetzaziño gogorrak dakoie ! ".**

Norbait **geure ala** edo **alatuten**, **artazidsek zorrostuten**, **marra-marra**, **azala kentzien** edo **lepue jaten** dabilela jakitean, **gu ernegaten, taketien, barrabasak hartunde, berotute** edo **odol txarra egiten, odolak enberénata** paraten garala diñogu. Andrek orduan **Zoratu ein jast harek esatie hori !** edo **Ikusko dau harek !,** gizonak aldiz **"Neuk atrapa kot ha mandatik"**.

Ernegaten, taketien edo berotute dabillenagaitik, **goidsek jo , beiek jo** dabillela ere badiñogu.

Sarritan persona bi eztabaidan, hasarrean dabiltzanean, hirugarren bat sartzen da bakea egiteko asmoz, baina gatza izaten da. Ondiño gatzaue bateri eta besteari, biei errozoie emoten badeutso, orduan **"Kandela bigaz gure egin argi"** gura dauala esaten da.

Besteak diñoanagaitik, berotzen hasiak bagara, **Gero arte agur !** edo **Neiko da berbarik !** esan eta bagoaz gehiago berotu barik.

Gure atsuek diñoenez, **"Hasarratutiek gatx bi dakoz, hasarratutie ta lagun eitzie"** edo **"adiskitutie"** . Benetako egidse edo **"egi *berdaderue"*** . Hobeto hainbet ariñen **parka eske** joan ta **bakiek egin**. Berotasune negorako ta ez larrei.

- **"Txarto eitzeko pauso bat emoten dauenak,**
  gero atzezko asko ein biko dau"

- **"Txarto eitzen dauenak, bueltan-bueltan ikusi eitzen dau"**
  (Azken hau entzutean, itsua korrika joan zan kalera zeozer txarra egitera.)

Negar baten



Batzutan **imiek** eta baita **amiek** pe, erdi olgetan ibilli ta gero benetan amaitzen dogu, **olgetan hasi ta benetan akaba**. Danori guztatzen jaku barre egiten, baña gutaz iñori ere ez, **Negar da barre, txise bolue ¡, Barre askok, negarra dakar atzetik gero !, barrie Ondarrun burlie da gero !** esaten dogularik.

Norbait ikusten badogu begia baltzitsuta edo jakin badakigu ederrak hartu dauala, gure artean, Andramaidsetan abesten dan, Polinesiako doinuaz "Tamure" abestiaren estribiloa abesten dogu, **"Horreri emon tsoie !"**.

Besteak egindakoa arraroa iruditzen jakunean, ez dalako ohikoa harek egitea, **"Asko da berantzat!", "Asko da berantzat, bera danagaz !"**, edo antzekoak esaten dogu.

Umeek barrabaskeidsek eitzen dabiltzenien, **jjarrastak imindse** dagoen amaren aldarriak jasotzen dabez, baie barregarriena beran amak, **Nongo amak eñikue zara ?** galdetzen deutsona da.



Auna érdu ! **Jjarrien astak**

Ama , **jjarrastak imindse** umeari aldarrika (eskuek hanketan jarrita)

Norbait beste baten ahoa topaten dabillenean, **kiñeten, binboliñek joten, berotuten** , **arrotzak berotuten** edo **bille dabillela** diñogu eta gero berbiek berbie dakarrelez, **azkanien arma eingo dauie** esaten dogu.

Gertatutako zepaitxek (zerbaitek) edo norbaitek esandakoak, hasarre bizian jartzen bagaitsuz edo badau nopaitxe (norbait), **"Kabrieten nai !"**, **"Zoratuten jjast !"**, edo **"Kabrieten da !"**, **"Zoratuten jjatso !"** esaten dogu.

Mahaian jaten gagozanean hasarratzen bagara, añen bat esaterakoan, **"mahai Santue apartata"** luzatzen jako, Jaingoikoak emondako janariak errespetatuz.

Zer esanik ez, gure haserrea adierazteko orduan be, andren edo gizonen arteko ezberdintasunak dagozala, adibidez andrek **niri odolak enberenaten** edo **irikitzen** dostena diñoen bitartean, gizonek **niri potruetako miñe emoten dostena** edo antzekoak diñogulako.

Batek, alabeagaz doan besteari **" Ama ta alabie, zein ete da hobie"**, eta bestearen erantzun, **" Bata nahi bestie, zu baño hobie".**

Lagunen bategaz berbetan gagozanean, beste hirugarren batek egindakoa edo esandakoari buruz, **"Zelakue da baie !", "Zer da bera ba !","Zer dok hori ¡!"** edo antzekoak diñogu.

Arazoren bategaitik lagun bik **hasarrakuntzie** euki badabe, besteek **gora beraren bat okin dsauie** esango dabe. Gauzie gogorra izan bada ta euren artean **aldárrike, agírike, marrádaka, gora-góraka** edo **txilídsoka** ibili badira, orduan besteek, **Halako eskandalorik !** edo **zelako masamorrie arma dauie baie !** esango dabelarik.

Esakerak –**"Errespetue gauze handidse da gero ! "**

Gertakizun negargarri horreei, gure artean **Okasiñué, nástie, enbróllue, matrákie, folloié, garrantzídsue, batifóndue, txurupíñek, saltxaídsue, kustiñué, degollúek, jjigolíñek, kutxílluek eta áskak, txikotíñek, matásie, ubilladié, algarabidsé, eskandálue** eta abar deitzen deutsiegu.
Okasiñoren bat ikusi eta hurbiltzean, berba asko baie sustantzi gitxi ikusten badogu, **"Hor iñok ez daki ama ta aitxe nor dan"** esaten dogu.

Antziñan okasiñue esateko, **drogie** berbie be erabiltzen zan. Zoritzarrez gaur egun izen hau, okasiñue baño gauza askoz ere txarrago bateri deitzen deutsagu.

Dana ez da lez txarra izango, gaur egun zorionez **erridsetan** edo **pellikadié** ikustea ez da gauza normala, antziñan aldiz ia ia egunero izaten ziran, batez ere jaietan.

Pellikadie azaltzerakoan ere, andrek **eskutara allega diez, sartadakaz** edo **ukubilkadaka akaba dauie** badiñoe, gizonek **pellekan** edo **ostike ein dsauie** diñogu.

Gure herrian danan gustorako berbak daukaguz, ze momentutan eta nogaz gagozan kontutan izanik, berbak gogorregiak iruditzen bajakuz, orduan beste bigunago batzuk erabiltzen doguz.

Hasarrakuntzek eta antzeko arazoak sortzea gustaten jakonari, **Barro txarrekue, okasintie, okasínte mamárrue, arrañe, karta faltso** eta abar esaten jako. Halakoari, **"Arrañe ezan balekizara, gardie, ha txise atsa dakona! "** be esaten jako

Pertsona okasinte edo beti egiaren jabe diranei buruz, esakera pillo bat dago euren izakerea adierazteko, adibidez.

Zelako perejille da baie

Bera beti uren bitxe lez

Beti dako harek zer esana

Ez ta kristiño batiritue baie

Duela duen lekora, ha beti agiri

Hori beti bosgarren buztena topaten

Horrek tako miñe luzie, baie txarrerako

Ez tok gure hori personie, arrotzigaz prijite bez.

Holako personari, barikutan erreza bidatsoie, aztidse badauen.

Ikusi doguzan naste-borrastiek ikusirik, gertakizun horretako jendeagaitik **gorroto gogorrien bizi dizela** esango genduke. Gorroto bigunagoa ere badago antza danez.

Guk emondako laguntzak eskerrik ez daukanean, **ondo eiñen pague, ate onduen palue** diñogu; eta beste bateri bere laguntzaren behar izanik ez daukagula adierazteko, **ez takot** zure kuartotik ohire biderik diñotsagu.

Oraingoan papelan baño ez bada ere, eskuetara allegako gara. Helburua noski ez da animoak berotzea, gure esakerak erabiltzeko gogoa berotzea baizik.

Umeren bat okasinte dabillenien, amak normalean **Emon eingo tsut !** edo **hartun engozu !** esango deutso, beragaz dagoan andra laguneri esanez, umeak **bolo zaindsie** daukala.

Umea zelan hazi, hartzekoa ere gero eta gogorragoa izango da, sarritan gurasoengandik **Auna erdu !, Jusidsue hartungo zu ! , ganorie hartun gero !, eperdikue emongo tsut, bille zabiltz da topa eingozu, zeure egurren bílle zabiltzez !, zelako zapuzkadie emongo tsut ba !, hazurrek txikitxuko tsutez, txalo bat emongo tsut gero!, emoten tsuten fuetigaz e !, emoten tsuten arpikugaz e!, txiki-txiki eingo zaitsut !, hormigaz bat eingo zaitsut** eta abar entzungo daularik.

Itsasoaren eraginez **atrapaten bazaitsut, itsukidse baño sikuau imingo zaitsut !,** be entzun beharko dau

Etxean amak **zapatilligaz, esko-trapugaz, harriko-trapugaz** edo **suteko burdiñégaz** joten baeban, aitxek **belárri-eskíñekue** edo **garríkugaz** joten eban.

Beste batzutan amak **Halan eingo tsut !** aldarrikatuz, papoan keñua eginez **txitximárka** edo **txitxumárka** egingo deutsola amenazaten dau. Norbait bitartean sartzen bada, **"Eruen zeugaz semetzat"** esango deutso umearen amak.

Gurasoetatik aparte, umeak eskolan bertan ere jasotzen eban egurra, gaur egun zorionez askoz ere gitxiago. Lehengo irakasleek, **irisillegaz** edo **mimenagaz**, **subillégaz** (idiaren kikille sikatute) eta **erregligaz** joten eben. Maisuak erregligaz jo baño lehen, imiek berakatzagaz igurtzen ebien eskua, pentsaturik horrela min gitxiago egingo eutsiela. Esan baietz !.

Mutillek, gure pellikadatan, **harrike, matralleko ederrak, azpitxik-gorakue, ukubilkadak** eta **ostikadak** erabilten badoguz; neskek, **besoetan txitximarka, ulitatik tiretu** eta noski euren atzazal luziekaz **txarrapáta** egiten dabe. Baña danatatik gure armarik mingarriena, **miñe** da, miñ sakonenak izten bait dauz.



Txarrapatádak

Ostikadié

Azpítxik gorakué

Aldarrike dabiltzenei eta pellekan hasi orduko, kanpotik zera esango deutsie **ezpatan hasi barik gero !,** euren artean sakakadaka **Emongo hau e ! , Joten bazaitzut !, Jo halan ez ta !, Emoten tsutenagaz e ! Arpidse apurtuko tsut gero !, "Antxobiena eingo lekitsut "** edo antzinako **Saman kargatso tsut gero !** esanez, besteak azken desafio horreri - **zuk eta nok ?** erantzungo deutsolarik.

Emoten tsutenagaz e !

Zuk eta nok ?

Norbaitek beste bati pasadié emon edo masitsu egin dauala esateko, antzinan, **"Ikopása Sántue eta Kredó"** atara deutsola esaten eben.

Hasarre garan pertsonaren bat albotik pasatzean, eta alboan daroagun lagunak diñoskunean **"Fulano due han !"**, guretzako bardin dala esateko, **"Nire begidsek etso kalterik egin"** esaten deutsagu.

Gure artean andrazkoa edo gizonezkoa, modu gordin edo bigunagoa eta abar kontutan harturik jotea adierazteko hainbat modu daukaguz, **manga-manga, Agoniko kanpaien bidien imiñi, masi-masi ein, malletu, lepo bete emon, ederrak emon, ostidsek atara, pasadie emon, zaidsé atara, keié atara, txikotiñie atara, San Blas zintzie atara, masillie atara, tantuek emon, zaparradie** edo **sartasuek emon, zatitsu,** etab.

Itsosuen momentu beroetan, **mataputxegaz emongo tsut gero !.**

Sarritan kalean baketsua danak, etxean okasintie izaten da, horrek **kanpoeder** batzuk direla diñogu, edo urrengo esakerie, **"Etxien gerrie ta kalien barrie".**

Txantxetan gagozanean, umeei gure ukubilla erakutziz eta joteko keinua eginez, zera galdetzen deutsegu, **Bakizu nor dan hau ?** , beran erantzuna itxaron barik, beste ukubilla erakutsiz - **Haunen anaidsie !** esaten deutsagu.

Amaitzeko, geure geureak diran irain barregarri batzuk, **"azukara morenue baño bobuaue"; "popako uliek baño txingauaue" ; "tontuaue da, armosue jan orduko, ta gero egun guztidsen".** Okasiñue akaba da, orain danak lagunek.

Barreka zatitsu

Antziñako gazteen txarkeidsek kontaten deuskun pasadisue. Baporatako mutil danak txapela buru gancan ibiltzen ebien eta mutilen bat makala edo epela izaten bazan, besteek erderaz galdera hau egiten eutsoen - **Pobre ó rico ?,** bere erantzuna pobre izaten bazan, orduan besteek -**Al pobre todo el mundo le jode !** txapela kendu ta apurtu egiten eutsoen. Bere erantzuna rico izaten bazan, orduan besteek **Al rico no le importa por una txapela !** esan ta bardin txapela kendu ta apurtu.

Ezetz igarri

Sague baño txikidsaue, baie etxie jagoten txakurre baño hobiaue. Badakizu edo popitas ? **Popitas ?**

Itsue ta mutille

Antzinan be, herritarrak euren biharrak amaitu ta gero, tabernatan eta fondatan batzen ziran. Arrantzaleek, baserritarrak eta beste langileek, han hartzen ebezan euren txikitoak edo jakidsen bat, Fondazarre, Zugadi, Baranda edo beste fondetan.

Sasoi haretan, lanerako gai ez ziran pertsona asko ibiltzen ziran eskien (koixoak, mantsuak, itsuak,..), batzuk herririk herri ere ibiltzen ziralarik.

Honelako bat itsua zan, eta mutil bardingo bat erabiltzen eban laguntzaile modura. Arratsalde baten, Zugadi fondan sartu ziran zepaitxe jateko asmotan. Jesarri zirenean, itsuak **"arenke bana, basobete ur umearentzat eta pitxar erdi ardau"** eskatu eutson etxekoandreari.

Itxaroten egozan bitartean, umeak kumunera joiala esan eutson itsuari eta mahaitik altza zan. Baina ez zan kumunera joan, sukaldera baño. Han etxekoandreari esan eutson,

" Arenkien ordez niretzako lukainke eder bat imini ogi barruan, itsuak jakin barik ".

Esandakoa egin eban etxekoandreak, eta **"on egin !** " esanda mahai gainean itzi ebazan eskatutakoak.

Gizona itsua zan, baña baita usaimen onekoa be eta jaten hasi zirancan, arin baten asmatu eban lukainke usaine. Eskua luzatu eta umeak eskuan eukan lukainkea hartu euston esanez **"Engaiñe nozu baie laster baten konponduku zaitsut kalien ".**

Handik urten ta gero, Jeronimoneko aldatzetik gora joan ziran Mañurentz biak, itsua marra-marra zala. Herritik urten bakarrik egozala konturatu ebanean itsuak, matraileko ederrak emon eutsozan mutikoari. Mutikoa negar baten zala joan ziran biak aurrera, itsuak mutila sorbaldatik oratuta.

Bide ondo haretan egozan txopo arbola eder batzuetara heldu ziranean, itsuari bere ordea emotea akorda jakon mutilari. Orduan mutilak arbola baten aurrera eroan eban itsua eta salto handi bat emoteko esan eutson, pozo handi bat egoala ta.

Itsuak esana egin eban eta salto eginkeran, aurpegiagaz jo eban arbolea. Oso osorik jausi zan behenganera hau esanik, " **Hau dok zartasue ! , hagiñek be mobidu egin jataz eta zuk ez deustazu aurrean ezer daukadanik be esan ".** Orduan mutilak zera esan eutson: **"Hain usaimen handia daukazunez, lukainka usainaren moduan, arbola usaina be asmatuko zenduela pentsatu dot ".**

Eta holan geratu ziran biak kitxú. **Hau dok upiñe, talo burdiñe.**

Urren halakorik eitzen bazu, masitxu eingo zaitsut !

Ezetz igarri

Popitas ?

GILTZÉ

Ekilikua kantie > ENTZUN

Ikaragarrizko ikarie

Antziñeko gizartea oraingoaz konparaturik oso desberdina izan da, orduan gurasoek umeak zaintzeko eta sasoi hareetako arriskuetatik kanpo ibiltzeko, sarritan pertsonaiak ere asmatu behar izaten ebezalarik.

Normalena **Mamaue etorko da gero !** esatea bada, Bermion pertsonai ezagunena eta gaur arte jarraitu dauan bakarra **Sacalamantecas** da. Pertsonai hau beste leku batzutan **Sacamantecas** izenaz zan ezaguna. Bernardo Atxagak bere "Obabakoak" liburu zoragarri horretan diñon moduen, trena etor zanean, gizartea zera pentsatzen hasi zan: trenan burbillek engrasateko behar izaten zan olioa, umeak urtute ataraten ebiela. Horretarako, umeak lapurtu, Inglaterrara eroan ta galdara handi batzuetan urtu egiten ebezan. Hori dala ta, **Sacamantecas** deitzen jaken mendietatik sakugaz ibiltzen ziran bagabundo guztiei .

Diñoenez, iñoiz Kataluña aldean herri bateko ama talde batek, estaziñoren bat ere erre eben, ez ebielako nahi trena etortea.

Makiñetxu bider esan deuskue **Sacalamantecas etorko jatsu sakugaz gero !** Baña gizonezko pertsonai guztiak behar dabe lez bere bikotea, baegoan andrazkoa ere bai: **Maria Burduntzi**. Eta, gurasoek **Maria Burduntzi etorko da gero !** esaten euskuen.

Imiek beti ikaratute, ta gero ohien txise egin, da ondiño aldarriak entzun behar.

Baña dana ez da izango fikzioa, orduan be ibiltzen ziran mendu txarreko pertsonak, batez be herriz kanpoko auzoetan.

Mañuko auzoan sarritan izan dabez sustoak, iñoiz eskolatik baserrira joiazan umeei, kotxez etorritako gizon bik, ogorlokoa erakutsi eutsien, eurengana hurbiltzeko esanez. Arin eskapa zauien solutatik zehar, eurak entzunda bait eukien, iñoiz bertatik ume bat desagertu zala. Diñoenez, euren azken helburua, gorputz organoak edo odola ataratea izaten zala.

Herri barruan bertan ere, gauaz gertatzen ziran pasadisu ikaragarriak. Batzutan **izara zuriekaz** mamu itxuraz jantzitako pertsonak etxeetatik korrika urteten baeben, beste batzuetan **erropa báltzakaz** eta baita **monja jantzita** ere ibiltzen ziran kaleetatik zehar.

Azken honeek gazteek ikaratuteko asmoz ibiltzen baziran, mamu itxurazkoak, gehienetan alargun edo senarra itsasoan ebien emakumeen etxeetara "lanen" bat egitera joaten zirala diñoe.

Diñoe, **Eibarreko eskapulaidsue** (Armie, eskopetie,..) etor zanean, mamu danak desagertu ziran.

Sasoi hareetan, urrunetik etorritako "bandoleruek" ere ibiltzen ziran, guarda sobillek euren atzetik ibiltzen ziralarik. Horreetariko bat **Vallejo** izenekoa zan, antza danez oso arriskutsua, berari buruzko esakereak: **" Si quieres vivir muchos años, no le persigas a Vallejo"** esaten ebanez.

Calores izeneko beste bat ere baegoan, behar bada Vallejoren antzeko bandolero bat izango zana. Ganera, azken honen izena, gure umeak ikaratuteko ere erabilia izan da, **"Calores etorko da gero !"** esaten zalarik

Ikariegaz, **kakatán, kaka-daídsola, akokíñeta, dardakadán, kikíldsute,..** egoten gara. Edozek ikaratzen dauanari **"Eulidsek pe ikaratu"** egiten dauala diñotsagu. Gure artean **kakati, ollue** eta baita **Ikariaga** expresioak erabiliak badira ere, gure umeei esaterakoan erabiliena **I ka raaa tsu !** da, bai burle modure, erdi kantuka ta hatzamarragaz señalatuz.

Kaletik goazela, negarrez eta matrakaz, atzetik geratzen umea ikaratu eta suspertzeko, **"Harek gizonak erungo zaitsuz"** edo **"Han dator gizona"** edo **"Han dator aguasille"** esaten deutsagu.

"Ama ikarie dakot " entzuterakoan, **"Ikara asko ta billur gitxi"** edo **" Ikara y krus"** erantzuten dogu.

Ikaraaatsu !



Beste egoera batzuk

Gure eguneroko bizitzan, hainbat eta hainbat egoeretan aurkitzen gara eta gure herrian zelan ez, egoera honeek adierazteko ere, geure modu bereziak daukaguz.

GORPUTZEN EGOERAZ

Andanan, koiso-koisoka, korri-korrike, kuidsite (batunde), **lau-txákurren, lotu-lotuke, makiñe guztidsen, Arrekokosillo, arrelepo, aska-askaka, bietz-puntetan, belauníko, birinbólaka, biri-birike, dandarrez, eidsota, enbarasuen, endekatute. etxure barik, txistue botateko moduen** (itxura onez), **gillez gora, harriko trapue lez, hotzikarakaz, idsetsuen, izerdi lamatan, kapaz ez tan moduen, katuen gloridsen** (epeletan), **auzpez** (aurrez bera), **begidsek lau eindse, arnaz uske, bidsotza auen dala, logurigaz erreta, makurtute, mela-meláta, mokue daidsola, otsagaz gogortute, kíkuke, kíñuke, kikildsute, kikillelez** edo **dardakadan, kukuldute** (makurtute), **hotzakildse, pálpalien, sagan, saka-sakaka, tiñuen-tiñuen** (geldi-geldike), **zabal-zabal, zurez-gora, hagiñe-hagiñe joten** (hotzagaz dardakadan), **desguarnieta, deskonortata, destartalata, edan bako mozkorragaz, errementata, manduek jota, mangata, manga-mangata, derrengata, manuen, amak eñeko moduen** (billozik), **katuek auen ibilliko moduen, hotzak-hiltzen, mutututе** (lotute), **karrieta, taidso barik.**

Arrekokozíllo



Bietz-púntetan



Lau txákurren

Kíñuke

Kíkuke

Zíñuke

Norbaitek kíñu egiten deuskunean kasu egiteko, txantxetan zera erantzuten jako " **Hogeitamaike musien !** ".

Norbait azgurekaz dabillenien, eta popie arraskaten badau, bestiek **"Han, gatxa merkatu bidau"** esango deutso.

Izerdi lamatán

Hotzagaz, hagiñe-hagiñe joten

ADOREZ

Behie jota, bertan bera, bertan bertan, burútik eindse, burue largata, entzun da gor, entongata, ernegaten edo ke ta lañú, etxien-etxien, guardabajo ta bera, kamarie galdute, kapaz ez dan moduen, paistekaz, koplakaz, barriketakaz, memelotute, mututute, ondue jota, óskolie hazten, perostute, plaust eindse, txingautute, txintxóla jota (burua galduta), **Santidsago galdute** (burua galduta), **papelak galdute, zegan dan bez, zer eñekidso, zer eñezien, iñok guzik, baiezmenakaz ibilli** (dudan)., **burutik eindse, errenkuretan, keisetute** (arduretute), **sats eindse, zoro formata** (norbait edo zerbait topa ezinik ibili), **úrdidsegaz, zurtute, zurtz eindse, .**

Esakerak - **"Ze eñekidso, ze eñekidso, aman moñuri be sue emon"**
- Zer egin jakin barik.

"Triste ta erruki nau ta arime mundokorik ez datost"
- Bakarrik nago eta inork ez nau bizitatzen

NEGAR DA BARRE

Negártidsek- **Negarrez, negarra daidsola, Dolorosie lez, mañek eitzen „. " Horrek negar, kinpulerik pe ez tau bihar ".**

Esakerak- Batez be umeei, negarretik barrera arin pasatzerakoan **"Negar da barre, txise bolue"** kantatzen jake.

Gauzak txarto joango dirala esateko, **"Atxak pe negar eingo dauie"** edo **"Hasi da Ogoño negarrez da Izaro suspiruke" .**

Gangárrak- **Barreka, barreka zatitsu, barreka itso, barre masie , barrera apurtu, barre pillue, txise barriek, barreka destartala.**

BATZUTAN LARREI, TA BESTE BATZUTAN GITXIEI

Adurre daidsola, babatan, babie daidsola, kaskabelak baño pozau, larreidsek kalte eindse, misketúte, txarrenari emonda, xafran, aupe ibilli, azalien ibilli, tapateko onduen, atesuen, desanbandonata, goidsen zerue ta behien lurre, kabue monta eziñik, kale gorridsen, kale gogorrien

KALEAN

Aisando, ban-bai ibilli (alperrien), **egabanatute, kalick austen, kalinpan, aisonduen, minke-minke edo tenka tenka** (plazan erregatieten), **mundurik andar** (ibilli eta ibilli), **nora ezien, nora gure, norez, sondan ibilli, zoro-zoroka, sunsunkordan ibilli** edo **txori-txorike** (iñor topaten soratute), **trabez, truben.**

Esakerak- **"Begidsek pe lau eindse dakotaz zeu topaten !".**

Ezetz igarri

Lau hanka dakoz, idse begirik pez, lurrezko etxie, baie tellatorik ez. Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?.**



Benito Barrueta (1873-1953) - **Arrelépo**

Osasune

Gaisotasunek, soinean eukitzeko baño, euretaz berba egiteko hobeak diranez, euren errepaso txiki bat egitera noa eta oraingoan ere gure herriko berezitasunak bilatzen saiatuko naiz.

Zeozer daukagunean, personie **armiñ,** **atzakidsekaz,** **makalik, jan jan barik, barrue triste, ez dabil santuz, gatxagaz, aienakaz, destartalata, desguarnieta, alperrikaldute, kapaz ez tan moduen** edo **gauze ez tan moduen** gabiltzela diñogu,"**E nau eratara ", " E nai gauze "** edo **"E nau Santus ! ".**
Itsasoan batela ibiltzen dan moduan, halan-holan gabiltzala esateko, **orakan** gagozala diñogu.

Benetan dakona baño gehiago dalakuen egiten dauanari, **Koplakaz, paristekaz, alamenakaz, barriketakaz** edo **makanakaz** dabillela diñotsagu. Beti zeozegaz dabilenagaitik, " **Beti dabil hango miñegaz, horko miñegaz ".**

Esku, beso edo hanketan egindako min txikia sendatzeko, gauza gehiegi ipintzen doguzanean, **"Lau maridsen pupu ta sei maridsen trapu"** esaten dogu.

Batek	Besteak erantzun
" Geisorik nau !" ,	**" Iñor geisotuko lekizu zuk !"**
" Buruko miñe dakot !"	**" Buruko miñe iñori eingo lekizazu zuk !"**
" Ai ama ! "	**" Ai ama ta iñon miñik ez !"**

Gaisotasun baten ondorioz, itxura txarrez dabillenari, **etxure barik, miseritute, argaldute, endekatute, arime fiela, kadaber andando** edo **hilbizikulez** dabillela diñogu. Osasun eskasagaz, benetan txarto daunegaitik, **azkanatan, idselien** edo baita **andarako** (anderuek eruteko moduen) dagoala diñogu. Beti gaisorik dabillena, **geisokidse** dala diñogu.
Golpe mandue, golpe mutue edo **sartazue** hartzen dogunean, **Ai ena !** esan edo **alaurike** ta **intzirike** jartzen gara, **negar anpuruek** pe urteten deuskuez, ta pozik **konorte barik** edo **deskonortata** ez garanien geratzen, **angarillen** eruteko moduen.

Begiko infeziñue edo **txotorrá** dogunean, edo baita norbaitek jota edo jeusita, begidsen hartzen badogu golpie, begidse baltsitsute dogunean, **begidse tortolie lez** edo **begidse tortolatute** dogula diñogu.

baltzúnie

isterra trokatúte

turtúlue

Sarritan kolpea hartzen dogunean, **pomadie** edo **unturie** emonda be, **dolorite** edo **mindsute** okitzen dogu bera unadie

Baie **turtúluek** osatuteko, gaur egungo pomaden ordez, lehen, azukarie ta ardaue edo azukerie ta oridsuegaz eginiko ungentuek ipintzen ziran, baita txakur handi txanpoi batégaz, turtulen bertan ere gogor sakatu.

Eskuen, eskuturré minduta, **esko arrañe** (Que te ha pasado pues ?- Pes de mano!), **usarrañe, esko ikarie** edo **bidsortu** egiten badogu ere, miñe luzerorako izango dogu.
Antziñan horrek danak osatuteko, lanazko zeozegaz kurtzea eginez **"San tiritu, san urrutu, sanak beran lekuen lotú"** erritoa egiten zan , gero **"Ave Maridse"** errezatuz.
Batzutan, ateak hatzamarra harrapatu edo tresnaren batek haragi unada txikiren baten hainka egiten deuskunean, **odol bátune** (odol koagulatu poltsatxu bat) geratzen jaku luzerorako. Eta beste batzutan, hatzamarretako **hatz-bizarrak** hainketan ibilita ta gero, hatzamarrak odoletan eta soldu be egiten doguz.

Hatz-bizarrak haínketa batzamarra odoletan

Isterran **bidsorkadie** edo **trokatu** eskero **orkatillé** handitsu, eta salto eindse **orpue** mindsute izaten dogu. Isterra edo besue apurtzen badogu, **idseltsue** edo **ormie** ipiniko deuskue. Eskue apurtute dogunean, besoa ez mobiduteko lepotik tela batégaz lotzen dogu. Halan dagoen norbait ikusten dogunean, **"Umie ondo jabon gero ¡", "Umie dakozu hor", "Seiñe jjagoten zauz"** e.a esaten dogu, ikusten doguna oidseletako umea gogora arazten deuskulako.
Zapatak eurek pe barridsek dizenien, **eratzitze** imintzen deuskuez **orpo** edo **bietzak**. Zauri guzti honeek, **jjangaka** edo **jjangadaka** jartzen dira, eta ez badoguz behar diran moduan zaintzen, **soldú** ta **sóltzeiñe** egiten jaku. Soldute dagoen zauriari, materidse atarateko erabiltzen zan bisturiari, **lantxetá** esaten jakon.

Orpoa eratzitze dogunean, ezin ibili oinetakukaz, arrotzien azalan barrukaldean dagoen tela antzekoa edo **mintzé** ipintzen da zauriaren gainean eta tapa, hórrela azal barria arinago sortzen da.

Antzinean gure etxeko andreak, lejian pasiñugaz eskuetako azala be me-me eginda izaten eben, hori dala ta hatzamarretan egindako zauriak ezin itxi ibiltzen ziran, arazo honeri **intze-ébaidse** esaten eutsien.

Batzutan **min-zírridse, mingorró, sumiñé** dogula diñogu, beste batzutan **txakurrelako dolorié,** Txakur koitxaduek lau hanketan ibiltziaz gain, doloriek pe handidsek eukitzen dabez antza .
Sumiñé edo dolore gogorra dogunean, miñak dangadaka, **"Hamen nau, hamen nau** " esaten deuskula diñogu.
Edurretan ibili ta gero, hatzamar puntetan izaten dogun miñari, **hotzmiñé** esaten deutsagu. Eta hotz handiak sarritan hatzamarratan edo bietzatan, **azkordíñek** pe ataraten deuskuz.



"Osasune, estime bako ondasune" - Benetako egi santue.

" Osasune ta bakie ta boltsillo ondo betie" -Larrei eskatutie be ez ta ona gero

" Osasune ta bakie, Jaingoikuen borondatie" - Halan da

" Medikuen errue, lurrek tapa". - Zorritxarrez askotan gertatzen dana.

Norbaitek gure nerbioak pil-pilean jarri eta disgustu egune emoten badeusku, eta nahiz eta ez izan osasun arazoagaitik, **"Botikeko egune"** emon deuskula eta **burutik eindse** ibili garala esaten dogu.
Sustugaz estie bidsortuten jakunean, **urdillena** daukagula diñogu ta beste batzutan sustue emon bidoskuie **zotiñe** kentziko. Gaur egungo depresioa, lehen **urdillena** izaten zan, esaterako amak umea izanda gero izaten dauien depresioa.

Nerbidsuen geisoa daukagunean, **baile sanbito** izaten dogu, baie buruko arazoa danean, arazo gogorraue izaten da, orduan personie, **behie jota, ondue jota, burue atrapata, txintxola jota, tejabanie jodite, Santidsago galdute** edo **kamarie galdute** dabillela diñogu. Gaur egun, **hazmereir** (alzeimer) dakola diñogu.

Tentsiñue dala ta, txikidse altu edo altue baju daukagunean, sarritan **burue** bera be **jjuen** egiten jakula, **buruko ariñekaz**, **marisiñue** edo **burue nora gure** izan dogula diñogu.

Gaisoa inportantzi bakue danean, adibidez buruko miñe, **antzidse bako geizue** dala diñogu. Buruko miñe dogunean, **giltzetako miñe** daukagula be esaten dogu. Beste batzutan jausi eta **kolpe txarra** hartu dogula diñogu, **giltzetan** hartu dogulako.

Buruko miñe daukanari, **"Lagun txarra dakozu, baie ez ikaratu, burutik gorau ez jatsu idsengo ta".**

Gaisoekaz hasi orduko, agotik datozkun **arazotxuek** edo **ondo ezak** aipatuko dogu. Hagiñeko miñe edo **hagiñe txatxarrák janda** daukagunean, **hagiñe jjangadaka** dakula diñogu.

Halakoetan koñak tragotxu bat hartu eta hagiñen parean jartzen zan. Aldiz andrek hillerokuekaz zabilenean, ginebrea hartzen eban, sabela berotzeko.

Esakera - **"Gauien parrandan ta goizien logure, ez zabiltzez maitxie osasunen gure "**.

Laguna agurtzerakoan , osasuna eta bizi luzea opatzeko, **"Zar eta sal okin deizula !"** esaten deutsagu.

Beste batzutan, aipatzeko piska bat larriak izan arren, **gorázkadic, arkadak, gonbitxo larridse** ere sarritan izaten dogu eta txarrau joan ezkero **bistune garrastute** izango dogu. Jatekoa ez badogu ondo barruratu, **okerreko samatik** (umeari **Kusun !**) joan jakula diñogu ta **bokako** edo **bidsotz-kollárako** miñe be izaten dogularik.

Jateko torpie jan badogu laster **bidsotz-érrie** eta enpatxaten bagara **uzkerra daidsola** edo **kamarako atie igiritxe**, gero **estomangue errebolbite** edo **algatien, enpatxata, larri, tripalakaz, bajeratan, berazkotan** edo **atzeko tirigaz** gabiltzela diñogu. Parkatu baie geure osasunaren gora berak dira.

Estomangoko miñekaz dabilena, etxeko umea danean, **"Santa Mañe, kendu gure imiri urdaileko miñe"** esaten dogu.

Umeren bati, **uzkidse** urteten jakonean, ohitura zan, gurasoak (gehienetan amak) umea San Pedro Atxarrera eroan eta santuari erregutu, umea osatuteko .
Txisá egin ezinik ibili eskero, **arto-bízarrak** egosi ta haren ura edaten zan, txisá eragiteko.

Botikeren batek daukagun miña edo gaisoa arin eta ondo kentzen deuskunean, **eskugaz kendutie lez** kendu deuskula esaten dogu. Baie kontuz, **sendagarridsé** entzuten badozu, behar bada ez dira botiketaz verba egiten, sareengandik baizik, ze halan deitzen da trañé babesteko goikaldean jartzen jakon sare zatiari.

Gaisoetatik arruntenak edo normalenak, **gripea, kostipadue** eta **estule** dira, baie horreentzat be badaukagu beste izen batzuk. Hotzitsuten bagara **érlaue** atrapa dogula diñogu, gero **kalenturetan,ondo ezagaz, dardakadan** edo **estulke** ibiliko gara.
Halakoetan kaltzetin ligorragaz lepoa igurtzí eta alkola emoten zan edo baita asúnek sustrai ta guzti atara, egosi eta haren ura edan. Asúnen ura, tentsioa jeisteko be erabiltzen zan.

Pertsonek ez ezik, txarridsek be, **odolan golpie** edo odolan aldaketa zeuzkatenean, kalenturigaz eta dardakadan, binagretan bustitako trapu bategaz igurtzi eta gero sakuekaz tapa hotzitsu barik edo baita belarrian ebai txiki bat egin, odol apur bat urteteko.

"**Zelako trankasue atrapa dot paie**", **samak garramatute, karraspidsue edo pikasoie, bularra kargata** edo **saltxaidsue**, estulen tipugaitxik,
txakur estule edo **txakurrelako estule** , **garrotillue** ta lotubako **tujue** badan, **Jose maketon estule**. Norbaitek estula egiten dauanean, guk "**San Blas!** " edo "**San Blas, Santue da ta !**" esaten deutsagu.

Baina estulik txarrena, gure azken orduan egiten dan **zerrallie** da, gure bizitzaren zerrajie izaten dalako.
Guk gripie be handise atrapaten dogu lez, **gripe mandue, altxalakue** edo **josalakue ,** baie kuriosedade modure, lehen gripiri **Karolina** eta **Zirila** be deitzen jakon, **"Ezin dsau etorri, Karolinagaz dau ohien"**, biak antziñeko kanten izenak ziran, **"Ven Zirila ven ...."** , atsoren bat kantaten hasteko.

Barre apur eitzeko, **erlauegaz** edo **Zirilagaz**, sarri **mokue daidsola** ibiltzen gara, ta moku zapidse ez tauenak erabiltzen, **kandelak daidsola, kandelie negarrez**, **okarana daidsola** eta baita **salako argidse biztute** okitzen dauala diñogu.
Lepoko edo garriko miñekaz ibiltzen gara, sarri **grakasue** egin dogulako edo **txikotasue** emon deuskulako izaten da, osatuko jaku, baie **umorie** edo **erreumie** badaukagu, nekezau izango da osatutea.
Artrosis edo artritis izaten dogunean, **zartritis** dogula diñogu, hazurren zahartzaroa besterik ez dalako.

Ondo ezak edo doloriek eraginda, norbaitek **"Ai enatxue !"** edo " **Ai ene !** " esaten dauanean, besteak " **Ai ene ta enie, zein ete da hobie** " erantzungo deutso.

Hagiñeko miñegaz dagoan umeari, **"Ai ene, oi ene, hagiñeko miñe medikuañe"** kantaten jako.

Ahoko infekzioari, **agóridse** edo **auéridse** esaten jako, ahoa erituta dogulako.

Zoritxarrez, oraindik gitxitan osatuten diran gaisotasunak dagoz, **gibelekue, bularrekue, ziri-ziridsena, bidsotzekue, burutik berakue,** eta zelan ez **bizidsena, mamárrue, karramárrue** edo **beste errekadue.**

Gure baporatan, erregaia hartzera doazenean, **gasoillé eitzen** edo **petrolidsue hartzien** esaten bada, merkantietan **búnkerra hartzien** be esaten da. Gaur egun horren eraginez, itsasoagaz zer ikusirik ez dauan beste arazoetan be erabiltzen dira.

Esate baterako, kánzerra edo **beste errekadue** eukan batek neuri esandakoa. Gaisoari aurre egiteko, kimio hartzen ebilen eta halan esan beharrean, **"Búnkerra hartzien nabil"** esan eustan. Geroztik entzun dot erantzun bardina odola hartzen ebilen beste batengatik.
Gaia barre egiteko ez bada ere, gaisoaren jarrera baikorrak eta esateko moduak irribarrea behintzat sortarazten dau.

Umeak egindakoak aman gustukoa ez dancan, amak **"Txetxotxu, bularretik botako nozu"** esango deutso, gaisotu egingo dauala esateko.

Esakera- **"Artzako hatsa, beste errekadue osasuteko ona "** - Ai halan balitz.

- Batek - **Idse hil !** diñonean
- Besteak - **Idse hil hobeto da, idse bizi baño !** edo baitxe

- Batek – **Idse !** diñonean
- Besteak - **Idse hil egin zan bat, baie bizirik lotu zan** esaten deutso.

Badagoz gaiso edo arazo txikiagoak eta ikusiko dogu eurak zelan osatuten diran

Fueruak kendu kantie > ENTZUN

Sarritan **zorriak** izanda, burua arraskaten ibilita gero, **sarniék** urteten eban, eta kentzeko, oridso beruagaz bigundú eta gero orrazi zarratu bategaz kentzen zan.

Danatarik daukagunean edo danatarik ikusten dogunean, "**Ez taku ezeren faltarik, sarnié falta arraskateko**" esaten da.
Almorranak - Mallukidsen antzeko bost orriko bedarren ure edan.

Katarrue - Katarroa kanporatzeko baso baten barruen guate alkolagaz sartu eta bularran ipintzean formaten dan txupoiek, kanporatzen dau odol txarrak.
Intsektuen sastadak – Moskitsuen, espadan (erd. tabano) edo beste intsektuen sastadak arintzeko, berakatzagaz igurdi.

Azkordiñek - Nabue ebai eta beragaz igurtzí.



Garídsue - Ezagunena eta gaur egun ere eralbiltzen dana ikuaren esneagaz igurtzea da, baña badagoz beste erremedio batzuk. Okela zati bategaz pasa garídsue, ta gero okelie harri azpidsen itzi. Urrengo egunean bardin, ta holan okelie usteldu arte, esaten zalako orduan garídsue bera ere usteldu egingo zala. Baita aza edo azalorearen tronkoari zulotxo bat egin da garídsuen ganien imiñi, gero erabili dogun trongue lorontzi batetan jarri ta gau osoa iraun behar dau leiho kanpoan. Amaitzeko sidse bedarragaz ikutu ta gero bedarra harri baten azpidsen gorde.

Badagoz nasta, kontajidse edo **enpiketen** diran geisuek pe**, elgorridse, nafarridse, nastanafarridse.** Honentzat danantzat uregaz ikututea txarra da, euren azgurea kentzeko onena kalberragaz tapatzea da. **Elgorridse** kanporatuteko, tela gorridsegaz tapatzen zan gelako lehioa. Gaisotasun honeek aurpegian isten eben zulotxoari, **kankañue** deitzen jakon.

Gangallená- Espanatako otzikarie- Osatuteko berakatza ipintzen jakon, baña badago beste usadidso bat. Bederatzi indsabakaz kurtzie egin eta esanez;

"Gangallentxu, zemat zara, bederatzi, bederatzitik zortzi, zortzitik zazpi, zazpitzitik sei, seitzik bost, bostetik lau, lautik hiru, hirutik bi, bitzik bat, batetik bapez, gangallentxu aldendu zaitzez". Urrengo egunean zortzi indsabagaz eta zortzitik hasten zan erritoa, bestean zazpigaz,

ta holan banan banan indsabak amaitzuarte, orduan gangallena be osatu egiten zan.

Txótorra edo **begitxíndorra** - Giltz hotzagaz pasa, zenbat eta giltz handidsaue hobeto, lehengo kolarretako edo loidsetako giltzek onak. Baita ikopasie begidsen ganien jarri ta pañuelugaz tapa, piratie lez, **atzandela** imindse. **Atzandela** hatzamarrak ebaidsetatik babesteko narrozko edo lanazko ipingia.

Zaldarrá - Behar bada lehengo arrantzaleen bizimoduan garbitasun baldintzak gaur egungoak baño txarragoak ziranez, odolaren furidse sarriago eukitzen eben.
Zaldarrak baño bulto handiagoak eta osatuteko nekezagoak **bonábaltza** edo **ándrak** ziran, honeek zulo handiagoa izten ebien. Zaldarrak eta bonábaltzak eukitzen eben punte baltzari edo arrari, **bidegarrue** deitzen jakon. Punte bako zaldarrai, **itsuek** deitzen jaken, eta kutxilluegaz igiritzen ziran.

Zaldarrá helduteko, txinbo jaboi barridse, kinpulie ta oridsue sartenan bigundute enplastue eitzen zan.

Solimaué – Botiketan erosten zan desinfektantea. Pastilak zuriak ziran, baina uregaz (irikin ta gero) nahastuta rosa kolorea hartzen eben. Etxeetan pastilak eta potea, goikaldeetan gordetzen zan, umeetatik urrun eukiteko, ze merkuriozko kloroa zanez, oso arriskutsua zalako.
XVII mendean, goi mailako andrek haragia zuritzeko, merkurio eta arsenikoz egindako kosmetikoa edo solimaná erabiltzen eben. Haragian emonda pertsonea zuritsu eta edanda garbitsu. Arabiarrez- sulaimani > latinez –sublimatun).

Esakera- **"Solimaué emon horreri !"** – Etxa gatza horreri ! zentzuan

Pustíllié - Haragidse erre edo eratzi badogu, sarritan barruko urek edo pusek, pustillie ataraten deusku.

Esan behar, negarrez dagoan umeari, **pustillie dala** edo negarran negarragaz **pustillie be atara** dauala esaten dogu. Negar barik pe, sarri olgetan txistuagaz eta ahoagaz be **pustillek egiten** doguz.

Epaibédarra – Bedar hau zauriek osatuteko erabiltzen zan. Bedarra sutan apur bat berotu, azala kendu, gero barrukaldeko mami biguna zauriaren gainean jarri eta bendatxoagaz tapá.

"Kabargako derrotien baldarrá, popan eztozu faltako zaldarrá"

Kabarga . Arrantzarako kalie, **Derrotie** : Errunboa, **Baldarrá** . Laino txarra

Aintzinan traineruetan ibiltzen ziranez, eguraldi txarragaz, portura heltzeko gogor egin behar izaten zan, zaldarra urten arte.
BARESÁRIE (Baresarea)

Gizakiok edo ornodun animaliek, hesteen kanpokaldean (peritoneo inguruan) dogun mukosa kapa edo tela sareari, **baresárie** (baresarea) esaten deutsagu. Baliteke beran izena, itxuraz, sarea eta barearen labantasuna gogora arazten deuskulako.

Kontutan hartzen badogu, antzinan gure herriko ortu edo solo guztietan txarrikortak izaten zirala, argi dago gure nagusiek txarriak hiltzean, ohituta egozala, baresariek ikusten. Hori dala ta, iraun dau gauraino berba honek, nahiz eta ez izan anatomía edo osasun gaietan.

Baresárie, mukosa kapa edo sare itxurazkoa danez,

- Pertsona izatez gozoegia, labana, fiñegia danean, **baresárie lakue** da.
- Telea fiña edo trasparentea danean be, **baresárie lakue** da.
- Izara, alkondara edo beste telaren bat, gastata edo haritsuta dagoanean, **baresárie lez** edo **baresáretute** dagoala diñogu.

Barreka zatitsu

Amaitzeko, arrantza eta osasuna nahasten dauen atunetan gertatutako pasadisue.
Etxadan dauen patroi batek beste patroi bateri radidsotik - **"Amen gauz gránukaz"** (banakako atunekaz), besteak - **"Granukaz, granukaz, saldarrák urten barik kero"** .

Ezetz igarri

Popitas ?.

SATORRÁ

Bestiek

- Herriak
- Kanpotarrak



Joseba Barrenetxean argazkia

Beste herriak

Gure esakeretan, beste herrien izenak ere sarritan aipatzen doguz, topikoak, ohiturak eta zelan ez besteen akatsak azaltzeko, baita beste ikuspuntu ulertezin batzungatik ere.

MUNDAKA

• **"Mundekan jo dauela tanborra andra guztidsentzat, bakotxak beran atze-aurriek gobernateko."** – Etxe aurreko eta atzeko garbitasunaz, zer pentzazu ba.

• **"Mundekan deitsuten tsoie lapari, larga berári."**

• Norbait lan orduen, eskuek gurutzatuta edo partikeran daukanean, besteak **"Txo, Mundekarrak ostuko tsu erlojue".**

• Batek – **Zelan zauz ?** - Besteak - **Mundekako lorue lez, jodite !**

• **Mundekako lorue** - Alkaueta diranagaitik.

• Mundekan bandue, **"Ha venido un camión de patatas, el que quiera tomar por saco, mucho más barato".**

• **Mundekako astue** – Antzinan kartak botata, etorkizuna igartzen ebana

• **Mundekarrak paño mosu handidsauek dako horrek**

• "**Mundekarra kirri-karra, jan bedarra ta etxa uzkerra**". Atziñeko burlie.

• **Mundaka trakatra ! -** Mundaka ikustean edo entzutean

• **Mundekan tostadak apo.** (Ugari)

• **Mundekarrak gizonari, maletie atepostan**

• Etxeren baten, eguerdiko orduetan ondiño alfonbrie ikusten bada eskeitxe, **" Han mundekarra lez".**

• **Mundekarran maidsie,** Maidsie ipintzerakoan zeozer falta danean .

• Tabernan kuadrilen, gizonak andrai **"Ezer guzuie la ?"**, Andrak, **"Ez, tomadas venimos, mundekarra lez ".**

GERNIKE

- **Zuridse, Gernikarran kolorie**

- **Zer da, biribille tronko ta luzien Gernikeraiño?** - Asmakizuna - Aridsen karretie.

- **Gernikarrak allegata** – Hilerokuekaz egon – **Gerniketik biejie egin** – Apaijjue egin (larrua jo).

- **Gernikarrak domekatan danak injiñeruek.** Bermioko neskak domekatan Gernikera dantzan joaten ziranean, bertakoek esaten eutsien injiñeruek, periodistek eta abar zirela, baña beste egunean bertara errekaduek egitera joan eta Pedro Bilbauenien txokolatie jaten dauzela, atzoko injiñeru eta periodistek kalean biarreko busugaz ikusten eben.

MURUETA

Muruetako astuek baño ister luziauek - Hanka luzie

ONDARRU

- **"Ondarru herri beru, erre zanien"**

- **"Ondarruko porru, fenomenu".** Euren berba gehienak "u"gaz amaitzen dabela esateko.

- **"Barrie, Ondarrun burlie da gero !"**

- **"Ondarrun flanari, dardarakú"**

- Norbaitek lepue altxaten dauenien, ezer ez dakiela esateko, **"Ondarrutarran brazadie"** esaten da.

- **"Ondarrutarrak ondo arruak"** edo **"Ondarrutarrak, panparroi aluak".** Giputzek asmatutakoa.

Goiko izakera hau adierazteko, antziñen itsasuen gertatutakoa. Baporak ez eukielez irratirik, patroiek berba eitxeko, itsasoan alkartu egiten ziran.

Topatu ziran Bermiotar eta Ondarrutar bapor bi, ta diño Ondarrutarrak, "Egunon , gaur topa du hemen, 900 arrain eta jan nahi ez, jatire egoten bazan Ondarrun fiestak " ta Bermiotarrak diñotso "1 500 nen bat". Ondarrutarrak " Baguez orain beste 500 mille kanporau", ta Bermiotarrak "Gu ba guez Errekadora (bertoko Kala batetara) eta ondo ibilli".

LEKEITXO

- Bañek daukagula jateko esateko, **"Gaur Lekeitxarrak takuz jjateko ",** berba eitzerakoan "baña" askotan esaten dabelako.

- **"Lekeitxarrak maitxiek"** dirala esaten dogu, hizkera gozoa dabelako.

- **"Lekeitxarrak, atune ubil da ubil da jan nahi ez"** esaterakoan, zera adierazi nahi dogu. Lekeitxarrak euren jaiak amaitu ondoren itxasoratzen zirancan, amuri ez ebiela amudirik ipintzen, eurak lo egiteko, horrela atunek jan gure, baie ezin.

- Lekeitxarrak Afrikan, beti portuen itsosora barik, **"Badakizu zer dauen itsasuan, gastua"**, eurak irratitik Bermiotarrak arraiñe topa ebiela entzuterakoan urteten zauien.

- Lekeitxarrak- **Potxua, potxua !** (alabátxi)- Bermiotarrak txantxetan **– Sartuidsok amari popatik kortxua !**

- Hilerrira edo Kanpo Santora esateko, **"Lekeitxoko kálara"** ere esaten dogu.

- Batek – **Lekeitxo !** - besteak erantzun - **"Lekeitxo, barreka itxo"**

- Norbaitek **Eh ?** galtzetzean, bestearen erantzuna – **"A la madre Lekeitxon ! "**

- Alkondarako gorengo botoie zarratuta daukanagaitik, **" Goiko botoie zarratute Lekeitxarra lez ".**

- Mahaian zeozer jan barik geratu dan bakarrari, adibidez bokartan plateran azkanari, **"Han Lekeitxarra".**

ELANTXOBE

- **"Elantxobe, mille pobre"**

- **"Elantxobe, villa pobre "**

- Norbaitet **Eh ?** galdetzean, besteak **"Elantxobe! , Elantxobe Ogoñopien"** edo **" Elantxoben ama gorrari"**.

AKORDA – ANTXORAS

Zeozer gertatzen danean, **"Ama Birjiñe Antxorakue"**.

- Batek – **"Akordaten nai "** , besteak **"Akorda, pasaidse pasata"**

- Batek – **"Que son esos ?"** , besteak – **"Antxorapeko lapa preskos !"**

ARMINTZA

Armintzarren arrantzarako trebetasun eskasa adierazteko, itsasoan gertatutakoa - Bermiotarrak **"Izurderik ikusi dozuez ala ?"** - Armintzarrak -**"Izurderik ez, baie topolinoak joan direz hortik zirpi ta zarpa"**, biak bardin izan arren.

MOTRIKU

- **Motrikuko kaskue** - Popa altodun emakumeei, Motrikuko itsasontzien antzera.

- **Motrikuko búdsie** - Pertsona lodiagaitik

- **"Jo Ondarru ta jo Motriku"** - Harantz ta honantz ibiltzeari

EIBAR

Negozio batetan, salmentak izan arren, gauzak txarto doazenean, **"Saldu ta saldu, ta Eibarreko tornillerue lez galdu ta galdu "**esaten dogu.

Eibarreko eskapulaidsue – Armie, eskopetie (ikusi ikariri buruzko gaia)

ORIO

Oridsotarrak **jitanuek** baie ez koipestuekaitxik, itsosuen engañadoriek dizelako gaitxik baño.

BILBO

Zeozer txarto urten (jeusi, apurtu,..) edo urtengo dauala esateko, **"Han, einzu Bilbo"** edo **"Auntxek pe Bilbo eingozu".**

Ondo eta lasai dagoanari, parrandan ibili danari, zeozer apuru dauanari, berandu etorri danari, **Ai halan Bilbora !** esaten jako.

EMARANDO

Nonok **Non?** galdetzen dauanean, **Emarandon!** erantzuten jako. Haize hartzera botatzeko, **"Jjun zaitzez Emarandora"** eta baita gure gazteei , hain umeak ez dirala esateko **"Emarandon bazegoz, ezkondute".**

MORGA

"Ezkondu naitzen Morgara, ta jo nauen eperdiz hormara" – Ezkontza txarra egiteari.

ARRIETA-MEÑAKA

Norbaitek "**majo**" diñonean, besteak **"Majo Arrietan, kaka freskue Meñakan"** (Arrietatik lasai urten ta Meñakan larri).

Emarandon antzean, gazteei umeak ez dirala esateko, **Arrietan bazegoz ezkondu"** be esatan jake. Antza Arrietan gazte-gazte ezkontzen ziran.

MIRANDA - ARANDA

Lagunen bat ezin topa gabiltzanean **" Mirandatik Arandara ibil gara zeu topaten".**

Mirandan egon – Balkoian edo beste lekuren batean, begira egotea.

KASTROARRAK

- Zeozer jeusten danien, **" Han, Kastroarran maidsie "**
- Zeozer galdu edo apurtuten danean, **" Han, jun da Kastrora ! "**

LAREDO

Laredotarrei "**tiñasos**" koipestuak dirala esateko, baita "**semanasos**" itsosuen denpora gitxi egiten dabela adierazteko.

SANANDERE

"Sanandearrak , arpi bikuek" eta baita **" Sanander , no entender"**, ezer ez dogula ulertzen esateko.

GALLEGUEK

- Galleguegaitik, **"Galleguek batzuk fiñek ta beste batzuk zantarrak, ez tau entremeidsokorik"** esaten dogu.

- **Zer diño ?** - Erantzuna - **Zerdiño, Galizidsen txarri kumiri !.**

MADRID, TOLEDO

Honetariko herri bat aipatzean, **"Madrid, Toledo, herridsek ikusi ta etxera gero"** esaten dogu.
"Bermeo parese Madrid, pospolos de txilipitin".

INGELESAK

Bermiotar bati turista batek **"How do you do ...."**, herritarrak **"Zeure ama baezpadan".**
Beste baten, **"Tomorrow morning seven o'clock.."** herritarrak **"Etorten ba haiz, ikusko nok".**

FRANTZI

- Batek - **Zer esanzu ?** Besteak - **"Frantsezak Bermiotarrari, kis ki di"**

- Batek - **Gui, gui** Besteak - **"Oui, oui (gui, gui) , Frantzin asturi"**

- Batek – **O, la, la** Besteak – **"Kuarenta kilometros mas palla !"**

- Batek - **Frantzi** Besteak **"Frantziman, perdimatiman, en San Sebastian mucho sardin".**

- **Frantziko erraidsie** – Andrazkoei, eskotetik ikusten jaken titien arteko marriri.

- **Erdi frantzesá** – Nahasterue/ie, liantie.

- Norbaitek esan deuskuna, ez ulertuteko moduan esan dauala esateko, " **Al frantzez, al ingles, artue ta berakatsa jan gurez ".**

- Itsasoan gure itsasontzi bat beste itsasontzi lagun bat bilatzen dagoela, itsasontzi frantzez bat aurkitu eta barruko batek esaten dau, neu taitx frantzez, da diñotso **"Le viste le vapore como nosotre iguale ?".**

HOLANDA

- Batek **, Holan da ? ,** besteak , **Holandan gaztaie merke !**
- Batek, **Ai gure fiñe ! ,** besteak, **Bai, Holandan agindsu ta egiñe !**

BRASIL

- Batek, **Brasil** , besteak, **" Brasil, andratán fasil ! "**

BESTE BATZUK

- Batek**, Igual da !,** besteak, **Igualda Rusian !**

- **Seychelles -** Txantxetan – **"Seisletxesen dau atunetan**"

- Batek besteari, **Zarataz !,** besteak erantzun, **"Saragataz en Cadiz, y toros en Sevilla".**

- **"Errebesilla ta Kijón, hantxe bizi dala Koxkón",** (Ribadesella eta Gijon).



- Pirópo edo lora bitxia – **"Neure Afríkako amapola berdié".**

- **Bermidorm** . Bermiotarrakaz jositxe egoten dan Benidormi.

- Ganorabakoari, singanoria eta baita **Singapur** ere deitzen jake.

• Barku merkanteetan, orain dala gitxirarte, kostaldekoak besteentzat dinosaurioak ginen. Beste herrietakoek Bermiotarrei – **Bermeosaurios** eta Lekeitxarrei – **Lekeitiodontes**, deitzen euskuen.

EZIZENAK

Afrikanue, Amerikanue, Andaluze, Antzorakue, Anton Naparru, Argentinita, Arrieta, Azpeitxi, Bakidsotarra, Baltimor, Barselonakue, Juan Bermeo, Bermeo txiki, Bermeo grande, Bilbaino, Biskaia, Desondra Biskaia, Durangotxu, Elantxobetxu, Ermuko markesá, Errioja, Felix Kuba, Frantzesa, Gallego, Gatike, Gernike, Giputz, Italia, Japonesie, Kastro, Kolindrésie, Lean de Damasco, Madrid-Madrid, Malaga, Motriku, Mundekatxu, Orídso, Txaketa Bilbao, ...

Barreka zatitsu

Karmelo taberna aurrean egoan herritar bati, turista frantzez batek, **"Mesie ..."**- Herritarrak - **"Bai auntxek hamabidsetan"**, Frailen konbentue eskuaz erakutziz, eta hamabietako meza hasteko zala esanez.

.....

Oraingoan aleman batek kotxetik, herritar berberari , **"Gegnika ? "** . Bermiotarrak eskua luzatu eta Bakioko bidea erakusten eutso . Alboan egoan lagunak dinotso **"Txo, Gernikera barik Bakidsora botazuz"**. Besteak erantzun, **"Gerratien jakin dsauie non egon dan ba, ba auntxek pe topa deidsila".**

Ezetz igarri

Ze distantzi egoan Italiatik Argentinara ? Badakizu edo popitas ?. Popitas ?

Gure Tala agur kantie > ENTZUN

Kanpotarrak

Antzinan Mañun domeka arratsaldeetan erromeria egiten zan, inguruko hauzokoentzat. Mañukoentzat, almikakoak edo San Andresekoak "bétarrak" ziran eta aldiz honeentzat mañukoak "goítxarrak". Baina hori bai danak herritarrak, ikusi daigun kanpotarrak.

Arrantzaleen usadidsue kontutan harturik, Matxitxakotik goranzkuei **Goítxarrak** eta Matxitxakotik beranzkoei **Bétarrak** (Laredotarrei adibidez) deitzen deutsiegu. Betarrei itsasoan popa ganetik txikota botaten jaken, erremolka emoteko keñuaz, gure motorra eureña baño abillaue zala adierazteko. Bordeletik gorako Frantziko portukoei, hau da, Les Sables d'Olonne, Concarneau eta abarrekoei, **Norteñuek** deitzen deutsagu.

Estropadetan, Pedreñakoek sasoi ona izan ebenien, eurek botaten eutsien gutarrei txikota popa ganetik, orduan gutarrek burua arraskaten ebien, eurek **tiñosoak** zirala adierazteko. Itsosuen Portugesak eta Galleguek ere izaten eben keñuak, Galleguek Portugesei malluaz joteko keiñua egiten eutsien, **pikapedreiros** zirala eta Portugesak Galleguei, izterragaz bizikletan ibiltzeko keiñua, eurak **afilladoriek** zirala adierazteko.

• Arrantzaleek afrikarrei **arpi kaka**, baina ez zentzu txarrean, baltzak diralako baizik.

• Mundekarrak – **Izen bikuek** (Juan Pedro eta izen antzekoak asko dauzelako antza) edo **Mosoluek .**

• Giputzek – **Buru zápalak** edo **Buru handidsek** eta Oridsotarrak bereziki - **Jitanuek** - (Itsosuen engañadoriek).

• Gernikarrak – **Señorituek** eta bertako andrei, **Hijas de Maria**, antzinan ez ebielako gugaz dantzan egin nahi.

• Elantxobetarrak - **Makusek.** Euren artean **makuezak,** jatorriz **"mal juezak"**tik dator, Bermio eta Mundeka artean Izaroren "historian" epai izateagaitik.

• Lekeitxarrak - **Euskal Herriko andaluzek, Norteko andaluzek** edo **Maitxiek,** hori entzuterakoan eurak esaten dabe **"Bermeanos amables, muchos y animales".**

• Ondarrutarrak **Panparroi aluak,** baña eurak euren artean **lantxoi aluak** (arrain santarrak).

• Sanandere ingurukoek - **Semanasuek** - Partillie astero eta euren kostaldea galtzen ebienien negar egiten ebelako. Gainera arrañe trañen dala, fumeteko papelan hasten ziran partillie egiten. Laredotarrak- **Teñosuek** (koipestuek).

• Galleguek - **Ididsek** (Radidsotik berba eikeran eurekaitxik, eurek ez ulertuteko) eta baita **Oesteko Gernikarrak** ere .

Gure artean espainiatik etorritakoak - **Erbestekuek, Kastellánuek, Koreanúek, makétuek, ufulíñuek, hazur baltzak, kantalapíedrakuek, poraikuek** edo **trenak ekarrikuek.**

Urrunekoei - **Asaukuek , lekutekuek, Jaingoikuen Erreiñutakuek, Jaingoikue pasa bako erridsekuek, Munduen akabuko erreñutakoek, Ama putien etxekuek**, bigunau **Ama perrien etxekuek** edo **Ama txarridsen etxekuek** eta oso oso urrunekoei **Mille Murtzikuek** (mille bider Murtzia, benetan asaukuek).

Amaitzeko Barakaldo industria sasoi onenean egoaneko herri abesti bat, nahiz eta gure herrikoa ez izan, gure artean ere abesten zan, beharbada gure herriaren izena agertzen dalako. Abesti hau kantateko **"Trulala, trulala"** estribillodun musikea erabili behar da .

𝄞

" Bandas de coreanos invaden el pais, haciendo el viaje a plazos en ferrocarril, han tomado de asalto esta ciudad fabril, de Bilbao hasta Bermeo hay más de ochenta mil, usan bisera gris, estilo Bufalo Bill y pronto les veremos txistu y tamboril".

Esakereak zera dio,*"Pertsonea ez da jaiotzen dan tokikoa, jaten dauan* tokikoa baizik". Baña bizitzen dan tokiko kulturea, hizkuntza eta ohiturak jaten ez badauz, bardin da berton jaioatakoa edo trenak ekarrikoa izan, hori kanpotarra da. Zoritzarrez berton jaiotako kanpotar asko dagoz gure Bermion.

Ezetz igarri

Popitas ?

PAUSO BI

Erremedio kalean zegoen denda biren izenak. Argentina edo Argentinita papatak, hazidsek eta pentsuen dendea eta Italia estankoa.

Izenak eta ezizenak

- Izenak
- Baporan ezizenak
- Ezizenak
- Lekuen ezizenak



Izenak

- **Zelan dakozu izena ?** - **Okela gizena !**

- **ta apellidue ? - Jose Karnizerue** edo baita **Juanito Barkillerue**, dira, izena berbie entzuterakoan, emoten dogun erantzunak.

Danok dakigu, gure herria ezizenak ipintzeko beti izan dala berezia, baña izenak eurak erabiltzeko ere bagara.

Zeozer ez jakunean gehiegi gustatzen edo ez dagoala egoera onean adierazteko, edozein izen ipintzen deutsagu, adibidez, **"egualdidsek izena ", " partiduek izena ", "Pelikuliek izena ...", " Okeliek izena ...."** , gehienetan **Juan Tomás** esaten bada ere, bakoitzak nahi dauan izena edo beste berba bat erabiltzen dau, esate baterako **"Pelikuliek izena, ein lo", " partiduek izena desastre total".**

Goizaldean izartu edo lo gure gehiago dagonean eta ohean jarraitzeko gogoa, **"Buelta Madalen** edo **Malen, goizaldie da ta ".**

Txantxetan berba egiterakoan, periodikueri **Federikue** esaten jako eta "kasurik pez " esateko, **Nikásio horreri !** be esaten da.

Zeozer burutik joaten jakunean edo baita zeozer trastera joan danean - **Agur Juan !** esaten dogu.

Jatorriz erderazko izenei, adibidez **Tómas, Julían, Nikólas, Jóse, Ándres, Ánton** eta abar, guk azentoa aurrerago ipintzen deutsegu, horrela izenak geure geureak bihurtzen diralarik.

Batzutan izenak laburtu egiten badoguz, adibidez, **Atan, Anest, Anbrus, Dolor, Ebal, Josinas, Juanpe, Benanz, Jeron , Pruden, Hermejilda, Zezil, Iñus, Inas, Anis**, eta abar., beste batzutan , laburregi eritzi ta luzetu, adibidez **Josun**.

Laburtu ez ezik, izenak geureak bihurtzeko, ikutu egiten doguz . **Islau** – Ladislao, **Akis** – Akilino, **Audel** – Aurelio, **Ebalisto** Evaristo, **Kaitxano** -Cayetano, **Txipri** - Cipriano, **Txilibristo** edo **Txilibriste**-Silvestre/a, **Abustiñe** - Agustina, **Laukario** -Leocadio, **Hinpol** - Hipolito, **Ali** - Alejandro, **Iñuskentze** – Inozentzi, **Zizilio** - Cecilio, **Memesio** - Nemesio , **Beniño** - Benigno, **Dios** - Deogracias, **Anbrikis** -Ambrosio - **Blasido** - Placido, **Jerolimo** – Jeronimo , **Gergorio** – Gregorio, **Turubio** – Toribio, e.a.....

Irudipen edo imajinazio handia daukagunez, pertsonie zelakoa dan arabera, izena ere halakoa ipintzen deutsagu; ez betirako, ez ezizenez, momenturako baizik. Adibidez, Pazentzi gitxigaz dabilen pertsonei **Pazentzi**, logure danari **loguraz**, zarataka dabilena **zarataz**, azgurekaz dabilenari, **azguraz**, ogi zaleari **panjjale**, dana ahaztuten jakonari **Ai aztu**, sexu kontuetan bero-bero danari **Mari bero**, neskatxo bizkorrari **Mari sorgin**, zarataka edo zarata asko ataraten daunari **zarataz,** begikunie bota deuskunari **begikúnaz**, inusentiri **Iñuséntzi** edo **Iñozkéntze**, ganora edo sustantzi gitxiko pertsonei **Sinfónia/o** edo **Singanória/o.**

Izena ez ezik, abizenan antzekoak ere jartzen doguz, adibidez, errez ikaratzen dana **Ikariága**, barre algaraka dabilenari **Gangarrága**, alperrari **Zanganobeítia**, egarriagaz dabilenari **Egarriága**, misketuta bizi danari **Miskíndo**, inon kontura dabilenari, **Aprobetxatégi**, zentzun gitxikoari **Kokoloméndi** edo **Kokolobeítia**, gauzak egiteko lasaiegi dabilenari **Gibelondo** edo **Arrotzabeítia**, kopla larreiegaz dabillenari **Jose Bodalo** (antzerki aktore famosue gogoratuz) eta inuzentie danari **Jose Feliciano**.

Zelakue zara baie ! esateko, **"Zara ... Sarita Montiel !"** .

Txoferrari aurrera esateko, **"Sigue Aldekoa".**

Zaharrentzat, oraingo izenak arraroak dira, adibidez **Garikoitz** edo **Aitzol**, eurentzat **karrikótxie** edo **kutxol** en antzerakoak dira. Gazteentat aldiz, **Putasio** edo **Trifon** izenak, atakontu, **zantarríIle zalie** edo **ingelesez hiru telefono** dirala.

Beti atzakidsekaz, beti ahalemanakaz dabilenagaitik, **"Horrek beti dako Joakiñen gatza"** esaten da. Antza izen hori eukan norbait beti hórrela ibiliko zalako.

Izenak entzuterakoan be, erantzun gisa, guk beti luzatu behar dogu zeozer, adibidez **:**

- Akis ! (Akilino) - Akis, malezidsek dakiz !

- Andres ! - Potruek dandarrez !

- Andres ! - Lau kopa ta lau tremes ! (tremesa antziñako ogi klase bat)

- Anton ! - Bide berton ! edo **Bire berton !**

Antonio ! -Antonio polonio pasa por aquí, errotako txakurrek erderaz daki.

- Bixente ! - Bixente potente !

- Erramon ! **- Zuelako panderorik ez tau Durangon !**

- Isabel ! **- Isabel kaskabel !**

- Jose! - **- Jan da beti gose, edan da beti egarri. Jose beti baragarri**

- Jose Migel ! **- Jose Migelen batela, txitxarrue ta berdela !**

Nire erantzuna **– Txitxarrue beti soinien ta berdela noizik beñien !**

JOSE MIGELEN BATELA KANTIE > ENTZUN

- Jose Mari ! **- Jose Mari zapatalari !**

- Julian ! **- Kaka surrian !**

-Katalin ! - **- Katillo barridsen kaka egin !**

- Kontxita ! - **- Kontxita Ulia, purita pla !**

- Enrike / Rosarito ! **- Enrike / Rosarito la papa, arbolara idsen ta ikuek atrapa!**

- Maribi ! **- Maribi, jo popan ta erdi bi !**

- Margarita ! **- Margarita, troñuan jarrita !**

- Pio ! **- Pio ta Duo, trio !**

- Petra ! **- Petra zazpi letra !** (nahiz eta bost letra izan)

- Tomasa ! **- Tomasak emoten dauela lanbasagaz ta Xixilik isisilik !**

Gure irudipena edo imajinaziñue **munduen danik** dala ikusteko, adibide argi batzuk.

Atunaren ingelesko izena esateko, **Érrol Flin** be diñogu (ziñeko artistie), jakin arren **"yellowfin"** dala.

Antziñan, gripeari berari ere **Zirila** edo **Karolina** izenez deitzen jakon. (Ikus. Osasune)

Baporan heliziek berak pe izena dauka, **"Felix mutuek atrapatsoie artie** " (Helize eta Felix izenagaz, hitz jokoa eginez)

Itsasorako molda bako txakurreri edo gizonari, **Pedro Mariano**, ez dalako perro marino.

Ardau zaliri- **Alkoli Perkins** - (Anthony Perkins aktorea gogoratuz)

Gaur egun munduari bueltaka dabilen **Guggenheim** izena, gure herrian hasieratik **Gure Eujen** izan da eta bere ondoan jarri daben hotela

Sheraton barik, **Zer Anton?.** Amerikanuek pe, euren gauzei izenak jartzeko Bermeokoak erabiltzen dabe, eta gu apal apalik. Legoiek kariez .

Barreka zatitsu

Bartolo eta Memesio, bermiotar lagun bidsek zerbezidsora joan ziran, eta sargentuek diñotso Bartolori, " **Diga su nombre** ", Bartolok erantzun, "**Bartolo** ", ta sargentuek hasarrez dinotso, "**No señor, se dice Bartolome**". Beste lagunari heltzen jatso ordue ta galdera bardiñe, "**Diga su nombre** ", ta beran erantzuna, "**Memesiome**".

Gero bandera aurrean, sargentuek Bartolori, "**Que es esto ?**" ta Bartolok erantzun, " **Una bandera** ", sargentuek berotute, " **No señor, la bandera es un trapo, esta es su madre patria**".

Memesiori galdera bardiñe, "**Que es esto ?**", ta Memesion erantzune, "**La madre de Bartolome**".

Nerea Azpitarte Zabala zan beran izena, ta monja jjun zan

Munduko bigarren gerra sasoien, txalupa bat kalan arraintzen ta beran albuen azalduten jako submarino alemán bat. Urteten dabe gizon batzuk eta gladetzen deutsoe bermiotarrari, " **Anglófilos ó germanófilos ?**". Txalupakoek ikaraturik erantzunik ez. Submarinokoek barriro galdera bardiñe, ta diño barroko mutillek, "**Zeozer esaizue, hasarratuko diez oztantzien eta**" ta txalupako patroiek erantzuten deutse, " **Ni anglófilos, ni germanófilos, yo Teofilo Basterretxea**".

Neberea aberiatu jakola ta joan zan andra bat dendara konpontzeko teknikoa bidaltzeko eske, dendariak zera esan eutson, " **Ze marka da neberie ba ¿**", ta andreak "**Ez taitx, izen bi dakoz, zelan da, bai Martin Jose**". Dendaria hasieran harrituta geratu bazan be, gero barreka as izan, konturatu zalako neberearen markea **Westinghouse** zala.

.....

Non erosi zu ba ?
Rosario de Santa Fe dendan (Sebastián de la Fuente denda etorri barria zan herrira, eta beren izena baino azkarrago baporan izena urteten zauen)

KOLDOBIKE KANTIE > ENTZUN

Baporan izenak

Txalupek, potiñek, baidekuek, txanelak, batelak, traiñeruek, baforak edo **baporak, batel-motorrak, motorrak, txapazkuek, itsasontzidsek, lebazaliek, txiki handidsek, merkantiek, atuneruek, motor txikidsek, motor handidsek**, eta abar eta abar, baita **untzidsek** ere, azken honeek mutillek posutan olgetan ibiltzeko, txapakaz egiten ebenak .

Ni ez naizenez horretan **aspertue**, gure baporei izenak ipintzerakoan izan ta oraindik doguzan ohiturek aztertuko dodaz, horretaz ere hainbat bitxikeri bait dagoz.

Francon denporan, baporen izenak ere zensura pasatu behar izaten eben, armadoreak hiru izen botatzen eben Madrillera eta eurei hobeena iruditzen jakena ipintzen eben. Batelak ez ziralez erregistratzen, mutillek ipintzen eutsien izenak, sarritan izen barregarriak ganera.

Lehenengo eta behin, eskerrik beroenak, Aingeru Astui eta Jon Zabalari, Arrantzaleen Museoan eta Portuko Kapitanidsen dagozan datuak, zabaltasun guztiaz emon deustielako.

Izenak ipintzerakoan, betidanik gure artean Bermiotartasuna ageri izan da, adibidez, Bermeon izena bera agertzen diranak:

Bermeana, Bermeano, Bermeotarra, Bermeotarrak, Aires de Bermeo, Brisas de Bermeo, Bahia de Bermeo, Villa de Bermeo, Sol de Bermeo, gauza arrarue da **Ai geure Bermio** izena ez egotea.

Txanela kantie > ENTZUN

Bermioko inguruak, Birjiñak eta abar ere sarritan ipini dira, **Alboniga, Arene, Artza, Atalde, Paseo de Bastarre, Doniene , Gure Aritxatxu, Gibelpe, Errosape, Monte de Burgoa, Brisas de Torrontero, Faro Matxitxako, Sollube Gane, Geure Izaro, Gure Taraska, Isla de Aqueche, Isla de Chacharramendi, Isla de Gaztelugache, Isla de Gaztelu, Lamera Txiki, Xixili, Talape, Sol de Izaro, Demikuko Ama, Gaztelugatxe, Kikunbera, Kurtzio, Aita Kurtziokoa, Madre de Alboniga, Mendiluz, Torre de Ercilla, Peña Akatz,** eta beste asko.

Guernica, Villa de Guernica eta **Jai-Alai** izenak ere ipini dira, behar bada euren Kofradia, Juntetxean edo arbolapien eukiko ebien.

Artza

Oraingoan izen kurioso batzuk, **Natxo, Felipe, Aita-Semeak, Gaztelugatxe, Euskal Herria**, eta **Oskorri.** Bai guzurre badirudi ere, danak Bermion erregistratutako izenak dira, dana borobiltzeko bakarrik falta izan da **Furra-Furra** izena.

Francon denporetan izenak jartzerakoan "euren" baimena behar izaten zan, baina hori ez zan diktadure bakarra, Madrilletik ordena bat etorri zan Komandantearentzat, baporen koloriek ezin ebiela ikurriñarenak egin. Hemekoak sarritan barriro pintatu beharra izaten eben, baña komandantea benetan ernegaten ipintzen ebana, iparraldekoak etortzen ziranean zan, eurek ikurriñak bai eskegita eta tximinietan pintxeta be ekartzen ebielako. Orduan, komandanteak agindua emoten eutsien, kanpora urten eta fondieta geratzeko, herriko jendea nahasta barik.

Besteak beste, behartutako izen aldaketa batzuen artean, **Aberri Eguna** itsasontzia **Velasco** izena hartu eban, **Euzko Gaztedija >Charito, Albako Izarra >Estrella del Mar, Gudari > Santa Eufemia, Euzkadi Nº1 > San Roque, Jagi-Jagi > Pajaro Azul, Euzkotarrak > Sirena del Mar , Euzko Etxea > Poeta del Mar, Ongui Etorría > Bienvenido, ...**

Izenakaz hasi orduko, esan behar da argi dagoala aipatuko dodazan izen batzuk, ez ebiela pasatu zensura, batelak eta potiñek, txikiak ziralako.

«Chivichiaga»

Gehienetan erderazkoak baziran ere, aurkitzen dira euskerazkoak ere, orduko ortografiaz ipinitakoak, adibidez: (1896-1901 bitartean) - **Euscalduna, Chacharramendi, Bizcaytarra, Vizkaytarra, Irurac Bat, Alkartazuna, Eusco Ixarra** eta beste batzuk.

Abertzaletasuna beti izan da gai baporen izenak ipintzeko, adibidez: **Aberri, Aberri Eguna, Euzkeraz, Arana Goiri Sabin, Irrintzi, Abertzaliak eta Abertzaleak, Euzkadi eta Euskadi, Euskal Erria, Euzkadi Alai, Euzkotarrak, Euzko gaztedijja, Euzko Etxea, Gure Ama Lur, Agur Zuberoa, Navarra, Vizcaya, Jel, Itxarkundia, Jagi-Jagi, Gudari** eta abar.

Baña badagoz begiak beste alde batera izan dabenak : **Viva España, Españita, Alfonso XIII, Alfonso XII eta baita La Imperio ere,** beste batzuen artean.

Bazkideen kopurua bera ere, askotan erabilia izan da, horrela : **Anay Biak, Dos hermanas, Las dos primas, Koñetu biok, Lagun bi, Tres hermanos, Iru anayak, Irurak Bat, Iru nebarrebak, Laurak bat, Siempre cuatro hermanos, Cuatro primos, Bost**

anayak, Bost nebarrebak, Siete Hermanos eta hori gitxi bada **Askona** izena ere aurkitu geinke.

Zenbakiekaz jarraituz, **Bat, Iru, Lau** eta "bi" ez dagoanez bere ordez **Igiribigiri txiki bi,** laurak baporen izenak.

Nahiz eta hasieran pentsa "Oroigarriak" Ortuzarren antzerki liburu zoragarri horretatik ateratako berba edo esakera batzuk dirala, ondorengoak baporan izenak dira danak: **Itxaron Ama, Ai holan balitz, Baleko jan, Tertza faltaue, Etxegun, Banakaz, Ordue lengue, Zer dakar, Nok Daki, Enc, Josebe gaztiena, Ignacio geurie, Legoie, Isille, Geure ona, Beti geurie, Gure Jesusa, Etxekalte, Amen gu be, Or Konpon, Eskerrik asko, Bide onera, Jauna emon egizu, Jaunaren biztuerie, Jaingoikue lagun.**

Baporen izenak ipintzerakoan, sarritan erabilitako ohitura, **"Nuevo", "Beti",** eta **"Siempre"** berbak izenaren aurrean ipintzea izan da , horrela batzutan kanpotik etorritakoentzat izen kuriosoek sortuz : **Nuevo Cid Campeador, Nuevo Poeta Ercilla** eta abar ikusterakoan, berbiztu edo persona barriak sortu diran pentzatuz, baita **Siempre Galerna** edo **Siempre Cuatro Hermanos** ikusirik, betirako itsaso gaistoa edo bapora hondoratu beharra anairen bat hiltzerakoan pentsatuz, hala erc danak lasaitzeko, **Nueva Esperanza** eta **Siempre Esperanza** izenak ere egon dira.

VAPOR "ARROMACHU"

Sarritan erabilera honeek, euskera erderazko izenak sortzen dabez, horrela, **Nuevo Almikeko Ama, Nuevo Bake Eder, Siempre Anai Biak, Siempre Gure Lorea, Beti Salada,** edo **Beti San Juan de Luz.**

Beste berba oso erabiliak, **"Gure"**, **"Gran"**, **"Hermanos"** izan dira eta noski **"San"** eta **"Santa"**, azken honeekaz izen pillo bat bait dagoz.

Baña benetan ikusgarria, **"mar"** berbea erabiltzeko ohitura izan da, begira bestela :

Aguila del mar, Amigos del mar, Angel del mar, Atalaya del mar, Ave del mar, Bella mar, Brisa del mar, Cita en el mar, Encima del mar, Gaviota del mar, Hada del mar, La luz del mar, Luz del mar, Mar de luz , Mar Cantábrico, Mar del norte, Mar hermoso, María del mar, Mirando al mar, Nuevo mar hermoso, Pájaro del mar, Perla del mar, Poeta del mar, Reina del mar, Rosa del mar, San Pedro del mar, Santa María del mar, Sirena del mar eta **Virgen del mar.**

Badagoz aurrean **Itxas** edo **Itxaso** berbea dabenak ere, **Itxaso, Itsas Alde, Itxas Aintza, Itxas Lamia, Itxas Argi, Itxas Begi, Itxas bide, Itxas bizkor, Itxas Cantabrico, Itxas Eder, Itxas Este, Itxas Gane, Itxas Lagunak, Itxas Lorea, Itxas Lur, Itxas Norte, Itxas Sur, Itxas Zierbana, Itxasoko Ama** eta **Itxasoko Lorea.**

Astilleros Cadiz. J. Gargallo "SANTAMANA" momentos después de su botadura

Txorien izenak ere ipini izan dira, adibidez ; **Golondrina, Ave del mar, Ave del paraíso, Pájaro Azul, Palomita blanca, Pingüino, Pájaro azul, Alfaneque, Paloma ligera, Txori, Txori Berri,**

Txori Eder, Txori Toki, Txori Gorri, Txori Urdin, Txori Zuri, Txirleta, Ur Txori eta **Txoritxu.**

Nahiz eta itsasoan nekez ikustekoak izan, **Mariposa de luz, Tximeleta** eta **Pinpilinpausa** izenak ere ipini dira.

Aintziñako zezen zaletasuna adierazteko, **Belmonte, Bombita, Cocherito de Bilbao, Fortuna, Lecumberi** eta **Machaquito** toreruen izenak ere ipini dira baporei.

Kirol zaletasuna ere nabaria izan da baporen izenetan, adibidez, **Bravo Uzcudun, Penta, Atano III, Osasuna, Atletic Club** eta **Txapeldun.**

Itsasoetatik urrun egon arren, mendiak beti izan dira gai baporen izenak ipintzerakoan, **Alto de , Cima de, Cumbre de** eta **Monte de** berbakaz nahiko izen dagoz, adibidez,

Alto de Gaztelu, Alto de Sollube, Alto de Umbe, Alto de Oiz, Alto de Urquiola, Ci ma de Oro, Cumbre del Gorbea, Monte Aloña, Monta Archanda, Monte Artagan, Monte Azcarate, Monte Burgoa, Monte Campero, Monte Claro, Monte del Carmen, Monte Garate, Monte Himalaya, Monte Igueldo, Monte Jata, Monte Neme, Monte Ogoño, Monte San Antón, Monte San Roque eta **Monte Zarragoiti.**

Zerura begira ere egon gara pentsakor, ea ze izen ipini eta horrela ; **El Universo, Sol de Izaro, Sol de Oro, Luna de Plata, Luna y Sol, Sol y Luna, Planeta Jupiter, Planeta Saturno, Planeta Neptuno, Venus,** eta baita **Zeruko Artzain, Zeruko Erregiña** eta **Zeruko Izarra.**

Liburuetako edo marrazkietako pertsonaiak ere izan dabe tokia, **Ali-baba, Dulcinea, Snoopy** eta **Yogui.**

Atzerritako hizkuntzetako izenak ere jarri dira, **Biscay Gule, Drosod, L´Avi, Quasar, Royann, Scorpio of Gorey, Varvassi, Vazivit, Vincit, Waksman,** baita agurrak ere **Well come Biviana** eta **Sayonara** . Amaitzeko benetako pertsonai famatuak ere gogoetan hartu dira, **Alexander Fleming, Arquimedes, Edison, Churchil, Sansón, Tut Ankh Amen** eta **Gayarre** , azken hau abeslari nafarra.

Burua ez kantzateko izen laburrak ere izan dira, **A, M.Z., Tak, Chio** eta **Za-hor**, azken honen jabea beharbada txokolate zalea izango zan.

Gure herrian betidanik izan da **"Tangoak"** kantatzeko zaletasuna, baporen izenetan ere agertzen dira Argentinako izenak, **Gaucho, Rio de la Plata, Buenos Aires** eta **Rosario de Santa Fé.**

Beste toki batzuetako izenak ere jarri dira, **Viena, Acapulco, Mexico, Rio de Janeiro** eta **Isla de Jauay**, bai irakurten dan moduen idatzirik.

Beste batzutan baporak eurak ere, ezizenak euki dabez , adibidez, **"La sirena del mar"** baporari, **"Arpi handi"** ere deitzen jakon, aurre zabala eukalako, **"La Divina Pastora`ri "Hondoko Bapora"**, uretan asko sartzen zalako, **"Gran San Francisco de Asis"** eri **"Fraillie"** tximiniko frailigaitxik, **"Edison"**eri bere tximinian irudia ikusirik **"bonbillie"** eta **"Ama milagrosie`ri "Bailariñie"** beran tximiniko irudidsek Birjiñien antza baño bailariñina geidsau eukalako.

Bikote kuriosoak ere aurkitu geinkez, **Urengoy** eta **Bitz, Huracan** eta **Galerna, Polo Norte** eta **Polo Sur, Alerta** eta **Socorro perpetuo, Justa** eta **Lar, Gau Txori** eta **La Espuelita, Aurrera** eta **Atzera, Egunon** eta **Gabon, La Guapa** eta **La Fea, Pistolin** eta **Bam-Bam.**

Ikusi dogunez oso erabilia izan da **"San"** edo **"Santa"** izenak ipintzerakoan, baña badagoz beste hainbat izen, beste modu askotara beren kristautasuna agertzen dabenak:

Signo de la Cruz, Jesus, Maria y José, Jesus del Gran Poder, Ave Maria Purisima, Aita Gurie, Viva Jesus, Dios te salve eta **Dios te salve Maria, Las Llaves del Reino, Llaves de San Pedro, Ovejita de Jesus, Amar a Dios , Dios te ve, Pio XII, Jesus Nazareno, Joven Jesus, El Angel Custodio, Salvador de Jerusalen, La Fé, Sor Teresita, Angel de la Paz, Reina de los Angeles, Reina de los Cielos, Reina del Universo, Santuario de Aranzazu, Misionero San Francisco Javier, Niño de Belen,** ....eta fede bakoentzat **Satanás.**

Itsas gizonen umorea arrantzaren arabera izan da beti, hori ikusteko, "**Dios te ve"** bapora arrain barik egoten zanean, besteek esaten eutsen **"Dios te ve, pero de lejos"**, baña orokorrez arrain gitxi arrapatzen ebenei, **Mamala, Ali, Alejandro** eta **Brus gorridse** deitzen jaken, azken hau mieleruen brusegaitik.

Batzutan egun konkretuen izenak ere ipini dira, horrela : **Astelehena, Noche vieja, Dia de San Juan, Todos los Santos, Primero de Mayo, Dos de Mayo, Tres de Mayo, Catorce de Mayo, Martxoak II, Nochebuena, Noche de Paz.**

Beste batzuetan egunek barik, urteko sasoiak **: Enero, Febrero, Marzo, Abril, Noviembre** eta **Otoño.**

Helbide bat ere aurkitu geinke: Avenida de Mayo nº 2 .

Gure arrantzaliek iñoiz ikusi dabe galleguen baporen izen barregarriak: **Vamos indo** eta **Ya me veis**, baie ondoren datozen geuriek pe, barre masie edo txise barriek egiteko modukoak dira, irakurtzerakoan elkarrizketak dirala pentsatzen badozue ere, dan danak gure baporen izenak dira :

La verdad, La verdad no vale, Ver y creer, Hay que sufrir, Como el amo, Salada, (Atakontu, usaba dauela kridsadiri agirika)

Ya esta visto, El tropezón (Antza argi dau jeusiko dala)

Yo no se, A ti que te importa, Busca la vida, En Paz - (Itzistek bakien)

Mira quien viene, Mi suegra, Que diga lo que quiera - (Amañarrabagaz enfadata)

Bienvenida Rufina, Si me quieres dimelo, Ame, Sin miedo, Amor libre, Digno de amor, Digno de querer, Vida nueva. (Amodiozko deklarazioa dirudi).

Bermiotik kanpo erregistratuako baporak ere egon dira, Bermioko izenak eroan dabenak; **Bermeo, Arichachu, Atalaya, Gaztelu, Santamaña, Chivichiaga, Sollube mendi, .. .** Aipatutako baporetako batzuk, **Naviera Bermeo,S,A.** 1918an Donostian sortutato enpresarenak ziran.

Barreka zatitsu

Behin bazan arrantzale bat bere txanelagaz pozik ibiltzen zana bere ogia irabazten, urte askotan ibili zan abantzien bere erramu biekaz, baña halako baten motorra (fuera bordie) ipini eutson eta **beintisinko baño pozau** ibiltzen zan, erramuek pe itsasora bota ebazan. Txanela modernizekeran, Aiudantzidsetik ordenie etor jakon, errola atara eta izena ipini behar ebala.

Erramu barik oso pozik ebillalako, **"Que bogue Dios"** izena ipini gura eban, baña aiudantiek ez eutson itzi izen hori ipintzen, orduan berak esan eutson **"imiñi, Remedios "**. Beste berba batzukaz, **"Reme Dios"**, egin eban berak nahi izan ebana.

.....

Juan Zabala "Purillos"en baporak **"Primero de mayo"** izena eukan, baña Francon demanduen galazo egin eutsien izen hori, langileen eguna zalako. Orduan gure Juanek bere buru azkarra erabiliz, **"Dos de mayo"** ipintzea erabaki eban eta arazoa laster batean geratu zan konponduta.

.....

Behin egunkari bateko kazetari bateri gertatutakoa. Esan beharra dago, kazetariak gero berari gertatutakoaz artikulu bat idatzi zuela bere egunkarian, gitxi gora bera honela idatzi eban .

" Siempre supe que Bermeo era un pueblo emprendedor, muy adelantado a los tiempos, pero jamas hubiera pensado, hasta que mis ojos han sido testigo, de que los bermeanos están años luz del resto de los humanos ".

Badakizue zer zan kazetariaren eritzia argitu eban arrazoia, ba tailer baten atean eskegita egoan paperak jartzen ebanak. **" Estoy en el Planeta Saturno y vendre a la hora de comer".**

Bermio zerue bada, zelan ez gara jungo bermiotarrak Saturnora goizie emoten ba ?.

Ezetz igarri

Luzie ta buru argidse, bero danien negarra ta izerdidse. Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?**

Ezizenak

Ezizen gehienak sortu, bizi eta desagertu egiten dira, oso gitxi dira irauten dabenak. Batzuk desagertuta gero be, herri abestietan geratzen dira, (Jose Komentu, Aisenhawer, Emilia Tremes, ...).

Gurasoen ezizenak galdu arren, gazteen artean (lagunartean) sortzen dira barriak (gehienetan mutilen artean), baña gutxi dira herri osoan hedatuko diranak.

Herriak erabiliak izan arren, sarritan ezizenak ez dira izaten onartuak jabeengaitik, ezizen asko, itsusiak edo irainez betetakoak izaten diralako, (**Kaka trosko, kumuneko tapie, kaka jale, txiseti,...**).

Ezizenen sorrera ezberdina izaten da, baserrian jaiotakoei, gehienetan baserriaren izena jartzen jake, kanpotik datozenei bere jaioterriko izena, baina, pertsonen lanbideak, ezaugarri fisikoak edo bere izaera be erabiltzen dira, baita txorien eta abereen izenak be.

Hala ere, herri bakoitzak izaten dau bere irudipenaren arabera, beste bide batzuk. Bermio herri arrantzalea danez, baporen izenak eta arrainen izenak be jartzen dira.

Ikusi daiguzan, adibide batzuk ;

Baserria : **Patxotenekue, Gibelekue, Errotatxukue, Kantarape,..**

Jaioterria : **Motriko, Oridso, Gerniketxu, Pilar Elantxobe, Ondarru Lekeitioko Jaingoikue, ...**

Herbestea : **Habanako palue, Italia, Argentinita, Afrikanue, Japonesie, ..**

Lanbideak: **Zesterue, Aguasil begi handi, Barrillerue, Kordelerue, Lejias,...**

Txoriak: **Txepetxa, Pardíllu, Amíllotza, Fifité, Elaié, Txoridsé, Txíndsor, txoritxu,...**

Abereak: **Asto baltz, Rusiako txarridse, Bastarreko arratoie,. Sagutxu, Pollo goloso,...**

Baporak: **Txarito, Carnaval, Mirlo, Luna, Querer, Jerusalen, ..**

Arrainak: **Txitxárro, Arrain górri, Makállo, Kábra gorridsé, Amórrotza, Papárdo, Atun zarra, Besau búrue, botakarrá,..**

Ezaugarri fisikoak: **Begi handi, Bizar gorri, Agin bako, Hatzamartongo, Betulaz, Arpi erre, Ule zuri, Titi bako, Sur oker, Azal eder, Bekoki, Betondo, Mantxue, Eskerti, Martin koixo, Julita txatie,..**

Izaerak : **Kariñoso, Infernu, Amazulo, Amali bedeinkatie, Baba lora, Bertanbera, Juan arro, Lar jakiñe, Mamala, Kanpoeder, Mari diru, Mokoti, Morronie, ...**

Sasoi baten bulego berean lan egiten eben epailea eta notarioa, euren gustoen arabera, "**Egarriaga**" eta "**Goseaga**" ezizenez ezagunagoak ziran.

Norbaitek, **"Si señor !"** diñonean, besteak **"Si señor y no señor, fueron dos señores"** esaten deutso. Ez dakit, baie baliteke "si señor" eta "no señor", ezizenak izatea.

Nahiz eta kasu bakar batzuk izan, badira zenbakietan oinarritutako ezizenak be; **hamaike, katorse, hamaiseiko, nobentaisinko, nobentainuebe por siento,....**

Baina gure herria berezia danez, badagoz beste asko benetan berezi eta batez be barregarriak diranak. Nork ez dau ezagutzen Prevenidan kasua, bera da argiena ikusteko gure erraztasuna ezizenak jartzeko.

Bermiora destinatuta trenan etorren andereño bat, herriko andra batzegaz hasi zan berbetan. **"Zuen herrira nator eta entzun dot herri polita dala"**, eta abar esan eutson herritarrari, eta honek, **"Bai hala da, baie kontuz ezizenak imintzen be abilak gara ta"**. Andereñoak orduan, **"Si vengo prevenida"** esan eutson, eta **"prevenida"** ezizenaz ezagutu zan betirako.

Zirilo Zabala **"Aikafe"** ezizenezko bermiotarrak, 1947 urtean, 1700 ezizen bildu ebazan eta geroztik jarri dira barriak be. Esate baterako Santa Eufemia Santa Maria abizenak duenari **"Parrokias"** ezizena, herriko parrokien izenak izateagaitik.

Zirilo Zabala "Aikafe"n ezizenak > IKUSI

Lehen esan dogunez, baporen izenak badabe batzuk be, beste batzutan baporan ezaugarri bat be jarri da ezizen modura. Esate baterako, **Anton bonbillas**, "Edison" baporeko patroiari. Zergaitik, ba baporan tximinian bonbila bat egoalako margotuta.
Bardin, ikusi dogu zelan erbesteko ezizenak be doguzala. Ba Kubatik ibilitako herritar bati, ez jakon ipini Kuba ezizena, **"Primera comunion"** baño, handik etorri ta gero, beti zuriz jantzita ibiltzen zalako .

Gure herrian, hain sustraituta izan dira ezizenak, 1943ko pelota partidu bateko kartelan, **Julian Txato – Julian Baltzámo / Koróko – Mamála**, ezizenez betetako izenak agertu ziran.

Baina badagoz ezizen asko, sustrai normaletatik kanpo asmatuak, beharbada gertaeraren batetan oinarrituta.

Euskerazkoak : Hamalau lapurrek, Astegun buru zuridse, Aurtengo aberatsa, Ur hotzeko sopie, Ez niri ikutu, Olezko kanpaie, Oker ezkondu, Hemeretzi txakur da erdiko arpidse, Hamabigaren apostolue, Erresakiek ekarrikue, Pobrien abogadue,...

Erderazkoak : Abreme la puerta, No quiero mariñero, A casa Genaro, Ay que alegria, Alla ellos, Aporgarbantzos, Alfombras, Automobille, Batxiller, Barrunto humo, Vete a la probinsia, Mil alubias, Hay algo, Señorita de serrin, Sirkuntansias, Como el amo, Dame la mano, Karlos setimo, Comer debalde, Dulse meneo, Ese carro, ese omo, Escribeme, Fotos, Txarlot, Txepita de oro, Txikle, Jinete pocalisis, Konprendes, La bruta, La pantalla, La pasiensia, Los libros, No quiero mariñero, Ai viene bafor Vitoria, Plata y oro quien vende, Pisa huevos ó flores,...

Barreka zatitsu

Aita Santu barria izendatu izan zan egunean, ta bere izena Benedicto hamasei edo hamaseigarrena izango zala jakin zanean, gure herrian **"Benito Hamaseíko"** jarri jakon, gure herriko ezizen bat erabiliz.

Behin batean, Ondarrutar itsasontzi bat sartu zan gure herrian, arraina saldu ta biberak hartzeko asmoz. Ez ekianez non zer erosi, portuan galdetu eban, ta zera esan eutsien, **"Obispok esangotsu nora joan erosketak egitera "**.
Galdezka aurkitu eban aguazillen arduraduna zan "Obispo" jauna, ta honek patxada guztidsegaz zera esan eutson, **"Txikotik hobienak "Jaingoikunien", ardaurik onena "Kristonien" eta janari fidagarrienak "Aitxe Santunien" aurkituko dozuz"**. Ondarrutarrak surtute zera esan eban orduan, **"Zeruen gauz ela ¿ "**.
Galdetu be eitzie, Bermeon baegoan, zelan ez ta zeruen egongo. Batzuk beti ikasten.

Ezetz igarri

Popitas ?



KANDELIE

Lekuen ezizenak

Gure herrian pertsonek ez ezik, herriko inguruak, kaleak eta etxe batzuk ere euren ezizenak daukiez. Kasu askotan pertsonakaz pasatzen dan moduan, ezizenak benetako izenak baño ezagunagoak izaten dira.

Bermiotarrok beti izan gara gauzak zuzen egin eta esatekoak, hori dala ta herrira sartu eta urten egiteko kaleei, euren izenaz baño euren kokapena dala ta, Santamañe edo Txibitxiaga eta Zubiaur tar Kepa kaleei, **Mundeka bídie** edo **Kurtzio bídie** eta **Bilbo bídie** deitzen jake.

Kaleekaz jarraituz, badagoz beste batzuk aspaldidanik euren izenaz baño, izenarean laburpenaz, kalean ezaugarriren batez, kalean jaiotako norbaiten izenez, edo beste izen batez ezagunagoak diranak. Adibidez Aurrekoetxea kalcari iñoiz bertan pisue egoalako - **Piso kale**; Eskanarruaga kalea- **Katu kale**; Cardenal Hurtado de Mendoza - **Mókoneko aldatzá**.

Lamera eta frontoi inguruari, oraindik nagusiek **kale barridsek** deitzen deutsie, gazteok pentsa arren betikoa dala, badakigu benetan inguru barriak dirala. Bardin, gaur egun San Migeleko eskilarei, nagusiek **Ritan eskilarak** be deitzen deutsie, sasoi baten kantoi horretan izen horretako dendea egoalako,

Eraikuntzen artean, Kasinoa -**Otso etxie** * Museoa- **Pilatosen etxie** * Erribera punten, Almike eta Errotatarako gurutze bidean dagozan etxeek - **Kuarteleko etxiek** (Balkoi bakoak diranez, kuartel baten antza daukielako) * Ongintza kaleko "Itxas-alde" etxea - **Raskazielosa** * Gasoliñera zaharra egoan tokian egon zan txaletari -**Hojalatazko txaleta** * Zarragoitzipeko enparantzan dagozan etxeei - **Matadero zarreko etxiek** (aintzinan mataderoa han egoalako) * Etxebarria fabrikeko aurrea - **Azkarretan etxiek** * Manikomidsue – **Etxe handidse** * Gazteluri – **Islie** * Erremedidso kaleko etxeak -**gomazko etxiek** (euretako asko itsosuen topatutako goma farduen diruekaz erositakoak diralako)* Elizak - **tximini bako fabrikek** * kanposantue - **Ir y no volverreko palazidsue**.

Gaur egun **lamera txíki** Bilbo bideko lameratxoari deitzen bajako, lehenago Moncloako etxien aurrean egoan lameratxoari **lamera txikidsé** deitzen jakon.

Goiko plazie Arana tar Sabinen enparantzari deitzen bajako, lehen **Plaza zarra** zan eta gaur egun **Beko plazié**. **Taráska** edo **Portalé** deitzen jakonari, **plaza barridsé** deitzen jakon.

Gazteok, portu zahar guztiari, portu zaharra deitzen badeutsagu, nagusiak bereiztu egiten dabe portu zaharreko inguruak, **Bokale, Fraile-leku, Karabiñeruen kasetien aurrie** (nahiz eta orain ez egon), **Kofradi zarran aurrie** (Anbulatorioa), **Igerreneko aurrie** (Kai alde tabernien aurrie), **Laredotarran muellie** (Kafe loidxien aurrie), **Txokolateneko aurrie** (Olatu tabernaren aurrea), **Morganeko eskillarak** (Kale Istua), **Primitiboneko aurrie, iturri bidsek, Etxépie, Txaritoneko aurrie, Utxa eskillarak** (bertan bizi izandako baten ezizena), **txikiko eskillarak, Santa Klarako hiru iturridsek, Santa Klarako eskillarak** eta **Presidentineko** edo **Doloreseneko aurrie** (gaur egun etxe hori botata badago ere, nagusiak ez ezik beste batzuk ere gogoratzen dogu, oraingo aparkalekuan fubolean jokatzen genduanean, Doloreseneko etxien atzien jartzen genduelako porteri edo atezaintza bat.)

Itsas ertzean, besteak beste, Juan Anasagasti eta Sansoneko astilleidsen bitartean egoan haitz zuloa, **txakurren zulue** edo **txakurren popako zulue** bazan, gaur egun ezagunagoak dira, **Frantxun atxak, Hawai, Tortugas, Miami,** eta abar.

Etxe edo inguruek ez ezik, herriko garraioak ere baeukien euren ezizenak. Itsas ertzean ez, baña bai bide ertzean ibiltzen zan Alonso dentistien kotxiek **Místo kájie** eukan ezizena, antzinako iketxdun trena, **Isabelita koipesta**, eta Apraizen fabrikeko kamionetie, **Txirta**.

Baña bermiotarrok gaur egun ere jarraitzen dogu gure kale eta inguruei ezizenak jartzen, da horrela jarraitu behar dogu gainera. Bizkaiko Jaurerria - **Flamingo Road**, Estaziño aurreko etxeak - **Moncloako etxiek** edo **patroein etxiek**, Bide gorriko etxeak -**La milla de oro**, Mundeka bideko etxe barriak - **Drakulaneko** edo **Drakulan etxiek** (beran teilatu baltzak Drakulan kapien antza daukalako) , beherago Garavillan etxeei- **Hospitsala** edo **Galleta kájie**, Azoka barriaren alboko etxe barriei **Intxaurrondo** – beran kolore orlegiak, Donostiko kuartelearen antza daukalako.

Gaurko gazteek, jarraitzen dabe ezizenak ipintzen, baña askotan zoritxarrez erderaz , adibidez Lamerapunteko ikustoki inguruari, **"la curva de nadie "** eta Artike enparantzari, **Estrella** deitzen deutsie.

Andrazko nagusiek, Lameran iturria dagoan borobila barik besteari **soperatxue** deitzen deutsie (borobila eta eguzkia dagoanean toki beroa dalako). Berba asko erain dauan Kofradiaren planta barriak ere badauka bere ezizenak, **Kursala, berdelan kursala, armatrostie, mamotretue, zapata kajie** edo **murmoie** (beran kolorea dala ta).

Bermioko kaliek kantie > ENTZUN

Frailen atzeko "Erreten" lamera barridseri, lanak oraindik amaitu barik egozala, eta bertako harri hesien supositoidsuen irudia dala ta, **"Supositoidsuen plazie - lamerie"** jarri jakon ezizena eta gazteek **"Fumeten lamerie"** (erreten>fumeten) be deitzen hasi ziran. Hala ere, izen hau ez dau iraun, herritarrek **Erreten lamerie, Frailen lamerie** edo **Lamera barridsé** deitzen deutsielako

Nestor Basterretxeak egindako "olatua", portuan ipintzen hasi ziran egun berean, hau da 2006-03-14 goizean, oraindik erdikinean egoala, arrantzaleek "olatue"ri , **"Errementa bako olatue"** deitzen hasi ziran. Behar bada argiak ez ezik, zaratea be jarri beharko jakon, gitxienez birtualki errementateko. Bardin lamerako Nestorren Euskal Kosmogonia bildumari, inauguratu aurretik herriak **"kanposántue"** ezizenez deitzen hasi jakon.

Atalde eta San Martineko "Gure-etxea"raino eraikitzen ari ziran etxe piloari, **Otxarkoaga** deitzen hasi jakon erdikinean zegozela, bertako etxeak asko eta aurrez-aurre zegozalako.

Baña beti geratzen da zeozer eta ondiño Askatasun bideako 1 etxeak ez dako nire ustez behar dauan ezizena, **Korostetxea**. Fatxada barriztu ebienean, goikaldean baporan edo motorran korostá margoztu ebien eta gaur egun itxura aldetik etxe singularra bihurtu da.

Korostétxie

Ezetz igarri

Basuén jaidso ta basuén hazi, herrire etorri ta bera nagosi. Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?**

Bermeo Bermiotik kanpo

Bermeo abizena gure herritik kanpo ezagunagoa da, batez ere Hego amerikan, Ekuadorren, Kolombia eta Mexikon, esate baterako oso zabaldua dago. Gure inguruan, Bermeosolo abizena ezagunagoa da, baina ez da arrunta.

Bermio abizena aldiz, Estatu Batuetan nahiko ugaria, gehienetan polinesiar jatorrikoak.

Bermeo eta Bermio izenak abizenetatik kanpo, leku edo enpresen izenetan ere agertzen dira, batzuk benetan bitxiak, esate baterako ;

Bermio mendia – Grezian Kozani eskualdean dagoen 1082 m. mendia.

Hotel Bermio - Greziako Ciclades irleetako Náusa herrian.

Bermeo & Bermeo Law Firm – Quito (Ecuador) – Munduko enpresarik handien (Coca-Cola, Vogue, Harley-Davidson,e.a..) marka eta patenteen bulegoa.
Galeria de Arte Bermeo & Nouvelles Expressions – Quito - Ecuador

Bermeo, Eguiguren, Ramírez Estudio de Abogados – Quito – Ecuador – Abokatuen bulegoa.

Bermeo Corp USA (Hollywood) eta **Bermeo Corp Mexico** – Internet gaietako empresa.

Bermeo Property Management Corp- New Yersey –USA – Eraikinetako zerbitzuak.

Mexicoko Mizzura enpresako **"Bermeo"** sofen modeloa.

El Corte Ingleseko,"Bermeo" izeneko loren zentroa.

Pronovias nesken jai eta ezkontza erropa **"Bermeo"** modeloa.

Inversiones Bermeo Ltda – Chile

Albercas Bermeo 20 M – Monterrey – México – Pizinak.

Kolonbian larru mota bati **"Bermeo"** esaten jako.

Bermeo & Merluza - Los Angelesko abokatuak.

Puerto Bermeo, Mexikoko Michoacán herrialdeko Tlalpujahua herriko auzoa. 300 biztanle. Kokapena (19° 43' 46" / 100° 09' 57"), altuera 2760 metro.

Bermeo de Moxos – Bolivia, 1955 sortua. Herriaren izena, gure herriko Carlos Anasagasti prantzizkotarrari oparia izan zan.

Bermeo Plaza Hotel – Cariamanga (Ecuador)
Bermeo Kalea - Madrilen

Bermeo kantie > ENTZUN

Izaro izena, Bermiotik mundura



Danok dakigunez, gure herriaren izena munduan zehar zabalduta dago, baina badogu geure geurea dan beste izen ospetsu bat, bere bidea egin dauana eta leku gehienetan oraindik ezagunagoa dana, geure Izaro .

Bermion hainbat komertzio edo elkarte daroe Izaro izena, Izaro abesbatza, Izaro Irish Pub, Izaro Bikers Club, Izaro Sub eta abar, baina ikusi daigun gure Izaro mugitu barik, munduan zehar noraino heldu dan.

Gaur egun Izaro pertsonen izenetan oso zabaldua dago, adibidez Mikel Laboa (goian bego) maisuak ere, semeari Izaro jarri zion izena

Bide danatatik, bide luzeena egin dauana duda barik, Izaro Films, S.A. Mundu guztian ikusi dira produktora honek egindako pelikulak, Izaro bera ere agertzen zala pelíkula hasi aurretik.

Izaro Films, S.A. Madrileko zine produktora, 70 eta 80 hamarkadan, hainbat "espainiar" pelíkula egin zuten. Izaro Filmsen jabeak Reyzabal familia izan ziren eta irabazitako diruekin besteak beste, 106 metroko Windsor dorre famatua egin zuten. Pelikulak hasi aurretik, gure Izaroren irudia mundu guztian ikusten zalarik.

Baina Badagoz Izaroren beste ibilbide batzuk guztiz ezberdinak eta batzuk oso bitxiak gainera. Esate baterako ;

Mundu guztiko surferrak, badakite Izaro non dagoen, Australiarrak, Hawaiarrak, Brasildarrak,.. danak jartzen dute Izaroren irudiak euren foileto edo iragarkietan.

Izaro Motors – Madrideko kotxe fabrika, "Izaro GT-E" kotxe elektrikoa.
Izaro Surf – Puerto de Santa Maria – Cadiz
Izaro Surf – Camargo – Cantabria
Izaronews.com – Interneteko albiste orria
Autocares Izaro, S.A. Bartzelonako autobusen enpresa
Izaro.com – Ediciones Tecnicas Izaro Bilbo eta Bartzelona. Liburu teknikoak. Email helbidea Izaron bertan dago antza **izaro@izaro.com**.
LibreriaIzaro.com. Bilbo. Liburu nautikoak.
Librería Izaro – Donostia Liburu zaharrak
Bar Restaurante Izaro – Mahón – Menorca
Bar Izaro – Bilbo (Alameda Urkijo, 66)
Restaurante Taberna Izaro. Uharte- Nafarroa
Restaurante Izaro - Granada
Cafeteria Izaro – Badajoz
Izaro Bar – Chaves –Buenos Aires
Izaro Altzairuak – Kerkus home, S.L. – Calgari markakoa - Murcia
Izaro . Getariko Ulacia bodegaren txakoli marka bat.
Izaro estilistak – Berriz- ileapaindegia
Izaro karkasa – Iruñako Urkoitik enpresako uren bonbak



Estrecho de Izaro eta **Palacio de Izaro** Estado Serenisimo de la Roca .
Toki birtualak
Spa Izaro – Aquavia enpresaren luxuxko bainera
Izaro Art Services, S.L. Arteagako arte munduko enpresa
Izaro – Ubuntu tribe pelikulako pertsonaia

Izaro kamara musika - _Gabriel Erkorekan musikagilearen lana
Izaro Beleroa – Bartzelonatik Mediterranoara egiten du bidaiak
Izaro Ikastetxea – Alameda San Mames - Bilbo
Izaro Corseteria . Irun
Residencia Izaro XXI – Bilbo
Marmoles Izaro, S.L. Derio
Ascensores Izaro, S.L. Bilbo
Pocerias Izaro, S.L. Madrid (Garbitasuna)
Autoescuela Izaro – Bilbo
La perla de Izaro – Bilbo - Bidentea
Izaro Lorategia – Areatza – Bizkaia
Izaroonline.com – Informatica online
Asociación Izaro Tierra Viva – Burgos (Ekologia)

Salvaescaleras Izaro – Duplex elevación – Madrid
Lube Nsu Izaro – Motorren marka. Lutxanako Lube fabrikak egiten zuen.
Izaro Inmuebles, S.L. Sevilla – Inmobiliaria
Agenda-Billetera Izaro – Ediciones Deusto, S.A.
Servicios Productivos Fundo Izaro – Chile . Nekazaritza

Izaro Haute Couture – Melbourne -Australia. Ezkontza arropak
Isla Izaro – Kalea. Guadalajara – Mexico
Izaro – Kalea - Leioa
Isla Izaro – Urbanizazioa Santa Pola - Alicante
Isla de Izaro – Kalea. La Manga del Mar Menor – Murcia
Izaro – Kalea Getxo
Baños Izaro – Iturgintza – Bilbo
Izaro 8- habbo.es – Etxe birtuala
Izaro Inmuebles, S.L. Sevilla

Residencia canina Isla de Izaro – Altsasu
Juego Izaro -Industrias BEC, S.A.– Umeen jokoak, toboganak, ..
Izaro – Lasterketarako zaldia – Jabea José Olivares
Agencia Izaro – Kontaktuak - Bizkaia
Casas Izaro – Alokatzeko duplexak – Costa Teguise – Lanzarote

Torno Izaro - Hnos. Jiménez Gómez Industrias Mecánicas- Fuenlabrada – Madrid

Izaro – Nestor Basterretxeak Eusko Legebiltzarrerako egindako horma eskultura.
Lecapriceby izaro.blogspot.com – Interneteko moda munduko bloga.
Izaro panpina – Ladydenebeb (Cocos – Keeling) Australia. Biniloz egindako panpina.
Izaroprevention.com - Soluciones Izaro , Izaro RRHH, Izaro restauración. Donostiko Informatica 68, S.A enpresaren **Izaro Green ,Izaro SAT, Izaro ADS, Izaro WMS,** produktu informatikoak.
i68 Donostiko empresa informatikoak, 21-03-2007an Hannoveren aurkeztu zituen munduari bere prokuktu izarrak **Izaro Grey** eta **Izaro Yellow.**
Izaro zuen izena, 1879an Filipinasetik Noruegara zetorrela, Christiansunen kostaldean, hondoratu zen bapora, edo 1907an Ingalaterrako Maryportera zihoanean St. Beesko Tomlin Rokesen hondoa jo zuena eta baita 1908an Bartzelonara ikatza zeramala, irteeran Avileseko barran hondoa jo zuena.

"Izaro" 1907 Tomlin Rocks St. Bees

Egunero, miloika lagunek, esaten, entzuten, irakurtzen eta idazten dau Izaro berbea, bere programa informatikoa biztuten duenean, eskari bat egiten duenean, fakturatzean, oparia hartzen duenean, eta abar.
Gure herria empresa bat lez hartuko balekidu, gure "Izaro" marka izango litzateke gure balorerik handiena.
Zaindu dezagun gure Izaron itxura eta osasuna eta baita bere izen ona, geure geurea dalako.



Izaro, gure herriaren ezaugarririk handiena danez, bere izenaren indarra aprobetxatuz, inoizkotan zerbait egin beharko genuke gure inguruan eta mundu zabalean Izaro oraindik ezagunagoa izateko .
Izaro izenaren kongresu mundiala, "Izaro estropada" irlari buelta (Kontxakoa txikituz), Izaro nazioarteko arte lehiaketa , Izaro web orrialde mundiala, edo handiagoak zergaitik ez, bermiotarrak bagara . ..

Benito Barrueta (1873-1953) – **Izaro**

Izaro

izar argien azpian

izbazterren aurrian

izkira, izkurri, izurden izadian,

izotz, izerdi izurian

izosoaren erdian

izanez eta izenez,

Izaro

Lanbideak eta diruak

- 1900. urtean
- Añek
- Biarrak
- Diruek
- Ekonomia
- Itsosoko kantie
- Itsororako ordue

1900. urtean

Orain dala ehun ta pìku urte, bai ondo irakurri dozue ehun, baegoan gure herrian botikari bat, (Elosegui y Mugica) bisidso edo zizareak kentzeko jarabe edo botika bat egiten ebana. Bermiotik kanpo ere, hau da Bilbon eta baita Donostin ere saltzen eban bere botika miresgarria. Hamar dosi eta prospetue erriel bitan saltzen ebazan. Gero gure amek eta amumek esaten deuskue antziñan ez zegoela gozokirik. Ba bisidsuek eukiten ebezan ba .

Sarritan esan deusku amak ardau gehiegi edaten dogula, baña antziñan ere ez ziran atzean gelditzen. Behintzat non erosi bacukien. Gainera mota guztietako ardauak saltzen ziran. Adibidez, Pedro Ruizek Bidebarrieta kalean eukan bodegan, Riojakoa ez ezik, Jerez, Manzanilla, Naparra eta Manchegoa ere saltzen ebazan. Gainera orain baño zeozer merkeago, 0,60 eta 1,50 pezeta bitartean egoan ardau botillie.

Orain ozonoren kapie zulotu dogun ezkero, eguraldia zoratuta dabil, orain ez dago ez uda ez negurik. Baña lehengo hotzak, benetako hotzak izaten ziran, katarruek eta plumonidsek pitxin-pitxien harrapatzen ziran. Hori dala ta, "La Novedad-ek" Prantzizko eta Mikel Deuna kaleetan eukazan dendetan, hotzan aurkako mantoiek saltzen ebazan. Merkeenak sei erriel, garestienak berrogeitamar pezeta. Ardaue eta mantak hain merke izanda, ezinezkoa zan hotza pasatie.

Euria ere asko egiten eban antza. Azkaratek herriko plazan eukan dendan, bezeroaren neurrirako bertan egindako kolore guztietako gabardinak saltzen ebazan. Orain aldiz, dana da kanpotik ekarritakoa.

Bizkaia Banketxeak, Zubiaur tar Kepa kalean eukan bulegoan, Gregorio Gorroño zuzendariak, pezeta batetik eta 5.000 pezetara, ehuneko 4 emoten eban, eta 5.000 tik 10.000 pezetara sartzeagaitik ehuneko 3,65 emoten eban. Sasoi hareetan, dirua kotxez baño, antza asto gainean etortzen zan, bestela ez da ulertzen dirua ataratzeko, eskatu ta zortzi egunerarte ez emotea.

Amaitzeko, sasoi hareetako olerki edo kanta eder bat. **"Bermeoko arrantzalien bizia".**

"Han duaz arrantzaliak goizian goizetik, tertza eta otzara besuan harturik. Beren jaki apurra otzaran harturik, tragola ta soidsia eskuan harturik. Helduten dira portura, han dabiltzaz zintzo, euren txalupatxuak ondo ipinteko. Mutil txiki ta andrak han dabiltz isilik, euren bela ta trisek lepoan harturik. Bakotzak berak daki zer dan egiteko, danak dagoz poz-pozik, behar egiteko. Guztiak ipinita, haur dagoz ba listo, kanpaiegaz urteteko. Badiño señeruak kanpaia joteko, euren txalupatxuak arin joateko. Entzuten dabeneko kanpaiaren hotsa, berberagaz batera han da abar otsa. Zeinek arinago urten dabiltzaz guztiak, atara biharrian agotik eztiak. Boga boga mutillak ahal dozuen guztian, lelengo guazanak geu izan gaitian. Urteten dabe danak belak gora altzata, hotzagaz hatzamarrak erdi gogortuta. Beralaxe doaz txalupan jarrita, etxian andriari bildurrak itzita. Helduten diranian lelengo kalara, euren tertza guztiak han doaz ondora. Denpora gitxi barru, han dakarrez gora, arrañakaz beteta, txalupa barrura. Gero egiten dabe, etxerantza jira, han geldi egon barik, alkarren begira. Euren txalupatxuak, arrainez beteta, euren bela zuriak, ondo ipinita. Bator arrantzalia, etxera poz-pozik, euren tertza nastauak, zuzendu ezinik. Pipia mosuan da, kontuak kontetan, ezen ardura barik, tosta gainetan. Helduten diranian, mutillok portura, bakez euren andrak, zer dan ikustera. Otzaria hartun da, arraina ateratzen, istante txiki baten, ez dira gelditzen, Guztia hutsiturik, olak garbituta, txalupa isten dabe, ondo apinduta. Gero duaz etxera, bazkaria jaten, tertzak ipini eta kuartillua edaten. Ardau tokian dagoz, orduren betian, esanalak esaten, alkarren artian. Iñoz bere ez dagoz, bat bakarrik berbaz, esan lei ez dagozala, sekule alkarregaz. Hasiten diranian, danak berba egiten, iñok bere ez ditu, harek ulertuten. Gero berialaxe, baduaz etxera, ta urrengo egunian, lengo biarrera. Nik amen esan badot, berba zantarren bat, parkaziua emon ta naz biargin bat. "

Ezetz igarri

Popitas ?

ALKATIEN MAKILLÉ

Áñek

Turubi Imaz "Gizíztikue"(ezkerrean) beste áñe bigaz, Neguriko palazidso baten,.

Gaur egun, zoritxarrez ez dogu ohiturarik nagusiekin euren kontuetaz luzaro hitz egiteko, eta irakaspenak ez ezik, barre egiteko aukerak ere galtzen doguz. Bizipen barregarriak jakin nahi badoguz, gure ama edo amumei, euren añe denporako pasadizuetaz galdetutea besterik ez dogu.

Gai honetan áñen kontuak ikusiko doguz, baie añén edo berba txar barik. Pasadizuak barregarriak badira be, gure añek ez dira ezertarako barregarriak, goraipatzekoak baizik.

Gerra osteko egoera larriari aurre egiteko, **diru apur bet gogortuteko**, gure andrazko askok kanpora joan beharra izan eben, aberatsen etxeetara **kridsadá**, **áñe** umeak jagoten, **añafreska** bularra emoten edo baita norberanak hasitze gero be, **añaseka** moduan.

Esakera - Biak antzekoak dirala esateko

Batek – **"Han dakozu Tomasa !"**
Besteak – **"Hobeto zeu ta bera áñe bazuzie Donostire".**

Gehien bat, Bilbora, Donostira edo baita Madrilera be joan ziran, eta bermiotarrak besteen gainetik estimatuak ziran, umeak zaintzeko eta etxea gobernateko bereziak ziralako eta diralako. Errespeto handiz hartuak izan ziran, bai señorien edo usandrien partetik eta baita umeen partetik ere, makiñetxu mesede hartutakoak dira euren sasoien zaindutako umeegandik.

Filo Zulueta "Sarren". Madrilen aña-freska

Goazen arira eta barre apur bat egitera. Behin señoriek kariokillek prijiteko esan eutson kridsadiri, baie **"Con el rabo en la boca"**, ta kridsadiek beran kitxien **"Halako kapritxorik ¡"**. Señorie harrituta geratu zan ikusi ebanean kridsadiek aurpegia erreta ekarrela. Ikustekoa izango zan, kridsadie makurtuta buztena ahoan dala arraina prijiten.

Señoriek, **"Vaya a despensa y tráigame cebollas"**. Kridsadie beran kitxien "zer da cebollas ba?", esango tsat ez tauela" , **"Señora aquí o hay cebollas, solo hay berakatzaz y kinpulaz".**

Beste egun baten, usandriek kridsadiri, **" Trae un zapatero grande para esta noche"**. Bueltan han dator kridsadie goidse joteko zapaterugaz, usandriri esanez **" Ya tengo el zapatero"**, ta usandriek **"Bien, dejalo en la fregadera"**. Ikustekoak ziran usandrien eta zapateruen arpeidsek.

Usandriek kridsadiri, **"Toma estas angulas y matalas"**. Diñoe kridsadia gau guztia ibili zala eskobie eskuen dala, eurek angulek hiltzen.

Beste baten, usandrie kalera joan zan eta etxean telefono deia, kridsadiek hartu ta esaten deutsie **" Digale al Sr. Ramirez pase por el 18 de julio"**. Hurrengo egunean medikuari esaten deutsie ea Klinikatik pasatzeko errekadue ez badeutsie emon, usabak kridsadiri ea deirik hartu dauan galdetu eta beran erantzuna **" Si, señorito, pero de aquí al 18 de julio !"**.

Kridsadie errekadutara ta dinotso usandriek, **" Trae un carrete caballo blanco"** (hari-karretie), ta bueltan kridsadiek **" Abajo esta carrete con caballo blanco"**, usandriek balkoire urten ta ikusten dau, karretero bat zaldi zuri bigaz.

Usandriek krisadiri, **“ Por favor, saqueme el chal del armario”**, ta kridsadiek kasurik bere ez, **“ Usandra koitsadie, burue galtzien hasitze dau, zelan atakok txal bat armaidsotik pa ! ”.**

Halakoak zenbat gure, baina larriak eta negargarriak be pasatu eben. Esate baterako, Martiñe Alboniga ¨Buztanpe¨ri (nire andrien amuma) gertatutakoa.

Umeek zaintzen egoan, uda zan eta Donostian izango zan. Usandriek hondartzara bidali eban umeekaz, baina hondartzan egoala itsoso txarra ikusi eban eta baezpada etxera joatea erabaki eban. Etxean usandrearen amak (atso triperrea) agirika eutson ea zertarako datorren, fulanan umeek be hondartzan dauzela ta.

Bueno, Martiñe erdi negarrez egoala, bazkaltzen hasi ziran. Bazkal erdian, albiste txar batgaz etorri zan norbait, esanez fulanan umea itxo egin zala. Martiñe amorru bizian, maletie egin eta etxera etorri zan.

Horregaitik eta beste askogaitik, Bermioko añek oso estimatuak izan dira beti, garbiak, langile finak eta moldazkuek izan diralako, sarri askotan usandriek berak baño ganora gehiagokoak, nahiz eta gaztetxoak izan.

Neure ama ere hamabi urte zituala Madrilera joan zan umeak zaintzera eta behin, bera beran hiru umeekaz eta beste kridsada bat ume batgaz, kale bat gurutzatzeko prest zegozela, kotxe bat hurbildu eta leihotik eskuak ataraz, beste neskatoari besoetatik umea lapurtu eutsien. Nire amak ezin badau ahaztu, pentsatzekoa da umearen gurasoek eta beste kridsadiek, egunaro izango dauiela gogoan.

Nire amari umea lapurtu baeutsien, nire ama gaisotu egingo zan betirako, eta beharbada Lucia Etxebarria idazleak be ez eban Planeta saria lortuko, ze beran ama zan nire amak jagoten eban hiru neba-arrebetariko bat.

Nire amuma Barbára be, atxitxe argiñe istripu larri baten ondorioz luzaroan ohean egon beharra izan zuenez, bere jaio barria zan semetxoa koinataren bularretan itzi eta Madrilera joan beharra izan eban diru apur bat irabaztera, bere bularrak hango umetxo baten ahoan jartzeko.

Barbara Ormaza "Barbára Mendikó" (nire amuma) 1907an aña freska Madrilen

Kosepa Erauzkin (nire ama) hamabi urtegaz 1931an Madrilen hiru ume zaintzen.

Ezetz igarri

Eguzkidsegaz beti etxien ta euridsegaz beti kalien. Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?**

Alejo Balenziaga Dakarren 1962an

Biarrak

Lanbide gehienak daukie euren santue edo patronue , bere egunean danak alkartu ta ozpatuteko aukera izaten dabe. Baña orain dala berrogei ta hamar urte gitxi gora behera ez zan hori gertatuten gure herriko zapateruekaz, eurek ez ebielako euren santorik. Hori dala ta, Bermioko zapateru guztiek batu ziran eta Santa Mariara eleizara joatea erabaki eben ta bertan uso bat askatu eta jartzen zan santua, bera izango zan betirako euren patronue. Baña usoa, Birjiñien behean dagoan piztiaren gaiñean jarri zan, hori ikusirik, alkar begiratuz, mutuen urten zauien kalera , bakoitza bere bidea harturik. Gehiago iñok ez zauen ezer esan patronuetaz.

Behar bada, gaur egun izendatuta eukiko dabe, baña hala ez bada, berriro egin beharko leukie proba bardiñe, ea uzten dabe baten betirako ume zurtz izaten.

Zapateruekaz jarraituz, esan behar, lanbide guztiak errespetagarriak izan behar badira ere, antziñan lanbide honek ez eukan begi onik, uste zan zapateruek ez zirala buru argigoak, ta hori adierazteko, begira esakera hau:

"Hamalau zapateruek ein zauien juntie,

zeiñek ariñau atrapa lamera-puntie".

Antza, uzte ebien Lamera-puntie, kordel baten puntie atrapatie lez erreza zala.

Norbaiten lelokeria edo ganorabakotasuna adierazteko, " **Zemat tontotzako altxa bi de panaderue goizaldien, ogidse eitzeko"** esaten dogu.

Domekatan edo atzetik hitzak entzuterakoan, beste lanbide bateri dagokion pikardiaz beteriko esakera bat esaten dogu, **"Domekatan, Bollarrek atzetik emoten dauela".** Domekatan, Bollar izeneko pasteleidsera, atzeko kaletik sartzen zalako.

Erréka jágolie entzuten badogu, ez da lanbideetaz berbetan. Izen bitxi honegaz ezagutzen dogulako, libélula edo txitxiburruntzia.
Ikusi >>>>>>>>> **Erreka jagolie –**

Umetan korrika egiterakoan, **"Azkaningo Putxi barkillero"** aldarrikatzen gendun, Arsenio Lopez karameleruen aitxe izan zan Putxi barkillerue. Ez datik zergaitik esakera hau, beharbada, ime tabardillek zeozer lapurtu ondoren, euren atzetik ibiltzen zalako.

Gozoekaz jarraituz, **"txutxuek eta merengiek, Lusiñeko kantiñen".** Txutxue, merengedun pastel errea zan, hori dala ta zerbait ederra edo ona dala adierazteko, **"Ez tok txutxue makala"** esaten dogu,

Edozein lanbidetan, norbait titulu bakue edo erdipurdizkoa dancan, elizen deitxu bakue dala esaten da, horrela **"Elizen deitxu bako jostune da hori"** entzutean, ez agindu erroparik. Elizen deitxu bako arotzengandik, **"Arotz txarrak, txirlóra asko"** esaten dogu.

Antziñako denda bat izan arren, gaur egun zintxek edo lasuetaz hitz egiterakoan, lehengo esakera hau erabiltzen da oraindik **"Zintxek eta lasotxuek, Kumuneko tapinien".**

Zeozer korrika, itsu-mendidsen edo ariñegi egitea ez dala ona adierazteko **"Arin dabillenari, arin emoten tsoiela"** esaten dogu, baña esakera horreri beste hau gehitzen jako, **"Arin dabillenari, arin emoten tsoiela, Igerrenien iketza".** Presaka dabilenari, arin emon bai,baie txarto edo gitxi emoten eutsoiela.

Afiladorie

Afiladorie kalez-kale entzuten dogunean, **"Afilador, kaniketik emon"**, edo **" Han laster euridsek"** esaten dogu.

Biargin barriak hasieran bere lana oso ondo egiten dauala, baña gerorantzean lasaitzen hasten dala esateko, **"Santimarinien, beti kridsada barridse"** edo **"Kridsada barridsek otzaran be ure igaro, ta zaharrak baldan bez "** esaten dogu.

Amogillien kantak > **ENTZUN**

Norbaitek, **ene bada !** esatean, besteak **"Ene bada ta ni, bestiek biarrien ta neu geldi "** erantzuna hartuko dau.

Enrike Zubiaren "Esnedunak" artelana

Sarri lanak arinka egiten doguz, eta arin da ondo ezinezkoa danez, gero, barriro egin beharrean izaten gara. Horrelako lan edo biarrei, **bibíarrak** esaten deutsagu, birritxen egin behar diralako. Behar asko eta gogor egiteari, **arrimándoka** ibiltzea deitzen deutsagu.

Lan edo biar gogorra adierazteko, ez dakit jatorriz nongoa dan **trosó** berba esaten da, **" Tire, trosorako be ez zauz de !".**
Lehengo aldiz biarrean hastean, ohitura egoan, lehenengo soldata edo alagorari, **Aitxiaren** egitea. Eguneko lana amaitzean, "gaurko nehiku de" edo "bidsar geidsau" zentzuan, **"Mañana mas y mejor, komediantie lez "** esaten dogu.

Eta azkenez, zentru ofizialetan, notario edo antzeko bulegoetan, edozegaitik kobratzen dabela esateko, **"Apunta el escribano, uzkerra berrogei erriel"** esaten da, uzkerra botatzeagaitik ere kobratzen dabelako.

Esakerak - **" Ez egin hori biarra ba ! "**
" Halako biarrik eitzen ! "
" Hauri dok biarra eitzie ! "
" Hori biarra eingostak pa !"

Esakera honeek ez dabe zer ikusirik bestearen lanagaz, egin dauan **etxeplastue**gaz baño.

EZIZENAK
Abogadotxu, Aguasil baltza, Aguasil begi handi, Argiñć, Bonbero, Botikaidso, Gomazko aguasille, Konpone kasuelas,.....

Barreka zatitsu

Aintziñan, baporak ez ebien oraingo aparatuek, ta noski atunetan arraiñe zein ondutan ebilen jakitea zan garrantsitsua eta momentu bakoitzean zein kordelen luzera egokiena.

Behin batean, heldu zan bermiotar bapor bat arrain lekure edo kalara ta bertan sanandear bapor bat ikusi eban arraintzen, ta zera galdetu eutson, **Sanander, que cordeles andais ? .** Sanandearrak bitan pensatu barik, zera erantzun eutson, - **Tintaus ! .** Ez dakigu gure herritarrak egun haretan arrainik izan ebanik, baña zeozer ikasi ebala seguru.

Baña mundua txikia danez, zelan diran gauzak, beste egun baten bermiotarra zan arraintzan egoana, ta sanandear berbera arrain lekura heldu ta galdezka etorrena, esanez, - **Bermeo, que cordeles usais ?,** bermiotarrak orduan, berak hartu eban informazio **baño** gehiago emonaz, zera erantzun eutson, - **Los de Antolin Koixo !.**

Suregíñek

Goizean goizetik saregin taldea batzen da ta diño usandriek, " Fulana zu jungo zara Ondartzapera, " **Bengana zu Gibelpera eta Zutana zu Talapera**". Hori entzutean, saregin gazte batek diño, " **Danak plaidsera bazuzie, nok eingo dau biarrak pa ? ".**

Saregin gazteak ez eban jakin, eta behar bada gázte zeuk be ez dozu jakingo,baie Ondartzape, Gibelpe eta Talape, baporan izenak be baziran.

Edozein beharretarako ardurea hartzea da lehengoa. Hori dala ta, sarritan gazteari beharrean hastean eta ardura hartzeko, bakarrik uzten jakon berak egitekotan, "**Ardúra etorko jatsu**" esanez. Gazteek pentsatzen eben "Ardura" laguntzaile bat zala eta haren zain zengozan.

Baina ikusten ebenean inor ez zala agertzen, eurak hasten ziran lanean eta bukatzerakoan, nagusiengana joan **"Ez da etorri Ardúra"** esanez. Nagusiak orduan **"Zeure Ardúrak egin dau biarra"** esaten eutsien. Ordutik aurrera gaztea arduratsuagoa eta helduagoa be egiten zalarik.

Antzinan Goiko plazan mertzeria bat egoan, bere izena "**Paraiso de los saldos**" eta ez dakit bere jabeek edo herriko gazteek asmatutakoa, azken honeek, Elvis Presleyren kartzelako rockaren doinuaz, zera kantatzen eben,

"Paraiso de los saldos, sostenak merke, hiru txiki lau perragaitxik, zeu kuzu lakue".

Ezetz igarri

Popitas ? **ATÉRKIÑE** edo **GUARDASOLÁ**

Madalen busturiko, amari negarrez
amental barri barik, ezkonduko danentz

amental gorriak pe, erdian zulue
handik ikusten jatso, erdiko talue

Fabriken 1920 urtean, arrainak prestatzen. Andrak lan eta kanta egiten eben, esate baterako, goiko abesti barregarria "Maritxu nora zoaz" doinuagaz.

Jose Arrue – Sardina freskue

Zarátak

Herri danak izaten dabe euren zaratak, fabrikek edo aktibitate bereziak daukiezalako, herritarren bizimoduak edo euren ohiturak eraginda.

Gaur egun, gure zaratak beste herrien antzekoak dira, kotxeen bozinazoak, obretako taladroak, megafoniaz egiten diran iragarpenak edo mezu politikoak,txatarra biltzailea, patata saltzailea, motórrak, e.a..

Ez da historian asko sakondu behar, gure herrian, mota guztietako zaratak egozala jakiteko. Aztertu daiguzan eurectariko batzuk (kanpaiak atal berezia daukie, begiratu aurkibidean) , nahiz eta gaur egun desargertuta egon.

Kolarretako aldábak - Teilapekoei deitzeko (esate baterako, baporetako mutilek, gizonei itsasorako orduak emoteko).

Afiladoreen filarmoníkie edo **moso-gitxarrie** – Bizikletan etorten ziran, kutxiloak, artaziak, e.a. zorroztuteko. Euren zaratea entzutean gazteek **" Afilador, kaniketik emon "** eta nagusiek **"Han laster curidsek"** esaten eben. Antza gehienetan, afiladoriegaz batera euridek etorten diez.

Baserritarren burdidsek – Hasierako burbilek egurrezkoak ziranez, ta gainera bai ardatza edo ejie eta kaskilue egur berekoak, egiten eben intziri antzeko zaratea, herrira heldu aurretik be entzuten ziran.

Sastardunen kornetie – Beidsek tiratutako guardakoldun karrue. Gaurkuen aldien sastar gitxi batzen zan, dana aprobetxatu edo etxean erreten zalako. Suteko hautse, barbeidsetako uliek, arratoiek edo antzekoak botaten ziran. Kaleetako adokinen eraginez, karrue mobidukeran, aurrekaldean eroaten eban txiliñe be entzuten zala.

Tanborreruen kornetie eta tanborra – Antzinan, Udalaren oharrak edo bandue herriratzeko eta baita beste edozein abisu emoteko uniformedun tanborrero bat egoan. Udalaren bandoa emoteko (kontribuzioak, ura, e.a.) tanborra joten eban, eta beste abisuak emoteko (patata kamioi bat heldu zala, zerbait galdu zala, e.a.) kornetie joten eban, esatekoa eukana abestu aurretik. Sarritan ume tabardilek, tanbor azpian eskua ipintzen eben, doinua kentzeko, ta orduan tanborreruek, paluegaz joten eutsien umeci.

Hala ere, gure herrian, zaratarik ezagunenak betidanik, sirenak izan dira.

Kofradi zaharrean be, kanpai bi egozan, **"handidse"** eta **"txikidse"**, bentie baño arinago, arrain handidse edo txikidse zala adierazteko. Gero sirenie hasten zan, hiru aldiz, bentie baño ordu erdi arinago, ordu lauren arinago eta bentie hasteko orduen.

Gaur egun geratzen dan sirena bakarra, erresakien sirena zarratue da. Errege bezperatan kabalgatea porturatzen danean eta Arrain azokan ere entzuten da. ENTZUN >>>Kofradiko sirenie, gure zaratarik geuriena.

Garzianeko sare fabrikak be baeukan bere sirenie, langileen sarrera eta irteera jakinarazteko.

Sartzerakoan, 07,45, 09,45 eta 13,45tan sirena bat .

Sartzerakoan, 08,00, 10,00 eta14,00 tan sirena bi

Urtekeran, 17,45 tan sirena bat eta 18,00 tan sirena bi.

Beste langile batzuk 06,00 sartzen ziran, baina orduan ez zan sirenarik.

Etxebarria fabrikearen sirenea- Sirena laburra eta lanerako sartzeko bakarrik joten eban, 07,55 eta 13,55 tan sirena bat, eta 08,00 eta 14,00 tan sirena bi. Batzutan ahaztuta isten ebien martxan sirenaren sistema eta domekatan be joten eban.

Sirena guzti honeekaz eta elizetako kanpaiekaz (urrengo orrialdeetan), zer esanik ez, herritarrak ez ebien erlojuen faltarik, edozein momentutan zekien ze ordutan bizi zan.

Dirúek

"Txin-txin, txin-txin, diruaren hotsa, harexek ematen dit maitia, bihotzian poza", hori diño abestiak, baina txanponen arabera, diruen hotsa edo zaratie be ez da bardiñe izaten. Antzinan, diruari orokorrean, **arbidsek** (arrainen arrotzak- **"medikuten zer jjuen arbidsek"**), **txantela** edo **dismie** be esaten jakon, (**"dismedunek diez horrek"**).

"Dirue, dirue, munduko erreiñue", bakoitzak jakingo dau zelako garrantzia emon diruari, baña egia dana, dirua, danok erabili behar dogun zerbait badan be, askotan berak erabiltzen gaitsuz.

Erriel bikúek

Lehen pezetak ta orain euruek, zelako enpatxue dakoie gure gurasuek. Hori dalata, gure euskerie ta euroak kontutan izanik, hitz-joko edo esakera barregarri batzuk entzuten doguz, adibidez, euroak dirala ta , **Zer diez "eurok" diruok** ! edo **E nai aklaraten "eurokaz" dirukaz**.

Diru batzuk, aspalditik historiara joan badira , **lamaikue** (¨lamaikue baño faltsuaue da ¨), **txakur txíkidse, txakur hándidse, erriela, erriel bikue** (kanpotarrek, garrikuek egiten eben diru honeekaz), **hamar errielekue** (hamar errielak, gizonen barrabillei be esaten jake). Beste batzuk oraintsu desagertu dira, **pezetie** (azkenengo pesetie hain txikia zanez, erlojuen pillie edo botoie be esaten jakon), **ogorlokue** (hogei errielekue, giputzek be ahaztu beharko dabe ¨**duroa**¨), **bost ogorlokue, hamar ogorlokue, hogei ogorlokue**, e.a.

Beste batzuk aldiz, oraindik ere jarraitzen dabe, **zentimuek, bostekue, hamarrekue, hogeikue**, nahiz eta oraingoen balioa askoz handiagoa izan, adibidez, lehen ogeikugaz ardau bat hartzen bazan, orain, bikote batek, eguneko menua be jan leike.

Lehen, milloari **kíllue** esaten jakon; oraingo diruekaz sei milla euro egiteko gitxi gora behera **hamar gramo** behar dogunez, izena be aldatu beharko deutsagu.

Bardin gazteak, lehen mille pezetari edo **mille pelari, talegoa** deitzen eutsien, orain horretarako hamarrekoa hartu beharko dabe antzekotzat.

Buruan dogun ule ezari, **soídse labana** deitzen deutsagun bezala, ulea hazten dan erdikaldean, sarri sortzen dan hutsunetxu biribillari be **pesetie** deitzen bajakon, orain beharbada **euro-zillue** edo **euro-txikidse** deitzen hasi beharko gara.

Betiko arbidsek eta oraingo diru barridsek

Gauzaren bat merke merkea zanean, **hiru txiki, hiru txiki lau perra** edo **lau txakur** balio ebala esaten genduan Euroak ekarri dauan "borobiltzeak", gauza guztien balioa igotzea eragin dauanez, hori dala ta ez dago esakerarik erabiltzerik, ez bait dogu ezer merkerik aurkitzen.
Gure diru kontuak benetan txarra zanean, hau da, gure partikerea huts-hutsik egoanean, **txakur txikirik pez** (bere ez) edo **zentimorik pez,** esaten genduan, orain zentimoak euki arren, atakontu ez daukagula ezer bez.

Euroa heldu zanean, nagusiei esakera bitxi hau entzuten jaken, **"Zer diez eurok diruok ! "**.

Orain arte, dirua gastatzea gorrotatzen ebenei, **pezeterue** edo **pezeterie** esaten jaken, oraingo dirua kontutan izanik, **euro zálie** esan beharko jake, betiko **begiratie**, **diruzálie** edo **diru errementaridse** ahaztu barik.

Diru txanponak kontutan izanik badagoz gure herrian ezizenak be, **Zentimos, hemeretzi txakur ta erdiko arpidse, Hiru txikiko aguasille, peseta la popa,.....**

Laster hasiko gara ezizen barriak entzuten, **eurotxu, eurok diruok, eurojjale, eurojio, eurora geurie,**

Lehen, txakur txikidsek ta txakur handidsek
partikeratan ta gaur egun etxitan

Ezetz igarri

Eperdidse bai baie hankarik ez, gorputze bai baie besorik ez, kokota bai baie bururik ez. Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?.**

Ekonomia

GITXI EDO ASKO

- **Txistik pez , ezebez, bizarrik pez, estairik pez, grano bat pez, garau bet pez, zirkiñik pez, amuskirik pez, oskolik pez, txiki erdirik pez, tauketik pez, piperrik pez, txakur txiki bet pez.**

- **Zeozer, zepaitxe, zeozertxu, ezebez bat, izentaziñue.**

  Batek – **"Gauze gitxi"** badiño
  Besteak – **"Gauze gitxi, bapezan urrengue dala !"** esaten deutso.

  Esakera – **"Hori ta ezebez, dana ezebez !"**

- **Parra-parra, bala-bala, barrien-bárra, Artzan arie lez , Laideko arie lez, arroza lez, satxa lez, garrá lez, karta lez, errie bera, largurú, larreidsek kalte eindse, zemakure, neiku te lar, politxó, áskatan, exajérie, bibéro bete, aska bete, ure lez, basie lez, ganbelá bete** edo **popitas.** Asko eritzitzen jakunean, **Ave Marie!** diñogu.

Baita erdaratik **finfinitos, exajerie** eta beste zentzun bat dabenek **inklisidsue, eskandalue** ta **destrosue.** Txantxetan, asko esateko, ezer ez danean, **ehunduketa** esaten da. Dirutan asko-asko esateko, **ez mílle ogorlokuek** be esaten dabe gure nagusiek.

Portuan, batek – **" Ez ta makala !"** (arrain asko ikustean)
Besteak- **" Ez da makaela, berdela da !"** (hitz jokoa eginez)

Norbaitek diru asko daukala adierazteko, **ister handikue dala, hagiñek gogor edo hagiñek gogortue, dirue bota-botaka, dirotute, diro pillue, dirue satza, dirue altzoz, dirugaz beteta, dirugaz jositze, dirugaz itxota, dirue askatan, dirugaz uger, diro masie** edo **dirue odola emoten** daukala esaten da, (gure herriko dirue antza **donantie** izango da).

Ugaritasuna adierazteko, esate baterako diru asko daukiela, **"Okin dakoie", "Dirotan dakoie.... ¡", baita beste edozetaz, "Erropatan dakoie ....¡", "Etxetan dakoie.... ¡".**

Zenbakiak aipatzerakoan baina konkretatu barik, hogeita piku, berrogeita piku, eta antzekoak esateko, **hogetaz, berrogetaz, hirutaz, larogetaz** esaten dogu.

Diru gitxigaz ibiltzeari, **partikerie sikuten** edo **kosteriegaz ibiltzea** esaten jako.

"Etxe utse, gerra utse" dala esaten dogu, baie sarritan batzuentzat gitxi dana, beste batzuentzat ez da izaten hain gitxi, horretarako beitu Karnizeidsen entzundakoa **"Zatike ta potrike ibil barik, imiñi liber lauren okela".**
Zeozer emoten dogunean ere, antza ez da gehiegi izaten, behintzat hori diñosku esakera honeek ;

" Emoten dana, baterako asko ta bitzerako gitxi "

" Bat emon ta bi hartun, gure etxien geidsau ez sartun "

Pertsona bi salerosketa tratuan, saltzaileak prezioa jarri eta gero beste diro bat emoteko esan, orduan erosleak, **" Esana bat, emona bi, esanagaz konforma hadi ! "** esakera bitxiaz amaituko dau.

Gehiegiak ez dakarrela gauza onik esateko, **"Larra, dana txarra"** esaten da.

IRABAZIAK

Partillié, alagorá, isíllekue, eskúpekue, maridse mutue

Gauzak txarto joango dirala esateko **" Atxak pe negar eingo dauie"** edo **" Hasi de Ogoño negarrez da Izaro suspiruke"** eta benetan txarto badoaz, **bedalie** edo **okasiñue** dator, gero

" Kontuek eta errazoiek eskatu" eta **"karta-partillek"** eginda amaitzen dogu gehienetan. Geure konture, besteren bat ondo dabillenean, **"Geure lepotik "** dabillela diñogu.

Irabaziak banatzerakoan, danok bardin kobratzen badogu, orduan **ainbana** banandu beharko dogu.
Ipinitako diruari irabazirik, interesik edo **korridorik** ez ateratzeari, **"dirue muertuen okin"** eta irabazirik gabeko lanei, **"maridse bako biarrak"** deitzen jake. Partille gitxi egiteari, **kerise díruek** edo **imientzako ogitzeko** esaten jako.

Arrain asko datorrenean prezioak beherantz eta arraina iñok guzik, orduan esaten da, **ure lez, basie lez, Laideko arie lez, katuek pe gurez, Alfak pe hartun bez, ondue hartu ezinik, solorako, transbal** edo **zubanket** sartu dala arraina.

Partille benetan eskasa dauenien, **"Zelako partillie ein dsauie zuenak pa ?" – "Guriek krielá! "** Ezebez esateko. **>> IKUSI**

Esakera – **"Dauenien bon-bon, tae z tauenien hor konpon".**

Gauzak aurrez baño atzez badoaz **"Jo kontuek eta errazoiek ta len baño txarrau"**eta konturatzen gara egoereaz.
Sarri irabazten dana, arinegi gastaten dala esateko, **"Zelan irebazi, halan irazi"** esaten dogu. Batabat gastadorea dala esateko **"Maridse laurenagaz trajie eingo dau horrek !".**

Norbaitetaz berba egiterakoan, **"Dakonak dako"** esaten badogu, besteak orduan **"Ta ez dakonak baleko"** esango deusku. Baita- **Ez tako ! –** entzuten, **Ez takonak baleko, ez tauen lekuen balego!**

Esakera- **" Andrié, etxeko lemié "**

Diru txarridsek onerako eta txarrerako dana aldatzen dau, hori dala ta, norbaitek **"Dirugaitxik ..."** badiño, besteak **"Dirugaitxik, txakurrek pe dsantzan ein zauen"** esango deutso.

Aberatsa berbea entzutean be, **"Aberatsa, popan atsa, infernuko lebatza "** esaten da. Sarri, izandakoa eta izana ez datoz bat, hori dala ta, aberatsa berbea entzutean, **"aberatsa baño hobeto da eukitsue "**, esaten da.

Esakera – **"Dirué ez ta gizona"** – Diruak ez dauala pertsonea egiten.

Momentu txarra pasaten ari garanean, esate baterako, diru edo arrain gitxiz, **ezúnie** edo **ezúnetxue** dogula diñogu.

KARU EDO MERKE

Zeozer duen (doan) ez, baie merke izan bada, **Moko truke** edo **hiru txiki lau perra** izan dala diñogu.
Karu eritzitzen jakunean, **Ez tok txutxue makala, Zer dako ba musikie dakola , urre bárrie dala !** edo **urre gorridse dala,** galderak egiten dogu, baita **Neupaitzen be ! , Nopaitzen be !** edo **Itxi berton !** esanda bagoaz.

Dana karu dagoela esateko, **"Diruek daruie andana !"** ,**"Odola balidso dau edozer geuzek gero !"** edo **"Rochillen boltsie bi de hori erosteko"** esaten dogu.
Batek diñonean, **"Dana dau karu !"**, besteak **"Guzurre merke"** diñotso.

➢ Mosu zalcari - **Moso mérke** - Kalean dabilen eskaleari - **Eskekué**

Zeozer saltzera doanak, saldu edo ez, berak ipintzen dauala prezioa esateko, **"Eskatutie libre da , zeure aue alkate"** esaten dogu eta berak jartzen dauan prezioa gehiegi iruditzen bajaku **"Berau be ongo diez erridsek"**diñotsagu.
Plazan erregatieten ibiltzeari **minke-minke, aska-aska,** edo **tenka - tenka** esaten jako.

Beti galdetzen dogu **"Zegan dabil ?", "Zegan dakozu ba ?"**, nahiz eta gehienetan **"gitxi gora bera"** edo **"tanto kuanto baten "** jakin zegan dabilen, erosi nahi doguna.
Batek **"Zemata ?"** (zenbat da) galdetzen dauanean, besteak hitz jokoa eginez, txantxetan **"Se mata y se muere"** erantzuten deutso.

Diru kontuetan edo beste zerbaitetaz, zenbakiak aipatu barik ari garenean, berbagai doguna, **haunenbeste** (honenbeste) edo **haunengañe** (honengain) dala esaten dogu.

BITXIA - Norbaitek azguretan popie arraskaten dauanean, besteak **"Kadizen gatza merke !", "Han, gatza merkatu bidau"** edo **"Gatza merke !".**

ZALETASUNA ETA PAGATEKO ORDUEN

Dirue esko ganien, zatike ta potrike, gitxitxu ta sarritxu, zorrien.
Erosi ta pagateko orduen dirorik ez dagoanean, **"Amarik ez tau etxien"** esaten dogu.

Batek esandakoa baño gehiago eskatzen dauanak, **"Esana bat, emona bi, esanagaz konforma hadi !"** entzun beharko dau.

Zeozer egiterakoan, zorran sartzen bagara, **"Jaingoikue lagun"** esaten dogu, aurrera aterako garen itxaropenaz.
Ahalegiñak egin arren, euki dogun zerbait trastera doanean, **"Agur Juan"** ez tau zer egiñik adierazteko.

Zor-harturenak - Dirua itzitzen eta hartzen dabenen arteko hartu emonak.

Esakera - **"Munduko diro danakaz be ez ta pagaten"**- Zeozer benetan gure gustukoa danean.

"Zure kuartotik ez takot nik ohire biderik", Besteekaz ez daukagula ezetariko zorrik adierazteko.
Zorrak ordaintzeko izaten dira , baina sarri **zorrez** edo **zorrakaz ondatute, zorrakaz atsitxute,** edo **zorrakaz jositxe** egoten gara.

Diru zaleari nekez ataratzen jakela ezer, **"Hareri ezazu ataten bizerrik pez"** esaten dogu.

Diruaren zaletasuna daukana, **Peseterie-ue, agarraue-die, begiratie, diru errementeridse, ez beteteko usená, atziñeko mundo eskolakuek, diru zalie, diruen ugérie, miseridsen ama, miskiñie/ñue** edo antzekoa dala diñogu.
Diru zaleak gitxigaitik be okasiñue armaten dauala esateko, harek **"Erril bitxik, hamabi hil"** egiten dauala esaten da.

Egindako lana edo mesedea eskertzen ez dancan, **" Ondo eñen pague, ate onduen palue"** esaten jako.**" Eskerrik asko, kerize sasoien, altzo bete kerize hazur dakozuz"** (mesedea pagateko modu berezia).

Mutila gizona egitera heldu dancan, **"Zorrari arpi emoteko moduko gizona"** dala diñogu, nahiz eta gero zorretan bizi.
Ernegaten edo hasarre bagagoz eta batabat guri begira geratzen bada, **"Harturen bazauz, etorri kobraten"** esaten jako, "zugaz ez daukat ezer eta ez begiratu" zentzunean.

Danon artien ordaintzekoa dana, **eskotien, amankomun** edo **ainbana** ordainduko da, eta horretarako aurretiaz bakoitzak diru bat ipinita euki badogu, **kajatik, fondotik** edo **baltzotik** ordainduko da.

Bikote batek, Notarian euren propietateak babesteko, besteari emoten deutson poderea edo testamentua egiten dabenean, biak bardinak dirala adierazteko, **alkarpoderoso** dirala diñogu.

Lapurrak sarritan trajedunak dirala esateko, **"Bizar bako eta kutxillo bako lapurrek"** esaten da.

Pagateko orduan atzez kantie > ENTZUN

LAGUNDU BAI, BAIE ...

Laguntza eskeintzen dogunean, **"trankil neure pentsure"** esaten dogu. Laguntza berbea esateko, beste modu bitxi bat ere badago, **hatzamarra amarra ,**

"Horrek beran bizi guztidsen, ez tost hatzamarrik amarra".

Norbaitek zeozer egiten dauala, beste bati lagunduz, eta egiterakoan gauzen bat apurtzen dauanean, besteak " **Mesederik kañe kalte ein zu"** esaten deutso, mesede baño kalte gehiago egin deutsola esanik.

Batzutan lagundu bai, baie besteak gehiago nahi, **"Hatzamarra emon da besue hartun"** eta lapurketaren bat egon danean, **krisko egin** dabela diñogu.

Batek - **Émon ba !**
Besteak - **Emonák eitzen ei dau, etxie galdu !** edo **Emonák ei dako mermié !.**

Enbididse gauza eta gaisotasun arrunta da eta zelan ez diru kontuak be izaten dira enbididse edo inbididse emoteko. Esakera polit batek ondo adierazten dau enbididse zer dan, **"Enbidiz beteko arkie, sekule betebagie**`` edo **"Enbididsen arkie, sekule betebagie"**.

GURE BAPORATAN

Galdera - **Non zauzie ba ?.** Erantzuna – **Bapezen !** (0 latitudean)
(Erantzuna bapezen, ta igual ama putien etxien egon)

Patroiari, **gure morroié,** **agurié** edo **atzékue** ere esaten jako, azken hau, atziñeko baporak atzien eukielako kasetie.

Porratíbue – Kofradian, proporzionalki errieteko bakotzari tokatzen jakona.

Longanaué – Irabaziei, gastuak kendu ta gero, gerazten dan irabazia.

Tokámena - Kobratzeko edo pagateko, bakoitzari tokatzen jakona.

Zerrena - (Partillien zortzigarren partie) Aintziñan, armadoreak partillie egiterakoan koziñeruri emoten eutsona, gaur egun **laurena** (partillien laugarrena).

Kontu-errozoiek – Kontuek eta errozoiek, likidazioa.

Sakatxekue edo **sakatxekotxue** - Aintziñan makiñistiri edo mutilleri, arraiñetan emoten jaken "extratxue".

Baltzotik - Fondo amankomunetik edo danon dirotik.

Maridse mutue, eskupekue edo **isillekue** - Portaereagaitik edo beste zeozergaitik, langileari emoten jakon saria.

Dinamuna – Lehen argia egiteko karburua erabiltzen bazen ere, gero dinamoak etorri ziran. Baltzotik maridserdidse ataraten zan dinamuen kontue pagateko. Errieta egoan dirua gehiago bazan, sobraten zana, danan artean banatzen zan partikerarako.
Jananá – Kostera bakoitzean, armadoreak arrantzaleei sari modura emoten eutsien dirua

Goberna-saridse – Motorra zaintzeagaitik emoten dan dirue.

Txamúskidse – Bentara botaten ez diran arrainak salduta ataratakoa.

Eskurik-eskure - Armadorick partillien zati bat aurreratzen dauanean.

Zor-zarra edo **miserikordidse** - Arrañik ez egoanean, Kofradidsek emoten eban prestamoa.

Hamaseíko - Atziñeko dirue, baita ezizena be.

Petxuek - Karguek, fakturek, errezibuek. "Hillien-hillien datortson petxueri arpi emoteko be ez ta kapaz".

Buenuek edo **Fondue-** Jabeen irabaziak, benefizidsuek . "Ba duez horrek, fondue eitzen".

Partillié – Arraintzaleek etxera eroaten daben alagora.

Arrain-pártie – Antzinan, partillie noreztala, arrain partea banatzen zan. Horretarako, gizon bat jartzen zan atzera begira, orduan patroiek **"Hau norentzako ?"**, gizonak orduan **"Fulanontzat ".** Danentzat ez egoanean arrainik, harri bat edo tartera bat edo beste edozer jartzen zan ezebeza adierazteko.

EZIZENAK

Aurtengo aberatsa, Denda merke, Kuatromil, Hemeretzi txakur da erdiko arpidse, Txikiko karatulie, Itsulapiko, Mari díru, Mari merke, Peseta la popa, Pobre aberatsa, Pobrien abogadue. Sentímos.....

Barreka zatitsu

Umea eskolatik etxera notakaz, eta diñotso amak **"Zelako notak dakazu ?"**, ta umeak **"Nik Zero, baie beste batzuk txirribotos ! "**. Berantzako txirribotoak, zero baño txarragoak ziralako.

Ardorean, herriko motor bi itsasoan gurutzerakoan, kasetatik urten ta patroi batek diñotso besteari , **Zer Julen, bada arraiñik edo ?,** Julenek erantzun - **Zero lagun !.** Hori entzutean besteak, **E, zero lumerue be badok, guk bapez!** erantzuten deutso.

Ezetz igarri

Popitas ?.

BOTÍLLIE

Bizkaiko balezalea XVII mendean

Itsosoko kanta bat

Oraingo abesti hau, antzinan baporen baten gertatutakoa azaltzen deusku, ta nahiz eta erderaz izan, gure herriaren historia gogora arazten deusku, gainera modu barregarian.

.....

En la motora Artetxe
el cocinero tenemos un tragón
que no nos da ni pa probar un diente
y el se come lo mejor

En veinte dias que llevamos de ruta
en veinte dias se ha comido el arroz
al cocinero le hacemos un regalo
al cocinero de nuestra embarcación

Marmita y siempre marmita
tu quieres algo más
tu quieres enchufarte, mangante !
en donde, en la cocina ó en el timón ?

Yo no quiero ser **ubilleko**
ni tampoco **berreleko**
yo quiero ser **puntetako** (*)
marinero raso, raso quiero ser

.....

Ubillekue - Ubilleko apaijjue, helizen albokue.
Ubilleko gizona – Apaijjuek alatuteko ardura daukana, gizon gogorrak.
Berrelekue - Botaberan, betik hasita lehenengo apaijjue.
Puntetakue - Botaberan, punteko apaijjue.
(*) Puntetako apaidsugaz arduratzen zanak, bihar gitxiago izaten ebelako.

Itsosorako ordue

Gaur egun itsosorako ordue emoteko, patroiek bezperatik jakin arazten deutsie gizonei, ostantzien hor dago telefono mugikorra. Baña gitxirarte, mutila etxerik etxe joaten zan aldabeak joten, patroiak jarritako ordua gizonei jakinarazten.

Gehienetan etxeetan ordua hartzen ebenak, gizonen emazteak edo arrebak izaten ziran eta honcek goxotasunez hartzen eben mutile; frutie, ogidse, txokolatie edo beste zeozer emoten eutsielarik.

Hurrengo egunеko ordue jakiteko, iluntzetan mutille tabernara joaten zan patroiengana. Patroiek ordua emoten eutson, " **Lauretako ordue** " eta **etxegune** egiteko bazan, " **Emon gizonei lo eitzeko ordue !** ", mutilak be, etxeetan halan esaten ebazala, **"Lauretako ordue !"** edo **"Julian, lo eitzeko !"**.

Angel Cabanas Oteizan margolana

Etxeguna egoanean, baie loidsen biharra egin beharra baeban, **"Esan gizonai armosue jan da loidsera etorteko"** esaten eutson patroiak mutileri. Hurrengo goizean ikusten zanez, armosue jateko ohitura ezberdinak egozan, batzuk beti berandu etortzen ziralarik.

Bardin gizon batzuk patroiegaz egon tabernan, mutille ordue emoten joaten zan gizon horreen etxeetara be. Ordue atzoko berbera bazan, mutille ez zan joaten etxeetara, gizonak horrela bazekielako ze ordutan zan irteera.

Patroiak ez eukanean argi ze ordu jarri, mutilleri **"Juen jakitzen bestiek ze ordu dakoien "**. Mutilek entzuten eban ordue baño beranduagokoa emoten eutson patroiari. Patroie mutilen antzeko berandu zalea bazan, mutileri " **Jon neure antzekue zara ezta ?"** esaten eutson.

Beste batzuetan patroiek **"Juen jakitzen eskotekuek zer dakarrien !"** esaten eutson mutilari, jakiteko gauez joan edo ez. Mutilek arrain asko ikusten baeban be, patroiari **"Juan, afairik pe ez dakarrie "** esaten eutson, urruneko kaletara ez joatearren.

Patroiek eskotera joatea pentsatzen baeban, mutileri **"Esan gizonai egun biko ogidse ekarteko"** esaten eutson. Mutilek orduen etxeetan, **"Julian, seiretan egun biko ogidsegaz !"** emoten eban bere ordua.

Askotan eskotera ez joateko, mutilek portuan ezkutatzen eban txanela, patroari **"Txanela galdu de"** esanez, ta patroiak orduan mutilari, **"Bidsar geratu etxien txanela topaten"** esaten eutson, mutilen poztasunerako.

Itsosora urteteko orduen, beti faltatzen zan gizonen bat luek hartute. Patroiek orduan mutileri " **Deitsu Andreseri"**. Andresen etxekuek **"Urten dau"** esaten baeutsien be, mutile Torronteruen jezartzen zan, denporie galtziko.

Barreka zatitsu

Bapora Karruen pintxeten ta mutilek hamaiketakue eitzeko bokadiluek dakar, baie gizonak eskuek garbitsuten dauzela, berak handidsena hartuten dau.

Gizon batek mutileri – **"Hauri dok arpidse okitzie"**
Mutilek erantzun - **"Zuk zein hartungo zanzun ba ?"**
Gizonak - **"Txikidse !"**
Mutilek - **" Ba haur dakozu ! "**

Ezetz igarri

Gizon txiki ta txapel handi, sartenetik atara ta jan hadi. Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?.**

Heriotza ta erlijioa

- Jaingoikue ta Santuek
- Abadiek
- Errezaten
- Heriotza
- Kanpak
- Erbestean hil

Jaingoikue eta Santuek

Lurrean gagozanontzat, **Zerua**, bere zentzun fisikoan eta oraindik gehiago bere zentzun erlijiosoan, ezinbesteko erreferentzia dogu. Zerua, helburu, misterio, aztergai, ikusgai eta abar izaten badogu, gure herrian, zelan ez esakerak aberastuteko ere erabiltzen dogu. **Jaingoikue, Zerua** eta **Santuek**, barkuen izenak ipintzerakoan ere oso erabiliak izan dira gure herrian.

Herri guztietan eta gurean ere, erregu gisa, espresiorik erabiliena, **Jaingoikue !** bada, gure Bermion baita **Ai Jaingoikotxue !**, **Ai ene Jesus laztana ! , Ai Jesukristo bidsotzekue !** eta zelan ez, geure geure dan

Ai Jaingoiko fraka zabala ! .

Gure gustukoa ez dan zeozer egiten dauanari, **Jaingoikutzik hori ez egin gero !** diñotsagu. Zeozer egiterakoan, ondo urtengo dauan itxaropenez **Jaingoikue lagun !** esaten dogu.

Gizonezkoek andren gustukoa ez dan zerbait egiten dogunean, gure herriko andrek, **"ene semie !"** zentzun berean, **Jaingoikuen semie!** esaten deuskue.

Esakera – Lekuren bat batsetsua danean, **"Bake Santue dau"** esaten da.

Egoeraren bat behar dan moduan konpondu danean, **Jaingoikuen legien** egin dala diñogu eta norbait nonora joateko gogoz pelmadie emoten dauanean, besteek azkenean **duela Jaingoikugaz !** diñoie, baita **"Jun deidsela Jaingoikugaz ta Ama Birjiñegaz"**. Zeozer gertatzen danean, **"Ama Birjiñie Antxorakue"** be entzuten da.

Antzinean maiatzan lorak batzen ziran Birjineari botatzeko, gero **"Bota, bota, bota ta bota, bota, bota lorak Birjiñiri "** abestuz.

Agur Dolorezko kantie > ENTZUN

Denporaz edo osasunez, zerbait nekez edo ostaz ostaz egin badogu, adibidez, **"Jaingoikuek dakidsen moduen allega nai, arterik hartun eziñik ",** arnasie hartun eziñik ibili garala esateko.

Zeozer *"istindiko"* baten egin dogunean, **Aitxiaren ein orduko** egin dogula diñogu. Eta zeozerk harritzen bagaitu, **"Aitxearen semiaren"** edo **"Aitxiaren semiaren, viva Jesus Sakramentado"** esaten dogu.

Gure harridura adieraztcko **Jesus !** edo **Jesus Mari ta Jose !** erabilienak badira, guk esandakoa norbaiti ez jakonean gustatu **Jesus ba !** esaten deutsagu.

Atxiss ¡ egiten badogu, **Damistiku ¡** (Latinezko dominus tecum – Jauna zurekin) edo **Jesus !** esaten deuskue, baña umeak egiten dauanean **Kesus !** esaten jake. Gure suspirorik sakonena **Ai Jesus ona !** bada, ernegaten gagozanean, indarrez **Jesuse !** edo **Jaingoikue !** dira gure barru barruko espresioak.

Esakera – Batek besteari urreratuteko, hurbiltzeko nahi diodancan, esakera indartzeko, **"Errime, gorputz ta arime"** esaten dio.

Norbaiten egocreak errenkurie edo atsekabea sortzen deuskuncan, egin beharrekoak **Jaingoikuen amoriarren !** egin behar dogu. Zeozer urrun edo asau dagoala esateko barriz, **Jaingoikuen erreñutan** dagoela diñogu.

"Madalén egunien euridsé, iko urtie be erdidsé"

Norbaitek beste bati pasadié emon edo masitsu egin dauala esateko, antzinan, **"Ikopása Sántue eta Kredó"** atara deutsola esaten eben.

Umeren baten edertasuna, edo nagusiren baten silbota nabarmentzen danean, **Jaingoikuek bedeinkaturik** dagoala esaten dogu. Alarguntzen danari itxaropena emoteko, **"Jaingoikuek tako txori guztidsen ardurie, ta zure imien ardurie be okingo dau"** esaten jako. Baita norbait oso gaisorik dagoanenan, batek diño **"Hori lasterko da"**, da besteak **"Notaki ba, hori Jaingoikuri aurrie hartzie da".**

Esakera – **"Santidsago ta Santa Ana, garragarrilen azkana"**

Antziñan, larrialdietan edo sufrimentuzko egoeretan **Jaune hil nauzu !** edo **Jaune miserikordidsen !** esaten zan eta ezerezean edo kale gorrian geratzeari aldiz, **Jesus billoizik !** .

Itsosuen jaten hasteko gure arrantzaleak, **A Jesus !** , **A Jesus mutillek !** edo **A Jesus y kruses !** esaten dabe. Hala ere badagoz beste momentu batzuk ere gure arrantzaleek Jaunaren izena aipatzen dabenak.

Jesus ez ezik, Santuek eta jatekoa batzen dauan esakerea be badogu. Elizen sartunde edo elize bidekue izan, eta gero kalean gaiztoa, maltzurra edo egozkorra danagaitik, "**Santuek jjaten, da gero....**" esaten dogu.

Atunetan kazan apaijjue denpora luzean arrain barik pasatu ta, arrainak agarraten dauanean eskerrak emoteko **Jesus !** esaten da, baita patroieri esateko zein apaidsok daukan arraina, **Jesus punten !, Jesus erdidsen !,** horrela patroiek atentziñue hartu ta makiñie gitxitxuko dau.

Umeren bategaitzik **Santue** dala entzuten badogu, eta ez dogu uste halan danik, "**Santue arpeidse ta kolkuen barrabasa**" esaten da.
Baita, - **Santue da ! -----" Santuek altarien ta eurek pe egurrezkuek ! "**

San Juan bezperan, Mañuko baserrietan ere sua egiten zan gauza zaharrak erretzeko, eta bertakoak abestitxo bat kantatzen eben;

"**San Juan, San Juan bagillien, denpora ederrien, sugoick eta sapuek erre, garidsek eta artuek kaixan gorde**", eta jarraian zantzue botaten zan. Baserri danak egiten ebenez bardina, ikustekoa eta entzutekoa zan auzo guztian sortzen zan giroa.

Gaur San Juan, ta bidsar juan zan

SAN JUAN KANTAK > **ENTZUN**

Urbedeinkatontzidse – Saman, pizkázurre edo íntxorran behien, dakun sakunadie. Ikusi >>>Urbedeinkatóntzidse –

Pertsona batek esandakoari, besteak zeozer luzatzen deutsonean ere agertzen dira aipamenak Jaunari.

Batek diñonean - **Jesuse !** Besteak **Jesuse edo oremuse !**

" **Zetako ?** **Jaingoikue gizon handidse dalako !**

" **Ai Jaingoikue !** **Bat eta bera neikue !**

" **Egunon ! ,** **Jaingoikuek halan emon !**

" **Betiko !** **Betiko ez dau ezer, betiko Jaingoikue !**

" **Pater noster !** " **Zuluen laster !**

Egin dogun gauza txiki bategaitik, agirika handia jasotzen dogunean, "**Atakontu Jaingoikuri txistue bota tsatela**" be esaten dogu.

Esakera - Gogo eza. **"Txakurrek elizerako jjuteko baño gogo gitxiau dakot, horra ezkontzara jjuteko ".**
Pertsona onagaitik edo gibel handia danagaitik **Tortola bedeinkatie !** dala diñogu. Behar bada ura burura ez ezik, beste leku batera be botako eutsien.

Santuen izena entzuterakoan ere, badagoz erantzun bitxiak,

Batek **Okupeta zauz ?** Besteak **Bai, San Juanen kanpaie lez !**

San Andres ! " **Kapie dandarrez!** edo **Beti alreves!**

San Felipe ! " **Bestiek diñona nik pe !**

San Bixente ! " **San Bixente, neguen bidsotza !**

(neguaren erdia) Urtarrilak hogeita bi

Santa Luzia " **Santa Luzia, egune luzetu oiluen pausue !** (apur bat) Abenduak hamabi

San Pedro ! " **San Pedro zotzezko bietzakaz !**

San Pedro ! " **San Pedro bendito danos bonito, aunque sea gitxitxu, sarritxu, sarritxu !**

Santo Anton ! " **Beseue montonton !**

Gazteek parrandan zebiltzanean edo ta Jose izeneko bati adarra jotzeko, besteek, "**San Josen kapelie, Ora pro nobis**" kantatzen ebien.

Umea okitzeko egoten zan andreak, arin libreteko ordu laburtxu bet eskatzeko San Ramoneri, bere estanpa baten aurrean, kandela bat bisturik **San Ramón , ordu laburtxu bet ! ,** be esaten zan.

Amesetan egin badogu, eta ona izan bada izan dadila egia, aldiz txarra izan bada ez esateko, **"San Mames, bart ein dsot ames, ona bada bidson partez, txarra bada bapez"** edo baita **"gaur ona bada bai, txarra bada bapez" esaten zan".**

Batabatek **"Amen"** esaten badau, besteak **"Amen, zu hor ta ni hemen !"** dinotso.

Norbaitek estula egiten dauancan , besteak **"San Blas, Santue da ta "** esaten da eta abereen edertasuna goraipatzeko ere, **"San Antoniok bedeinkaturik"** diñogu.

Elizetan erabiltzen dan intsentsue, beste esakeratan be agertzen da. Esate baterako, **intsentsué** persona pelmeari be esaten jako. Pazentzidse! eskatzeko baña esan barik, **" Intsentsue, berakatza ta porrue ! ".**

Santukaz jarraitzeko, egi borobilla dancan, **egi santue** dala diñogu eta eguneko ordu danatan egiten dala esateko, **egun santu gustidsen. Zazpi suetas** edo **saltsa gutidsetako perejille** danari, **Santo guztidsen kandelie** dala ere esaten jake.

Santiago eguna jai inposatua zanez, herriko andrak, batez be Bastarre eta Torronteru ingurukoak, kalera urteten eben jostera, batzuk josteko makina ta guzti, eurentzat astegun arrunt bat zala adierazteko.

Beti pentsa izan dogu, infernuan bero asko egiten dauala, baña gure esakeretan ez da horrela ikusten, ze **Haize demoniñué** eta **infernue dau amen** esakeretan, hotza dagoenean erabiltzen doguz eta. Bestalde berue dagoela esateko, **Zerue dau amen** edo **katuen gloridse** dauela diñogu.

Argi dago zeruan epel dagoala, lo egiteko gogoa ere emoten bait dau, horrela esaten dogu **Lo angerotxue lez** edo **Niño Jesuse lez**, Andra Mari eleizan dagoen San Felisisimon kontuan harturik, lotara goazela esateko, **San Felisisimon posturie hartzera** ere esaten dogu.

Zeozer txarto urteten deuskunean, **Infernuko barrabasak eruen dost !**, esaten dogu. **Infernuko artázidse** entzutean lasai egon, intsektu baten izena dalako. Ikusi egizu >>>. **Infernuko artázidse edo artazi bikue –**

Batek – **"Koitxadue !"** besteak **"Koitxadue, infernuen atitan dauena "**

Umeren bat nonondik jausten danenan, baña zorionez ez jakonenan ezer gertatzen, **Angeruek hartuntsoie golpie** esaten dogu.

Esakera- Batek **"Koitxadue !"**, besteak, **"Koitxadue infernuko atitan dauena".**

Gure umeei, txarto portaten direnean, **Infernura jungo zara zapata ta guzti** esaten deutsiegu (arin zapatak kentziko asti barik). Hori bai lehenago **San Blas zintzie** atarata.

Agindutakoa egin ez eta zeozer txarto egin doguncan, amak **"Ez takozu pekatuen parkasiñorik"**, esango deusku.

Umetan berbetan hasteko arazoren bat badaukagu, gurasoek Sukarrietako San Andresera eroango gaitue eta zahartzara burue galtzen doguncan, **Santidsago galdute** dogula diñogu. Santo batek berbie emon, ta bestiek kendu, Santuek eurek pe ez dira akorduen paraten.

Pertsonaren bat ezerezean geratu danean, **"Goidsen zerue ta behien lurre"** geratu dala diñogu. Beste batzuetan, pertsonaren baten izakeraz ez bagara gehiegi fidatzen, **"Ez ta kristiño batiritue ! "** edo **"Bada berori katolikue"** esaten dogu.

Gure atzetik, zeozer eskatzen eta lotu barik pelmadie emoten dabilzkunari, **"Kurtzioko txiliñe lez"** dabillela diñotsagu. Eskatutie librie da, baña guk ezer emoteko gogorik ez badaukagu, **"Ez besterik, ez zezterik, ez Kriston serrarik"**, diñotsagu.

Beste baten erabakiaren zain edo guk esandakoari erantzunaren zain gagozanean, **"Bai edo ez, Kristok agindsuten dauen legez"** esaten deutsagu.

Norbait bere lana egiterakoan, molda gitxikoa edo erdipurdiko langilea dala esateko **"Elizen deitsu bakue"** dala esaten da, adibidez **"Elizen deitsu bako joztune dozu hori"**. Elizen sartuta edo Elizaren legean bizi danari barriz, **Elize bídekue** dala diñogu.

Tabernak modu figuratiboan adierazteko, eliza deitzen jake, **"Nongo elizetatik ibil zarie ba?".**

Bizitza honetan, egunero egiten dogu gure gustokoak ez diran gauzak, baña egin eta aurrera jarraitu behar dogu eta hori adierazteko **"Aurrera prozesiñue"** esaten dogu.

Gaur egungo gazteria, gero eta handiagoak datoz eta guk gaztea oso handia dala esateko **"Garizimie baño luziaue"** dala diñogu.

Beste batégaz hasarre dagoanari - **"Berak Agur Maridse esan batsun, zeuk pe Santa Maridse erantzungo zazun"** esaten deutsagu, berak be zeozer esango zuela esateko.

Osasunaren aldeko erreguak ere badagoz, adibidez **"Santa Mañe, kendu gure imiri urdailleko miñe".**

Trugoick eta justuridsek dagozanean, **"Santa Barbara bedeinkatie"** esaten da, Kandelario egunean bedeinkatutako kandelie biztuz. Trugoien atzetik, euri gogorrak edo iñetazidsek hortuaridse kalte ez dadin, **" Santa Barbara, Santa Kruz, Jaune erruki zakiguz! , Jaune Miserikordidse, salba egizu iñozentien ogidse"** esaten zan eskari modura. Beroa handia dancan aldiz, **"Jesukristo berue !"** edo **"Berue dau Krieleison !".**

Zelan ez Birjiñiri egindako erreguak edo deiak ere agertzen dira gure esakeretan, **"Ai ama birjiñe, zeru-lurren erregiñe !", "Ai Ama Birjiñe laztana"** edo baita geure geurea dan **"Ai ama Birjiñe, larrosa zuri ederra !".** Zeozer gertatzen danean, **"Ama Birjiñe Antxorakue"** be esaten da.

Zeozer gehiegi iruditzen jakunean, **Ape Marie !,** *"ez ta makala"* zentzun berean. Errezateko orduan gure atsuen onduen ipintzen badogu gure belarria, **Aimari Pruisime** entzungo dogu. Ibilli astiro, baie miñe makiñe guztidsen. Antzinan etxeetara sartzerakoan igirita egoan atea sakatu eta **"Ave Maria Purisima "** esaten zan. Hau esate ahaztuten jakonari, nagusiak zera galdetzen euutson, **"Zer itzizu atitan!".**

Domekie jaia dala eta astegun buru zuridsetatik bereiztuteko, **Domeka Santue** dala diñogu, adibidez, **"Txo, Domeka Santu baten zer eitzen zauz biarrien ba !".**

Pertsonaren bat denpora luzean eta zutunik beste lagun bateri itxaroten egon bada, **Ososoko santu lez** egon dala esango deutso besteari.

Ondo ibili edo eratara egoteari, **Santus ibilli** edo **Santus egon** diñotsagu, **"Gure Tomás ez dabil santus"** edo **"Txo, badau santus berori morroie".**

EZIZENAK

Aima pruisima, Hamabigarren apostolue, Atxa ganeko Birjiñie, Birjiñe baltza, Demonios, Infernotxu, Dios, Diosa, Esposa de Jesucristo, Fray Santos, Jaingoikotxu, Parroquias, San Migeleko arbolie, San Josetxunekue, Jose Komentu, Mal fraile, Obispo, ...



2007 ko Aratusteak. "Amuma ezetu bez !"

Barreka zatitsu

Behin joan zan andra bat konfesatzera eta amaitzeko egoanean, abadeak zera esan eutson, **"Badakizu laster misioneruek etorko diez eta ondo etorten da haren semoietara joatea, gauza asko daukie esateko ta".** Hori entzunda, gure andreak barru barrutik esan eutson, **"Ai ene bada, miseridse jatozku Jaune !".** Abadea hasarraturik, **"Zer esanzu, ala kalera !".** Eta kalera bota zauen, absoluzio barik. Gauzea da misioneruek urtero etorten ziran negu aurrean eta ha sasoie arrain gitxikoa zanez, andreari ha gogoratu jakon, ez misioneruek balba batzuk zirala pentsatzen ebalako eta ez haren erruz arrain gitxi edo miserian egongo zirala.

Andra Mundakar bati gertatutakoa. Nabegatzen egoan senarrari bidalitako telegraman, **"San Pedro encima, hija desnuda"** (San Pedron jaiak ganien ta alabie erropa barri barik egoala eta diruak gastatzeko gizonaren baimena eskatzen), Gizonak erantzun eutson esanez, **"Desmonta San Pedro y viste hija".**

San Pedro aipatuta, behin entzundako kanta bat jatort burura. Kanta hau, antza bandien musikiegaz batera abesten zan.

"Una vieja sube al cielo, kaltzetin gorridsekaz

y San Pedro le contesta, jun zaitzez hortik horrantz".

Ezetz igarri

Popitas ?.

PERRETXÍKUE

Arresi eta Dolaniaga kaleen kurtzea

Abadeen inguruko upiñek

Betidanik, abadeei buruzko historitxoak nahiko bitxiak izan dira. Batzutan egizkoak, beste batzutan, beharbada asmatutakoak; baina beti barregarriak.

Gehienetan, upiñak non gertatuak diran jakitea ezinezkoa da, herriz herri, ahoz-aho zabalduak izan diralako.

Baña gure artean entzute gehien daukienak Obispoarena eta beseuarena diran ezkero, horrek biak aipatuko dodaz.

Etorri zan herrira Gotzaia umeei konfirmazioa emotera eta Elizbarrutiko (berba hau lehen aldiz entzuterakoan, nire lagun batek Felix Barrutia ulertu eban) beste zeregin batzuk egitera, abadearen etxea txikia zanez eta sasoi harretan ez ebalez ostaturik, ohe berean egin behar izan eben lo. Beste goizean abadeak aldabearen zaratea luzaro entzun ebanean eta oraindik **bidsotza lo** eukala, **lo sumustuen** buelta emon eta Obispoari aldarrika hasi jakon, **Mari, Mari esnie !**

Diñoe kridsadigaz erretu zaucla. **Jentiek edozer daki esaten gero !**

Behar bada, abade bardiñari gertatutako beste bat, oraingo honetan sakristauek abadearen kridsadie beseu eder batcgaz ikusten dau ta etxera heltzerakoan diñotso andriri, **"Tomasa zelako beseue eruntso kridsadiek abadiri baie!, zeozer enbidu hori beseue jateko, badakit zer"** ta hasi zan plana imintzen.

Bien bitartean bazkari ordua heldu zan eta abadea mahaian egoan beseu ederra jateko prest, halako baten kalean zratak entzuten dira, leihora hurbildu ta ikusten dau sakristaue bere emaztearen atzetik aldarrika ta jo gurean ta andra koitsadie alaurike.

Abadeak- (leihotik aldarrike) **"Juan, zer zabiltzie"**

Sakristauek -**"Goziek hildse etorri ta gure etxien ez tau ezer jateko, hil ein bidot".**

Abadiek -**"Etorri zaitzezie gora geurkuitxik , badau zer jan eta".**

Abadiek - **"Hala Juan, lelau erreza egin bizu".**

Sakristauek - **"Aitxearen ta Espiritu Santuaren izenean Amen".**

Abadiek - **"Juan, da non itxizu semie ba ?"**

Sakristauek - **"Errozoie, kolarran geratu da"- "Etorri Julen"** ta semie be gora.

Sakristauek beituten dau kazulera da konturetuten da abadien mandan, dauzela okela danak ta bestien hazurrek, burue ta buztena.

Abadeak - (Jaten hasi orduko) **"Juan, ni ez panaitzen agertu, zer eingo zazun andriri atrapa bazun ba? " .**

Sakristauek (Galdera hori aprobetxatuz) **- "Ba Jaune, atrapa banauen"**, kazulie hartu ta diñotso **" halan eingo notzan, mamiñek manda batera ta hazurrek beste mandara"** , mamin guztidsek beran mandan ipiniaz.

Hau dok upiñe, talo burdiñe !

Abadeek orokorrean, txori antza izan dabe herritarrentzat, hori dala ta **torra txoridse** edo **erroidse** deitzen eutsien, elizako torrea eta jantzia baltza kontutan izanik. Baña benetan bitxia **Txa me entiendes** izena da, behar bada kanpotik ekarritakoa izango da.

Abade bakoitzaren berezitasunak kontutan izanik, badagoz esakera barregarri batzuk.

Norbait estropezaten danean, **"Han bigarren Don Mateo"**. Antza Santa Eufemiako abade izandako Don Mateo, altareko alfonbrakaz sarri-sarri estropeza ta jeuzi egiten zalako.

Gazteak beti izaten dira abilak nagusiei ezizenak ipintzen, hori dala ta, antzinan, Don Gineseri, **"Don Jinete enmascarado"** eta Don Gileri, **"Don Jilguero"**.

Nik gogoratzen dodana zera da, bataioetan abesten genduana, **"Don Jose kapelie, etxa karamelue".**

Gauza bat galtzeak ez dau gura esan nahi dana galdu dala adierazteko, **"Ze ardure tso frailiri, lego bat hil arren ba ?"** esakera bitxia erabiltzen da.

EZIZENAK

Herritarren artean be, badagoz **Abade manka** eta **abade mallukidse** abade edo antzekoentzat ezizenak.

Ezetz igarri

Herridse da ta ez tau etxerik, jentie askatan baie iñok pez kasurik. Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?**



Aurelio Arteta 1925-30 Txo y sardinera

Errezaten

Gure herria elizebidekoa dala esatea ez da gauza barria, inguruko jendeak ere ezagutzen dabe bere zintzotasuna , Gaztelugatzeko San Juanera, Almikera, Karmenera, Kanposanture, Busturiko San Antonio eta San Bartolora edo Natxitxuko Santa Agedara, bermiotarren debozioa barru barrukoa bait da.

Geure gustokoa ez dan zeozer gertatzen dancan, **"Ai ene Jesus lastana"** eta baita **"Jesus, Jesus"** esaten da, azken honeri atsoak otoitz osoa ere gehitzen deutse, **"Jesus, Jesus, mille bider Jesus, Aitxe Eternuen Bendeziñue, Seme Dibiñuen Bendeziñue, Espiritu Santu Jaunaren Bendeziño Santue ezan deigule geure arimetan, orain da geure eridsotzako orduen, Amen",** bedeinkaziño falta gaitxik ez da geratuko.

Batek – **Ora Pro Nobis**

Bestak – **Ora Pro Nobis Krieleison, otzara bete gizon !**

Gure herriko andrak errezaten ez ezik, kantaten be erraztasune eta indarra daukie, hori dala ta sarri etorten dira inguruko herrietatik bertoko mezak eta kantuak entzutera. Gure herriko andren sentimendua, **Ogi zerutik, Kristorenak gara, Ama Dolorietakue, Ostian bizi zara, Zugaz bizi nahi dot, Agur Jesus ama, Bedeinkatua zu, Jesus maitea zan, Biztu da Kristo, Goazen alkarturik, Hona bildots eztia, Begoñako Andra Mari, Zein gozo ta eder dan, Agur Jesusen Ama, Emoiguzu Jauna, Almikeko ama, Beti betiko** edo antzekoak kantatzean benetan hunkigarria da.

Barreka zatitsu

Oraingoan, gertatutako kontu bat. Joan ziran andra talde bat San Bartolora ohitura dan legez, euren baporantzat suertie ta osasune eskatuteko ta honantzien errezа zauien errosaidsue, batek esan ta bestiek erantzun, amaitu ebenien Ave Maridse, Letanidse hasi behar, baie ez ebien jakin, ta diño batek **"Nik esangot "Jjik eta Jjak", ta zuek erantzungo zuie "Ora Pro Nobis"**. Hasi ziran, baña bide erdidsen atzetik zetozenak barreka itsoten hasi ziran, ta aurrekoa eurekaz hasarratu ta banandute heldu ziran Bermiora.

******

Kanposantuen zehar errezaten doazen andrak, atsedenak izaten dabe ;

- **Gure Aita Zeruetan zarana .....**
- **Entzuizu, nongo lorak imintsoie honeri ba, asko da eurontzat, eurok dizenakaz",**
- **Parkatu gure zorrak, geuk pere gure zordunei .....**
- **Hau koitsadie be hil zan, makiñetxu biar eindsau fabriken",**
- **Agur Maria graziaz betia .....**

- **Han baporak datoz popadan. Gure Tomasek esan dau egualdi txarragaz datozela"**

- **Nongo egualdi txarra alabatxu, kartolataraiño beteta datoz eta, esan zure Tomaseri baietz! ,**
  - **Zu, nire Tomas bakien itzi gero! ..... eta abar eta abar, ...**
  - Ta halan errezuak, sarritan erre suak ere bihurtzen dira.

Ezetz igarri

Popitas ?

KANPOSÁNTUE

Eta Kriele kantie > ENTZUN

Heriotza

Edozein arlotan gure ohiturak denporeak aldatzen dauan legez, herotzari buruzko gure ohiturak ere, asko aldatu dira. Hau ikusteko ez dago errepaso txiki bat egitea baño gauza argiagorik.

Antziñan pertsona bat oso larri baegoan, hau da hilzorian, abadeak **"Gure Jaune"** etxera eroaten eutson. Monagilloak, abadeari laguntzen eutson elizatik etxerako bidean, txiliñe jotzen eban bitartean. Herritarrek hau ikusi ezkero, makurtzeko edo belaunikatzeko ohitura eben.

Beste batzuetan, gaisoa luzaro agonidsen sufritzen egoten bazan, teilapekoak beran errenkurigaz, kalera urten ta dirue batzen eben. Diru horregaz, gaisoak hainbet arinen atsedena hartzeko, **meza ofrezidue** agintzen eben.

Azkenik, zoritxarrez edo zorionez pertsona hori hiltzen bazan, elizan **"hil kanpaiek"** entzuten ziran. Hauen bitartez herriak norbait hil bazan jakitzen eban. Kanpai haiek desberdinak ziran, hildakoa gizonezkoa edo emakumezkoa zanean. Hila gizonezkoa zanean, kanpaiek **"talan-talan-talan, tan"** eta emakumezkoa bazan, **"talan-talan-talan, tan, tan"** egiten eben.

Hildakoen etxean gabaz, auzokide ta etxekoek batzen ziran "errosaidsue" errezaten. Gau osoa iraun zezakeen eta laguntzeko, koñak eta anisa bezalako edariak edaten zuten. Biltzar honeri **"gabolie"** (gau belie) deitzen jakon.

Hurrengo egunean, eta hileta elizkizunaren aurretik, senideek, Karmengo Amaren Kongregazioko eskapulaiodun andren laguntzagaz, hil kutxa hilerrira eroaten eben. Andra hauek hil kutxaren ondoan joaten ziran, errosaidsue errezaten eban andreari erantzunez. Hilerritik elizara eta elizatik etxerako bideetan ere, hilaren senideek andra hauen laguntza izaten eben.

Aipagarria da, orduan hileta elizkizunak ez zirala hila bertan egoalarik egiten. Lege hau (cuerpo presente) Juan XXIII Aita Santuak jarri eban. Gainera hileta elizkizun hauek hiru "kategori" desberdinetakoak izaten ziran.

Diruaren araberakoak ziran, zenbat eta diru gehiago, kategori gehiago. Kategori hauek, argi ta abade kopurua mugatzen eben, baita alfonbra egotea ere.

Hileta eguna pasatu ta gero, hiru-urrena, urrengo hiru egunetan **sepulturié** jartzen zan elizan, hau da, trapu baltz bat, ganean beste trapu zuri puntilledun bategaz eta baita kandelabruak ere. Bere inguruan familiak kandela bat piztuz arimaren alde errezaten eben, heriotzaren urte urrenararte. Familiak eta beste ezagunak, mezea hasi aurretik errezatzerakoan, dirua botatzen eben sepulturera, abadeak aho barruan errezatzen hurbildu ta **Sus !** (Jesus) esanez dirua hartzen eban. hau da **"zenbat diro, haren beste Ave Mari".**

Sepulturigaz kunpliteko, egunero egiten zan hilen aldeko mezan, gitxienez familiko bat egoten zan bere sepulturie zaintzen. Gero familien gogoaren arabera, hille bete, urte osoan edo baita gehiagoan, sepulturie ipintzen jarraitzen eben, meza nagusian.

Familikoek, hiru-lau egun egoten ziran kalera urten barik, **urtekerako mezea** egin arte, eta urtetzen ebenean, Lamera eta antzeko lekuetatik ez ziran pasatzen, leku alaiegiak iruditzen jakezan eta.

Hilari eskeinitako **Meza Gregorianuek** ere egiten ziran, hau da **"bederatziurrena"**, egunero hurrengo bederatzi egunetan ospatzen ziran mezak.

Lehen lur hutsez izaten ziran gaur egungo panteoiak eta kuriosidade modura esan behar, lentejak eraiten zirala bere inguruan, gero erneten ziranean euren bedarrekaz lurra adornatzeko. Burdiñezko barillaz arkoak ere ipintzen ziran eta erdian kurtzearen formaz lentejak edo ondartzako harriak. Gaur egun "apur" bat gehiago adornatzen dira.

Lutoa parenteskoaren arabera erdi markatuta egoan, alarguna betiko jazten zan baltzez eta hau dalata, sasoi haretan erropa asko tintetuten ziran. Lutoa gaineko jantziak tapatzen bazuen, solapan zintzea edo besoan brazaletea ipintzen zan.

Pertsonek ezezik, kolarrak ere lutoz jazten ziran, hau da ateetan lazo edo kortina baltzez eta kolar barruan mahaitxo bat jartzen zan, hilkutxak, **atauté**, **olezko trajie** edo **azkaningoko trajie** atsedena hartzeko "**anderuek**" etorri, jendea bildu eta elizara joan arte. Hau dala ta, pertsonea gaizoz azkanatan dabilenean "**andarako moduen**" dagoala diñogu, laster anderuek eroateko moduan dagoalako.

Norbaiten arazoak edo gaisotasuna, berak eta ez beste iñok sufritzen dauala esateko "**Iñon miñek, iñor ez tau hiltzen**". Hil da gero "**difunto ederra**" eta "**koitsadue**" esaten dogu, nahiz eta hildakoa **potozórridse** eta **gaiztoa** izandakoa izan. Jan doguna gozo egon bada, "**hille biztuteko moduen**" egon dala diñogu.

Esakera - "**Hille biztu ez, ostantzien beste guztidse !**" . Nagusiek gaur egungo teknologi barrien aurrerapenak ikusten dabeneen esaten dabe.

Diru zaleak gitxigaitik be okasiñue armaten dauala esateko, harek "**Erril bitxik, hamabi hil**" egiten dauala esaten da.

Norbait hil dala jakitea erreza da, kaleetan eskela barri baten inguruan jendea ikusi dogulako edo elkarrizketaren bat entzun dogulako. Orduan lagunen bat aurkitzean, "**Nonor dau hildse !**" esaten deutsagu edo "**Nor dau hildse ba ?**" galdetzen deutsagu.
Eskelea ikusi eta hildakoa ezbadogu ezagutzen, lagunen bat aurkitzean, "**Gizonezkue dau hildse**" edo "**Andrazkue dau hildse**" esaten deutsagu.

Hiltzen danagaitik, "**Ondo ein badau, ondo topako dau**" edo "**Ha jjun da**", "**Hareri emon tsoie**", "**Harek ein dsau**", "**Amen ez iñor geratzien hazitzeko**", edo antzekoak esaten dira.

Oraintsurarte, hil dan gau berean "**errosaidsue**" egoten da, bakoitzari dagokion elizan, gaur egun hileta ospakizuna baño lehentsuago egiten dalarik.

Hileta elizkizunak orain, lehen aipatu bezala, hildakoa elizan dala egiten dira. Ondoren, hilkutxa kotxez eroaten da hilerriraino (**Mendiluzeraino, Hara gora , Ir y no volverreko palazidsora** baita **bañek batzien, arrari jjaten emoten, Kostarren kalara, Lekeitxoko kalara** edo **porruek hasten**) .

Edozein egoeratan, norbaitek **Pater Noster !** esaten badauan, besteak **Zuluen laster !** esango deutso.

Hurrengo Domekan **"irteerako meza"** eta urtea igarota **"urteurreneko meza"** egiten dira, nahiz eta jendeak bere gogoz eta edonoiz atara mezak bere hilen oroimenez.

Antzinan ez baziran egoten, gaur egun, nor hil dan eta urteurrenak adierazteko "**eskelak**" jartzen dira hormetan, hildakoen etxean, senideen etxeetan, elizetan eta kaleskiñe berezietan.

Norbait hiltzen danean, esakerarik entzunena, **"Badakizu nor dauen hildse"** izaten da.

Egunkarietan ere jartzen dogu gure eskelak, behar bada laster *"Internet"* bidez jarriko doguz, seguru horretan be lehenak izango garala.

Esakera – Norbait bere burua ondo zaintzen duena, "Hori ez da galduko", "Atako dau beran burue", " Konponduko da", esaeren zentzu berean, "**Herriz ez ta hilko, itsosoz ez takitz baie**" be esaten dogu.

"Lehengoak lehen, oraingoak orain, baina guk eta hemen. Amen"

Barreka zatitsu

Herritar bi kanposantuen. Diñotso batek bestiri, " **Txo zetako imin dsauie RIP panteoien ba ?".**

Ta bestiek diñotso, " **E, ba argi dau., difuntuek, beran hazurrek erretie guzan dauelako, haurregaitxik diño, ERRE I PE ".**

Ezetz igarri

Zerez bete behar da sakue, hutsik baño ariñau ibiltzeko. Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?**

Kanpaiak

Lehenago ikusi dogu (Lanbideak eta diruak atalean), gure herrian biarrak ataratzen eben zaratak, orain gure herrian besteetan bezala, betidanik zaratarik ezagunenak ikusigo doguz, kanpaiak.

KANPAIEK

Albatako kanpaie, goizean goiz goizeko seiretan jotzen zan, **Angelusena**, eguerdiko hamabidsetan.

Nobena sasoietan, bederatzi egunetan elizetato kanpaiak hiru aldiz jotzen eben, ordu erdi arinago, ordu lauren arinagono eta nobena hasteko zan orduan.

San Juan egunean, kostera ona izateko eskabide modura, ohitura dago 13 kanpai jotzea.

Kurtzion. San blas eta Aitxe Kurtzioko egunean ospatzen zan lehengo mezan, bertako txiliñe jotzen eben, "**Tolen, tolen, tolen,..**" doinuaz. Gazteek txiliñe entzutean, "**Joder, joder,joder,**" esaten ebelarik.

Kanpak berdintsu eta luze jotzeari, **kanpa errepikauek**, eta kanpai bi edo gehiago batera joteari, **kanpa dobladuek** edo **kanpa-alégrien**, deitzen jaken.

Kofradi zaharrean be, kanpai bi egozan, "**handidse**" eta "**txikidse**", bentie baño arinago, arrain handidse edo txikidse zala adierazteko. Hori dala ta, **Karmeldarren** eta **Josefinetako** mezatako kanpaiak txikiak ziranez, herritarrek "**Han, arrain txikidsen kanpaiek**". **Karmeldarren** kanpaien " **Tonte, tonte, tonte,...**" eta Josefinetako "**Tati, tati, tati,..**" soinuek entzutean gazteek txantxetan, "**donde, donde, donde,..**" eta "**Aquí, aquí, aquí,...**" kantaten eben.

Antzinan, nonbaiten sua egoanean, tokiko parrokiak **su-kanpaiek** joten ebazan arinka, "**Talan, talan, talan, talan, talan, talan, ...**" (Nahiz eta sua Talan ez izan). Arinka jote horreri **kanpa-zarratue** deitzen jakon, aldiz, astiro jotzen ziran kanpari, **kanpa-zabalak** deitzen jaken.

Norbait hiltzear egoanean, abadeek " Gure Jaune" gaisoaren etxera eroaterakoan, **monagiluek " txiliñe"** jotzen eban kaletik joiala, eta pasuen, herritarrek makurtzeko edo belaunikatzeko ohitura eukien. Elizetan, mezea lepoa emonda egiten zanean be, abadeak Gure Jaune altzatzean, monagiloak txiliñegaz **hiru tilin** joten ebazan, herria belauniko jartzeko.

ENTZUN

Norbait hiltzerakoan be, etxeari jagokion parrokiak **Hil-kanpaiek** joten ebazan. Hila gizonezkoa zanean, kanpaiek **"talan-talan-talan, tan"** eta emakumezkoa bazan **"talan-talan-talan, tan, tan"** egiten ebelarik. Herriak horrela berehala jakiten eban gizona edo andrea zan hildakoa.

Gaur egun, hilda dagoana nor dan jakiteko, kale eskinetako eskelak edo egunkariak doguz.

Aste Santuko zapatuetan, goizeko hamarratan, elize danatako kanpaiak hasten ziran jotzen, eta itsasoan egozan baporak be, **txistue** jotzen eben.

Jai bezperetan be, ordu bi ta erdietan, kanpa-alegrien edo kanpa-dobladuek jotzen eben, herriak orduan **"Han bidsar jaidse"** edo **"Bidsar mezara "** esaten ebalarik.

Udan bakarrik eta eguerdiko hamabietan kanpa-zabalak joten eben. Euren doinua **" dandalan, dundulun, dandalan, dundulun, .."** zanez, gazteek txantxetan, **"Jan da jan, dungulu, jan da jan, dungulu"** , ta nagusiek **" Hamabidsek, platerera begire begi bidsek"** esaten eben.

Ezetz igarri

Popitas ?

ZULUEKAZ

ALBAKO KANPAIAK KANTIE > ENTZUN

Erbestean hil

Denok dakigu noiz jaiotakoak garan, baina oraindik ez gara gai jakiteko noiz hilko garan. Hobeto ez jakitea. Hiltzeko ordua etorriko da deitu barik, bai etxean edo kalean, herrian edo erbestean. Oraingo honetan, erbestean hiltzea gertatutako kasu bat gogoratuko dogu.

Antzinan txalupa handienak, gure kosteriek huts emoten zauenean, erbesteko kaletara joaten ziran eta bide handia egoanez, sarritan bertatik geratzen ziran, goizeko alban barriro arrantzan hasteko. Kasu horreetan, itsasoan gelditzen ziran trabes makiñie lotute, eta beste batzutan egualdi gogorra egoanean, urren dan porture sartu behar izaten eben.

Behin baten Sanandereko porture sei edo zazpi txalupe bermiotarrak sartu, ta mollen alkarreri amarrata geratu ziran.

Afaldu ostean, herrira joan ziran lagun batzuk, txikito batzuk hartzera. Hiru-lau txikito hartu ta gero, joan ziran txalupera, bero-bero, lo egiteko asmoz. Molletik txalupera salto egiterakoan, bat itsasora, txalupa bitartera jausi zan. Lagunek halan edo holan, ta asko kostata molle ganera atara zauien. Ahalegin asko egin arren, lagune ez zan konortera etorten. Bitartean osagilea etor zan, harek be ahaleginak egin arren, **"Itsota dago, mediku forenseari deitu behar da"** esan eban. Etorri zan mediku forensea, honek igurtzí batzuk egin ta bardin, **"Eroan egizue gorpue lur emotera".**

Funeraidsekuek sartu kajan eta arranka zauien Bermiorantz. Bidien datozela, autuen dardakadiegaz ene gizon hori geldike, geldike konortera etorri zan eta beran burua kaja barruan ikusirik ikaratu, altxa tapie ta kanpora urten zauen. **"Non nau ni ba? "** esanez, aurreratu eta txoferraren onduen jezarri zan. Txoferra mutuen, baie berak esan eutson, **"Badakozu zigarro bat ?"**, txoferrak erantzun **"Bai gizona, etsi"**. **"Sue dakozu mesedez ",** txoferrak bardin **"Bai gizona, etsi".**

Biztu zigarrue eta han doaz aurrera isisillik, halako baten diñotso arrantzaliek, **"Nora guez ba lagun ?"**, txoferrak **"Bermiora"**, gizonak orduen **"Eta zetan guez ba ?"**, txoferrak erantzun **" Hillerrire zeuri lur emotera"**, arrantzaliek orduen **"Nori niri, enozu ikusten bizirik nauena ba ?"** ta diñotso txoferrak **" Hara amorroi, amaitsu egizu zigarro hori eta sartu zaitez kaja horretara, ia orain zuk arrantzale koitxado batek jakingo badau Sanandereko forensiek baño geidsau ".**

Egidse edo guzurre, okelie edo hazurre,

bizi ezkero adurre, ta hil ezkero lurre.

Oraingo kasu hau, orain dala ehun da piku urte gertatutakoa dogu. Gure Juan, arrantzale gazte eta sendo bat zan, egunero itsasoratzen zan tximiñoiek, langostak eta abar arrantzatzera.

Udako jai eguna zan, ta goizean goiz itsasora joan aurretik, Juanek mezea nahi eban entzun Eupeme deuna elcizan. Abadeak **ita misa est** emon da jarraian bere beladun txalupatxora abiatu zan, lehen bait lehen itsasora urteteko.

Bere emaztea zan Antonik (diñoenez asto zahar bat baiño motzagoa), beti bezala txalupara laguntzen eutson, otzarea eroanez. Txalupatxoa prestatu, agur egin eta han joan zan gure Juan. Ordu batzuk beranduago itsosupetcko ekaitza sortu zan, baina herritik egindako seinaliei esker, txalupek herriranzko bidea egin eben eta justu justu heldu ziran portura. Gero justuri, trugoi, euri eta abarren eraginez, herria guztia ikaraturik, etxe barruan sartu zan.

Baina gure Juan ez zan heldu, iñork ez ekien beran barri, beste txalupetakoek ez eben ikusi itsasoan. Behar bada inguruko porturen batera sartuko zan, hori pentsatzen eben danak. Kofradiko agintariek inguruko hamar portuetara telegrafiatu eben, baina danan erantzuna ezezkoa zan. Itxaropena ez zan galtzen, baina orduak aurrera joanez, lau egun igaro ondoren, negarra ta etsipena nagusitu ziran.

Antoni apurtuta egoan, eukan itxaropen apurra galdu eban eta bere seme-alabatxoek kontsolatzen hasi zan. Hileta elizkizunak egin aurretik, etxe bete andra eukan Antonik. Honelako zahar bat hurbildu eta esan eutson belarrire, **"Antoni ondiño andra gaztie zara eta seme-alaba txikidsek dakozuz, mundue ez da amaitsuten amen, ezetuten dot nik gizon gazte bat ....."**

Kalean kolarre aurrean abadeak **De profundis** abestuten hasi zan, herri guztia batu zan, hiletetan parte hartzeko. Halako baten, arrantzale batek umetxo bateri galdetzen deutso, **"Txo, nor hildse ba ?"**, nutiltxoak begiratu ta aldarrika hasten da **" Amatxu, difuntuek urten dau ! "**. Umearen aldarria entzuterakoan, jende guztiak begiratzen hasi zan eta difuntue Juan bera zala konturatu ziran.

Zer esanik ez, istindiko baten etxea eta kalea momentuen hutsitsu zirala. Antoni korrika Jainkoari eskerrak emoten, bere senarra besarkatuz. Diñoe, proposamena egin eban atsoa, gehiago ez zala pasatu kale haretatik.

Juan ekaitzak eroan da, urruneko portu batetan sartu zan. Baina dana ez ta negarra izango, barregarria Juanek emondako erantzuna izan zalako.

"Txo zeitxik ezu deitsu, non zauzen esateko ba ? "

Juanen erantzuna " **Ez gastatigaitxik** " .

Juanek ez eitzigaitzik deidse, idse idse, Antonik gizon barridse.

Ezetz igarri

Zer da ez dana ta izango dana, eta izaten danean ez dana ? Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?**



Enrike Zubiaren "Azken olatua, azken arnasa" artelana

Tutiliklas

- Azau eta urre
- Piztidsek
- Internet
- Denporie
- Jantzidsek
- Egualdidse
- Koloriek
- Ay que tio
- Uden
- Olgetan
- Amuma olgetan
- Barrakatara
- Futboleko kantie
- Txoridsek
- Usiñek
- Gabonatan



Azau eta urre

Oraingoan, ikusi daiguzan, non ?, azau eta urre adierazteko, erabiltzen doguzan berba edo esakera batzuk.

Azau, urrun, lekutén, ama putien etxien, ama perrien etxien, aman erreinutan, Jaingoikuen erreinutan, infernuen, ...

Zerbait urrun dagoela esateko, "**punten**" dagoala diñogu. adibidez, **"Durangoko punten erosi dauie", " Bilboko puntera jun diez bizitzen".**

Zerbait benetan azau, benetean asko, edo beste edozer esateko, **"Abe Marie"** edo **"Ape Marie"** esaten **dogu,** adibidez, **Asau dau ela ? - Ape Marie !.**

Urrun berbea, asau baino gitxiago erabiltzen badogu ere, badogu esakera bat agertzen dana. Batez be umeak hasarratuten diranean, esakera hau esaten dabe **"Urrun ta fitx, betiko ta betiko"**, zugaz amaitu dot adierazteko. Baina betirako hasarrakuntziek txarrak diranez, beti geratzen jaku fitxie, nahi doguncan tiretu ta barriro alkartuteko.

Urre, hurbil, paraje, eskuera, berara-berara, inguruen, ber-bertan, ber-berton, arra baten, arra bateko bidien, musturren aurrien, harridsegaz joteko moduen, zeure mosuen bisten, zeure musturren aurrien, begidsen bisten, txakurre ezan bazan hainke, karínkara, albuen edo **brankan, alkarren onduen, kostaduen, alkarren albutan, goi-behietan, aurrez-aurre, alkar joten, parien, aurreko mandan, atzeko mandan.**

Artez edo **artezien** zentzunean, **derrót** ere erabiltzen dogu. **"Derrót jjunde, errez topakozu".** Itsasoan **derrotié** (ez derrótie) baporan errumboa da.

Zeozer galduta dogunean edo ahaztu badogu non itzi dogun, gizonak besteak beste, **Non koño?** edo **non osti dau zera ba ?,** andrak aldiz **Non arraidso ?, Non Birjiñé ?, Non sentélle ?, Non barrabás, ?** esango dabe.

Guk, taberba honetan, denda horretan, kale haretan esateko, **hamen tabernan, haur dendan, han kalien** esaten dogu, erakusleak lekuz eta itxuraz aldatuz.

Elkarrizketa baten, besteak esandakoa gure ustez egokia edo egitik urre dagoala, **Azau barik** esaten dogu, nahiz eta diru kopuru batetaz izan.

Nongo ? – Distantzia kontuetan ez ezik, badauka beste erabilpen batzuk. Besteak diñoanari, Zer ? edo Zer diñozu ? zentzuan,gure harridura adierazteko. " Nongo ?, hori ez padan haren semie !". Baita "A zelako" zentzuan, "Nongo hotza dau alabatxi", "Nongo mutil handidse eindse",...

Kolarreko atítan

Atepostán , atítan

Edonon berbearen zentzu berean, **eskíñe guztídsetan** be esaten dogu.

Non – Galderetatik kanpo, badu beste erabilpen bat, "eta orduan" zentzuan, "ta non diñotsaten…..", "ta non diñosten…..".

Non ? esaten danean - **Morondon** erantzuten dogu

Non ? " - **Emarandon**

Non ? " - **Edonon**

Non dau nire ....? - **Neure katrien, isterratako mandan**

Non dau nire ....? - **Amen, txakurre ezan bazan hainke**

Non dau nire ....? - **Zeure musturren aurrien**

Non dau ba ? - **Bille bazauzen topakozu**

Non dau ba ? - **Batek daki non dauen**

Urre - **Urre bai, baie urre zuridse edo urre gorridse ?**

Ezetz igarri

Popitas ?

BIDSARKO EGUNE

Berbetan ez dakidsen piztidsek

Berbetan ez dakidsen piztidsekaz kontuz gero ! esaten dogu. Ikusi daiguzan gure herrian klase guztietako pizti eta animalietaz doguzan esakerak.

Orokorrean intsektu guztici, **mamarrue** deitzen badeutsegu, **guzurren mamarrue**, bereziki guzur asko esaten dauan pertsoneari esaten deutsagu.



Txakurre ernegaten edo amurruan ipintzeko edo katu bateri edo beste txakur bateri aurre egiteko - **Utse !** edo **Ez itzi !** esaten deutsagu.

- **Txakurrelako estule** - Zarata handiko estula
- **Txakurrelako dolorie** – Dolore handidse
- **Txakurrelako atunek** edo **txakurren besteko atunek** – Atun hándidsek
- **Txakur egualdidse** – Egualdi txarra
- **Itsoso txakurre** – Itsoso txarra
- **Txakurren buztena lez, beti atzetik** - Atzetik dabillenari
- **Txakurrek elizerako gogue** – Gogo eza. "Txakurrek elizerako jjuteko baño gogo gitxiau dakot horra ezkontzara jjuteko "
- **Txakurren amesetak** - Gure ametsak ezer ezean (Erd. El cuento de la lechera)
- **Lau txakurren** – Belauniko jarri ta txakurren moduan ibiltzeari
- **Ama txakurren trankue** – Pauso handidse
- **Txakurrek popatik eñikue** – Pertsona txarra
- **Ama txakurren besteko sagarrak** – Sagar handidsek
- **Txakurré !** - Maltzurra, Zelakue zara baie ! zentzuan
- **Txo, erbi txakurre zarala zu !** - Maltzurra.
- **Jan txakurre** – Alperra edo bestien kontura dabillena
- **Kaza txákurre** – Besteak egindakoa gozatzeko prest dagoana
- **Ama perrie !** - Erdi euskeraz, erdi erderaz, "Kaka zaharra !" zentzunean.

- **Ama perrien imie !"** – Nagusiek imiei, zerbait txarra egiten dabenean
- **Aman perrien argitzeko !** - Kaka zaharra !
- **Leku guztidsetan txakurrek oinotsik** - Leku guztietan arazo antzekoak.
- **Aidseneko txakurrek atrapa dost hatzamarra –** Batel edo motor bi tartean eskua atrapa.

>> IKUSI

- **Txakurren musturré ta andrien eperdidse, beti hotz**
- **Txakurren popako zulue -** Antzinan portuan egozan astillero biren arteko haitx zuloari.
- Diru kontuetan - **Txakur txikidse, txakur handidse, Txakur txiki barik, txakur txikirik pez.**
- Itsasorako moldabako txakurrari edo gizonari, **Pedro Mariano** deitzen jaken, hitz joko honegaz, aipatutakoa " perro marino" ez zala adieraziz
- **Ur-txakurre** – Itsasoan trebea danari
- **Herri txakurre** – Itsasoari dar-dart egiten deutsona.
- **Hau ?** esatean daunari **"Au, txakurrek eitzen dau"** erantzuten jako
- **Ekau !** **" Ekau, txakurrek au ! "**
- **Nondik ?** **" Txakurrek buztanpetik "**
- **Beti ?** **" Beti, txakurrek buztanpetik "**
- **Enero, Febrero, . -** Enero, Febrero, Marzo, abril, txakurren tutue ondo dabil
- **Laztana** **" Txakurren buztena ? "**
- **Non dau ?** **" Amen, txakurre ezan bazan hainke "**
- **Guzu ?** **" Guzu, Don Karmelon txakurre "**
- **Guzu ?** **"Guzu txakurreri "**
- **Dezente** **" Dezente, Astralaganeko txakurre "**

𝄞

- **Antonio** **"Antonio Polonio pasa por aquí, errotako txakurrek erderaz daki"** (abestia)
- **Dirugaitxik** **"Dirugaitxik, txakurrek pe dsantzan ein zauen "**

- **Legoie** edo **legoien azala** - Pertsona ausarta
- **Legoie lez** – ederto , **"Legoie lez pasa dot"**
- **Da legoie ?** - Gizonen artean kasu egiteko, "Zer edo ? zentzunean.

• Katuri deitzuteko **Misina** esaten jako, eta katua jatekoren bat usaintzen dagoenean izututeko edo ikaratuteko **Zapi !** aldarrikatzen jako. Norbaitek damistiku egiten dauanean be, besteak **Zapi katuri !** esaten deutso, beharbada damistikuaren zarateak katua gogoratzen deuskulako.

- **Isillik eta miau** – Isillik egoteko
- **Lau katu** – Jende gitxi, lagun gitxi
- **Eguzkidsek miau - E**guzkidsek eskapaten dauanien
- **Katuek dakotaz aldarrike estomanguen** - Gosez gabiltzanean
- **Katuek auen ibilliko moduen** – Bigunduta edo etxure barik
- **Txapa ganien katue** – Jateko ordua ta etxean jatekorik ez dagoenean
- **Jaingoikuen katue**- Pertsona ona
- **Katu kale** - Ofizialki Eskinarruaga kalea danari.
- **Katuen gloridsen** – Epeletan egoteari .

Norbaitek gure gustuko zerbait egiten dauanean, **"Ai zuuu !, zurelako bat on zan, ta bera katuek jan zuen"**, esaten deustsagu.

-Febrerue esaten dauanari - **Febrerue, katuen illie** erantzuten jako
-Ay que lio ! "Ay que lio Juan Mantxuek, katuek jan tsonien txorisuek"
-Ze feo ! "Feo katuen bizarrak, baie berak pe aldien ibil bitsuz"

- Astoa lotuteko, **isooo !**
- **Uren iso, Bermion iso**, e.a. – Norbait zerbaiten kontrakoa dala adierazteko.
- Astoari aurrera egiteko, **arre !**
- Biar edo lan asko ta gogorra egitea**, biar arre-mándoka**
- **Arrelépo** – Norbait lepoan eroateari
- **Arrekokosíllo** - Norbait kokotean eroateri

• **Asto zátidse, asto mando** edo **astokíllo-** Pertsona traketza , Zu zara asto mando !,Kendu hortik astu hori !

• **Asto-astoka** edo **mando-mandoka** – Arrelepo olgetako lasterketa.

• **Astuen ostikadie baño hobie da** – "Zeozer dok hori be" zentzunean

• **Astuen tapie lez** – Zeozer ondo edo eratara datorrenean

• **Asto jaidso ta mando hazi** – Beti astokillue

• **Jango lekidot astunak pe albardata** – Gosie zemakure

Alabátxi, asto-otzárak kendu biduz, udie be badator da ;

• **Asto otzárak** –Hanken albuetan sortzen jakuzan mamiñek

• **Asto jjuen ta mandue etorri** – Aldatzen ez dana. Etorri ta juen, kasurik egin barik, adibidez egunon emon barik

• **Mundekako astue** – Antzinan kartak botata, etorkizuna igartzen ebana

• **Muruetako astuek baño ister luziauek** - Hanka luzie

• **Basokaballuen pausue** – Ibilkera torpiri

• **Lagun askon astue, gosiek hil zauen** - Batek emongo deutsola jaten, bestiek emongo deutsola, azkenean iñok pez

• **Mandue** – Torpic edo handidse - Nongo mandue zara baie ! , etxe mandue, gizon mandue.

• **Manduen gañekue** – Handi-handidse

• **Manduen ostikadie lez** – Bapatean jatorkun gertakizun ezkorra

• **Arrimandoka** edo **arremandoka** – Lan asko eta gogorra egiteari

• **Txalo pintxalo, txalito txalo, astotxua mispiltxuan ganian dago** – umeen abestia.

𝄞

• **Maria Erramona, Maria Erramona, kortako asturi jaten emoidsona** – herri abestia

• **Asto kántsaue** – Alperra edo beti kantsata dabillena.

• **Astué** – Sexu berekoa nahiago dauan gizona .

- **Konzentzidse !** esaten dauanari - **Konzentzidse, astuek jan zauen** erantzuten jako
- **Han due !** besteak **Han due Atakaneko mandue !**
- **Ahaztu jast !** Id. **Astue kortan ta mandue etxien !**

Antzinan aberatsan bila ibilitakoa, gero neskazar geratu danagaitik,
"Len kaballo ganekue bille ta gero asto ganekue bez".

Herri abestia – **"Erramuneke, erramuneke,**
astuen potruek jango neuke".

- **Dsczena - Zezena -** Gizon indartsua

• **Idídsek** – Gure baporetan, radidsotik berba eikeran galleguegaitxik ta eurek ez ulertuteko, ididsek esaten jaken.
Antzinan portutik fabriketara arrainak igaroteko, idídsen karruetan eroaten ziran. Bidean, karreteruek ezer esan barik, idídsek tabernen aurrean gelditzen ziran, baekielako jabeen egarria .
Baina **idié** edo **irié** entzuten badogu, ez dau gura esan ez idia ezta hiria, ira edo iratze izeneko bedar bat baizik. Erd. Helecho.



- **Beidse lez loditsute –** benetan lodi
- **Lion ganadue –** Papaue, txingaue

• Antzinan Aste Santuen konfesatzerakoan, txartel bat emoten eben, gero txartel horrek edozein errekomendaziorako baliotzen ebalarik. Txartel hori ataratzeari, **txala kanbidse** deitzen jakon
Zeure erruе ! esaten badogu, besteak, **Erruek beidsek !** erantzungo deusku, behien errapeek gogoratuz

- **Ardi galdu lez –** Erdi galduta dabillena
- **Ardi kakak –** Banaka dagozanak, loi tantak
- **Lekuen lekuek, ardi banakak kanpuen** – Leku guztietan antzien
- **Ardi txikidse, beti bildots** – Pertsona txikidse, beti-gazte
- **Bekerékak** - Itsasoan olatu txikiek sortzen daben zuritasunei
- Erdi euskeraz, erdi erderaz, "**Mundo kabroie**"- injustizi bat ikustean

- **Egualdi kabroie. Egualdi txarra. Kabroie/kabronie** - Irainak

- **Ollué** – Ikaratsue
- **Olluen lumek** – Edurren tantak
- **Olluen pópak** – Emozioz beteriko egoera batek, ikareak edo hotzak eragiten deuskun hotzikara eta gorputzan sortzen jakun olluen itxura.
- **Óllarra** – Pertsona arrué.

- **Eulídsek pe ikaratu** – Ikaratsua
- **Euli mándue lez** – Buelta-bueltaka ezer ezean
- **Euli kákak** – Loi tantak

- **Kurubijjue lez ibilli** – Hara ta ona ibili, nora ezien
- **Kurubijjuck jango zaitsuz !** – Galbanigaz dagoanari
- **Kolko bete kurubijjue lez** – Zeozer pilotuta

- **Zelako maripósie da baie** ! Miskillie, tentela edo antzekoa
- **Argi bako maripósie** - Ganora bakue.
- **Maripósie** - Etxerik etxe ibiltzen ziran (eta diran)

Santuen kajatxoari argi egiteko, katilluen oridsotan imintzen dan argitxoa.

- **Zorrísto edo zorrístue** – Koipestue
- **Potozórridse** – Pertsona edo gauza benetan txikia
- **Ime potozórridse** – Ume ziriñé, eleméntue.
- **Bázpidse** – Ume txikia ziriñe, bizkorra. Bázpidse, zorrien arrotzak.
- **Zorri bíztue** edo **zorri hil biztue** – Ezer ez dauna euki eta harroa dana.
- **Potozórrikeidsek**- Iñuzentekeidsek, ganorabako gauzek.

• **Erreka jagolie** –
Izen bitxi honegaz ezagutzen dogu, libélula edo txitxiburruntzia. Erreketan ibiltzen dala argi dago, baie arin eta zig-zag mugimendua eginez, dana miatzen dabilelako dau bere izena. Antza armiarmei be ez deutse uzten sarerik egiten.

• **Infernuko artázidse** edo **artázi bikué** –
Izen bitxi honeekaz ezagutzen dogu, mariartazi edo ipurtsardea. Argi dago atzekaldean dauan artazi moduko buztena dala bere ezaugarririk nagusiena.

• **Kaparrá** edo **Kaparrié** – Iñon kontura bizi dana. Intsektu hau,.pertsona edo animalietan inkatzen da odola txurrupatzeko. (Erd.garrapata). Bitxikeri modura esan, gaur egun informatika munduan datuak biltzeko USB izenez ezagutzen diranei. kaparrá ere esaten jakela, datuak txurrupatzen dutelako.

- **Satorrá** – Ez fidatzekoa, azpi jokoetan ibiltzen danari

• **Iñúrridse** – Beti amápien edo aman gonapien dabilen umea. Gozoaren ondoan dabilena.

- **Sitsé –** Tximeleta txikia. Bere larbak telak, paperak, larruak e.a. jaten dabe, orduan erropak **sitsék jjanda** dagoala diñogu.
Sitsé ezizenduna be baegoan eta gure gazte denporan, Institutuko atezainak **Zentimos** eta **Sitsen bola** ziran. Sitsé uxatzeko, erropa artien jartzen dan usain gogorreko alkanfor bolei, **sitsén bólak** esaten jake.



- **"Zelako parie, kakarolá ta barié"**

Erogoié edo **eragoié –** Erd. oruga. Patata landareen inguruan ibiltzen dan, berde edo ori kolorezko mamarrua. Berenua daukadanez, topa ezkero erramatxu batégaz hartu eta erre egiten zan.
Jatekoren bat benetan garratz dagoanean, **"Erogoiegaz eindse dau ela?"** esaten da.

- **Etxure bako monue" –** Itxuraz itsusia dana
- **Monuen eperdidse baño mótzaue –** Benetan motza

- **Lúkidsek baño geidsau daki" –** Lar jakina
- **Lúkidsek ulie jeusitze be, ménduek beti aldien –** Pertsonen izakerea ez da errez aldatzen

- **Azkónarra** – Lar jakina.

Erderaz tejón eta latinez (meles-meles) erleak eta eztia be jaten daualako. Beharbada musulmandarren antzean, eme bat baino gehiago izango dau arrak, askon arra bada.

- **Ogigáztaie** – Azkarra, ausarta. Erderaz comadreja.

Isiltasun handiz ibiltzen da jatekoa bilatzerakoan. Gehienetan saguak jaten badauz, sarri bera baino pizti handiagoak be jaten dauz.

- **Horrek edan, kamélluen izerdidse be bai** - Ardau edo alkohol zalea

- **Sugoielákue, saltamatxíñue** (matxinsaltoa) edo **sagútxue** – Ime ziriñe
- **Pistidsé** - Pertsona txarra

- **Ur-árratoie** – Uretan trebea danari.
- **Uliek dakozuz Santa Klarako arratoie lez** Loitsute edo koipetue.

Zerbait entzutean eta gure onespena emoteko, **"Hauri dok errozoie, sague ez tala arratoie"** esaten da.

Duela al konejora ! - Txantxetan, Duela al karajora ! esan beharrean.

"Felipe konejo atie apurtu, bidsamo goizien berak konpondu " (herri abestia)

- **Egon ba !** besteak **" Egonda erbidse atrapaten da"**



Kukue alperra dala esaten da, ze txepetxan edo txindsorran habira joan, haren arrotzak bota eta beranak jartzen dauelako, beran kumeak harek hazteko.

Zer diñozu aspaldiko txoridse – Aspaldion ikusi barik izan dogunari.

- **Ez tost inporta niri, gure kortan txarri bi** - Gurean badago zer jan.
- **Txarrí !** edo **Txarridsé !** – Zelakue zara baie edo antzeko zentzuan.
- **Txarrikeidsé** – Zikinkeria edo nahastea.
- **Zer da berton, naetie ta txarrikeidse ! –** Zer da berton folloie.
- **Basotxárridse** – Lodidse - **" Basotxarridse lez dau loditsute"**
- **Edukasion de baserri, kriado en txarrikorta** – Edukasiño bakue
- **Txarrikortie** – Txarrien tokia. Guardarrain handidse. Leku zikiña
- **Ordiz-ordiz, txarri buzkentzak** – Mezedie mezediegaz ordez.
- **Zaindsen-zaindsen, txarri buzkentzak** Txandaka, alkarren atzien
- **Txarri márkaue** – Istripu edo borroka baten ondorioz, arpidse txarrapatata edo markata daukana
- **Txarridsen bizidsé** – Bizi ona

- **Txarridsénak** - Janari ondakinak (txarriak eukanari emoten jaken)
- **Ama txarridsen imie !** – Nagusiek imiei, zerbait txarra egiten dabenean
- **Ama txarridse ! , "Ama txarridsen argitzeko !** " edo " **Ama txarridseri argitzeko !** " - Zeozer txarto urteten deuskunean.
- **Parientie** esaten danean **Parientiek parientiri, txarridse ostu** erantzuten da.
- **Zer diño ?** , besteak **Zerdiño, Galizidsen txarri kumiri .**
- **Zer da ?, zer da ?,** besteak **Zer da, txarri emie !.**

Baserrian bizi izandakoak, piztien bizikeraz asko dakite eta gertaera batzuk ahaztu ezinak dabe, esate baterako ;

Konejo kumek jaten zuen katuena. Etxeko andrea konturatu zanean, katua harrapatu eta **supulútuen** (egurrek txikitxuteko erabiltzen zan arbola trongoan), burua ebaki eustsonean.
Oiloa jaten zuen txarridse edo behiaren esnea edaten zuen txarridsena.
Sugoiek sapuek jateaz gain, behiaren esnea ere edaten zuena. Behia etxanda zegoanean, sugoia hurbildu eta gozo-gozo behia molestatu barik esnea zurrupatzen eutson.
Edozein pizti kumeen negarra edo alauridseri, **gridué** esaten jakon. Behar bada erderazko gritotik etorriko da, baie modu bitxian.

Eta baita behiak trapu zaharrak edo baita bedar tartean zegoen untxen boltsatxoa jan zuenean, kasu honetan behia hil egin zan.

San Juan bezperan, Mañuko baserrietan ere sua egiten zan gauza zaharrak erretzeko, eta bertakoak abestitxo bat kantatzen eben;
"San Juan, San Juan bagillien, denpora ederrien, sugoiek eta sapuek erre, garidsek eta artuek kaixan gorde", eta jarraian zantzue botaten zan

EZIZENAK

Amarra kabras, Arkumie, Erbidse, Erlie, Euli mandue, Katua bomitau, Katukale, Kato galduc, Kato jale, Leon de Damasco, Kaballo blanco, Karakoles, Kirikolatza, Txarridsek janekue, Elgetako bekerékie, Rusiako txarridse, Frantziko korderue, Felipe konejo, Legoie, Pollo goloso, Ollo baltza, Ollaki, Artzo, Asto, Asto baltz, Sagutxu, Bastarreko arratoie, ...

Mendiré

Txoridsek eta urtiek hegaz egiten dabe; atakontu atzo izan zala, soloetatik, mendian gora, txoriak harrapatzen genbiltzala. Ahaztu egin gara, gure ondoan mendia dagoela, zelaietan **pitxilorak** edo margaritek, arbolatan **katamísarrak** (urtxintxa), sasi tartetan **ogi-gáztaiek** edo **masústek**, asunen artean **siraunek**, ta gaurko umeek ez **martinkarrakarik**, ez **siguntzillík** (sugandila) be ez dabe harrapatzen.



Menditik ibiltzean be, **"Mari-gora, mari-bera !"** esaten da, baie ez itsosoaren gora-berari, kardo bateri putz egin eta lumek aidean ikustean baizik.

Atziñen, sasoien arabera, **sagarrak**, **kerisek**, **ikuek**, **urretsak, gaztañek, íntxorrak** edo **makatsak** ostuten baño ezpada, ibiltzen giñen **trokatatik**. Txoriek, urrunetik be ezagutzen genduzan eta **grílluek** edo girgilluek, **saltamatxíñuek** eta **satorrák** be harrapatzen genduzan.

Sasoi hareek gogoratzeko, hegaz egingo dot ta bi hitzetan ta bitsetan, txorien mundua nahi nuke berbiztu, horretarako saltoka ta presaka, txorien eta txoriek harrapatzeko tresnen izen batzuk gogoratuko doguz.

Mendira ehizean edo ibiltzera joaten ginanean, txoriak eta animaliak ez ezik, baserritarrak be ikusten genuen. Baserritarrak soloetan lanean, idiekaz edo astuekaz, bedarra ebakitzen, batzen eta baita **segié** edo **kodáñie** zorrosten eta abarretan ikusten genuen.

Kodáñie edo segiék **ahuen** zeuzkan akatzak zuzentzeko, burdinezko **jjunketié** edo **jjunkedié** lurran jarri, segie beran gainean ipini eta **pikemaílluegaz** jo ta jo, **piké** edo bardintzen zan. Gero azkenez **zorrostárridsegaz** zorrosten zan segié, hórrela bedarra ebakitzeko prest egoalarik.

Gaurko gazteek teléfono mugikorra edo mobilleri, **segapótue** be deitzen deutsoe. Baina askok ez dabe jakingo izen hori nondik datorren. **Zorrostárridse** eroateko antzinan adarrak edo **segádarrak** erabiltzen ziran, eta gero egurrez edo txapaz egindako poteak edo **segapóteak**, hortik dakorkio gaurko mugikorrei beste izen hau. Ebakitako bedarra batzeko **eskobérie** erabiltzen zan eta astoan edo burdian jartzeko **sardié**.

Lehen etxe gehienetako lehioetan, txori kaidsolak ikusten ziran, barruan **jilgérue, kanaídsue, míxtue, jjíriñe,** edo beste, **alpístie** eta **kárduek** jaten emon eta etxea alaitzen eben.

Kaidsolarako txoriak harrapatzeko, **Arbolétie, barétie, tútue, miskíllie, kaidsólie** eta **erreklámue** behar izaten ziran. Miskillie, gorostokidsen zozpalakaz egiten zan. Zozpalak saku baten sartu eta 20 egun inguru eukiten ziran, errekan gordeta harridsekaz tapata, zozpalei "moko" antzekoa urten arte.

Tresnen artean, **tiragómie, txinbérie** (baliñek baso eta kopa itxurazkoak), **eskopetie** (erabilitako kartutxuekaz bildumak be egiten genduzan), eta nahiz eta ez izan etiko edo legezkoa, edurtzetan ogi mamiñekaz tranpak (erositakoak, edo amue ta fitxigaz egindakoak) ere ipintzen ziran, **hotzan pasiñúgaz** kikildute egozan txoridsek errez harrapatuz.

Kazadoriek, "bertoko" txoridsek, "pasoko" txoridsek eta baita "soloetako" txoridsek be harrapatzen ebezan, hau da asak, tomatiek, piperrak, ... eta baita be amañarrabantzako, **enplastobedarrak** eta **iodobedarrak** be.

Xoxue

oilogorra

hegaberie

Gogoratu daigun txori izen gehiago, **papogórridse edo txíndsorra, artotxóridse, txóntie, ántzarra, basóllarra, kukue, gabontza, mosolue, txinbue, fifité, okillé, txirtie, palómie, torkasa, txurita, tortolie, pospoliñé, ollogorra, bidegarrue, hegaberie, xoxue, pardíllue, amillotza, eperdikarie, txarrapataridse, parrotxa, eperra, galeperra, fitxatxá,**

txepetxá, **txurrukoié** edo **kurlistie, mirué, erroidsé, mikié, gabilloié, oskillázue,** eta abar...

Elaie txori sakratue zanez, pekatua zan hiltzea (diñoe, Jesukristori, buruko arantzadun korona, elaiek kendu eutsiela) ta **saguzarra** aldiz bildurgarria, ikusteak bakarrik, gauerako ametsetak ekarten ebazan.

EZIZENAK

Aideko txoridse, Amillotza, Arenaleko txoridse, Erroidse, Gorrion, Txepetxa, Pardillu, txindsor, Kanaidsue, elaie, eta abar. Abadeei orokorrez, **torra-txoridsek** edo **erroidsek**,. eta ezer egin orduko, zer egingo dauan igertzen jakonari, **txori-errexalaue** deitzen deutseguz. .....

Ezizenak ez ezik, txorien mundua esakerak egiteko ere erabiltzen dogu, adibidez,

- Ardau zaletasunari, **alpístiri** emotea esaten dogu,
- Gure ondotik kentzen ez danagaitik, **miskíllie lez** dagoala,
- Ganorabakue danari **txori búrue,**
- Gandul hutsa danagaitik **gabilloié**,
- Tabernara kanpotarra datorrenean zerbait gehiago kobratzeari, **ave de paso eskopetaso.**
- Batek – **Zelan zauz ?** - Besteak - **Mundekako lorue lez, jodite !**
- **Mundekako lorue** - Alkaueta diranagaitik.
- Neska politxe **pospoliñelákue** dala.
- Uliek laskitsute eta gora begira dogunean, **uliek hegabérie lez** daukaguzala esaten dogu.
- Norbait, gitxika gitxika, amatatan joan eta azkenean hiltzen danean, **txoritxue lez jun dala** esateko.
- Ume txikiei, neskei buruen ipintzen jaken "txortatxuri", **"txoritxue"** esaten jako eta bragetie igiritze daukien mutiltxuei, **"txoritxuek eskapa barik gero ! "** esaten jake.
- Gauzak ondo egiteko, bere denporea behar dala, **arin da ondo , txoridsek hegaz,** esaten dogu.
- Herri kantan- **"Kanta, kanta lórue, Mikela Kolan bólue ¡"**

Amaitzeko, txorien izenakaz egindako, hitz-joko "gastronomiko" esakera bat, **"Gosie dauenien, gozue, tortolie ta xoxue".**

KUKUA TA AMILLOTZA KANTIE > **ENTZUN**

Barreka zatitsu

Institutoan behin gramatikako irakasleak azterketa baten, poesiaren neurriak jarri eban. Soneto, decimal, redondilla, romance, octava real eta abar jakin behar ziran. Betiko moduan, gitxi batzuk jakiten eben eta gehienak txibatazoaren zain egozan. Isilean batek erantzun zuzenak esan eutsoen eta danak pozik. Baina notak emoterakoan, kanpotarra zan irakaslea erdi moskeatuta egoan. " Hay cuatro que en la tercera pregunta, hay respondido **otábarra** en lugar de **octava real** y no entiendo el porque".

Gaur egungo gazteek ez eben horrela erantzungo, ez dakitelako otábarra zer dan. Ikusi >>>> Otié, otábarra

Ezetz igarri

Besuck bai ta eskorik ez, kokota bai ta bururik ez . Badakizu edo popitas ?

Popitas ?

Internet

Aspaldiko urtietan heldu jakuzan modernismukaz, diñoie mundua txikitsu egiten jakula, baie mundukuek pe txikitsu egiten gara, ze buruko **kankámuek pe atrapata** dakuz, eurok aparatuck dizela ta ez dizela.

Ondiño ez dakigu ondo zelan demontre funzionaten daben bankuko **kajero automatikuek,** eskatzeko **inbitruek,** telefono **mobillek**, ta hori gitxi dala, etxien beste armatoste bedeinkatu bat sartu dogu. Ordenadora da beran izena, baie etxie lehen baño txarrau ikusten dogu, **kisketiek** eta papelak edonon dauzelarik.

Lehen gurasuok ime txikiek entxufetan hatzamarrak sartu barik arduretute ibiltzen giñan, ta orain Lehendakariak berak pe **"konekta zaitez"** diñosku. **Zer gauz ikusteko !.**

Zoridsoneko **internet** dala ta, orain etxe danatan daku, **inprimidorie, eskarnera, modena** eta abar, baie txarrena **arratoien** arazue da, lehen eurek etxetik ezin atara, ta orain geu arratoiek etxien sartzien. **Txarrenari emonda gauzelaaaaa !.**

Seme-alabek diñoskuie orain sellutan ez dogula gastatu behar, **emilio** bat botata errezaue dala, baie ez tiñoie telefonuen errezibugaz, kamioi bete sello erosiko lekidule.
Gero gau osue pasaten dauie **txatieten**, Leongo lagun batégaz, ta atxitxe **legoieri** kasurik pez. Makiñiek dakon **biruse** dala ta taketien dabilz, ta **"azmereir"**gaz santidsago galdute dauen amumari **kaka badan bez**.

Bizi guztidse ibili gara ikasten zer maiuskulaz ta zer minuskulaz, ta orain barritz dana idatzi bidela minuskuluekaz. **Neuk ez tiñopa !.**
Lehen **servidor** norberagaitk esaten gendun, orain aldiz servidor, beste batzuk diez, **google, terra, yahoo,** eta antzeko izen trabesak . **Internautak ...., laster danok internata**.

Konetata bai, baie konorta galdu barik kero !

Antzinan gure amek **punto bobo** eta **punto krus** erabiltzen baebien, orain gaztien artean dana da **punto.org** ta **punto.com**, atakontu esparreko baliekaz dabizela olgetan. Lehen zaharrak **arrobak** erabiltzen ebezanean, gazteek killuek, eta orain alderantziz, gazteek ez daukie besterik arrobie baño. **Zelako trabeseko paelak diez baie !.**

Gogorrena etorteko dau, laster gure andrak eskoko erlojuen edo belarridsen txip bat imingoskuie, ordenadoretik esanez, **Hala etxera, nahiko da txikitorik gaurko ta !**

Ordenadorak, ordena y mando, ta pertsonie isillik eta kallando

Zoritxarrez gaur egun ez dago ohiturarik ezizenak jartzeko, ez badabe kuadrilarako bakarrik, ondo egongo litzateke, **Office zaharra, Jon Birus, Esemese, Emailio, Pedefe, Jon Messenger, Gugel txikidsé, e.a...**

Ezetz igarri

Popitas ?

ALKONDÁRIE

Denporie

Bizi garen bitartean, gure denpora antolatu nahian ibiltzen gara, gero korrika ta presaka inora heldu ezinean ibiltzeko. Sarritan ez dogu izaten astirik, ta ez daukagula denporarik esan ohi dogu, denporea hiltzean joaten jakula. Galdu bai, behin baño gehiagotan galtzen dogu denporea. Gure lehenaldia, orainaldia eta geroaldiak ere oso bereziak dira, eta ondo sustraituak gure esakeratan.

Nahaste borraste baten, bi hitzetan ta bitsetan, ikusi daiguzan denporea adierazteko erabiltzen doguzan berba eta esakera batzuk.

Atzokue pasata- **ariñun/** bidsarkue pasata- **etzi/** urrengue- **etzikáramu**.

Gaueko ordutan, gau-erdidsen, goizaldien, alban, goizien-goizetik, goiz-erdidsen, goiz-beranduen edo **eguerdi-aurrien, eguerditzen, egurdatien, arratsalde-erdidsen, arratsaldien, arratsalde-erdidsen, iluntzien, gau-aurrien, gauien, gaueko ordutan.**

Esakera - Logurea dagonean eta ohean jarraitzeko. **"Buelta Madalen "** edo **"Buelta Malen, goizaldie da ta ".**

Sasoiz, goizion, goizetik ("arin" abiadatarako utziz) , **berandu, belu, ensegidako baten, Sasoien sasoikuek, Sasosien sasoiko lorak, Sasoie ezan zu ¡, Sasoie dozu !, Sasoie zu, Astidse, berez, batera, era batera, makiñetxu bider, makiñetxu bet bider, hamaiketxu bider, bi biarreko aldiz, gitxitxu ta sarritxu, oraingoz** edo **behin por ahora, momentuen, hainbet ariñen, artitan, bidsen-bitsartien, arte bitsartien, hor termiñuen, aste erdidsen, astegun buru zuridse, domekatako , eguerdi aurrien, Gabon aurrien, Gabon bueltan, illuntzien, illundidsen, Iñoizkutan, ordurik hona, orduntzeko, harrezkero, denporie emoten, denporie galtzien, astelenagaz egon, bidsamona okin, gauez eñikue** (lagun gitxiko pertsonei) , **" halako personai barikutan erreza bidatsoie, aztidse badauen "** (pertsona oso bereziagaitik). **"Berandu ein barik gero" !, "berandu eindse egon nai"** (itxaroten), **"Berandu datorrenantzat amuskirik pez".**

Berandu datorrenari edo denporaz kanpo zeozer egiten dauanari, **luze eindse** egon garala dinotsagu edo baita **sasoie ezan zu** ! edo **orain zartzara ?** galdetzen deutsagu.
Batzutan berbak galderetan joan edo erantzunetan etorri, aldatu egiten dabe entonazioa eta baita itxura, esate baterako;

Batek - **"Ta orduen etor zan ?"**
Besteak – **"Bai, aurduen etor zan !"** Beharbada haurdun etorko zan

Ikusten ari garan pelikuliearen fantasia umeena iruditzen bajaku, **"hiruretako pelikulie"** dala esaten dogu, antzinan pelikule honeek, herriko zineetan, ordu horretan emoten ebelako.

Norbaitetaz hitz egiten dogunean, bera be nahiz eta itxura ona izan, adinean sartutakoa dala adierazteko, **"Bera be ez ta atzo goizekue"** esaten dogu.

Norbait denporie galtzien dabillenien, **Bastarreko postizuek jazten,** dabilela diñogu. Bastarreko postizuek, antziñan Madalen bizperan jazten ziran panpiñei deitzen jaken.

Batek – **Egon ba !** – Besteak – **Egonda erbidse atrapaten da gero !**

Galdera **Eta gero ?** erantzuna –**Gero gerokuek** ! edo baita **Hotz ez tana bero !.**

Artzie baño zarraue, mususu urtekue, atziñekue, atziñen, atziñe baten, beran sasoien sasoi baten, gerra denporie, goma sasoiko etxiek (ikus leku ezizenak), **ariñun** ("atzokue pasata" gaur dalako), **bidsamo goizien, "Felipe Konejo atie apurtu, bidsamo goizien berak konpondu"** abestian, **beñola, beñola baten, aldiko baten, unada baten, sasoi baten, urtetxuek diez, lengunien, lengune baten, lengotan egon, aurrerau, aurrerauko baten, oraintsu, ontsurengo, aspaldidson,**

Hámen, aspaldiko morroié !

aspaldíko, aspaldikué, aspaldiko txoridsé, oiñézkero, sasoie da !, gaurko da gero !, egunien baño egunien txarrau, iñoizkorik, aspaldikorik, egunero, egunien-egunien, gaur bertan, gaurarte, orain, auntxek, auntxekutan, istindiko baten, Aitxiaren ein orduko, berandu ein

orduko, daburduko, arin tse daburduko, oraingoz, laster, segiduen, einbaten, oraingutan, orain arte.

Esakera - **"Guk takuz egunek, gauek noreztizela",**

Hospitalean gaisorik dagoen bat jagoten bagabiltz, **Tomaseri gauek eitzen** edo **Tomasegaz gauek galtzien** gabiltzala diñogu. Aldiz, egun pasa bidaiatxo bat egitera goazenean, **egune pasaten** edo **egune emoten** goazela diñogu

Pertsonak edo gauzak egunak joanean gero eta edozer doazela esateko, **egunien baño egunien** esaten dogu. **Egunien baño egunien galantau, gaztiau, karuau, politxau, ...**

Normalean "atziñen" berbea entzuten dogunean, denporan atzean gertatutako zerbait bajatorku, gurean badauka beste erabilera bat, eta gaur bertan gertatzen dan zeozer adierazteko. Esate baterako, lagun batek deitzen dau telefonoz beste lagun baten etxera, **Julen dau ?** galdetuz, eta honen amak diñotso, **Julen atziñe jun da kiroldegire !**, orain ordu batzuk joan dala adierazteko.

Hitz jokoa- **Gaur San Juan, ta bidsar joan zan**

Batek , **Txikito** - besteak **"Txikito, ezer ez da betiko"**
" **Noiz ?** - " **"Berandu baño goiz"**
" **Orain ?** - " **"Orain ez, auntxek"**
" **Atzo** - " **"Atzo, atzo hil ziran hamalau atso"**
" **Etzi** - " **"Ezin bada itzi"**
" **Betiko** - " **"Betiko ez tau ezer, betiko Jaingoikue"**
" **Beti** - " **"Beti, txakurrek buztanpetik ! "**

Nopaitxe, nonor edo norbait etortzear dagoala esateko **ganien dala** eta azken orduetan edo hiltzear dagoala esateko be, **lasterko dala** esaten dogu.

Gauzak benetan arin egin behar dirala esateko, **tri-tra, jik eta jak** edo **Aitxearen baten** egin behar dirala diñogu.

Urteko hileak esateko modu asko dauz, horreetariko batzuk ;
Urtarrila – **Urtien hasikerie,** Otsaila – **Laburre baie hotza,** Marso - **Eguzkidsek txikotazo ,** Aprile – **Euridsek mille,** Maiatza – **Loran hillie loran,** Ekaina – **San Juan hillie,** Uztaila (Garagarrille) – **"Santidsago ta Santa Ana, garragarrillen azkana",** Agostue – **Edateko moduen mostue,** Iraila – **Andra Maidsek,** Urria – **Ikuen hillie,** Azaroa – **Difuntuen ta Santo guztidsen hillie,** Abendua – **Gabon hillie.**

Antzinean maiatzan lorak batzen ziran Birjineari botatzeko, gero **"Bota, bota, bota ta bota, bota, bota lorak Birjiñiri** " abestuz

Esakera – **"Urte barrí, soruek pe igarrí"** Hori behintzat badakie.

Zerbait egitera joan eta norbaitekin topo egiteagatik berandu heltzerakoan, **"Zer, bietz hárridse topa zu la ?"** entzun beharko dogu. Behatzetan harriak ibiltzeko oztopo.

Norbait denpora luzean ikusi barik gagozanean, eta beste batek berataz galdetzen euskunean, "**Nire begidsek etsoie kalterik egin"** esaten dogu, ez dakit ezer berataz zentzuan.

Esakera - **Geroarte agur !** – Neiko da berbarik ta banuen.

Noiz gure eta antzekoak >>>

Pitxin-pitxien otzeko-otzeko, otzeko baten, sarri-sarri, sarritzen, zarratuen, hainbeste bidarrez, noizik peiñien, noizik noizera, lantzien behin, lantzien beñetan, tarteka-marteka, zapasáltutan, zapasáltoka, zapasalto baten, aldabatera, era batera, batzutan, unedatan, halako baten , goizaldien, goiz erdidsen, eguerdi bueltan, eguerditxen, arratsalde erdidsen, iluntze-samarrien (iluntzea hastean), **goizerik gauera, nonoiz, egunokorik, aurretidsez, edonoiz, noizonoiz, bostetako sasoien, bostak ganien diez, iñoizkulez, noizarte, noizko, noiztik, iñoiz, iñoiz bez, garau baten bez, iñoizkutan, eguno halakorik, zati baten ez, gaur zortzi, bidsar zortzi, hil honetán, eguno, eguno bez, sekule, sekule bez, iñoiz bez, garau baten bez.**

"Urrun da fitx, betiko ta betiko " (umeek hasarratuten dizenien),

Ordutik gaurrera esateko, **eta hona** esaten da. Esate baterako, **"ein danik eta hona", "erosi dunik eta hona", "jun danik eta hona", ...**

Oraingútan, oindik gora, oindik aurrera, nonoiz, egunen baten, iñoizkutan, bidsar edo etzi, urren, urrenguen, urrengutan, gero-gerokuek, gerokutan, egunetan, illiek, egunek garrenien, urtiek garrenien, denpora garrenien edo **kantsauen , danik ariñen be, danik beranduen, ordu bi barru,**

bost egun barru, hilebete barru, lau urte barru, etzi (bidsarkue pasata, kamarara), **bidsar-bidsar** (bidsar bertan), **gauera orduko, ordu txarran** (damututе), **Ia ordu laburtxu bat badakozu** (errieten doazen andrei), **ordu erdidse emon tso !** –(txorakeriak egiteko edo okasiñue emoteko prest dagoanagaitik), **egun biko ogidsegaz juen**, (normalean baño denpora luzeagoa egiteko asmoa), **jun zaitzez egun biko ogidsegaz** (kaka saltzien baie modukaz).

" Eskerrik asko, kerize sasoien, altzo bete kerize hazur dakozuz" (mesedea pagateko modu berezia),

"Jjuen amumañe, ta esan peseta biko tardantzie emoteko" (pelmadie emoten dauen umeei).

- **"Gaur ez ta bidsar gero!"** - Kontuz, gauzak aldatu egiten dira ta.

- **"Gaue jjuen ta gaue etorri...."** – Ta gauzak aldatu barik

...."Sasoien sasoikuek ta gero gerokuek"

EZIZENAK

Atxitxe barikue, astegun buru zuridse, astelena, aurtengo aberatsa, Garisimie, siempre un traje, urte guztiko subille

Barreka zatitsu

Lagun bi oporretan

Batek – **" Ze egun dan bez ! "** Ondo ibiltzean. denporearen neurria be galduz

Besteak – **" Segundan bez, priméran ! ",** besteak esandakoagaz bitz jokoa egmez, ondo dauzela esateko.

Amaitzeko, itsasoan egunaren azken orduan , patroi biren arteko ohiturazko elkarrizketa.

-- Josek - **" Zer Anton ? "**
– Antonek – **" Egun bet gitxiau "**
– Josek **" Egun bet geidsau ".**

Anton etxera jjuteko pentsamentuen, ta Jose zahartzien pentsamentuen.

Jantzídsek

Erropak edo jantziak egiteko, orrotza ta aridse beharrezkoak doguz. **Orrotza, aridse, titarie, , telak, erropak**, eta abarrek, gure soñean ez ezik, zelan ez, gure esakeretan ere badabe lekurik.
Orratzak gordeteko tubotxoa **orroztokidse** eta lanaen arabera **joztórrotza, albandórrotza, kaltzetórrotza, buruko-órrotza** (burudune),... Eta saregiñenak **sareórrotzak**.

- Aridse arin apurtutekoa danez, zeozer, kilin kolan dagoala adierazteko, **"Hari albino baten pentsure"** dagoala diñogu.
- Igarkizunetan ere agertzen da, **"Zer da biribille tronko ta luzien Gernikeraiño ? " = (Aridsen karretie).**
- Norbaitek **" Zer ete da ?"** galdetzen badauen, atsuek atziñeko kanta baten zati bat gogoratuz, zera erantzungo deutsoe, **"Zer eta da, nor ete da, erropiaren joskillia...."**.

"Titarie, orrotza ta aridse, etxe andrien maridse"



Zer deitzazu blusie ?

Ez ta makala amentalá !

Pertsonaren bat, **"sorginkeidsekaz"** ibiltzen dala edo **"lar jakiñe"** dala adierazteko, **"Orrostokidsek takoz horrek"** diñogu, eta zeozer ein barridse estreinatzen dogunean, bai erropa nahiz etxea, **"orrotzatik harakue"** dala diñogu. Bestalde, zeozer txikia danean, adibidez etxe txiki bat, **titarilako etxie** dala diñogu.

Telak ere aukeran, **Trobalkué, gásie, satená, tergalá, pénie, kirrué** (harízkue), **gipurré** (bordaudune), **tolrá, drille** (mil rayas-drillezko frakak), **txiñeskue** (kolore askodun tela txinatarra), **Pirineo telie** (polarra), **saiabaiako telie** (mengelá), **perkalá** eta abar luze bat.
Perkala, telie ez ezik, pertsona traketsei ere esaten jake, **"Zelako perkala da baie !** ".

Telea fiña edo trasparentea danean, **baresárie lakue** dalakoa dala diñogu. Izara, alkondara edo beste telaren bat, gastata edo haritsuta dagoanean, **baresárie lez** edo **baresáretute** dagoala diñogu.
Ikusi >>>>BARESÁRIF (Baresarea)

Kaltzetiñek eta jersiek, **goruegaz** atara, eta **ardi lanien** aridsegaz eta **kaltzetorrotzagaz** egindakoak bero beruek izaten ziran.
Gure herriko jantzi ezaugarrienetarikoak, gure arrantzaleen ur-erropak **jakenarrue** eta **frakenarrue** dira, noski. Hasieran **olaniegaz** (lona) eginikoak ziranez, **olaneskue, frakaoleskue, frakaoneskue** edo **frakeneskue** eta **jakeoleskue, jakeoneskue** edo **jakeneskue** deitzen jaken.

>> IKUSI

Telié gogortuteko, linazazko oridsue emoten jaken, hori dala ta, **suestá** ta ekipo osoari, **entzeraduek** edo **entzaduek** ere deitzen jaken. Oridsue emon ta gogorguta geratzen zirancan, kamaran jartzen ziran zutunik. Zer ezanik ez, umeak ez ebiela kamarara joan nahi, "gorputz" hareekaz ikaratzen ziralako.

Horretaz gain, lanerako, gizonentzat **bonbatxuek** edo **loidse-artzikuek** badira, andrazkuentzat erropa ezaugarriena **amentalá** da. Andrazkoek lehen edozer gauza eroaten eben buruan, otzárak, kriélak, kajak, baldak, askak, e.a.., kargeak oreka izateko eta burua babestuteko, zapi, eskotrapo edo tela bategaz (iñoiz periodikugaz be bai) eginiko borobillari, **sórkidse** deitzen jakon.

Bermeo 1937ko neguan, andra bat kriélak igaroten. (David Seymour)

Lehen fabriketako andrak, **arpillérie** (lejiatan zuritsutako, azukara sakuagaz egindako amentalá) eroaten eben. Tela ligorra eta garratza zanez, hori dala ta garratza zan personeari be, arpillerie deitzen jakon.

Arin loitsuteko erropei **loídsorrak** eta zarra izan eta barridse lez dagoanari,"**mietxure barik tau hori erropie**". Erropak izaten daben puntillei, **parpaillek** eta fraka barrenak apurtuta, daidsola daukien flekoei, **brintzek** edo **bridsélak** esaten jake.

Erropak garbitsuterakoan edo **leixíbie** eikeran, lejía ez egoanean erropak zuritsuteko, lehenago jjaboiegaz garbitsu, aklara, barril baten erropak zabaldu, **arpillérie** (tala sákue zuritsute) ganien, suteko autze, eriñotz zatidsekaz, ur bero-beroa bota ta arpillerie ganien jartzen zan.

Jozterakoan eta **konposturek** egiteko orduan, lehenago **arire imiñi** bchar (bardindsu), **hilbandú** ta gero **prespúntie** emonaz, **tarratadie** edo **siétie** konpondu. **Fraka barrena**, bchick hartu edo **azpildurie** egin, **albora púntadie** emonaz. Erropen zuloak tapatzeari, **auzuek batun** esaten jako eta zuloa handia bada, orduan **txaplie** edo **ipingidse** ipini beharra izaten da. Konposturek egiteko, kaltzerdidsen edo kaltzetiñen zulotxoak konpontzeko, lehen, gaur egungo gazteek ezagutzen ez daben **errepásateko arrótzie** (egurrezko arrotzie) erabiltzen zan.

Andren kaltzerdidsek zulatzen edo korriten ziranean, zuloaren alboko puntuak batu behar izaten ziran, orduan **"Hauzuek batu"** egiten ziran.

Jantzia eta ondasune lotzen daben geure esakera batzuk. Norbait diro barik geratzen dancan, **"Amen ni, Jesus billoizik".** Ezebe barik ezkontzen zanagaitik **"kamise bakue"** edo **"soñien soñekugaz ezkondu de"**. Batabat gastadorie dala esateko, **"Maridse laurenagaz trajie eingo dau horrek ".**

Erropak aipatuta, behin entzundako kanta bat jatort burura. 𝄞 Kanta hau, antza bandien musikiegaz batera abesten zan.

"Una vieja sube al cielo, kaltzetin gorridsekaz

y San Pedro le contesta, jun zaitzez hortik horrantz".

Errepaso txiki bat emonaz, beste sasoiko soñekuek be aurkitu leikeguz. Gurasoek izango dabe ba aukera euren seme-alabei azalpenak emon eta aitzaki horregaz, sasoi hareetako pasadisoak kontatuz, baita historia apur bat egiteko ere.

Jakie, frakie, jakétie, gónie, mies-erropak (ajuarra, izarak, kamisoiek, e.a.) **serrapollérie, elástikue / jugoie , kuléruek edo pantalónak , kaltzak, mariñérie, azpiko gónie, frakarroiek, lebítxie, espórtak, pañétie, jorsié, korpíñue, gorantzá** (bular azpiko fajie), eta abar. Kantzontzillueri atziñen **uzker sákue** deitzen jakon.

- **"Gorantzidsek ! "** - Erantzun bitxia - **" Gorantzák zintzedunek !**

Bisera antzeko madrileñuen txapelari, gure herrian **amaputien txapela** edo **képise** ere deitzen jako. Gaia jarraituz, guardasobillei,

txapel ókerrak deitzen jake eta ume edo nagusiek buruan eroaten daben ostantzekoei **txótue** esatén jake.

Korbatiri, **urdillé, lastórridse, txingotelá , miñe atata** edo **miñe daidsola** be esaten jako.



Txótue berak !

Uzker-sákue

Erropa barrenak "desigual" dagoanean, hau da alde bat bestie baño gorago, **alde goiek** esaten dogu, eta erropie bera **eratara** barik, txarto ipintzeari, **atzekoz-aurre** edo **iruntzitara**, eta ez sarritan entzuten dogun moduan "al reves", modu biak adierazteko.

Erropak jazteko ez ezik, pertsonen menpekotasuna adierazteko ere erabiltzen dira, adibidez, **aman gonapien egotea** amaren menpean edo esanetara egotea adierazten dau.

Batzuk erropak txukun erabiltzen daben bitartean, besteek aldiz edozelan. Ondo jazten danari **maja zálie, postiñeric/rue, mari-árrue, etxurosic/sue, markesa/sie, dándidse, jjentelmana, angirie, píntxue**, eta abar. Norbatit goitik behera dotore edo "konjunteta" badago, orduan ezin hobeto dagoala esateko, **perretxíkue lez , urrien bitse lez, adok** edo **lameidsén pupú** dagoala diñogu.

Infernuko artázidse edo **artazi bikue** entzuten dogunean, ez da jostunen kontutaz berbetan. Izen bitxi honeekaz ezagutzen dogu, mariartazi edo ipurtsardea instsektoa. Argi dago atzekaldean dauan artazi moduko buztena dala bere ezaugarririk nagusiena. Ikusi egizu >> **Infernuko artázidse edo artazi bikue –**

Soinean erropa gitxi eroaten ebanari, **pelele** edo **Imperio txitxárro** lez joiala esaten jakon. Azken hau, behar bada antzinako azpiko gona baten izena **kamisa imperio** zalako. Aldiz. Erropa asko daroanari, **"kinpuliek baño erropa geidsau daruzu"** esaten jako.

Normalean baño hobeto jantzita doanari, erderazko esakera barregarri bat esaten jako, **"Aunque la mona se vista de seda, tú siempre nunca ".**

Edozelan edo modu eskasean jantzita dagoanagaitik, **etxure barik, iñor ez lez** (baita elegante, destakaten edo atentziñue deitsuten doana),

trauski mauskidse lez, marro jantzitze, saskela lez, erropak a la kakarda, erropak txisetara begire, dingilin-dango jantzitze, "erropak dakozu jantzitze sórkidse lez", Bastarreko postizue lez eta abar. Bastarreko postizuek, antziñan Madalen bezperan jazten ziran panpiñei deitzen jaken.

Kolorido larrei edo desigualeko erropakaz doanagaitik, **"Nora due hori, pepiño jantzitze ba ?".**

Gurasoek, euren arteko goraberaren batez edo umeek entzuteko desegoki dan gai batez berbetan dagozanean eta umea hurbiltzen danean, bietariko batek **"erropak tauz eskeitze"** esaten deutso bestari, apur batez isiltzeko. Makiñetxu bider galdetuko ebien umeek "euren kitxien" (euren kabuz), **"Dauen egualdidsen, zelan ongo diez erropak eskeitze ba? ".**

Etxerik-etxeko jostunek beti izan dabe beste jostunek baño ospe gitxiago, eurek konposturek edo lan txikiagoak egiten bait ebien, horregaitik eurei, **siri-saráko** jostunek edo baita **elizen deitsu bako** jostunek deitzen jaken.

Sarritan aitxe, anaidse edo beste familikoen frakak ibili behar izan doguz, gehienetan laburregi geratu jakuzalarik. Orduan, gure frakek **mariek atrapata** dagozala edo **" Zer ezkiretan zuez ela ?"** galdera entzun beharko doguz. Laburrerea nabarmena zanean, antziñan **"Frakatatik bera jeusten bazara, burue apurtuko zu"** esakerea ere esaten zan.

Frakei buruzko beste esakera bat eta ganera Jaingoikue aipatzen dauana, **"Ai Jaingoiko fraka-zábala".** Gu sarritan **mariek atrápata** ibili beharra badaukagu, gure Jaingoiko koitxadue erropetan behintzat "larguru" ibili zan.

Erropak eta San Juan ere lotuta dagoz, beran laguntzaz gure jantziak barrizten bait doguz, San Juan bizperan, **"San Juanatan, zaharrak sutera ta barridsek soñera"** esakereak esaten deuskunez.
Jersie soñien barik garritzik ipintzen dogunean ere, San Juan gogoratzen dogu. Orduan **" Zer San Juanera zuez ela zapata kajigaz ?"** edo **"San juanetik bueltic eindse zauz ela ?"** galderak entzun beharko doguzalarik.

Gure herriko kantetan ere agertzen dira jantziek, adibidez, **"Jose Komentu tiene un gaban, cada bolsillo le cabe un pan".**

Sasoi baten itsasontziren batek galdutako goma farduek agertu ziran gure itsasoetan. **Goma sásoie** amaitsute, lantzien goma bat topaten zan, orduan patroiek gizonak adi egoteko, gomie aurkitzen ebanari, trajie erregalaten eutson.

Gure irudimena edo imajinaziñue, jake mota ezberdinei izenak jartzeko ere guztiz berezia da. Jakeak betidanik, ebai batekoak edo bikoak izan dira, nahiz eta gaur egun baita ebai bakoak. Gure batelak kontutan izanik, jakeek ebaidsen arabera, **singe léku bategaz** edo **singe léku bigaz** izaten dira.

>> IKUSI

Baña badago beste modu bitxi bat jake honeei deitzeko, **hamar** eta **ehun da bat**. Bai, entzun dozuen moduan, **10** eta **101**, behar bada zenbakiak ikusiz, konturatuko zaree zergaitia. Bat zenbakia ebaia edo sínge lekua bada, zero zenbakia argi dago zer dan.

Lehengo oñetako batzuk gogoratuz, botiñen antzeko **polaiñek** eta **txokoluek** doguz, azken honeek itsosorako erabiltzen ziran, zer ezanik ez, euren zaratak kontuan izanik, andrek laster jakiten ebien, gizonak etxe egunegaz noiz zetozen. Txokoluek, egurrezko oinetakuek izaten ziran, eta fabriketan be erabiltzen ziran, bertan isterrak zapata ta guzti sartzen ziralarik.

Txokóluek

Adsubetak kendute

Abarketak soñean eta gehienetan **sakadiz** erabiltzen badoguz, gure esakeretan ere erabiltzen doguz, **abarketie baño sikuau edo gogorrau dau okelie** edo antzekoetan. Azkenez oñetakoen zintzek, guretzat **adsubetak** izan dira beti.

Albora bótoiek

Sakadiz ibiltzekuek

Átze bakuek edo **rra sartzíkuek**

Zapatak ikusi dogun moduan hiru motatakoak izan leitzetez, **zintzedunek, átze bakuek** edo **rra sartzíkuck** eta **albora bótoiek**.

Titárie

Oñetakuek erabili ta erabili, igiri ere egiten ziran, orduan **punte pasak imintzeko**, edo **zoro barridse imintzen** (suela = zapata zorue) eroan behar izaten ziran. Antza lehen, zapatak kentzeko astirik pe ez zan egoten, umeren bat zeozer txarto egiten zuenean, **infernure jungo zara zapata ta guzti** esaten bait jakon.

Gauzak leko guztietan antzekoak dirala esateko, **leko guztidsetan txakurrek oiñotzik** esaten da, eta guk esandakoaz, bestea ez bada egon adi eta **Zer esan zu ?** galdetzen badeusku, **Zapatak hamalau !** erantzunez, urrengoan adi egoteko diñotsagu.

Barreka zatitsu

Andra bat Bilbon erosketak egiten. Diñotso dendariari, **"Tiene sapatillas sin atze ? "**, ta dendariak, **"Señora, las zapatillas no llevan hache"**. Andreak orduan, **" Yo quiero de meter rra !"**.

Bermion, **sakadiz** erabiltzen doguzan zapatilei, **atze bakuek** edo **rra sartzikuek** deitzen deutsaguz.

EZIZENAK

Erropak, jostekoak eta abar, gure **ezizenetan** ere badabe tokia, adibidez Kubatik ibilitako herritar bat, herrian zuriz jantzita ibiltzen zalako, herriak **"primera komunion"** ezizena ipini eutson. Baña badagoz beste ezizen batzuk, joztea, erropak, oñetakoak eta abar kontutan hartzen dabenak, adibidez : **orrotza, errepasateko orrotza, sorue ta titarie, botoie, botonsitos, siete kamisas, kamisen txise, altza kuellos, ene kuellos, siete saias, txaleko, kaltzerdi, sedasko señorie, sedie ta estimadie, siete pañuelos, siempre un traje, jake luze, gona gorri, belarriko, pulseritas, guardasola, kapela, kapelita, kapotes, kasakatxu, korta txaketas, mala talla, Mari traja, mil trajes, pertxatxu, tijeras, titarie, tarrata, Rita serrapollerie, txapel handi, txapel arro, txapel kurro, txapel, txapeltxu, txapel politz, txapel santar, kantzontzillos, garriko gorri, garrikotxu, orrek prakok, praka gorri, praka txiki, praka zabal, praka triste, praka urrutu, ene prakas, sandalio, abarketa zuri, takon, zapata txise, zapatera, zapaterotxu, zapatillas, zapatuko, zapatitos** eta abar.

Ezetz igarri

Ze txori da hankakaz hegaz egiten dauena, Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?**

Egualdidsé

Egualdidse ta itsosue garratza ta gosue

Ez dot uste beste gai orokorragorik dagoenik, egunero eta danok bere zain egoten gara eta bere buruz berba egiten bait dogu. Sarritan besteekaz azaleko elkarrizketa sinple bat bezela, beste batzutan eta gure arrantzaleentzat batez ere euren lanerako lagun edo oztopo izaten dalako, guretzat betidanik eta betirako Egualdidse ta itsosue, garratza ta gosue.

Goizean goiz leihotik begiratzen dogu ea ze egualdi dakarren, gero kalera urten eta kasu egiteko ere sartzen dogu eguraldia, horrela eguraldi ona dagoanean diñogu **Egunon, egun ona dau ta !** edo **Egunon, guzurre da baie !** txarra dagoanean.

Egunon berba bakarra diñogunean ere, badago erantzun bitxi bat, besteak orduan **Ez tau edonon !** . Goizean kasu egiterakoan, egualdidse bera ere pertsona bat lez hartzen dogu, besteari eguraldiak zer egingo dauan **Zer diño egualdidsek pa ?** galdetzen deutsagunean. Galdera horreri badago **Ezebez, ondiño ez taki berbetan eta !** erantzuten deuskunik.

Sarritan entzungo dogu, **"Auntxek eintso egunek argi"**, bardin arratsalde edo gaua izan. Esakera horretaz ez dogu esan nahi egunsentia dala, baizik eta norbait orain konturatu dala zerbaitetaz, bonbila piztu jakola.

Eguraldi ona edo ederra danean, **Egualdidse dau primera, Egualdi elegantie, Egualdidse jan da lo, Egualdidse dau Habana , Ño egualdidse !, Egualdidse dau mami blu, Egualdidse dau mamá, Itsosupeteko egualdidse dau, Egualditxuri ! eta baita Egualdidse dau, mama quiero sopas.** Bai eguraldi ona ta txarra ere adierazteko **Egualdidse dau hauri !** , esakera erabiltzen dogu.
Itsasoaren eraginaz, arrainketa eskasa baie gitxienez egualdi ona danean **Egualdidse maridse ederra** edo **Egualdidse maridse** esaten da; orduan egualdidse bera da maridse.

Sarritan eguraldia aldakor edo nora ezien ibiltzen da, orduan **egualdidse zoro dabil , Egualdidse dau, kalai malai !, Egualdidsek izena trula !** edo **Egualdidse dau parlament** dagoala diñogu.
Lañuek zelan agiri, **etxurie** edo **taidsue** txarrerantz joango da ta orduan **eguraldia ganorabakue edo iñuséntilakue, Egualdi tristie, Egualdi loidse , Egualdi zikiñe, Egualdi zantarra, Txakur egualdidse, Egualdidse txise ein guren dau, Egualdi kakastue, Egualdidse dau**

kakatxalakue, Egualdi eskasa, Egualdi kabroie, Egualdidse dau trasbal edo **Egualdidsek izena Juan Tomás** eta abar esaten dogu.
Egualdidse benetan txarra danean eta onena etxean geratzea dogunean **Egualdidse dau amañarraban konture jan da alabigaz lo eitzeko modukue** diñogu. Eguraldi txar horrek, gure planen bat apurtu badau, **egualdi txarrridse !** diñotsagu.
Egualdidse berbeak badako beste erabilera bat, haize eta eurietatik kanpo. Zepaitxe egiteko gogoa adierazteko be erabiltzen dogu, esate baterako **"Egualdidse ez tau hatara"**, gure gogo eza azaltzen dau.

Gauak sortzen dauan **erlaue** eta **egune askatuten danien** agertzen dan **murmoie** edo **sarrasoie** eta Mundekako errekatik urteten dauan belañue **kañe**, **aldaldoie** edo **terrela**, dan danak desagertzen dira **Lorentzo** hasten danean berotuten.

Goizetan, gaueko hotsaren seinalea, leidse izaten da, horren adierazle " **Kandelaridso laridso, leidse daridso".**

Iluntzetan gora begira beti, ea bihar ze eguraldi egingo dauan jakin gurean, zerue izartsu, **zarradurie**, **izarratue** badago, bidsarko eguraldi onan señale dala diñogu. Zerua adierazteko edoidse berbea be erabiltzen da, batez be herriko baserritarrak. **"Edoidse garbi dau".**

Bidsar ze egualdi eingo dau ba ? galdetu ta **Bidsar ikusi !** entzun behar. Arrantzale izandako nagusiek beti izan dabe eguraldia asmatzeko zaletasuna, diñoe batzuk Lameran gauza bat eta Talan beste bat diñoiela, ta beste goizean egualdidse ikusirik, asmatu dauan lekura doa esanez, **Atzo ez tot esan nik !** .

Eguraldiaren gora-berarik nabarmenena, zelan ez, urtean zehar termometruek emoten dauana da.



Kolarretik urten da **sargoridsen** edo **txingoran** bufadie sentitzen dogunean, **Zer da berue** ?, **Berue dau destrosue, berue politxo, Jesukristo berue, berue dau krieleison** edo **bero larridse dagoala** esaten dogu, eta gero egun guztian **izerdi lamatán** edo **beruen berugaz mangáta** ibiliko gara, **"Mangateko egualdidse ta neuk gitxi biar".**

Lar onan atzetik beti txarra, **"Honek atzetik ekarko dau".**

Hitz jokoak eta errimak beti izan dira gure gustokoak, hori adierazteko badago hotz-beroa sartzen dauana. Norbaitek **Eta gero ?** galdetzen badau, besteak, errimaz egindako esakera jakintsuaz, **Hotz ez tana bero !** erantzuten deutso.

Negua sartu, beroa joan ta hotza geldi-geldike etorten jakunean, **Ez tau hotzik bape-bape, Ez tau hotz handirik** ("txikitxue" bakarrrik), **Txut hotzari, hotza politxo** !, **Zer da hotza, hotza zemakure** edo **infernue dau** (nahiz eta infernuen hotzik ez egon), eta benetan hotzak doguzanenan, **hotz mutuek** dirala diñogu (behar bada berbetarako be gogoa kentzen deuskulako).
Orduan guk **olluen popak** daukagula, **hotzan hotzagaz titi puntek** edo **titi buruek pe gogortute** edo **hotzan pasiñugaz gogortute** gagozala esaten dogu.
Esakera - **Txakurren musturré ta andrien eperdidse, beti hotz**

Hotza, gure arimara sartzen jakunean, **hotzak hiltzen** ... **dardakadan nau, hotzikáratan nau, kikildsúte, kikillé lez** edo **ene kikille lez** gagozala esaten dogu. Baña ez dogu hotzaren ikarie euki behar, ze gero **hotzikárie** ezpánatatik kanpora urtengo jaku ta.

Hotzak-híltzen

Besteren bat ikusten dogunean hotzan aurka erropa askogaz babestute, **Dana da hotza ?** galdetzen deutsagu, berak orduan **Apur bet bai !** eratzuten deuskularik. Ipar-haizea dabilenien, kalean sarri entzuten dira, **Tomas, iparra alkate !** edo antzekoak.

Gure negua ez da izaten gogorra, eta egun gitxi izaten doguz edurra ikusteko. Eguna ilundu eta hotza sartzen danean **edur egualdidse** dala diñogu. Txistilak hasten diranean **edur eúridse , iñetazidse** ta azkanean **edurren olluen lumek** etorko dira, orduan **Sasoien sasoiko lorak** esango dogularik. Eguraldia igarten, beti izaten dira jakintsuak, horrelako batek ondorengo esakerea asmatuko eban, **"Atzetik edo aurretik, San Josek beran lorak botaten dauz" .**

Negua joan ta eguraldia hoberantz egingo dau, txarra orduan euria izango dogularik. Afiladorie bere txirrindugaz, filarmonikie edo moso-gitxarrie jotzen ikusten dogunean, **"Han, laster euridsek"** esaten dogu. Baita etxure bako edo norezko pertsonaren bat ikusten dogunean, **"Euridsek ein bitzuz "** esaten dogularik.

Esakera – **"Ez tau egualdidse panparroi !"**, egualdi eskasa dagoancan.

Euria botateko ere neurriak dagoz, batzutan **euri txístillek, izerdidselako euridse** (fin-fiñé ta gitxi), **sirimiridse** edo **euri lanbrue** egiten badau **karakoletan jjuteko egualdidse**, beste batzutan **lotu bako euridsek, euri zaparradie** edo **aguasera, haize ta euri, euri tse euri, josuek, euridse politxo, tronbonakak, truisuek** eta abar, orduan, **Euridse dau etxaten txiplie !** esaten edo **Goidse dator bera la ?** galdetzen dogularik.

Egualdidse haize ta euri, benetan txarra danean **" Egualdidse dau kriela ! "**. Antziñan, murmoielako euridseri **ufuñe** eta laiño illunei **itsasao** ere deitzen jaken.

Esan da esan, azkenien euridsek etorri egin behar, **euridse ein guren**, .. **euri txístillek, euri gotak** edo **euri tantak**, hasten diranean, guardasola edo aterkiñe hartu ta kalera. Baina **euridse lotu bakue** danean, **egun guztireko** batzutan, beste batzutan egunetan. Orduan, **Belarridsetan be bedarrak urtengozkuie, eskamak urtengozkuie lepuen** edo **makallulez beratute** gagozala dinogu.

Euri ta euri badabil, nagusiek **"ez dau eñen damurik"** esaten dabe, egindakoaren damurik ez dala adierazteko.

Batek - **"Euridse ?"** Besteak – **"Euridse gauze garbidse !"**

Lainoek atsedenaldi txiki bat hartzen dabenenan ta euria momentutxu batez lotzen bada, **ater-unádie** edo **ater-unadátxue** dagoala esaten dogu.

Baserritarrentzat batzuetan ona ta beste batzuetan txarra. Lurrari ondo jatorkonean, lurrarentzat ona danean, **azaro ona** edo **euri ona** dala diñoe.

Esakera - **"Madalén egunien euridsé, iko urtie be erdidsé"**

Danok dakigu, gure baserritarrentzat, euria gauza behar-beharrezkoa dala. Eurentzat, negu gogorrean ganaduak zer jan eukitzea, oso garrantzitsua da,

baie beti apirilaren euriaren itxaropenaz. Baina apirila euri gitxikoa ta hotza eta maiatza euritsua bada, arazoak izaten dira ganaduari jaten emoteko Guzti honen adierazle, **"Maietz kakatsu, aprille urregorri, eruen doskuz hiru bintze gorri"** esakerea da.
Neguko edurrek eta leidsek, ortuarientzet be kaltegarri izaten dira, esakereak diñoanez **" Azak eta porruek, eruen bidozkuz neguek".**

Eguraldi txarraren eraginez, arratsalde iluna dogunean, **gauten-gauten** dagoala diñogu, eta gauak benetan ilunak diranean, **" Gau mutuek diez "** esaten da.

Antziñako ohitura, gaur egun erdi galduta dagoana, **egualdidse trugoitsu** dagoanean, **jústuridsek** eta **trugóiek** gogor joten dabenean, Kandelario egunien bedeinkatutako kandelie bistutea da. Trugoiek entzutean, **" Han, infernuko atsuek hasarre dabilz", "Han, San Pedro boloka dabil"** edo **"Han San Pedro trónpaka dabil"** esanez.

Trugoiek entzutean, **"Santa Barbara bedeinkatie"** edo **"Santa Barbara, Santa Kruz, Jaune erruki zakiguz", Jaune Miserikordidse, salba egizu iñosentien ogidse"** esaten zan eskari modura, euriak edo iñetasidsek hortuaridseri kalte ez egiteko.
Arrantzaleen antziñako erderazko esakera polit bat. **"Aguasero del norte, no es bueno pal kogote"**

Hori dala ta, antzinako arrantzaleek kokota babestuteko **suesta** erabiltzen ebien buruan.
Eguzkiari begira hasiko gara, bera dalako erregea, pertsonearen gogoa edo poza ere, beraren arabera ibiltzen bait da.
Batzutan urten eziñik, **Eguzkidsen brintzik pe ez tau, eguzkiaren izpirik** edo **estairik pez**, ta beste batzutan eder, orduan **eguzkidse txil , goitxik Nikolas deike !** dagoala edo **eguzkidsek lepue be jan** ! diñogu.

Eguraldi ederra indarrean dagoanean, eguzkiari begira jesarrita gozotan egoteari, **katuen gloridsen** egotea esaten jako.

Gero **Eguzkidsek miau** edo **kiau, eguzkidsek dar-dart** egin dauala diñogu desagertu dalako, **gaurkuek ein dsau, bidsar geidsau** egingo dauan itxaropenez.

Batzutan eguzkia euriagaz batera ikusten dogu, orduan "**Eguzkidse ta euridse, martiko egualdidse"** esaten da, bardin ekaina edo urria izan.

Iluntzean zerua gorri badago, **"Arrats gorri, haize edo euri"** esaten da.

Haizeak, lañoak eroan da ekarri, eguzkia desagertu eragiten dau. Haizea eta eguraldia lotzeko esakerek, **"Alba gorri, haize lodi", "Alba gorridse, haizie edo euridse",**" **Zeru gorridse, haizie edo euridse", "Albatu dau Frantzin, baitxe Euskal Herridsen be", "Haize gorri egualdi eder", " eguzki zuri, haize edo euri", "sueste ona, galduko ete da ona"** eta abar.

Alba gorridse, haize edo euridse

Haizerik ez dabilenean, **"haizien putzik pe ez tau"** esaten da eta haizearen indarra kontutan harturik, **haizetzie, haizie eskandalue, haizie politxo, egualdidse dau zikloie**.

Hotz-beroa kontutan izanik, haize **lupué, fiñe, fírue, berdie, berénue, demoniñué, infernue, iparrá.**

Herriko haizie edo **haize herrikue danean, oskolie sikatuteko dala ona** esaten da, hori dala ta **andraizie** ere esaten jako. Antzinan, herriko haizie egoanean, andrek erreketara edo iturrietara joaten ziran erropak garbitzera, baekielako herriko haiziegaz erropak arin sikatuko zirala, hori dala ta **andraizie** deitzea.

Illunetan – Lagun artean, beste baten aurka berba egitea, larrua kentzea. **"Bai, esanzu zeozer illunetan"** (nahiz eta egun argian izan).

Aintziñako txalupen belie gogoratuz, haize asko dagoenean **sierbano bete haize** esaten da. Gaileguen eraginez **Haizie ainda mas !** dagoala be esaten da, "ainda" gailegoz oraindik gehiago esan nahi dau. Gero **popáizie** badau ariñau porture.

Izenburuak diñoanez, itsosue garratza ta gosue izaten da, antzekoak badira ere **itsosue politxo dau** eta **itsoso politxe dau** ez dabe gauza bera esan nahi, txarra eta ona baizik. Baie **itsosue dau hauri !** entzuten badogu, diñoanan aurpegira begiratu behar, zeren edo oso ona edo oso txarra dalako. Izaron itxureak be esaten deusku itsosue zelan dauan, **"Izaro bibotigaz dau, itsosue dau"**, itsosue esatean, itsaso txarran seinalea da.

Beste batzuetan Haizea gogor jotzen dauanean edo haize hotza danean, **sokaídien** edo **haizébien** egon beharko gara.

Itsaso ona dagoanean, **Kalma zuridse** edo **egualdidse dau zelestiala, itsoso frankue, bare-bare**, e.a. , erdizka dagoanean itsosotxue, **itsaskirridse, itsosue piké dau** edo **itsosue bekerékakaz** dagoala diñogu eta txarra dagoanenan, **itsoso txakurre, itsoso gogorra, itsoso handidse, Itsosue dau barrien barra** eta abar.

Uretan bai oridsuegaz eta baita korrontan edo haizearen indarrez sortzen diran mantzei, **ugérie** edo **oidsidié** . Olatuak apurtzerakoan ataraten dauan bitsari **olarrue** edo **bekerékak** eta baporak bere ibilian sortzen dauan bitsari **aparrá** deitzen deutsegu.

Itsasoa **bare-bare** edo **kalma zuridse** dagoanean, **"Andrak itsosora jjuteko modukue"** edo **"Andrak itsosuen egoteko itsoso klasie"** esaten da. Olatu handiei **josuek** , bapateko olatuari **itsoso galduc**, itsosue hiru lau lekotik jotzen dauanean **saltxaidsue** edo **trapolatue** (eguraldi txarretik onerako señalie), **ostadar** edo **Erromako zubidsek** lañopean sortzen dauan euri-hankari **ollanka**, hondoko itsasoari **itsosue lepo handidse**, kalma zuridseri, norestak ataten dauan olaturi **iparolatue**, itsasoan zeozer ur biren tartean dagoanenan sondafonduen eta abar.

Olatuak apurtzerakoan, haizeak aidean daroan "euri-fiñeri" **garrá**. Hori dala ta Frantxun atzetan entzundakoa, herritarrak kanpotarrari frantxun atxetan ez aparkateko, olatuek zegozalako. **"Oyes, no atraques ahi coche que te viene gárra".**

Aintziñan itsosuen korrontari **auaia,** eta euri laiñoei edo haizeak itsosoko ura altza ta bitxa egiteari **ioso**. Amaitzeko eta galarrena etorri orduko, esakera polit batzuk.

"Ollanka Donostiko mandien, egualdi txarran esperie"

"Zielo enladrillau, bendabal deklarau".

"Euridsen ganeko leidse, euridsen deidse"

(Euriaren atzetik datorren onagaz ez fidatu)

"Hillien bidsen euridse, hille geidsenan euridse"

"San Migel egunien hamabidsetan eitzen dauena, hiru hillebetien geidsena".

Esakera – Norbait bere burua ondo zaintzen duena, "Hori ez da galduko", "Atako dau beran burue", " Konponduko da", esaeren zentzu berean, "**Herriz ez ta hilko, itsosoz ez takitz baie**" be esaten dogu.

Arrantzarako kalak dirala ta, euretan izandako experientzien eraginez, badagoz esakera bitxi batzuk

Norbaitek **Kala barri** esaten dauanean, besteak **Kala txarri** esaten dau.

Okarantza	besteak	**Zaztar antza**
Albamonte	"	**Huts edo bete**
Kala faltxo	"	**Me jodio**
Errekado	"	**Buena kala**

"Kabargako derrotien baldarra, popan ez tozu faltako zaldarra".

Kabarga (kalie), **derrotien** (errunboan), **baldarra** (laño txarra), **zaldarra** (eperdian urtengo dauan granoa). Erramuri gogor emon beharko dala portura arin helduteko, adierazten deusku.

Amaitzeko, eguraldiagaz zer ikusia daukien esakera barregarri batzuk.

Norbait beti atzakiz edo besteen ala dabillela esateko, "**Beti noroestatik euridse**" esaten dogu.

Egualdidse ta itsosue, garratza ta gosue

Norbait beste bateri, leku neketsu edo ordu txarrean ea datorren galdetzean, adibidez;

Batek - **Bazatoz bihar mendire seiretan ?**

Besteak - **Urren, egualdi txar baten !** Ezetz esateko modu bitxi bat.



EZIZENAK

Haize gitxi, Bendebal, Borraska, Lluvias, Hotza, Denpora ederra, Erresakiek ekarrikue, ...

Barreka zatitsu

Eguraldi txarra dala ta, itsosora joateko modurik ez eta etxera datorren gizonak, honako hau entzun beharko dau, **"ilunpiri eskapaten zatoz, beste ilunpe batera !".**

Ezetz igarri

Popitas ? **DANAK**



Koloríek

Sarritan mundu hau tristea izaten bada, zer izango litzake kolore bakoa balitz. Koloreek emoten deutse gauza guztiei zentzua eta izatea, kolore barik marmitxe bera be, osálie besterik ez litzake izango.

Pertsonen azalen arabera, **kolore zúridse**, **kolore górridse**, **aseitune kólorie**, **baltzamue** edo **baltzuzkiñe**, **iketza baño baltzaue, e.a.**. Aldiz, osasuntsu gabiltzanean edo eguzkia hartzen dogunean, **papo gorridsek** (San Pedro sagarran koloriek), **kolore onak**, **balandristien koloriek** izaten doguz. Aldiz makalik gagozanean, gaisoaren arabera kolore larriagoak izaten doguz, **kolore tristiek**, **kolore itzalak**, **kolore eskasak**, **kolore feuek**, **aseitunen kolorie**, **hilbizikuen kolorie**, edo baita **siri-siridsen kolorie** (hepatitisek eragindako kolore oridse). Eguzkiaren iso bagara edo zorabiatuta bagagoz, **txibidsie baino zuridsau** egoten gara.
Onerako edo txarrerako, gutaz zeozer esaten danean, sarritan lotsatu egiten gara, orduan **gorritsu** edo **koloriek urteten jakuz.**

Eguzkiaren edo denporearen eraginez, zerbaiti izan dauan kolorea joan bajako, **kolorie galdute** daukala dinogu, baina kolorea topaten hasi beharrean, gehienetan barria erosten joaten gara.

Etxeek be lehen gehienak letxadiegaz pintxeta, zuriak baziran, orain barritz kolore guztietakoak dira, nahiz eta bertan bizi diranak, jende iluna izan edo ilunpetan bizi. Aldiz, beste etxe batzuk ilunak izan arren, bertan diranak guztiz desberdinak edo **kolore guztidsetakoak** dira.

Zazpi koloriek ostadarra gogoratzen badeusku, ta kiru koloriek ikurriñe, zeozer kolore bikue bada, **domekatako zapata lez,** esaten dogu, antzinako oinetakoak gogoratuz.

Orokorrean, koloreetaz berba egiterakoan, oinarrizko koloreek izaten doguz kontutan, hala ere erabiltzen doguz ezaugarri batzuk koloreek

aipatzerakoan Korrika ta presaka, "bi hitzetan ta bitsetan" ikusi daiguzan guk erabiltzen doguzan kolore guztidsetako koloriek

Maite dogunari botateko lorie edo piropue, " **Neure Afrikako amapola berdie ! ".**



Urdindsúte

Margogintzan azul argi mota bateri **Azul Bermeo** deitzen badeutsie, guk azul argiari **Birjiñien kapien kolorie** esaten deutsagu, **urdiñ kólorie** barritz guretzat ez da azule, burdinaren erdoil edo urdinaren kolorie baizik, halan ba zeozer **urdindsute** badago, ez da azulik pintxeta dagoalako. Aldiz **maona**, nahiz eta falangisten kolorie izan edo jatorriz Menorcakoa izan, geure geurea da. Geureak dira baita, **ardau kólorie, aseitune kolorie, kaka kólorie, butano kolorie, guardasobilen kolorie, kalabaza kolorie, larrosa kolorie, laranja kolorie, masuste kólorie, telle kolorie, purpuriñe kolorie, baltza, baltzuzkiñe** edo **baltzikiñe, gorridse, gorrizkille, oridse, orizkiñé, urre kólorie, zuridse, zuringie, ...**

"Zuridse, Gernikarren kolorie" dala badiñogu ere, **zuridse, zuringa,** edo **arrain zuridse**, norbaiten alpertasuna adierazteko erabiltzen doguz. Zuridse beste gauza batzuk adierazteko be erabiltzen dogu, esate baterako, **astegun buru zuridse** (aste barruko egunak), **kalma zuridse** (itsaso barea), **zuritsu** (garbitsu edo, hutsitsu) eta baita zerbaiti azala kentzea adierazteko, adibidez **patatak zuritsu.**

Kolore baltza, eguzkiaren eraginez ez bada, gehienetan gauza txarrakaz lotuta egoten da. Umetan onak ez ginanean, Erregeek **iketz baltza** ekarten euskuen, jeusten bagara **baltzunie** izango dogu ta pellekan egin badogu, **ostike baltzitsu** garala esango deuskue.

Arrantzaleek afrikarrei, **"arpi kaka"** deitzen deutse, baie ez zentzun txarrean, azalaren kolore baltzagaitzik baizik.

Kolore gorria be ez da gauza onakaz lotzen, txarto ikusteko garanean, **gorridsek ikusteko gara** esaten dogu, egoera benetan txarrean geratzen garanean, **kale gorridsen** gagozala dinogu, okasiño edo folloi handiari **eskandalo gorridse** ta andrazkoek be, hilekoekaz dabiltzenean, **patente gorridsegaz** ibiltzen dira.

EZIZENAK

Abarketa zuri, aguazil baltza, ali baltza, andra baltza, Anton baltza, Anton begigorri, arrain gorri, arratoi zuri, atorra zuri, baltza, begi gorri, begi zuri, berde, Birjiñe baltza, bizar gorri, bizar zuri, bular gorri, buzten gorri, blanko, etxe zuri, errementari baltza, garriko gorri, Juan berdie, Julian baltza, kaballo blanko, kabra gorridse, kaka baltz, kólor, landa berde, Manu baltza, moño gorri, oilo baltza, papar gorri, papardo gorridse, papo gorri, Paulo gorri, Pepa begi gorri, praka gorri, Serapio gorri, siete kolores, Sotero baltza, sur gorri, txakurtxu zuridse, ule gorri, Ziriako baltza,....

Guau, zemat kolore gure motorratan.

Joseba Barretxearen argazkia

Ay que tio

Gure herria ezizenak ipintzerakoan oso trebea da, danok ezagutzen dogu **Prevenidan** upiñe. Ba artikulu honetako pertsonaia ere, bere jatorrizko izenaz baño ezagunagoa, **Ay que tio** ezizenez izan zan.

Arrañen kosteratan, bai bokartien bai atunetan edo herriko jaietan beti hurbildu dira gure herrira **titiliteruek, binbolintxeruek** edo **eskekuek**, itsuek soinua joten, lepokerrak upiñek, txisteak eta kanta papelak saltzen, musika jo ta akerra dantzan ipintzen edo beste edozein antzezkizunen bitartez dirua eskatuten.

Antziñan urtero Andra Maidsetako sasoian gizon txiki ta lodi bat etortzen zan gure herrira, herriz herri jairik jai ibiltzen zana, Lekeition **Frantzizko Alegre** deitzen ziotelarik. Iñork ez daki bere benetako izena eta jaioterria, batzuk Antonio zala eta Bilbokoa, beste batzuk Madrille ingurukua zala uste badabe ere.

Beti betiko erropakaz, bere koipez beteriko jake aurrean gantxo batez loteriak erakutziz, begi txiki ta erdi itxirik, arpegia irribarrez eta hori bai, beti bizarra ondo afeitxeta. Hori da bere buruz jende gehienak gogoratzen dauan irudia.

Leandro Ereñozaga, Ay que tio ta Eugenio Elorduy "Katorse", Jose Mari tabernan (Gaur Zabal-Eder)

Jose Mari (gaur egungo Zabal-Eder) tabernaren aurrean, Pereiran kiosko ondoan ipintzen eban bere puestotxoa, zapatak garbitzen, bizarlabaiñek, kanta papelak, tundien metxak, loteriak saltzen eban eta jaien usiñera Bilbotik etorten ziran neska santar guztiak ezagutzen ebazala diotenak, beste gauza batzuk saltzen ebazala ere badiñoe.

Gizon kuadrillek, laguntzeko kanta papelak erosi eta beraiekin eroaten ebien tabernarik taberna, zeozer jaten eta ardaua franko emoten eutsien, bera kantaten hasteko asmoz ta beran konture barre apur bet egiteko .

Bere deiak egiteko altaboz modukoa erabiltzen eban eta agoan jartzen ebanean jendeak diruak edo beste edozer botaten eutsozan bertatik. Baña bera tontoa ez zanez iñoiz ez zan itxoten, baekien zelan bildu agoan botaten eutsoen guztia.

Berak tonto itxura jarri ta isilik jasatzen eban burle danak, baña beragaz benetan berba izan ebenak, gizon ona, jakintsua eta edukazio handikoa zala diñoe eta dirua atarateko aguantatzen ebala guztia.

Elizpe eta zubiazpietan egiten eban lo eta noiz behinka Arenondoko errekartien bere erropak garbitu eta inguruko arboletan eskeitzen ebazala ere gogoratzen dabe batzuk.

Esan beharra dago Ay que tio izena berak ekarri eban kanta papel baten estribilloa zala, eta kanta hori sasoi haretako egoerari buruzko kritika bat zala, ikusiko dogunez.

" Ay que tío " abestia

A ESTO DE FALDA LARGA
QUE TAPA LA PANTORRILLA
IIASTA LA RACIÓN DE VISTA
VAN A DARLA CON CARTILLA

Estribilloa **AY QUE TIO, AY QUE TIO**
QUE PUYAZO TE HAN METIDO

A PESAR DE LAS MUCHAS LLUVIAS
QUE HAN SIDO PERTINACES
NO HAN BAJADO
NI LOS VINOS, LOS ANISES, NI COÑAQUES

Estribilloa **AY QUE TIO .....**

SEGÚN DICEN LOS RUMORES
QUE EN ESPAÑA NO COMEMOS
Y EN CAMBIO LOS HOTELES
ESTAN LLENOS DE EXTRANJEROS

Estribilloa **AY QUE TIO .....**

AUNQUE EN ESPAÑA TENEMOS
DE PATATAS TRES COSECHAS
LAS POQUITAS QUE COMEMOS
NOS LAS TRAEN DE INGLATERRA

Estribilloa **AY QUE TIO .....**

EN UN CARRO DE BASURA
HE MONTADO EL OTRO DIA
POR LO SUCIO Y LO CANSINO
ME CREI QUE ERA UN TRANVIA

Estribilloa **AY QUE TIO .....**

Abestiaren zentzuna ulertzeko, sasoiko egoerea jakitea beharrezkoa da.

Udie

Aritzatxu

Egune luzeagoa da, udeko erropak ez jakuz sartzen, tabernak atara dabez euren terrazak, gaztiek jo ta su azterketak egiten, ... argi dago udie ganien dauela.
Gure azala ondo babestu behar dogu eguzkiaren indarrak mindu ez dezan, baie gure euskerie ere zaindu beharra dago, udako bizitasunak kalte egiten bait dio.

Sarritan entzun dogu, gure herriko euskerie ez dala gehiegi erabiltzen, eta hori zoritxarrez egia da. Egoera honen arduradunak guztiok gara, eta hori ez litzateke horrela izango, gu bermiotar euskaldunok geure artien euskeraz egingo bagenu.

Udan hainbat kanpotar eta kanpoan bizi diran herritar asko etortzen dira Bermiora , giroa oraindik erdaldunagoa egiten dalarik.

Hori dala ta, sarritan itsasoaren gora-beherak adierazteko, **mari goidsen** edo **mari gorá,** **mari behien** edo **mari berá** esan beharran, **marea alta** eta **marea baja** entzuten dogu, egia esan gehienetan gazteen artean.
Menditik ibiltzean be esaten da, "**Mari-gora, mari-bera** !", baie ez itsosoaren gora-berari, kardo baten lumek aidean ikustean baizik. > Ikusi

Uger, **uretara** edo **ugerkadie** egitera esan beharrean **bañeten** eta **kresela** esan beharrean **salitrie.**

Bardin pertsonaren bat eguzkiaren porasuz **morena** dagoela edo **morenue** dala, **baltzitzute** dagoela edo **baltzamue** dala esan beharrean. Baita entzuten dira, **tunbeta** dagola, ta ez **etsunde** edo uniek belaun búrue **arraskata** dakola, **urrutute** esan beharrean. Abarketak dandarrez ta ondo sartu barik ibiltzeari, **arrastraz, sakadiz** esan beharrean eta ondartza bideko **piedrille** bat sartu jakula oinetakuen, **harri-txíngerra** esan beharrean.

Edozein galdereari, adibidez **"Bazatoz uretara ?"**, gure gogo eza adierazteko, zoritxarrez gero ta gehiago entzuten dana **"Ez tost apeteziten"** esakerie da, **"Ez takot gogorik"** esan beharrean. Korrika gabiltzanean, sarri kamisetie be **eratara** ipini beharrean, **iruntzitara** edo **atzekoz aurre** ipintzen dogu eta ez **al reves.**

Badaukagu ordea hitz berezi bereziak, adibidez uretan ibiltzea guztatzen jakonari, **ur-arratoie,** **ur-txoridse** edo **izurdie** dala eta ez jakonari guztatzen **ur-merke,** **ur-karo** edo **uren-iso** dala.

Baie benetan penie izango litzatekena, geure geureak diran **kikunbera** edo **kikumera** (uretara buruz bera botatzea) eta **hondokarridse** (uretan, batek besteari ondora botatzea), erderatik datozen **"de cabeza"** eta **"aguadilla"**gaitik galtzea.



hondokárridse

kikunbéra

frakarròiek

Azkenez, udan gehien erabiltzen diran **frakarroiek**, belarrira oso txarto joten dauan **"traje de bañue"**gaitik galtzeko arriskuak, benetan berotu egiten nau.
Hori dala ta gizonenari **frakarroiek** deitzen badeutsagu , andrenari **ur-jantzidse** edo beste hau proposatuko neuke, **ur-erropie**, uste dotelako zoridsoneko **"traje de bañue"** baño hobeto dagola.

Hala ere, txarto edo ondo, garrantzitsuena euskeraz egitea da. Aipatutako akatsak gure belarriei miñ egiten badeutsie, miñ gehiago egiten deutsie arrotasun guztiaz erdera hutsean egiten dabenak.

Kontuz ba eguzkiaren indarrak gure azala kiskildú barik ta euskera ez egiteak arpidse gorritsu barik, azken honentzat ez dagoalako pomadarik .

"Gure azalak ez badau behar **minbizirik**, gure euskeraren osasunak, bai behar dauela **miñ bizia**" (mihin bizia).

Ezetz igarri

Etxetik basora muturik, basuen barritz ezin egon isilik. Badakizu edo popitas ?.

Popitas ?

Olgetan

Oraingo umeek euren ikasketak dirala ta, ez dabe olgetarako denpora askorik izaten, eurak ikasi eta ikasi egiten daben artean, lehen olge ta olge egiten gendun, eta noizik peiñien zeozer ikasi. Hori dala ta, neure ta ariñauko gazte denporako olgetak gogoratzeko, bilaketa bat egin ondoren, geure burue piska bat gaztetuteko aukera izango dogu.

Olgeta izenak ez dagoz sailkatuta urteen arabera, alfabetikoki agertzen dira, horrela lehenengoa seme alabentzat ezaguna bada, behar bada urrengoa gurasoentzat izango da.

OLGETAN KANTIE > **ENTZUN**

Altori-altoka ("tatari bat, tatari bi, tatariru !"), **alturitas, al burro segidoka, amaka, andaka, andra-andraka, arre lepoka, bale-baleka, bapíruke, birinbolaka, bitsik galdu barik, botxoka, denderaka, dienteka, dos para kuatroka, erretratoka, eta bat bi , ganganera etxatie, goitxik ala betik, goitxiberakaz edo karrikotxeberakaz, huts ala bet, itsuke, kíkuke, kromoka, jjangaka, kanikeka, kankinkabaraka, karneka, koiso plaka, kon-konka, kortxoka, la tirada una chiquita, lautik eta pausoka, márroka, ministros y ladrones, ostu-ostuke, pañuelitoka, pepiñoka, pillotxoka, pizkázurreka, putxitxi-bertonka, siri-sirike, tabaka, takoike, tangarritoka, tronpaka, txapaka, txikotera, txise ormara, un, dos, tres , kalaba, uzti-uztike edo txirinjjolaka.**

Aratustietan, ohitura egoan gazteek batez be mutilak marro janztea, hau da, amaren edo amuman erropakaz, kaltzerdiekaz aurpegia tapa eta beste kaltzerdi baten barruan trapuak edo gauza gogorragoak sartu eta neskei edo umeei jotzea. Ume txikiek urrunetik burlaka, "**Marro kaka marro ¡!" .**

Trónpaka

Txápaka

Futbol partidu pilloa egiten zan Frantxun Atxetan, Campsan eta baita kaleetan ere, horretarako baloia eta lau jerse bakarrik behar ziralako, partiduak lotu lotuke jokatzen ziran, nagusiak zelai erdi erditik pasatzen ziralako noski. Berandu etorri ezkero, partiduan sartzeko, "*trankoak*" egin behar izaten ziran beste batzuk, zein taldegaz jokatu erabakitzeko.
Olgetako tresnak be eskuz egindakoak izaten ziran, esate baterako; tiragomak, karrikotxeberak, txapak kristalez tapatutako irudiakaz, eta abar. Baña irribarrez gogoratzen dodanak, artogárauek botateko, erropak eskeitzeko gantxukaz egindako pistolek.

Tiragómie

Karrikotxebérie

Pistólie

Jokatzerakoan, txarrenari **epelena** deitzen jakon eta erregatieri, **burdikadie**, nahiz eta hau futboletik kanpo be erabiltzen zan. Adibidez, abaderen bat gazteren bat harrapatzeko asmoz, eta gaztiek burdikadie egin da eskapa dauela esateko.

Pelotaka, **zeiñek geidsen**, **kalera etxaten**, **geroko tanto**, **erdi bana** edo **eskue amonda** egiteko, Elizpeetara joaten ginan, baña debekatute egozanez, frontoire. Nok ez tau gogoratuten Lurdes eta Jonen esponjazko pelotak edo golpien porasuz formak galdutako palak, euren laranjazko limonadie edo polboroiek, baita frontoi txikiko posuak eta hormako zuloa, bertatik pelotak Santa Eufemiara joaten jakuzan eta.

Olgeta saioak, gure etxebizitzetatik urre egiten ziran, kaleak ia ia auzoak bait ziran, oso gitxi mobitzen giñen (ikuek eta sagarrak atrapateko, domekatan hiruretako pelikulie ikusteko edo beste auzo baten aurka futbol partidua "kontra" egiteko bakarrik) .

Etxerako ordue allega ezkero, amak lehiotik bertatik deitzen edo hobeto esanda aldarrikatzen euskun **"Juleeeeeeeeennnnnnn, ala etxeraaa, berandu da taa! "**, Bermioko andrak bakarrik dakiten moduen, luze ta doiñua gero eta gehiago altxatuz. Dei horreri gaur egungo umeek emoten daben erantzun bardiña emoten gendun geuk bere **"Itxaron apur bet ama!".**

Atxiñen be ibiltzen ziran andaka, ikusi daigun saltakeran eurek esaten ebenak.

"A la una, anda la mula, a las dos, salta y tira una coz, a las tres, Juan, Perico y Andres, a las cuatro, San Ignacio con los bombos, a las cinco, un buen brinco sin tocar, a las seis, cosquillas con los pies, a las siete, con los dos, a las ocho, pan, vino y bizcocho, a las nueve, empina la bota y bebe, a las diez, carrera ó salivita, a las once, el rio crece, a las doce, el demonio te conoce."

Irakurri ondoren, pentsatekoa da makurtuta egoanak, zelakoak jasan behar izaten eban.

Bata batek, **Bale !** (ondo dago) esaten deuskuncan- **Bale-baleka ibiltzeko edaderik ez taku guk !, Bale-báleka ta bapíruke !** edo antzekoagaz erantzuten dogu, hitz jokoak eginez.

Frutuen hazurrei **pizkázurre** esaten jake. Antzinan mutillek, albarikokeen hazurrekaz olgetan ibiltzen giñan. Kaleetan, kolarren aurrean egoten ziran zulotxoeta, hatzamarrekaz bota eta sartzen zan jokoa. Pizkázurre behengainean gasta, zulotxoa egin ta hazidse kenduta, txístue egiteko erabiltzen gendun.

Karneka edo txikotagaz olgetako kanta bat ;

"Juan tonto, aitxe non dakozu ?, soluen, soluen zer eitzen ?, artue eraitzen, artue zetako ?, ogidse eitzeko, ogidse zetako ?, jateko, jan zetako ?, kaka eitzeko "

Koíxo pla

Tábak



Bapíruke

Úztidse

Antzinan neskak lurren zulotxoa egin, bertan kromotxoak edo lorak (gehienetan) sartu, eta gainean kristal zati bat jartzen eben. Gero sarritan, ahaztu be egien jaken non egin eben euren zulotxoa **"errekuerdue"**, hori bait zan egindakoaren izena.

Antzinan uger egitea be olgetan egitea zan. Modu askotara olgeten zan moilean edo hondartzan; **Uger, luzien, plastataraka** (saltoka plast), **bitzik ez galtziera, kikimeraka** (kikunbera), **zeiñek zorrótzen** (buruz bitzik atara barik), **saltaka, diruek atrapaten**,.....

Hermanutako futbol zelaian, 1965. Urtean

Ezetz igarri

Popitas ?

AIZKORIE

Amuma olgetan

Oraingo honetan, gure amumek txikota eraitzen edo karneka olgetako aintziñako kanta batzuk ikusiko doguz. Gaur egungo kanta batzuk ganora bakuek badira ere, lehengo batzuk ere ez dira beste mundukuek.

La sirena, la sirena
La sirenita del mar
Anda buscando una niña
Que se ha perdido en la mar
la niña ha aparecido
sentadita entre la arena
Con una gota de sangre
Y su corazón herida

.. pentsa dot Kofradikue dala
. ta Gurutz-gorrikuek oporratan
...Non egon zara ba alabátxi
.... Hori ezanda dana
....ez tona horrenbesterako

a , Margarita en coche va
e , Porque no sabe leer
i , Porque no sabe escribir
o , Porque su novio la dejo
u , Porque yo se más que tu

..... ez ta makala
..... zer ?
..... zer ?
. badakizu zer egin kotxie okitzeko
.... a,e,i,o,u gitxienez badaki

a,e,i,o,u, la Chile Tenple se riza el pelo,
para que Popeye le de dinero,
txur txur amen Jesus.

.... Shirley Temple guaparik
..... espinakak erosteko e !
..... Aitxiaren ein orduko agur diruek

Un don din, palillos va,
kantzontzillos guiri gui,
kokleta mas kokleta,
kokleta pabellon,
los niños en la Habana,
porron pon pon,
Fran chulete, Pedro Lete,
vamos a Portugalete
a comer pan frances,
italiano, ingles
edo baita
vamos a la escuela
a aprender la lección
en frantzes la dotrina guiri gui

..... alabátxi zer diñozu ?
.... ño tangakaz eurek e !
..... pues dos kokletas
..... kokletan fabrikie
.....Fidel Castrogaz olgetan
..... ta Manolo Escobarregaz
.... zelako parie ....
.... ze eitzen ?
..... a pentsa dot pa !
..... hemen ogi baltza egoalako

.... dotriñie frantzezez ta geografia latinez,halako enpatxorik

Amuma, zuen kanta zar batzuei, **ETXA GATZAAAA !**

Ezetz igarri

Pertsona baltz bat, gure atzetik tipi-tapa, gu atrapa gurien ta ezin atrapa. Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?**

Bermiotarrak Dakarren 1962-3an

Amuma ta atxitxe barrakatan

Andra Maidsetan amuma-atxitxek egunero entzuten dabe **amuma, atxitxe barrakatara !** . Ta lobatxue zaldi ganien ipini ta gero, eureei be beste gogorapen batzuk etorten jakez, euren denporako barrakak.

Gaur egungo nagusiak ondo pasaten dabe, denpora hareetako gertakizunak kontaten hasten diranean. Ikusi daigun zelako atrakzioak izaten ebezan orduko barrakatan.

DURO CON EL NEGRO - Gizon bat bere arpegia lustrigaz baltzitxute ta buruen bonbiñe edo kopazko sonbrerugaz, sare baten atzean jartzen zan. Bere burua kíkuke saretik gora ta behera egoten zan, jendeak marra baten atzetik bolak jaurtitzen eutsiezalarik ea nork sonbrerue bota. Zemat pelotazo hartun behar izaten ebazan gizonak baie, eta gure nagusiek "formalak" ziralako, sarritan tomateak eta iñoiz harriak ere botaten eutsiezan.

Bere beste ikuskizuna, fakirren lanak egitea zan, hau da sudurretik untzek sartzie eta kristelak zapaldutie. Berak esaten eban **" Yo trabajo por amor al arte"** edo **" Yo trago hasta la bomba atomica"**, laguntzaile bat izaten ebalarik dirua batzeko, bere berben atzetik "Es verdad, es verdad" esaten ebana.

JALISCO - Honen atrakzioa bere ruleta zan. Bere ruleta inguruan untzekaz bananduta eukiten ebazan sariak. Ruletak bueltak emon bai baña sari onenak iñoiz ezin hartu, untzek batzuk barrurago eukitzen ebalako. Bere eslogana **" Jalisco come poco pero anda listo"** zan, baña norbaitek saria lortzen ebanean **"Como le arruinan al pobre Jalisco"** aldarrikatzen eban. Diñoe bere agoan beti erabiltzen ebala tabako gordiñe, behar bada jendeak atzez egiteko ta ruletako trukoak ez ikusteko.

EVARISTO - Gizon hau barrakatako herritar bakarra zan. Denda ambulantea zan, bere kaja barruan metxak, aidsubetak, bizarlabañek eta abar eukitzen ebazan, bere eslogana **"Evaristo come misto"** zalarik.

TRINI - TRINI eta KUMEK - Trini Trini katedun barrakea zan eta bere izena sasoi haretako kanta bat, argi dago barraka horretan ez ebiela beste kantarik ipintzen. Herriko jenteak musika bardinaz, honela kantaten ebien **"Ay trini, trini, trini que guapa es usted, ay Trini, Trini, Trini neskazar es usted".**

Kumek aldiz, gaur egungo noria txiki batelakoak ziran, baña makiñe bakuek, gizonak bere indar guztiekaz martxan ipintzen eban eta gero eskeitze ibiltzen zan indar gehiago emoteko. Jesar lekuek, kume antzekoak ziran eta kolunpidsue lez alde batekuen pisue besteenagaz konpensateko, arezko sakuek ipintzen ebazan beste jesar lekuan.

TONBOLAKO MONUE - Tonbola ondora jentea erakartzeko, atrakzio modura mono bat ekarten ebien. Jenteak abellanak eta zigarroak emoten eutsiezan, bertako nagusiak **" El mono que fuma"** aldarrikatzen ebalako. Baie kendu jakon betiko fumeteko gogoa, gaur egun atxitxe formala dan batek, zigarro barruan fuetatako petardue sartu eutsonien. Orain lobiri **" Formal ibilli bidsotza"** esatean, behar bada barrotik **"Ez ibilli zure atxitxen mendukaz"** pentsako dau.

Esakerek be badiñoskue, **" Len be ta orain be, imiek ime", "Imiek leko guztidsetan ime"** edo **"Imieri emoten batsazu kordela luze, harek eingotsu edozer gauze".**

Ezetz igarri

Popitas ?

GERIZIE

Futboleko herri kantak

Oraingo abestiek, gure herriko futbol taldearen garaipenak eta beste hainbeste kontakizunak dakarzkigu. Zoritxarrez abestiak, aintzinakoak izan arren, dan danak erderaz dira. Sasoi baten, Bermiok ez eban futbol zelairik, orduan Bakioko zelairen baten jokatzen eban. Kanpora joateko taldea animatzen, jendea Pereira esnedunen kamionetien joaten zan, ondorengo kantak abestuz.

.....

Si vas a Bakio, alli veras, a Rodolfo y a su hermano, atxurregaz soluan, arrima, arrima txato, arrima txato al balón, que Rodolfo lo prepara, que Rodolfo lo prepara, para que Iñaki meta gol

.....

Aupa Bermeo, tú eres el amo, jugando al futbol con gran tesón, , camisa roja pantalón blanco, demuestran furia y juventud, tiene un conjunto inigualable, con su defensa que es la mejor, jugando al futbol no hay quien le gane, metiendo goles es el mejor, Aiba, aiba, aiba Bermeo jugara, aiba, aiba, aiba Bermeo ganara

.....

Con botas ó sin botas, Bermeo jugara, aunque no tenga campo, buen detalle dara si alguno se lesiona, pronto le atenderá, Karmelito con su bolso, masajista original Aile, aile, aile, aile....., aile, aile, Bermeo campeón

.....

El dia todos los Santos, el pueblo entero salió, al encuentro del Juventus, con su equipo ejemplar (baita **el león), pero ellos siempre miedosos, al ver al gentio llegar, cierran las puertas del campo, y no nos dejan entrar**

Estribilloa din - dan, din – dan, los litris donde estarán, din - dan, din – dan, escondiditos están, din - dan, din – dan, los leones aquí están, din - dan, din – dan, los leones vencerán

.....

Botak

baloie



Endikan gola

Atsa ta usiñe



Usintxuri !

Usiñe danori gustaten jaku, atsa aldiz iñori bez, baie guk hala ta guztiz be, **izerdi atsa hartu ta usiñe bota** egiten dogu. Atsari buruzko esakera batzuk " gogortsuak" badira ere, geure geureak dira eta gehienetan barregarriak ganera.
Hasteko esakera polit bat, **"larrosak eta krabeliñek usin eitzeko, ta neska mutillek alkarregaz ibiltzeko"**. Urrengoa ez hain gozoa baie errimaz egindakoa ta asko erabilia da, **"Kakak tako atsa, bera dalakon baltza".** Tximinoien saltxie be baltza da baie ondo usin gosue dako.

Atsa ta usiñe adierazteko, gure herrian **sundie** berbie be badaukagu. Sundie berbie bakarrik diñogunean zeozeren atsa dago, aldiz **garbi sundie** badiñogu, usin gosue edo garbi itxuraren señalie .
Kamaratan edo loidsetan, gauzak denpora luzean hartzen daben atsari, **on sundie** (egon sundie) esaten jako, esaterakoan, usain onagaz nahastatzeko modukoa bada ere.

Zeozer atsagaz edo tufugaz dagoala adierazteko, **atsitsute** dagoala diñogu, orduan **Puf atsari !, atsa dau askatan, atsa dau trasbal, atsa dau aupe, atsa dau apestakalle !,** edo antzekoak esaten dogularik.
Arnasie esateko, **artie** be esaten dogu, adibidez **"Atsan atsagaz, arterik pe ezin hartu"** esanez.
Gure baporatan erabiltzen dan , **Zelako saídse atsa dau baie !** ere esaten dogu. **Saídsie = kálie = sentíñie**, ontziaren behekaldea, neberako odolak, oridsuek, eta abar joaten diran tokia. Batelaren behekaldeko armazoia.

Okindegi aurretik pasatzerakoan edo tellapekoen bazkaria usaintzen dogunean, **Ño ,usintxuri !, usin gozotsuri !** , beste batzuetan erre atsa, **"Onduek agarratso"** edo **"Jun datso esnie"** esaten dogularik.

Atsak ta usiñek, bidsek surretik, baie ez bardiñek

Usiñe eta atsa, usaimena ez ezik, egoeren edo pertsonen konfidantza adierazteko ere erabiltzen dogu, adibidez, **Zuk takozu atsa !**- (Zer

dakastak !) edo **Usin txarra dako horrek !** (ez naiz fidatzen). Sasoien itxura bera ere usiñe da, **"Bai atara kafe bat, domekien usiñe emoteko be ".**
Norbaitek esaten dauanean **Ezebez !** besteak hitz jokoaz eta usaimenaren neurria kontutan izanik, esakera bitxi batez **Ezebez dala, bedar usiñe !** erantzuten deutso.

Oidseletako umeek sarritan, **garratz usiñe** (gorazkadie botata) eta **leixibie eindse soñien dagoanenan, txise sundie, erre usiñe, kikiriki usiñe** edo **kikiriki sundie** izango dau. Gauzen **erre atsa** edo **lotu atsa** beste modu batera esateko, **kikiriki atsa** ere erabiltzen da. Nagusien agoko atsari **aupatsa**, beste batzuetan **arrotza ustelan atsa** ere izaten dogularik.
Pertsonaren bat garbi eta usain gosoaz dagoanean, **perrotxikulez** dagoala diñogu. Batez ere emakumezkoek, umea edo senarragaitik guapo-guapo kalera botaten dabenean esaten dabe.

Igarkizun modura eta umeei adarra joteko, nagusiek umearen bekokian, ukubilkadatxuak ate joka moduan joten ebien, gero ukubilla usainduz, esanez **"Bakitz zer janzun !**, umeak orduan **Zer jan dot ?** galdetzen ebalarik. Nagusiak pentsakor, **Zuk jan zu ……, eta bekokia barriro jo,** adibidez **Arrotzie !** erantzuten eban, umea orduan zurtute geratzen zalarik. Nagusiek noski backian aurretiaz umeak zer jan eban. Umea oso urduri jartzen zan, amak txokolatie jan ebala igarriko ete eutson ikaraz. .

Emilio Uribarri "Mamala" salauen kantiek, " **Bermeo tiene dos cosas que no las tiene Madrid, el famoso manicomio y el retrete del portal"** esaten eban. Portaleko kumunegaz gogoratzen diranak, **"Jo atsak eta atzez", "Jo atsak eta nokau"** edo antzekoak esango dabe.
Badago beste esakera bat, atsa eta Madrille alkartzen dauzana, **"Mas vale el atsa del Artza, que todo Madrid"**. Gaur egun be, politikan Madrilentzat atsa dana, guretzat usiñe, ta Madriletik datorren usiñe, guretzat atsa.

puf atsari !

Barreka zatitsu

Egun batean Artza inguruan kanpotar batzuk egozan, eta tunelan goikaldean herritar talde bat jezarrita egoala ikusirik, bertatik pasatu zan pertsona bateri galdetu eutsien, **Oiga, que hacen esas personas ahi sentadas, con el olor que hay ?.** Herritarrak seriotasun guztiaz, zera erantzun eutsien, **Estan porque les ha dicho el medico que es bueno para los bronquios** eta arpeidse mobidu barik, aurrera jarraitu eban. Gure artean be, beti esan dogu Artzako atsa "beste errekadue" osatuteko dala ona. Zoritzarrez hau ere txantxetan esaten dogu, hobalekizu halan ezan balekide.

Amaitzeko, usaina eta pikareska lotzen daben kontakizun bi.

Zarrak gazteari itsuaren txistea. Portuan itsu bat egoan, beran aurretik makailoz beteriko kamioi bat pasa zalan, ta itsuak orduan, **Adios guapa !** esan eutson. Gaztea zurtute geratu zan, ea itsuak zelan jakin eban nor zan kamioi gidalaria.

Gazteak nagusiari igarkizuna- **Zer da gorridse, beti bustitze ta arrain atsa dakona ?** - Nagusiek barre, baie erantzun ez. Gazteak orduan barreka - **Kustoken txapela !** (Cousteau, Calypso itsasontzian, itsasoko bizia aztertu eban gizon jakintsua.).

Kasu bietan, biek pentsatu ebien alkar, **" Zelako kokolue da baie".**

Ezetz igarri

Umetan zuri, gaztetan gorri ta zahartzaruen baltza, barrue gozo-gozue baie eperdidse latza. Badakizu edo popitas ?. Popitas ?

Markesaren seme kantie > ENTZUN

Gabonak



Gizarte guztietan, urtea amaitzen danean, gizakiok egindakoaren balantzea egiten dogu eta baita hurrengo urterako aurten egindakoak hobetzeko asmoak, nahiz eta gero, urte guztiak antzekoak izan, bisiestoa ez badan.

Gabonan usaina, kaleetako argiekaz eta dendetako eskaparateekaz hasten da, eta gero Kontzeziño **(Gabon txiki)** eguneko janariak, zenbat lodituko garan gogorarazten deusku.
Dispentzie betetean dardakadan jartzen bagara (**aginaldoak** ahaztu dira), Gabonetako loteriak, partikerie **blankito sereno** izten deusku.

Abenduak 23an edo "**osasunen egunean**", sariak ikusterakoan, gehienez **diruc-atzera** izaten dogu eta askotan kobratu barik, Erregeetarako **ordié** emoten deuskue. Egun horreetan kaleetan, honelakoak entzuten doguz: **Urten tsu loteridsek ela ?** edo **urten dosku le ?** , erantzuna gehienetan **bai partikeratik** ! izaten dalarik. Baita, **Egonda suertarik ela ?** , entzutean **suerte de potro, tener marido y dormir con otro!** erantzuna. Zeozertxu edo zepaitxe izan badogu, **arrikadatxu bet** edo **ikututxu bet** euki dogula esaten dogu.

Laster Gabonak, datorren urtien danak onak

Gabonak eta Olantzerue etorten diranean, gure artean normalean, **Zoridsonak, Ondo egin !, Bai bardin**, esaten dogu, edo honelako galderak; **Non eitzen zuie ba ?** edo **Non zauzie ba ?,** eta erantzunak, **Gabonak amanien ta Gabon zaharrak geurien**, edo antzekoak.

Gabon afarian, karakolak, intxaur-saltsa eta beste enpadu guztiak jan aurretik, etxe askotan, amumak ogia ebai, bedeinkatu eta zati bat mantel azpian sartzen dau. Afaria amaitzen danean, ogia hurrengo Gabonetararte gordetzen daualarik. Hurrengo urtean, lobak, ogia ataratzean urdindsu barik ikustean, harrituta geratzen dira. **Gabonak diraz eta**, abestuz, aintzinako ipuinak kontatu eta atxitxe be erdi mikugaz.

Antzinan, ogi bedeinkatuak bacukan beste erabilera bat. Baserrira hurbiltzen bazan txakur amurruturen bat, ogi hau emoten jakon jaten, amurrua kentzeko. Iñoiz gertatu da, txakur amurrutue, etxeko txakurregaz peilekan hastea, eta etxeko txakurra be amurrututa geratzea eta hil beharra.

Gabon zahar egunean, afaitzera joan aurretik, **Urte barri on, ondo amaitsu, ondo hasi, ta aurrek gauze guztidsek, ondo amaitsu ta hobeto hasi, zorionak eta aurrek gauze danak, ondo egin , bai bardin,** edo antzekoak esaten doguz. Afaria amaitu, zeozertxu edan, **Urte barri, barri, txarri belarri**, abestu ta konturatu orduko, gazteek joan dira kalera. Briskara karta-jokuen egin eta danok ohera. Urte Barri egunean, óstie edo astelehena kentzeko, saldie hartu eta eski jauziak ikusi ta mahaira, **ondakiñek** jatera.

Urte barri on bai bardin.

Esakera – **"Urte barri, soruek pe igarri"** . Hori behintzat badakie.



Gaur egun etxea apaintzeko plastikozko arbolak jartzen badira, antzinan pinuak eta **goróztidsek** be jartzen ziran.

Gabonetan geratu jakuzan diru apurrek, Niñuek edo Erregitako loteridsek daroaz. Errege egune edo **hiru erregietan, antzeko paresido**. Bezperan, kabalgatie ta lagunekaz afaria. Bidsamo goizean, **Trapatan trapatan hiru Errege**,...onak izan diranentzat moku zapiak eta txarrak izan diranentzat iketza. Jan da lo.

Olantzero eta Hiru-Errege gauak, umeentzat urteko gauerik laburrenak eta ilusio handienekoak dira. Oinetakoak garbi-garbi jarri oparien itxaropenez, ta kinito kopa bat esker onez, opari ekarleentzat.

Sasoie ezan da eurok egunek amaitsuteko, ta porrusaldatsue jateko.

Urtarrila aldatz-gora etorten da beti eta nahiz eta merkealdiak izan, beharbada irabazi doguzan kiloegaitik edo, gogor egiten jaku gainditzea. Hurrengo egun edo hileetan, oraindik ez dakigu ze urtetan gagozan, hainbat paper apurtzen bait dogu urtea txarto idatzi dogulako.

Egun gitxi barru, Aste Santuaren pentsamentuan hasten gara, eta beti bardin, "Datorren urtien itzikot fumétie", eta antzeko promesakaz, beti betiko upinekaz. Gabonetan izan doguzan asmoak, hurrengo Gabonetararte itxaron beharko dabe. Ni behintzat, ziur nago erretzea itziko dodala, zigarroak berak izten nauenean.

Sabela beteteko eta sakela hutsitsuteko onak, Gabonak

Gabonak, danontzat bez onak,
batzuntzat frakak, bestientzat gonak
ta zeztientzat, zulodun pantalonak

.....

GABON KANTAK

Gabonak diraz eta.....
Agur Maria graziaz betia.....
Belengo portalian ...
Hator hator mutilla etxera.....
Iñuzennnté .....
Urte Barri Barri.....
Trakatatran Hiru Errege...
Erregiak datoz....

Ezetz igarri

Popitas ?

MASUSTIÉ

Geure berbakerie

- Amatxu, aitxetxu
- Umeei
- Txu
- Olatuek ekarrikuek
- Silaba bakarrekoak
- Hika
- Halan edo holan
- Zarata berbak
- Erderatik
- Erositako berbak
- Errepikamenak
- Agurrak eta deiak
- Erantzunak
- Konparaketak
- Nasteborrastie

Amatxu, aitxetxu

Encko Barrutiak, bere "Berba normalak (1)" artikuluan , **AMATXU** eta **AITXETXU** ren erabilpena dala ta esandakoak, artikulu hau idaztera bultzatu nau.
Berak esan dauan bezela, Bermion amuma eta atxitxe esateaz gain, amatxu eta aitxetxu ere esaten dogu. Bai baina nok eta nortzuri? .
Gaur egungo Bermion, erabilten dogun euskera bateratsua bada ere, ez da aintziña aintziñara joan behar, Bermioko auzo edo toki ezberdinetan (portutik eta lamera mandara ere, ezberdintasunak egoten ziran), euskera ezberdinak egiten zirala konturatzeko.
Lehen aipatutako hitz horreek, portu mandakoek bakarrik erabiltzen ebezan.
Baña nortzuri? Ez dago erabilpen bakar bat. Batzuk, etxean bizitzen ziran/diran amuma-atxitxei, beste batzuk amaren gurasoei eta beste batzuk, "amatxu" amaren amari eta "aitxetu" aitaren aitari . Nok diño, Bermiotarrak ez garala bereziak?

ALABATXU i i i i i i i i i

Lehengo gaiak, beste berba berezi baten azterketa egitera eroaten nau.
Aspaldidanik izan dot aztergai hitz hau, **ALABÁTXI**. Hori bai ez dala ez Txorierri, ez Arratian entzuten (Batxi izenekoari animoak emoteko ez bada).
Baina nondik atara dogu Bermiotarrok **ALABÁTXI** hitza. Hona hemen nire eritzia. Lehenengo eta behin esan behar dot, nire eritzi hau, nire laguna dan Joseba Egañak esandakoaren arabera jorratua dala.
Berba hau ere portu mandan eta andra artean jaioa da. Ez dogu azterketa sakonik egin behar, gure herriko andren berezitasuna azaltzeko.
Joseba gaztetxoa zala (1945 inguruan), portu mandako andrak eta euren artean alkarri deitzeko, lehiaketa modura, "kantuz" esaten ebezan euren esatekoak, ea nork grazi gehiagogaz. Hobeto entzuteko, bokal grabeekaz (U) amaitzen ziran dei guztiek, Frantziar hizkuntzaren eraginez, beste bokal agudo bategaz (I) amaitzen ebezan.

Teoria hau jarraituz, erraza egingo jaku ulertzea, andra batek beste bateri deitzeko **ALABATXU** esan beharrean, **ALABATXUI** esaten ebala, bokal hori aldarria luzatzeko lagungarriagoa zalako. Oraindik indar gehiago hartzen dau teori honek, **ENTZUNZU** aldarrikatzeko, **ENTZUNZUI** edo **ZER DIÑOZU** esateko, **ZER DIÑOZUI** eta abar esaten zala entzuterakoan.
ALABATXUI erabili eta erabiliaz, **ALABÁTXI** edo **ALATXI**n geratu zan.
Jakin daigun ba Bermiotarrok, geure geurea dan **ALABATXI** berbea esan edo entzuterakoan, gure portuko andren grazi edo saleroari esker dogula.

APAMAPARIPI KENPENDUPU

Hasieran Peruko mendiren baten izena badirudi ere, lasai Bermion entzundakoa dalako.
Sasoi haretako beste bitxikeri bat. Kasu honetan mutil gazteek, euren deiek gurasoek ez ulertzeko, martingala bat asmatu eben.
Euren deietako hitz guztien silebei, "p" kontsonantea (edo besteren bat, koadrilaren arabera) sartzen eutsien bokal beraren laguntzaz, horrela "esperanto" antzeko zerbait lortuaz. Adibidez:

Etorri goiko kalera ! esateko, **Epetoporripi gopoipikopo kapaleperapa**
Ekarri erramue ! esateko, **Epekaparripi eperrapamupuepe**
Jose badator gero! esateko, **Joposepe bapadapatorpor geperopo**
Amari kendu ! esateko, **Apamaparipi kenpendupu**

Baina kuriosoena, hitz honeek esateko hartu eben trebetasuna izan zan, oraindik sasoi haretako batzuk oso azkar egiten dabe era honetara esaldiak.
Oraingo gazteek, euren gauzetaz berba edo deitzeko eta gurasoek ez jakiteko, ez daukie beharrizan hori, telefonoz hitz egiten dabelako.

Taraska kantie > ENTZUN

Txu, txu, txu gozotasunaren trena

Txakurrak "uau" eta katuak "miau" egiten daben bezala, trenak "txu,txu,txu" egiten dauela ez dago esan beharrik, baña artikulu honen bitartez esan gura dodana, azken geltoki honetan, trenak utzi deuskun "txu,txu,txu" beste erabilera bat dela.

Euskeraz, pertsonen edo gauzen txikitasuna, gozotasuna edo hurbiltasuna adierazteko, "txo" (Bermion "txu") erabiltzen da, adibidez, txoritxoa/txue, umetxoa/txue, ondotxoan-albotxuen.

Gure herrian "txu" atzizkiaren erabilera oso zabaldua eta sustraitua dago, ikusi bestela adibide batzuk.

.....

Zelako etxetxue dakoie baie ! - Ta igual 200 metroko etxie

Erropatxu bet erosi bidot - Goidse joteko andrie izan arren

Auntxek jango lekidot txuletatxu bet ! - Bardindse killokue badan be

Arantzkotxu bet eindse baguez etxera - Atsuek lameran pasitan

Sastartxuek erungozuz bidsotza ? - Zeozer eskatzeko gozoa izan behar

Hauri kajatxue mesedez ! - Laguntza eskatzeko

Geure gozotxue, hauri atetxue itxi, korrientie dau eta. - Ez ta karbonerako atie izanda be atetxue ezateko

Ogitxuek ekarri laztana. - Ogi handidsek izan arren

Ai eguzkidsen gozotasuntxue. - Ta igual kiskildú

Kanpotxuen ongo gara ! - Ta igual leko pillo bat

Geuzétxu bet ! - Ta igual gero berbetan lotu bez

Ai amatxue ! edo **Jaingoikotxue !** - Suspirue

Seme bi dakoz alkarren atxekotxuek . - Ta igual bat bost urte zarraue

Urtetxuek diez - Ta igual hogei urte pasa dira.

Leiretxu, itzi hau loratxue bentanien albotxuen mesedez.

- **Zeratxu, zer eindsatso zure lobatxuri Aritzatxun ba ?**
- **Ezebez, sakakadatxue emontsoie, ta bekokitxuen arraskadatxue egin dau.**

Amaitzeko, beste herrietan **"A ze eguraldia"**, **"Ze egualdi ederra"**, **"Egualdi ederra gero e"**, esan beharrean, Bermion **"Egualditxuri !"**, eguraldia bera ere gozotasunez tratatuz.

Orain argi egongo da, trenak azken geltoki honetan besteetan baño gozotasun gehiago utzi deuskula ez ta ?.

Etxetxuri !

Loratxuri !

Ezetz igarri

Popitas ?

ERRÉKIE

Umeei

Bermiotarrok, eta batez be Bermioko andrek oso ume zaleak dira, hori baieztatzeko euren gozotasune ikustea besterik ez dago. Ikusi daiguzan umeengana zuzentzerakoan erabiltzen doguzan berba batzuk.

AGUN-AGUN - Bigun

AISISEN - Pasitan

AKUN-AKUN edo **UKUN-UKUN** -Ume txikiei euren modura berba egiteko.

AUPA edo **APA** - Altxatzeko

BIBA - Jateko euki dauan dana jan dauanean

FU - Sua edo berogailuari, umeak ikutu ez dadin

GÉRO ! - Agirika egiteko

KAKÁ - Jateko ez dan gauza bat umeak ahora daroanean.

KAKATI- POPA KAKA edo **KAKA USIN** - Kaka eginda dauanari.

KALE , AISISEN edo **TAN-TAN-** Kalera goazela esateko.

KIS-KIS – Ulea ebaitzeari

KOKO - Gauze gosoari-

KUSUN Jatean edo edatean, umea botaka hasten danean, okerreko samatik joan jakolako.

LOLO edo **LOLITO** - Lotara joateko

MAMÁ - Ura edo esnea edateari

MAMAUE - Ikaratuteko zerbaiti - "Mamaue etorko da gero !

MAÑEK - Negarrak

MISINA - Katuari

Mañek eitzen
Nok eintso imiri ?

Paaa, nebatxuri

PA Mosue emon. "Bota pa !"

PAPÁ - Ogia sopata

PIO-PIO - Txoriari

PIPIE edo **PIPINA** - Txupeteari . "Pipe kaka", pipea larrei gustatzen zaionari

PITXI edo **PITXIA** Erropa, jostailu edo beste gustoko gauzei

PITXIN - Umearen izena ez dakienak, umeari deitzeko modua

POPO – Kotxeari

PUN edo **PUNBALA** - Norbait edo zerbait jauzten danenan

PURRUST - Uzkerrari

TAKA-TAKA – Ibiltzea

TAN-TAN - Kalera

TAS-TAS - jotzea

TILIN-TALAN - Kolunpioari

TINBRIE - Tripeko zilleri

TXAGINTXUEK - Hagiñek

TXETXITA edo **TXETXITO** - Beste umeei

TXITXI - Jatekue

TXINTXIN - Diruari

TXISETI- TXILINO KAKA edo **TXISE USIN** - Txise eginda dauanari

TXETXE – Ume txikidse edo muñekie

TXETXITA/O – Beste umeak

TXUTXU - Trenari

UAU-UAU - Txakurrari

UFALA - Baiñura edo uretara joateko

Úfala !

Umeren bat negar da negar dagoenean, amak zera esaten deutso, "**Egin negar, tripeko zille zarratute dakozu te**".

Batzutan, umei "**Neure ondasune**", "**Neure bidsotza**" , "**Geure gosue**" , "**Geure masustie**", **"Geure Txirloratsue"** eta abar, eta beste batzuetan "**Ime lupue**",**"Masitsu eingo zaitxut"** edo "**Txitxumarka eingo tsut**" edo "**Ama perrien imie**" esaten deutseguz. Umea negarrez dagoanean, "**Ze ein jatso gure imiri ?**" edo "**Nok eintso imiri ?**" galdetzen deutsagu.

Umea ederra danean, **tronbolintxue**, **bete-betie**, **boldrotxue**, **mardo-mardotxue**, **sakutotxue**, **atun-biribiltxue**, **papusiotxue**, eta abar dala diñotsagu.

Kokotan edo lepoan darogunean umea, "**arrekokosillo**" edo "**arrelepo**" daroagula diñogu.

Umeak txaloa joteko **"Txalo pintxalo, txalito txalo, astotxua mispiltxuan ganian dago"** abestia erabiltzen dogu.

𝄞

Jolasteko orduan **"Izaskun bat, Izaskun bi, Izaskuntzako pastel handi bi"** kantatzen dogu eta barre egiteko, besteren baten izena ipiniaz **"Osaba bat, Osaba bi, Osabantzako uzker handi bi"**. Eta negarretik barrerra pasatzen diran umeei, **"Negar da barre, txise bolue".**

𝄞

Zeozer apurtuten danean, **Felipe Konejok atie apurtu, bidsamo goizian berak konpondu** kantaten da, eta batabat labanduten bada **Ikerren etxien zer pasa da, lustre labana, txirristadie emon da, Iker popaz gora**, entzun beharko dau.

Geure arrotza gorríngotxue !
(papo górridse)

Gaur egun galduta badago ere, umeek euren artean hasarratuten ziranean , **"Urrun da fitx, betiko ta betiko "** eta nagusiei ze ordu dan galdetzeko, **"Agizon, ze ordu de mesedez ?"** esaten eben. Gaur egun hasarratzean beste bide batzuk erabiltzen dabe eta ordua jakiteko mugikorrera begiratzea baino ez daukie.

Jateko orduan izaten dira gehienetan arazoak umeekin, horrela koilara hartu eta hegazkinaren keinuak egiten dogu umeak ahoa igiritzeko eta baita hatzamarren upiña kontatu ere **" Hau jun zan mendire, honek lagundu, honek arrotzatsue topa, honek prijidu ta honek loditsuek jan, jan, jan, jan".**

Imiek ziriñek diez eta euren ganien egon behar gara, hori adierazteko, **"Horregaz zazpi begi bi diez"**, **"Zazpi begi be gitxi diez"**, e.a.

Umeak eta gazteak ardure barik bizi dirala esateko, nagusiek **"Ez takoie gatzan ardurerik"** esaten dabe.

Umea lotan ipintzeko kanta, **"Lo ta lo, zeuk orain ta neuk gero !"**.

Umeek, gerra eta arazo gehiegi emoten dabela esateko, badago esakera bat, **"Zek hil ete zauen ime bakue ?",** baña honek ere badauka bere erantzuna, **"Euki ezak** edo **Ez ókiñek".**

Esakera- **" Umiek eta osasune, munduko ondasune !"**

Ezetz igarri

Mendidsen jaidso, mendidsen bizi, itsosora jjuen ta bertan bizi. Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?**

Olatúek ekarrikuek

Gure berba eta esakera batzuk, "trenak ekarrikuek" badira, beste batzuk aldiz olatuek ekarrikuek. Berba eta esakera asko itsasoan sortu eta bokart eta atunekaz batera gure arrantzaleek ekarritakoak dira, nahiz eta gero sarritan herrian beste zentzu batégaz erabiliak izan. Ikusi daiguzan ba olatuek ekarritako berba eta esakera batzuk.

Berbaren baten esanahia jakin gura badozu, bilatu liburu honen azken artikulan, "Itsastegitxoa" itsasoko hiztegitxoan.

"...., ta ezta ezan maridse bakarkotxue Ez ta ezan edonor

A Faróleko mariñerue dozu Farolera sarritan joaten dana

A palabras necias, oidos jakenárros Entzun da gor, kasurik pez

Abánte dau radídsue Martxan

Abánte geúgaz ! Etorri geugaz

Abánte kalerá Goazen kalera

>> IKUSI

Abuxé (Arrain mota bat) Odol bakue

Aidseneko txakurrék atrapa dost hatzamarra – Batel edo motor bi tartean eskua atrapa.

>> IKUSI

Amo porrostuegaz be ez da atrápaten Nekez harrapatzekoa

>> IKUSI

Amo hutsé baño hobeto dau Bapez baño hobeto

Amórrotzak etxa dost errue Logure
Ámue bota Norbait tenta

>> IKUSI

Amuré emon Utzi, lagatu

Amúskirik pez Bapez, ezebez

Andrié, etxeko lemié Bermioko andrek etxeetako gidarick

Angirié (Arrain mota bat) Andra etxurosie

Anténie errícta, anténie imíndse Besteak diñoana entzuten egon

Apaíjje barík Gauzak aurretiaz prestatu barik

Apaíjjeta Prest, preparata

Apaíjjue egin, etxadie egin, fónduek garbitsú, tértzak erríe (*) Andratan egin

(*) Berba gehiago, "Geure geusexuek" atalean.

Apaíjjuen ondo enpíke bidela amúskidse ! Gauzak ondo egin behar dirala

>> IKUSI

Arbídsek Diruek. "Medikutan zer jjuen arbidsek ! "

Argíre egon Adi egon

Arrá atáten Zeozer jakiteko gogoz, galdezka ibiltzea.

Arrañé Badaezpadakue, maltxurra

Arraín sántarra Badaezpadakue. Sexu kontuetan erraza

Arraíntze - Ordenatu, garbitu

Arrañé bille ibilli Berbie edo okasiñue bille ibilli

Arrañé ezan balekizara gardié Okasintie

Árte baten biarrién Alkarregaz lan egiten dabenak

Artésa jatso kordélak Jarri da urduri, arduratuta egotea

Ártiek hartun éziñik Beteta, jan- edanagaz edo beste zerbaitetaz

Ártzako basié baño santárraue Alperra

Artzan arie lez Asko, askatan

Áskatan Asko

Atáluen arpídune (Arrain mota bat) Arpi zapala

Atráka eta **folídsue** Aparka ta matrikulie

Atrakáldidsegaz Gehiegi jan ondoren beteta

Atun bíribiltxue Ume potolotxue

Atzeko bodégie, sínge lékue Pópako zulue

Azpídsek jaten Norbaiten ala edo norbaiten aurka

Azaleko edo **azaletako arrañé** Isilik egoten ez dakiena

Bai koblan bi ! Bai, etxa beste bat !

Banuen kátrera Ohera

Bárrien-bárra Asko, ugari

Bastarreko postisue lez Edozelan jantzita, etxure barik

Batela be, noperana hobeto ! Iñon pentsure hobeto ezebez

Begidsek, ur handiko lotsie lez (Arrain mota bat) Begi handiak

Béla ein dsau Eskapa

Bélak errie dau Larga dau burue hiltzeko

Bera beti azalien Beti errozoie

Beraune baño astúnaue Pisotsue

Berandu datorrenantzat amúskirik pez Lekutara sasoiz. bestela ez da geratzen ezer

Berbié maridsé Berbetan etórridse, edozetarako ona

Berdelá (Arrain mota bat) Mozkorra

Besáta, bibéroko arrañe lez Egoerara eginda, egokituta

Besau búrue (bisigua) Buru eta begi handidse

Biberuko arrañé Mutil edo neska bardingue

Bitse galdu barik Berotan, lotu barik

Bitsetán (babie daidsola) Korrike, abidsadan, andanadan

Bokar txíkidsek paño enemigo geidsau okin Danak etsai

Bola barrukuek konta dost Tartekuek

Bola barrukuek Famili. talde, batzorde edo negozio batekoak

Borbólera bota dau Kaka saltzien bota

Bota tsat txisté >> IKUSI Begidse bota

Botabérak ?

Botabérak imiñí Adarrak imini

>> **IKUSI**

Bozíñetik ure, sínge lékotik ure eitzen dau, edo sínge lékue apurtute
- Sexuan atzelaria

Braié (txoridse) Itsumendidsen dabilen pertsonea

Bragérutararte Beteta, kargata

Bránka-bránkan Aurrez aurre

Neure bránkan egon da Albuen

Bueltan-bueltan txibídsie kostará Gero ta gero be, danak lengotara

Búdsien antzagaz edo **búdsie lez** Loditsute

Búdsie libre – Ez dau ardurarik, ez dau arazorik

>> IKUSI

Buruko kankámuek pe atrapa dost Nasta, enpatxa, buruko miñe emon

>> IKUSI

Dánok barrú ¡ Egon behar garan guztiak gagozanean
Derrót - Zuzen, artez.
Derrotié (ez derrótie) Errunboa.
Desenbárka Urten, bajatu
Durdoiek paño mosú handídsauek (Arrain mota bat) Moso handidsek
Egualdidse dau krielá Egualdi txar txarra
Egualdidse maridsé Gitxienez egualdi ona
Egun biko ogidségaz Egun batzutarako
Emoistek amuré ! Itzi baketan !
Enbárka Zeozer norbereganatu
Enbárka dauie Afiliatu, talderen baten sartu, barrura sartu
Enbárka peskau Zeozer norbereganatu

Enbarránkata Lotute, geldirik, iñora ezean

Enkálleta Lotute, geldirik, iñora ezean

Enpatxútatik ezin libre geure burue Arazue arazuen ganien

Enpíke Nahasta edo Kontajidse

Entzun bazun kánbio Lagun artean, Agur Juan ! esateko

Erdi apaíjjeta Erdi preparata,erdi prest



Erresakígaz Astélenagaz, bidsámonagaz egon

Erríe - Lárga, sólta. "Erríe horreri !"

Erríe – Emón, pagá. "Hamar euro erríe bide"

Erríe batela Okelie jan da gero, ogidse kazulera saltxie sopateko

Erríe lau kate ! Berton geratuko gara, leko ona da ta

Erríe manda ! Larga horreri !

Eskámak urtengoskuie lepuen Euri asko egiten dauenean

Esko árrañegaz (usarrañegaz) Eskumuturreko miñegaz

Eskórata Edanda, mandie hartute

Etxa báltxie horreri ! Etxa gatza!

Etxa gatzá ! Kasurik pez !, bai zera !

Etxa gatzá zuri ! Purrust zuri

Etxadié egin, apaíjjue egin, fónduek garbitsu, tértzak erríe (*) Andratan egin

(*) Berba gehiago, "Geure geusexuek" atalean.

Etxégune Lanik bako egune edo kalera barik

Etxégunegaz egon - Hilerokukaz egon

Eútsok amue Agárraidsok

Ezpánatatik amo asko ibilliko arrañé Beteranue

Ez ta makalá ! Ez ez ta makaela, berdela da !

Famié, kondútie edo **lotsié krielien** Norbaiten izen ona galtzear jarri

>> IKUSI

Farolá - Berbalapikue

Farolágaz be topa bez - Ezin topa. "Hori ezu topaten etxien, farolagaz bez"

Folídsue eta **atráka** Matrikulie ta aparka

Fónduek garbitsu, apaíjjue egin, etxadié egin, tértzak erríe - Andratan egin

Fulespidién (full speed), **makíñe gúztidsen, popadán** Abidsadán

Frantxun átxetako arratoeik baño geidsau jakin Lar jakiñe

Frantxun átxetako arratoiek pe enterako diez Danak jakingo dauie

Ganbelá bete Asko, ugari

Ganbelá bustén Zeozek buelta emon edo ganez egitea

Gatz fránkue etxa horreri Ez egin kasurik horreri

Gatzán ardurerík Umeak eta gazteak ardure barik bizi dirala esateko, nagusiek "Ez takoie gatzan ardurerik" esaten dabe.

Gatzá emónda, iñok guzik Largata

Geure altérrire – Geure kalara, betiko lekura, txokora

Geure bárrure datoz Geurerantz edo geure aurka

Gogó arrain ! Gogo edo nahiaren arabera.

Goiko kálatatik Goiko tabernatatik

>> IKUSI

Gonbisetakó apaíjjue erríeten Kareletik kanpora kaka eitzen

Guárda-guárdaka - Mandaz-mandazka, edanda

Guardakolá hutsík - Ule bakue

Haizétik egon Sartena astatik okin ."Zuk lelau kobra, nopera haizetik egoteko, ta gero gerokuek"

Haizién bárrure – Haizearen kontra, egoereari kontra egin

Hasi da Ogoño negarrez da Izaro suspiruke Gauzak txarto joango dirala



Hatxá baño gogórraue Pertsona gogorra, indartsua

Hátxak pe negar eingo dauie Gauzak txarto joango dirala

Hatxápeko txárrue Mosolué

Hélizek topako dau arrañe Ibildse topaten da gauzie

Hondué jóta Diru kontuetan txarto edo baita depresiñugaz

Hori bola barruén e ! Hori geure artien e !

Hori da karnadak pagáteko Txarto ibilli ta ondiño zeozer txarto etorri

Hori ein baño hobeto da, Izarora jjuen lapatán Gauza ez egokia

Horregaz morroiégaz, lísto kordelari Kontuz horregaz

Horrek neskiek zaratie dako Arin eskapaten dauenagaitik

Isillík eta bóga Berba gitxiau eta biar geidsau

Istérrak okertute, baideko txitxárrue lez Ister okerra

Itsosuek emon da kendu eitzen dau gero ! Arrokeri asko txarra dala

Itsosúpetekulez – itsosúpetekue Oso ondo / oso ona edo handia

Itsotxóridsen kontu lez, zarrau eta ederrau Zartzara loditu

Jjakin bide, noiz errie ta noiz ala Askatasuna emon ta kendu egin behar dala

Jjo Ondarru ta jo Motriku Zeozer billa. buelta bueltaka ibiltzeari

Jjo ta tapa Egualdi txarragaz aurrera egiteari

Jjun zaitzez hiru eguneko ogidségaz Joan zaitez pikutara,
popatik hartzien edo kaka saltzien

Jjun zaitzez sínge lékotik Idem.

Jjun zaitzez atzeko bodégatik Idem.

Kabo kúlorantz Etxerantz

Kabue bela Ni banue allas kuidaus

Kábue mónta éziñik Dirugaz istu dabillena

Kankámuek pe atrapa dost Aspertu, gogaitu

Kankámuek pe jan eingo lekidau Gose handia, jatune

Kañobéra laburrégaz ibilli Ondo ibilli, suberta onagaz

Kápan-kápan Egualdidse kapieten, aurre egiten

Karnadie eskatu, apaíjjue eskatu Andratan egitea eskatu

Karta partíllek Hasarratu ta gero, kontuak egitea

Kartólataraiño Norbaitetaz edo zerbaitetaz enfadata

Kartólataraiño, Beteta. jan- edanagaz edo beste zerbaitetaz

>> IKUSI

Kate gogórrak egin Diruek egin, aberastu

Kazúle bateko sardíñek Antzekoak diranak

Killez góra Buruz gora (ondartzan etsunde adibidez)

Kófrie lez jan >> IKUSI Jan asko eta arinegi

Kondútie, famié, edo **lotsié krielien** Norbaiten izen ona galtzear jarri

Koroskérie /Korostá Perfille. Arpiz norbaiten antzerie

>> IKUSI

Korrontá okin Ganora eza " Horrek tako korront"

Korróntak kanbidseko diez Aldatuko dira gauzak

Kortxo gánetik egin edo **txikotétik egin** Eskapa. Guri kasu ein barik, besteak nahi dauana egin

Kosta errez Kostatik, kostíeten

Kóstarren kalie Kanposántue

Kostaduén Albuen

Kósteriegaz ibilli Diru gitxigaz

Kriéla plamíeten Zeozer preparaten ibilli

>> IKUSI

Kubertá laban Behea laban egoteari, baita mozkortiari

Kukuxé Hanka meheak eta gorputz lodia

Lanproielákue Iñoren konture dabilena

Lápak hasten Itsasoan itotzen danagaitik

Lapié Beti iñon alboan dabilena, esate baterako beti aman gonapean dabilen umea.

Lárga berton Itzi berton

Lárga hori Itzi hori

Lau maridsen pupue ta sei maridsen trapue Min txikiari erremedio handia ipintzea

Lebatzá zara txo ! Tontue, kokolue

Lebatzák auen ibilliko moduen Bigundute, etxure barik

Lekeitxoko kálie Kanposantue

Lejíatako lastué zara la ? Arin apurtutekue, sensiblie, arin ernegaten dauena. >>> Ikusi lastué

Lejietako lastué ule oridunei be esaten jaken, ezizena be baegoan.

Lizien arrótzak paño bigunau Bigun-bigun

Lotsié, kondútie edo **famié, krielien** Norbaiten izen ona galtzear jarri

Magurídsuek ataten ta bide batez betérriek kentzien

Magurídsuek Itsasoko marraskiloak. Baina norbait hatzamarra surren sartuta, mokoak ataten ikusten dogunean, "**Magurídsuek ataten**" dabillela diñogu. Egoera horretan, galdera honeek be egiten dira, "**Zer entradak ataten ?**" edo "**Zer ziñera guez ela ?**" (beharbada surtzilluek, takilletako leihotxoak gogora arazten deuskuelako).

Makállo sikue Pertsona argal-argala

Makállue ebai hazur-hazurretik Erabaki garrantzitsue hartzea

Makíñe guztidsen, fulespidien (full speed), **popadan** Abidsadan

Marejadígaz Mozkorrágaz

Maridse bako biárrak Ordaintzen edo eskertzen ez diren lanak

Maridsérdikue Mutil bardingue

Mariék atrápata Frakak edo erropak labur

Marmoká, marmok arrañe Odol gitxikoa, lodia

Marraísue Lar jakiñe, arrain zantarra

Mastapálue baño artesau Artez artez

Matxetá lez Orduan izatea, huts egin barik, puntual

Min hartun bako arrañé Malezi bako personie

Motor-txíkiko mutille lez ibilli Como el pito de un sereno

Motrikuko káskue Eperdi altodun pertsonea

Muxillé Andren sexu organua

Obra muértie zuritsute Patillek zuritsuten hasten diranean

Ogoño baño handídsaue Goidse jotekue

Orákan dabil Osasunez edo beste edozetaz kolokan dabillenagaitik

Otso burúzkuen edo otso babastuen antzekue Koipestue

Paelik-pael Asko. "Gosie dakot, paelik-pael"

Pálpalien Abidsada gitxigaz

Pálpalekue Odol gitxikoa

Papelak txisterá átara Kontuek argi

Paténte gorridségaz Hilerokukaz egon

Pazentzidsen bónbiri emon Pazentzidse hartu

Pitxarrósie Miskillielako andrie

Pitxarrósien azala baño látzaue Azal latzdune

Popadán, fulespidien (full speed), **makiñe guztidsen,** Abidsadan

Póparaino beteta Zeozer gehiegi kargata, baita edanda

Potorrué, Andren sexu organua. Baita berba eikeran

R esan beharrean G esaten dauana. **>> IKUSI**

Potozórridsen eskamié baño txikídsaue Benetan gauze txikidse

Potozorrikeidsek Iñuzentekeidsek, ganorabako gauzek.

Radarrá imíndse - Besteek diñoenaren adi egotea

Sagán Atzetik, erremolkan

Sakuek erreménta barik gero ! Larreidsek kalte ein barik gero !

Sardíñe lorie Jeranídsue

Sardiñe otzaran jaídsota Etxe apalean jaiotakoa

Sídsaue Ziaboga. Bidean buelta emotea baita mozkortuaren ibilteari

Singe lékue, atzeko bodégie, "Atzeko" popako zulue >> IKUSI

Soídse labana, >> IKUSI Burusoila, ule bakue

Sondán ibilli Topaten

Suertárrañe Noiz behinka gertatzen dan zortea.

Taketá baño gogorrau >> IKUSI Benetan gogor

Takétak dakótaz berúau Arrotzak berotute

Taparegalarárte Beteta, kargata

Tapáteko ondúen Egoera onien

Tárteko arrañé Taldekoa

Tartéra bateko sardíñek, danak bardíñek Leku berekoak badira, antzekoak izando dira

Tertxíñekaz egon, Hilerokuekaz egon

Tertza fáltso, tertza fáltaue Baezpadakue, nasterue

Tertzak erríe, apaíjjue egin, etxadié egin, fónduek garbitsu (*) Andratan egin

(*) Berba gehiago, "Geure geusexuek" atalean.

Tértzak nasta barik kero ! Nahastie arma barik gero

Tollé Alperra edo odol gitxikue

Tómara juen Tabernara juen

Torronteruko agurek pe ez tauie libreten hori enpatxue Nahaste borrastea.

Tostartekué Langile xumea, jabea ez dana, kargo bakue

Trabeseko paelá, Traketza, badaezpadakue

trabeseko paelá >> IKUSI

Trañerú bete lagun Anai-arreba asko, lagun asko

Trapo ólatulez ibili - Trabez, nora ezean

Trisié listo gero ! >> IKUSI Prest egon, atentziñue okin

Txíste bat ¡ >> IKUSI Txisté atunetako ona.



Tuntuxégaz >> IKUSI Haurdun

Txibídsie baño zurídsaue Zuri zuridse

Txiko fáltaue Ganorabakue, badaezpadakue

Txikotétik egin edo **Kortxo gánetik egin** Eskapa**.** Guri kasu ein barik, besteak nahi dauana egin

Txikotétik egin Eskapa

Txilipitxeruek baño ezpain fiñauek Ezpain findune

Txilipitxeruen antzekue Señoritue

Txisterá atará Bisterá atara, azaldu

Txitxárrue Gizonen sexu organoa

Neure ubilletán zabiltzez-Neure lepotik, aprobetxaten

Uger Asko, ugari. "Dirugaz uger "

Ugérie (Uhara, ubera)- Zerbaiten indarraren eragina.Arrainak edo itsasontziak uretan uzten dauan arrastoa. "Kamioien ugerigaz, gizona be eruen" (abiadaren eraginez, albokoa be euren). Zaletasuna. "Diruen ugérie" diru zalea, Parrandistie "Parrándien ugérie" . >> IKUSI

Ur handiko arrañé Arrué, inportántie

Ur handiko lotxiék baño begi handídsauek Begi manduek

Ur txikiko arrasterue Ganora bakue

Uren bitxé lez Beti ganetik, beti berak azkaningoko berbie

Uxúxue lez >>IKUSI Harantz ta honantz lotu barik.

Uxúxue dalakuen, potórruek urten >> IKUSI Gauzak okerretara urten

Zártzara Ártzara — Zartzien itzela

Zaratié okin – Arin eskapa. "Horrek neskiek zaratie dako"

Zelako saídse atsa dau baie Atsa ,(saídsie-kalie-sentiñie- baporeko odolak eta loi danan tokia)

Zelako tertzié, halako krielá Gauza danak daukie euren zergaitia edo baita euren arazoa.

Zimarroié Indartsue . Lar jákiñe, maltzurra.

Zugaz Izárora bez Zugaz ezin dse juen iñora.

Zuk takoztazu korrontá Zuk dakoztazu brekeké (ganora eskasa)

Ártie dako e ! (Norbaiten arte lana goraipatzeko) - Besteak erantzun **" Hori bada ártie, ni trañé ! ".**

- **Da ?** Erantzuna, **Daketá, estropué ta toletá**
- **Zelan zauz ?** edo **Zer ondo ?** galdetzean - Erantzuna - **"E ! tapateko onduen "** edo baita **" azalien "** (ondo gagozala adierazteko).

....

Gure baporatan, erregaia hartzera doazenean, **gasoillé eitzen** edo **petrolidsue hartzien** esaten bada, merkantietan **búnkerra hartzien** be esaten da. Gaur egun horren eraginez, itsasoagaz zer ikusirik ez dauan beste arazoetan be erabiltzen dira.

Esate baterako, kánzerra edo **beste errekadue** eukan batek neuri esandakoa. Gaisoari aurre egiteko, kimio hartzen ebilen eta halan esan beharrean, "**Búnkerra hartzien nabil**" esan eustan. Geroztik entzun dot erantzun bardina, odola hartzen ebilen beste batengatik.

Gaia barre egiteko ez bada ere, gaisoaren jarrera baikorrak eta esateko moduak irribarrea behintzat sortarazten dau.

- **Bi** Besteak erantzun, **Bi ? bibéro bete !** – Bai zera ! esateko, adibidez, **"Atzo zemat txikito hartu zuie ba ?** galdereari, besteak, **bi** erantzuten dauenean adibidez, **"Bi, bibero bete !".**

- Norbait beti atzakiz edo norbaiten ala dabilenagaitxik, **"Beti noroestatik euridse"** esaten dogu.

- Esakerie - **" Umieri emoten batsazu kordela luze, harek eingotsu edozer gauze "**

- Gure gustokoa ez dan zerbait entzuten dogunean, erderaz esaten dan esakerea . **" A palabras necias, oidos jakenarros "**

Ezetz igarri

Basuen jaio ta basuen hazi, herrire etorri ta dantzan hasi. Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?**

Alabatxi, hau zer da ba ?

Txo, ta hau ?

Hau toletá da. Batelan dau, baie zertarako izaten da ?

Hau itsosoko otzarie da. Honegaz eta beste bigaz, bilatu egizu herriko kanta bat.

Silaba bakarrekoak

Hizkuntza danak daukie euren monosilabo edo silaba-bakarrekoak, eta gure Bermion, danonak diran **bat, bi, bost, zer, non,** eta abarretik kanpo ere, badaukaguz geure geureak diran batzuk.

Gehien erabiltzen doguna eta gure herritik kanpo gutaz hitzegiteko ere ezaguna dana, **txo** berbea da, **"Txo, non dau nire txikitue ba ?"**.

Ño golari txo !

Zeozerk harritzen gaitunean edo zeozer goraipatzeko**, ño !** esaten dogu, behar bada erderako ``coño``tik etorriko da, baña gure herrian ño esanda nahiko da, **"Ño, zelako gola sartun dau baie !"**. Fubolagaz jarraituz, gol aukeraren bat egon dancan eta ia, ia gola izan dancan **i !** esaten dogu, atzetik **idse gola !** badiñogu ere.

Zentzune, grazidse, suntantzidse edo ganorie, guretzat **A (ha)** berbie da, adibidez pertsonaren batek euki behar dan ganorie daukala esateko, **"Harek tako a !"** esan da ulertuten dogu.Gure ezustekoa adierazteko be **A** erabiltzen dogu, **"A pentsa dot pa ?",**

Harridura aldiz, **E** bokalagaz adierazten dogu, horrela **" E ! halako markarik "** edo **"E , bitu zer eindsauen "**. Baita **I** erabiliaz ia-ia gertatzeko zorian egon dana adierazten dogu, esate baterako **" I idse gola !"**. Eta bokalekaz amaitzeko, **O** bokalez, gustuko dogun zerbait goraipatzen dogu, adibidez **" Ooooo !``** esaten da suziriak ikustean.

Eguraldi ederra dagoanean eta batez be eguzkia indarrean dagoanean **" Eguzkidse txil "** dagoala diñogu.

Kalean gure artean kasu egiteko, **"Zer edo ?"** edo **" Zer diñozu, Zer moduz ?"** erabiltzen dira, baina zentzun berean **"Da ? "** ere galdetzen dogu, txisto gitxiau gasta ta politxo ulertuten gara.

Zeozer azaltzen gagozanean, eta norbait bapatean agertu zala adierazteko, **"rra presenta zan bertan"** esaten dogu.

Umeek, jolin edo jolinasen laburduraz, zeozer eskatzerakoan **Jo !** esaten deuskue, beharbada **"Jo ama erosi"** lameran esaten dan esaldirik entzunena izango dalarik. Baña ama lagunekaz kafie hartzien badauen eta ernegaten ipintzen badauen, **"Da emongotsut gero !"** esango deutso, joteko keiñua egiñez.

Bapatean, hotz handia edo erreteko beroa somatzen dogunean, **Txut !** esaten dogu, **"Txut beruri !"** edo **"Txut, hotzari !".**

Zarataren bat entzuten dogunean **Han !** esaten dogu, adibiderik argienak eta erabilienak elizeko kanpaiek entzutean **"Han bostak"** eta baita trenaren pitadie entzutean **"Han trena "** esaten dogularik.

Andren artean eta euren erropataz berbetan daudenean, norbaiten erropea oso handi edo flojo daukala esateko, erropie **Fla** daukala esaten dabe.

Félix Muñoa Zubillaga (Bermeo 1904- Argentina 1982)
"Jugadores de mus" (Muslariak) margolana

Gaur egun galduta badago ere, antziñan ezetz esateko edo ezezkoa emoteko **Mux !** esaten zan eta **Mux !** esatetaz gain eskua agotik pasa eta lepue haltzaten bazan, arrain gitxi harrapatu zala adierazten eban.

Gaur egun **mux** esan, ta igual bestiek **ordau handire !** erantzun.

Barreka zatitsu

Lagun bi portutik pasitan. Harantzkoan, herritarra ez dan gazte euskaldun barri bat gurutzatzen da heurekaz. Antenie errieta dako, ikasitakoak zeozertarako balio dauan jakiteko.

Lagun batek besteari zeozer diñotso, besteak zera diño **"A ¡"**, *"Ez dot jakin"*, "Halan bai" edo antzeko zentzunean.

Honanzkoan, gaztea barriro paretik pasatzen da eta, bardin, batek zeozer esan eta besteak erantzun, **" E, ia"**, *"Hori halan bada, ea gero zer gertatzen dan"* zentzuan.
Gaztea harrituta, Bermion bokalekaz bakarrik erantzuten dogula pentsaturik, aurrera doa, eta beste lagun bi berbetan. Batek esandakoari, besteak zera erantzuten deutso, **E?** (zer esanzu, zentzuan), ta besteak hori entzutean, zera esaten deutso, **E, o !.**
Gazteak ordutik aurrera, Bermeoko euskalkiari, bokalkia esaten deutso.

.....

Ezetz igarri

Popitas ?

ESKÓBIE

Zer da koroskérie ?

Itsosuen gauza bat nahi dau esan, eta herrian beste bat. Ikusi "Olatuek ekarrikuek" eta "Itsastegitxoa" atalak.

Hika

Euskeran bigarren pertsonea adierazteko, normalean **Zu** eta **Hi** badagoz, kasu berezietan baita **Berori** .

Gaztelaniagaz konparatzeko **Hi** (Tu), **Zu** (Usted) eta **Berori** (Vos) izango litzateke, baña euskeran Zuk ez dauka erdaran daukan zentzuna, gurean apalagoa da. **Berori** jende nagusiak erabiltzen dau, Abade edo Medikuengana zuzentzerakoan, baina antzinan etxe jerarkiko batzuetan ere erabiltzen zan, normalean aitarengana zuzentzeko. **Berorrek,** laguntzaile modura **Jaune** daroa aurrean, horrela **Jaune, berorrek esango dau** .

Hi bere forma simplean ez badogu erabiltzen ere, **Heu** forman bai, **Jun hadi heu** edo **Heuk eik** eta antzekoak esateko.

Hika erabilera oso sustraituta dago gure esakeretan, aditzari gizonezkoek K eta andrazkoek N gehituz, **Hori dok e !** eta **Hori dona !** edo **Bardin dsok !** eta **Bardin dona !** esate baterako.

Hika lagun artean, lanean eta konfidantzazko pertsonekaz, aginduak emoteko edo agirika egiteko erabiltzen dogu gehienetan. Hona hemen gure eguneroko esakera batzuk.

Txo, ez heuk edan ba !

Hori esangostak pa !, Ha dok e ! , Emongo hau ! , Emoik edo **emoidsok, Hori dok eta ! , Amen dok ! , Halan dok ! , Ez tok urdidse makala ! , Ez tok txutxue makala ! , Ez tok meládie makala !, Ez istek esan hori ba ! , Ondiño goizetik dok ! , Igirik atie ! , Jun bidsik ! , ein bidsik !, Hau dok elorridsue ! , Hik takostak brekeké !, E majo dsauk !, Heuk eik !,** edo **Eik heuk kudana** eta **Ein badok ein dsok !** eindse dauena, eindse dauela adierazteko,

E tsakak iñon (ez dakar iñon), **Ez idsok esan, Esaistek pa, Esaik pe, Beitustek pa.**

Egin ba > Egik pa > Egipa > Egipe > Eipe > Eik > Eidsona

Jan ba > Jaipa > Jaipe > Jaidsona > Jañe > Jaik > Jan hadi

Etorri nadi (hadi) - **Etorri ba > Etorripa > Etorripe > Etorrik > Etordsona > Etorriñe**

Egon hadi geldi > Egohadi > ohadi

Gizonak, **Penie dok ¡** esaten dabenean, andrek **Lastimie dona ¡.**

Neu naiz edo neu naizela ! esateko, **Neu natak !** edo **Neu nona !**

Gizonak - **Isilik on hadi !**

Andrak - **Isilik oñé !**

Ekarrik honantzau !, Ekarriko hau !, Ekarstek !, Ekarrik pa !

Andran artean, esakereari errespeto apur bat sartzeko beste modu polit bat dago, **Ekárdsona** edo **Erosídsona** esan beharrean **Ekarriñe** eta **Erosiñe** esatean fiñago joten dau belarrire eta tratua bigunagoa bihurtzen da.

Etxeko andreak senarrari, sutan dagoan kazula zaintzeko agindua emoteko, " **"Jagoik kazulie !"**, aldiz alabeari " **Jagoñe kazulie !"**.

Zepaitxe, zeozer edo zerbait ez dogunean ulertzen, fugaz dagoanari "Ileuk igarrik !" esaten deutsagu, ea berak ulertzen dauan jakiteko.

Txo geldi ongo haiz ! - Hauri dok biarra eitxie ! - Ez hik ezan txingaue !, Ez eistek esan hori ba ! - Erosík ! Hori eingostak pa ! Neuk pe badakitak hori ! Ez dakitak, Ez takitak ! Ez daipe, Ez taipe ! Zelakue haiz ba txo ! - Hik takostak arue (Zuk takostazu brekeké)

Ha dok e! jun hadi kaka saltzien ! - Etorriñe alabatxu ! Gaztiri zer txok pa ! - Geldi on hadi ba ! Txo, ongo haiz isillik emongo hau ! - Txikidseidsek tozak - Itxistak bakien !, Itzistek bakien !, - Asko gazak eta ! Diñostak e ! - Popatik hartun bidsik ! - Jun bidsik bera ! - Etxok ardure ezebez ! Edozein jabik gu hobeto ! - Etxamoisdsok ! - Emoistek amure ! - Itxidsok ! - Ba dsakitak hori / E notak jungo ba ! -

Alabátxi, hori dona etxurie !

Ez tona horrenbesterako ! - Ezin dsotak imiñi ! - Etxakitak pa ! Txo, ni gaztie natak txo ! Ezidsok esan !, Hamen dsatok ! Han guzak ! E nutak ! (ez noak) **Han nutak ... ! Han dsuek ! Han dsuzak ! Ezik ein hori ba ! E tsakotak dirorik ! Hau dok eskandalue ! – Hau konparakok gure lameriegaz ! Zer dakarstak hona !, Txetxo ernegaistak pa !, Etxebe sartuidsopa ! , sartuik pa !** (sartuiok ba !).

Beste bati, berak esandakoa edo egindakoa tontakeria iruditzen jakula esateko, **Papaue haiz ela ?, tontue haiz ela ?, ...**

Antziñan diruc eskaz eta tabakuen razionamientue egon zanean, jendeak partikaratik zigarroa banan-banan ateratzen eben, besteren batek eskatu barik. Hori ikusterakoan eta eskatzeko modu bitxi batez, honela esaten eutson eskaleak - **Heuk erreik !.**

Hitz joko edo txantxetan emoten diran erantzun batzuk:

- **E ?** Galdereari **E dok hori !** erantzuteko.
- **Good morning seven o´clock!** - entzutean - **Etorten ba haiz ikusko nok !** esateko.
- **Ez ta ardure !** entzutean - **Ardutsak Frai Mieleri !** esateko (Antzinako fraile bat gogoratuz)

Heure amari eidsok barre – Zeure amari eiozu barre
Haik hamen hau ! – Beitu berau !, Beitu berau ze arro ! edo antzeko zentzunean.
Iñok kuzik – Iñork gura izan ezik, bakarrik.

Hor dok ! – Gitxi gora behera. "Ehun da bost, ehun da hamar, hor dok !"

Ha dok – Erdarazko "impecable" zentzuan. "Ha dok erosi dau" – Goitik bera dana barridse. "Ha dok zuez" elegante edo itxuroso zoaz.

Upiñen amaitsukeran esateko, **Hau dok upiñe, talo burdiñe** edo **Hau dok barri barridse, da pasadan astien miserikordidse !**

𝄞

Herriko abestian - **Maria Erramona, Maria Erramona, kortako asturi jaten emoidsona !**

Hori dok eta !

Ezetz igarri

Basuen jaio ta basuen hazi, herrire etorri ta zuririk jantzi. Badakizu edo popitas ?.**Popitas ?**

Halan edo holan

Hizkuntzek, gauza biziak dira eta zenbat eta bizitasun gehiago, esamolde, esakera eta berezitasun gehiago eukiko dabe. Berezitasun horreek, iturri ezberdiñetatik etorri leitekez, gizartearen arabera, beste hizkuntzen eragina eta baita pertsonen izakeren arabera.
Berben aldaketak edo esakera bitxiak, gehienetan kanpotik datozen berbei geure ikutua emon eta bertokoak egiteko eta beste batzuetan bertokoak izan arren, bokal edo kontsonanteen kokapena aldatuz geureagoak egiteko izaten dira.

Behar bada, gure herriko aintzinako gizonei, **"a"** eta **"e"** bokalak bigunegiak edo emakumeenak eta **"o"** gogorragoa edo gizonena iruditzen jaken, horrela, **"Gure bazu egon ,** edo **Geugaz, etorri"** esan beharrean, **"Gure bozu ogon** edo **geugaz, otorri"** esaten ebien, gaur egun ere entzuten dira, **"ogon hadi", zozer, orosi, "otorri neugaz "** eta antzekoak.

Beste batzutan, berbak erabiliaren porasuz, bokalak edo konsonanteak aldatuaz ere onartzen dogu, azken baten badakigu zer nahi dauan esan eta kito, horrela **(u-i) umie-imie, (i-u)** eta **iturridse – uturridse** edo **ikutu - ukutu**. Bokalak aldatuz, **perzebak** eta **melokotoie** esan beharrean **porzebak** eta **malakatoie** ere geureak dira.

Kontsonanteak dantzan jarriz adibidez, **Pulmonidse, gudaridse, pelmie, edaridse, Pedernales** esan beharrean, **plumonidse, guradidse, plemie, eradidse** eta **Perdenales** esanaz.

Kontsonanteen aldaketak ere bai, adibidez **(d-g) madaridse** esan beharrean **magaridse, (g-b) gizajue, jagon** esan beharrean **bizajue, jabon, (j-k) Jitanue, Jersie** eta **Jefie** esan beharrean **Kitxanue, Kresie** eta **Kefie**. Baita **kaltzerdidsek** eta **Donosti** esan beharrean **kantzerdidsek** eta **Dolosti** esaten dogu, **(l-n)** eta **(n-l)** aldatuz .

Erderan gertatzen dan moduan, euskeran ere **Hu** z hasten diran berba batzuk, ahozkatzerakoan **Gu** z bihurtzen dira, adibidez, gure belarrientzat **Huesca, hueso** eta **huelga** baño, **Gueska, gueso** eta **guelga** ezagunagoak dira. Beste batzuetan aldiz, **Gu** z hasten diranak, **Ku** s bikurtu, **Zeuk guzunien, zeuek guzuienien** (gura dozunean/dozuenean) – **Zeuk kusunien, zeuek kuzuienien** be esaten dira.

Beste batzuetan kontsonante gehiago aldatu behar dira, berbak geureak egiteko, esate baterako, **erregistre** (erd. Registrar) esateko **erreskítze** esaten dogu.

Erderazko **además, por ende** esan beharrean **endemás** esaten dogu. Eta **elección** (aukera), gurean **elejirik** esaten dogu.

Goazen barre apur egitera;

Prostatatik operata	**Posterratik operata**
Hazurrek deskalzifiketa	**Hazurrek deskalifiketa**
Alzeimer	**Hazme reir**
Zerbikalak	**Bertikalak**
Eroski	**Erauskin**
Duela al karajora	**Duela al konejora**
Basektomidse	**Mazedonidse**
Seychelles	**Seisleches**
Su artifizialak	**Suerta fizialak**
Guarda zibille	**Goarda sobille**
Terziopelue	**Ziertopelue**
Osama Bin Landen	**Osaba bi Lander**
Arratsalde on	**Arraska león**
Plaza Eliptica	**Plasa Eletrikie**
Guggenheim	**Gure eujen**
Sheraton hotela	**Zer Anton hotela**

Egi berdaderue da, **antzeko paresido** dizela. Gudauneak enteniten dau.

Berba modernuek esaterakoen ere badagoz gauza bitxiak, **Hipotekie, Scannerra, Akomodadorié, Apartamentue** edo **Expertue** esan beharrean , **Hinpotékie, Eskárnerra, Akumuladorié, Departaméntue** eta **Aspértue** geure geureak dira.

Suerte ona edo txarra adierazteko ere, **(b)** gehituz, geureagoa dan **subertie** sortzeko.

Arazo gehien emoten deuskun kontsonantea **"r"** da, **Abraketak, premanéntie, pedioríkue, pográmie, infrenué, enfremerie, trékie** edo **fraíkera** berbetan adibidez, **"r"** madarikatu hori, lekuz aldatzen dogu, "**Iñor enpatxa barik"** .

Baie bitxikeri modura, kontsonanteen eta bokalen tortilla bat egiñez, antzineko arrantzaleen artean entzuna, **"Balamotrue berantz due ta erraidsuek pe txarra datorrela diño lez, Errebesillara sartu biko diez motorrak"**, bai halan da, **barometrue, radidsue** eta **Ribadesella** esan gura eben .

Batzuk entendiduten diran bitartean, gu **enteníten** gara eta **enteníko** gara.

Hasieran esan dogu lez, korapillo honeek, hizkuntza eta herri bizi guztietan gertatzen dira, desargertzen hasten badira, kontuz, horrek esan gura deuskulako, herriko, kaleko, tabernako, fabrikeko eta portuko euskera bizia arriskuan dauela.

Hoba lekizu, berrogei urte barru be, honelakoak entzuterakoan barreka egongo balekigara. **Halan edo holan, baie beti euskeraren bolan**.

Barreka zatitsu

Antza danez, Mañutarren arbasoek, Gipuzkoatik eta Nafarroatik etorritako artzainak ziran, hori dala ta euren berbakereak beti izan dau herrialde horreetako ikutu batzuk.

Hori adierazteko, ikusi daigun behin gertatutako pasadizo bat.

Baserritar bat auzoko beste baserri batetara joan zan, tresna batzuk eskatzeko.

Dinotso auzokoari – **" Itzikoztazu bi xerra mesedez "** (xerra bi eskatzeko)

Ta auzokoak erantzun - **" Zapaturarte ez "** (Bizerra entzun daualakoan eta zapatorarte ez dauala kentzen)

.....

Benetan barregarria ondorengoa dogu. Denda baten izen korapilotsua errazteko, baporan izena jarri ta kito. Hau entzutean zatitsu egin naitxen.

Non erosi zu ba ?
Rosario de Santa Fe dendan (Sebastián de la Fuente denda etorri barria zan herrira, eta beren izena baino azkarrago urteten zauen baporan izena)

.....

Beste egun baten, joan zan andrazko bat elektrotresna dendara, bere hotzgailua aberiatuta zegoala esanez, ta dendariak ze marka zan galdetzean, zera erantzun eutson. **" Zelan da ba ? gizon baten izena dako, zelan da ba?, e bai e, Martin Jose ! "**

Hotzgailua Westinghouse zan eta dendaria barrezka baina konturatu zan.

Zarata-berbak

Hizkuntza guztiek berbak asmatzeko hainbat iturri daukie, horreetariko bat ekintza bat egiterakoan edo zerbaitek berez sortzen dauan zarata dalarik, berba horrei onomatopeiazkoak deitzen jakez.

Zaratie kontuan harturik, barreka ibiltzeari, **íjiji-ájaja** ibiltzea deitzen deutsagu, estulegaz dabilena **Tuju-tújuke** dabilela, norbaitek ainkada batez zeozer jan dauala esateko **kausk** edo **krausk** ein dauela eta zeozer jausi dala adierazteko **blaust** edo **plaust** ein dauela erc diñogu.

Erosi dogun ogidse ondo erreta dagoela esateko **kirrí-kirrí** dagoela diñogu eta suten ipiñi dogun saldie irikitzen dagoela esateko **barbantzádaka** dagoela diñogu, berak ataraten dauen zaratie **bar-bar** bait da.
Ogia jan eta saldie hartu ondoren, gauza normalak baña besteen aurrean egitea edukasiño txarrekoa diran **grokadié** edo **korroskadié** botatzen dogu, beran zaratea **gro** edo **korros** izaten dalako eta sarritan urteten deuskun **purrustadié**, beran zaratie **purrust** izaten dalako.

Esakera – "**Kakán purrustadié ta txisen zarrastadié**"

Iturriaren **txorroa** edo botilla batetik botaten dogun **txorrotadié** ere, zaratie **txor** dalako eta txise egiten dogunean **sarrá-sarrá**, beraren txorrotadien zaratie **sarrrrrrrr** dalako. Edateko orduen be, **txurrust** egin edo **surrustadie** hartzen dogu, hori dalako ataten dogun saratea.

Edozein lan arin egin beharrekoa bada, **dsi-dsa** eitzekue dala diñogu, ta arin egitcaz gain "jo ta pasa" eitzen bada **ziri-zara** ein dala diñogu, azken hau erropa arin da tejidu akriliko bateri ere deitzen jako **ziri-zárako erropie**, beharbada eskuetan darabilgunean ataraten dauan zaratigaitxik izango da. Erropakaz jarraituz, erroparen bat apurtzen jakunean **tarratadié** ein jakula diñogu, apurtukeran **tarrat** egin deuskulako.

Baporak abiada eskasean doazenean, **pálpalien** doazela diñogu, motorran saratea **pal-pal** dalako. Zarataz antzekoa, **pla-pla** umeek Gabon sasoien "jolasteko" erabiltzen daben kartoiak.

Butanue altzaterakoan lepoko hazurre mindu bajaku, **grakásue** egin dogula diñogu eta gero atie golpien eta giltz barik itxi badogu **drangadán** itxi dogula diogu, euren zaratak **grak** eta **dran** bait dira.

Atie itxi dogunean zarata handidse atara badogu, **bonbásue** edo **tronbonásue** emon dogula diñogu, **bom** edo **trom** egin daualako, baita norbait bizikletatik jeuzi edo kotxigaz zeozer joten dauanean **tronponasue** hartu dauala diñogu.
Belarriko edo beste arazoengatik, buru barruan izaten dogun zarateari, **dunduridsé** edo **durundidsé** esaten deutsagu, asmaten dogun zaratea durun antzekoa dalako.

Sarritan sensaziñuri be saratie ataraten dogu, horrela kurioso bada ere, hotza edo bero sentitzen dogunean bardin diñogu, **"Txut hotzarí !** edo **Txut erre barik !** eta hagiñeko miñe edo sauri handi bat infektata daukagunean, **dangádaka** edo **dsángaka** dakula diñogu.
Lekuren batera sartzerakoan, bero larria edo hatsa sentitzen badogu, **bufadié** dagola diñogu, lehenengo inpresioa eta expresioa **buf** izan dalako.

Ez dagoan norbaitetaz jendea berbetan hasten danean, **mar-mar** edo **marra-marra** dabillela diñogu. Kontu honeek hizkuntza gehienetan antzekoak dira, bestela begira erderaz, **murmurar**, ingelesez **to murmur** eta frantzesez **murmurer**, bokala aldatuz eurak ere **mur-mur** egiten dabe. Gero zuk esateko niri, herri txikidsetako kontuek dizela horrek ! , **"Leko guztidsetan, txakurrek oiñotzik"**.

Trubonádak, euren saratie **tru** dalako eta trompiek ataraten dauan zaratieri **urrumadié** deitzen deutsagu, **rum** egiten bait du eta trenak **pitadié** emon da **txutxuka** badula, **pit** eta **txutxu** egiten daualako.

Semie edo alabie ez badira ondo porta, **plastadié** edo **plastásue** emoten deutsegu, gure eskuak beran arpegian **plast** egiten bait dau. Etxean zeozer apurtu badauen **etxeplástue** egin dauala diñogu eta norbait jausita bezala lamerako banku batetan egon badago, **plaust** eindse dagola diñogu eta baita arin apurtuteko patatiri **plaust** eitzekue dala, hórrela **"Plaust eitzeko patatie, dsi-dsa eitzen dala"** diñogu.

Jatekue eitzen dauela zaratie badauen, jan da gero zelan ez ta egongo ba.

Ezetz igarri

Popitas ?

MAHÍDSIE

Erderatik

Oviedon **cero,** Bermion **zero** esateko **blanquito sereno** edo **oviedo**

Hizkuntza bizi guztietan agertzen dira beste batzutatik etorritako berbak eta aldaketa txiki batzuen ondorioz, geure geureak diranak.
Oraingo honetan, eta izenburuak diñoanez kanpoan gauza bat esan gura dauanak, gure artean beste zentzun bat dauka. Aberastasun horren lekuko, ondorengo berba edo esakerak.

- **Destrosué =** Asko, pillo bat edo persona katxondue
- **Eskandálue** = Asko, pillo bat.

Erd. Destrozo eta escandalo - oso esan nahi ezberdinak. **"Jentie destrosue edo eskandalue juten da bertara", " Gure Tomas destrosue da, barre pillue eitxen du beragaz".**

- **Atrosá –** Salaue/saladie, destrosue. Erd. Atroz, Gaiztoa, izugarria.

- **Inkisiziñué =** Nahastea, asko. Erd. Inquisición - Fedearen aurkako ekintzak epaitzeko aintzinako Elizearen tribunala. **"Inkisiziñue forma dauie", " Zer onda bertan inkisiziñue baie".**

- **Zepeliñé =** Ariñe, nerbiosue. Erd. Zepelin, lemadun globoa, baina astiro-astiro doana.
- **Plákie** – Binilozko diskoa edo erradiografia. Erd. Placa- chapa fina

- **Enbarásuen** = Oztopatzen**.** Erd. embarazo-haurdunaldia.
- **Okasiñué =** Diskusiñue. Erd. Ocasión - aukera. **" Quita del enbaraso, si no quieres okasion".**

- **Auménta =** Aipatu, esan. Erd. Handitu, gehiagotu. **"Ta berak aumenta bez, zegan erosi dauen", "Auménta be ez egin".**
- **Auméntugaz ikusi da !** entzutean, ez pentza ikusitakoa irudiak lupiegaz ikusi dirala**,** astiro-astiro edo **kamaraléntan** emondakoak izan dirala baizik. Eta ikusitakoa gustukua izan bada, **Total politxe !** izan dala diñogu, guztiz polita zentzuan, erderaz aldiz, ez da esaten total bonito.

- **Famá –** Albistea Jakin arazi, zabaldu. "Famá emgo tsuie" Erd. Fama (ezagutza handia).

- **Totalekué izan –** Jatorra, zertan aipatu barik. "Totalekue da bera !".Erd. Total- General, resultado.
- **Sobrestántie –** Aparejadorea. Erd. Sobrestante – Capataz.
- **Aborrezidú –** Aspertu, gogaitu. Erd. Aborrecer – Gorroto izan.
- **Kunplimento bakue –** Kopla bakue, zintzoa. Erd. Cumplimiento
- **Típotik ! -** Antza danez. "Tipotik merke erosi dauie". Erd. Tipo
- **Fíjo –** Seguru. "Neuk taitz fijo". Erd. De fijo.
- **Sinfónia** - Azentoa lekua aldatuz, ganorabako. Erd. Sinfonía - musika konponketa. Halan bada, zemat ganorabako okin zauen Beethovenek bere orkestran kero ! .
- **Fundaméntue –** Popako zuloaren barrukaldea. Ganora. Erd. Base.

- **Eleméntue_=** Ume barrabasá.
- **Efétue** - Okerkeria. Erd. Elemento eta efecto- Zentzun asko, baña pertsonei dagokioncan neutroak. " Zelako elementue da baie, efetue engotsu entera orduko".
- **Enbolíke –** Nasta, enpatxa. Erd. Embolicar. "Iñor enbolike barik gero!"
- **Oponiñué –** Bakoitzaren eritzi politikue. "Zelako oponiñokue da ba?"
- **Pondéra –** Norbait goratu, alabatu. Erd. Zehaztu, aztertu.
- **Gabiñétie –** Etxeko logelarik handiena, gurasoen logela. Erd. Gabinete, jendeari harrera egiteko egongela txikia edo bulegoa.
- **Léña ibili –** Zerbait egiten, lanean edo ekinean ibili. "Leña zabiltz ¡". Erd. Leña- Suterako egurra.
- **Kaidié –** Jokera edo ohitura. Mangie edo begikotasuna. "Kaidié dakotso !", "Kaidié dakú bertara tabernara !". Erd. Caida, erorketa, jauskera.
- **Mangié –** Begikotasuna. "Mangié dakotso meisuek". Erd. Manga corta, larga, en mangas.

- **Malkíste –** Kaltetu. "Bera lagunduten sartu, ta neu malkísteta urten"
- **Suspentsuén =** Sorpresaz. Erd. Suspensión - zeozer dariola dagoanean. ***" Suspentsuen atrapa nau eta zelako sustue emon dost baie".***
- **Erretolíkie =** Berba asko edo agirika. Erd. Retorica – Ondo berba egiteko moduari.
  "Zelako erretolikie dako beronek imiek paie", "Erretolikie dabil amak".

- **Etxárpie =** Zigorra edo multie. Erd. Echarpe - Mantoleta mota bat. Behar bada gure zentzunean ere, ganera jatorkun zeozer dalako.
- **Asérber –** (Hacer ver). Erakutzidse emon, arrokeriz ibili.
- **Postisuén =** Egon edo ibili . "Postisuen dabil", osasunez errenka. "Postisuen dau", kilin-kolan, jausteko moduen. Erd. Postizo, benetakoak ez diran gehigarriak, ulea, betulek, hagiñek,..
  .
- **Pasadísue =** Iñoiz gertatutakoa. Erd. Pasadizo - Bide istu eta neketsua.
  "Gure amak konta balekitsu beran atziñeko pasadisuek, negar engo lekizu".

- **Dekóra =** Konturatu. Erd. Decorar - Apaindu edo ikasgairen bat, buruz ikasi. " E nai dekora" = "E nai konturatu".

- **Desabandónata =** Abandonata, baie guk berba hori ere, indartu egin behar.
- **Deskíduen –** Kasualitatez gertatzen bada. Erd. Descuido, hutsegite edo nagikeria.
- **Enbarka–** Norbereganatu, ostu, lapurtu, mío egin

- **Enójata –** Nekatuta egon, ez erderazko hasarre
- **Enfádata =** Zerbaitegaz kantsata egon, ez hasarratute.

- **Errelájue –** Nahastea. Erd. Lasaitasuna. " **Halako errelajorik !"**- Halako nahasterik !
- **Erresála –** Igarrí, konturatu. Erd. Recelo (duda)

- **Gobérna =** Lanak egin, zaindu, garbitu baña ez agindu edo lan talde bat kudeatu , "**Kuartue gobernaten zunien, jungo zara kalera".**
- **Apropós –** Olgetan, txantxetan. Erd. A propósito.

- **Mío egin** – Norbereganatu, ostu, lapurtu, enbarka.
- **Perostúte** – Norbait, batez be umeak, zerbait egiterakoan, itsumendian, burrukan, aldarrika edo ekiñean ibiltzea. Erd. enfurencido/a.

- **Akometidú** – Esan ta esan, insistidu. Erd. Acometer-embestir, intentar

- **Téma egin** – Diskutidu, eztabaidatu. Erd. Temar- obsesionar.

- **Klaríe** – Erd. Aclarar. "Klariko gara geu !".

- **Kanta kláro** – Gauzak argi eta aurpegira esaten dauana.

- Kontuz esateko, **Aguarda !** edo kontuz ibiltzeko modo bitxi hau, **Atension sirifliu ! .**

- Lapurretan egin dauanak **Mio egin** dauala diñogu eta nahita edo guzanda egin dauala esateko, **Aello egin** dauala esaten dogu. Gauzaren bat, zeozertarako benetan egokia danean, **aellokue** dala diñogu.

- **Keaitu (Que hay tu ?) =** Efetorik pez. "**Indisiñuek hartu ta keaitu**".

- Oiga! esateko, **Oies !** esaten dogu. Ondo dago, ze berba egin aurretik, jakin beharra dago, bestea gorra dan edo ez.

- Lur jota gagozala esateko, **Guardabajo ta bera cindse.**

- Kasurik pez ! esateko, **Allas kuidaus** ! be esaten da, eta baita "**Ardures ajenos, cojones cuelgan**", bakotzak dauala bere ardurak esateko.

- Gitxi gora bera esateko, **Tanto kuánto baten.**

- Asko, ugari esateko, **largurú.** Bota azukerie largurú.
- Asko danean, diruen dirugaz, hotzan hotzagaz esateko **diruen pasiñúgaz** edo **hotzan pasiñúgaz**. Baina ez zaletasuna (Erd. Pasión)

- Gauza edo pertsonen bat, beste baten aurrez-aurre dagoala esateko, **Karinkára** dagoala diñogu.
- **Konortá galdu** – Konozimientue galdu. Erd. Conhortar-consolar
- **Konorterá ekarri** – Konozimientue hartzera lagundu. Zeozer egoera txarrean egoana, bide onera ekarri, loi egoana garbitu esate baterako.

- Kuriosidade modure, erderaz esaten dan ***"No me digas*** !" esateko, guk beste erderazko expresio bat daukagu, **"Hay esta !"** , "Bai e, ez dot jakin", "Ez ta ezango !" zentzuan.

- Nagusiek, erdera erraz ikasten dala esateko, **"Kastellania fasil idioma"** esaten dabe. Erdiz erdike eginiko esakerak, zaharrei entzunak, **"Mañana más y mejor, komediantie lez"** , **"Behin por ahora"**, **"hasta bidsar"** , **"antzeko paresido"** , **"kafekonletxie esnigaz"** eta gazteei entzundakoak, **"Eso es de atziñe"** , **"Estoy larri"** , **"A palabras necias, oidos jakenarros"** , e.a. Baina batzuen eta besteen arteko aldea, nagusiek euskeraz eta gazteek erderaz hitzegiterakoan esaten dabela honelakoak.

Gu berba gitxi eindse ulertuten gara, **Ze binagre !** , (erdarazko **Que carajo !**).

Norbait edo zerbait ondo dagoala esateko edo zerbaitek ondo egiten deuskula gure sabelean, **májo** esaten dogu. **"Májo dau hor", "Tomasa májo dau ", "sagarrák májo eitzen dost".** Erd. Majo simpatico, guapo, .

Kotxic, garbigailua edo beste tresna bat, martxan dauela esateko, **andár** dauela esaten dogu.

Delikadá zatoz ! , entzutean, ez da erdarazko makalik edo erdi gaisorik, norbait hasarre edo pipertuta dagoela baizik. Aldiz **degollúek dabiltzez !** entzutean bata batzuk gora-goraka edo hasarre dabiltzela dinogu, erdarazko "degollar" burua kentzera heldu barik. Bardin **Txokáta dau !** entzutean, ez da kotxiegaz hormie jo daualako, hasarre daualako baizik.

Nagusiren batetaz, **Ondo osekídseta bizi de !** entzuten badogu, ez da opari asko egiten deutsielako, familiaren berotasuna eta gozotasuna daukalako baizik, hori bait da eurentzat oparirik hoberena.

Okasiñuri !

Desabandónata

Barreka zatitsu

Behin, herriko albañel bat eta laguntzaile gazte bat kanpotarra. Gazteak gizonari zera galdetzen deutso, "**Donde está la plana** ?". Gizonak erantzun, **"En el sesto"**. Han doa mutila seigarren solairura obratan egoan eskilaratatik eta laster baten bueltan dago esanez **"No está arriba "**. Gizonak orduan, **"Que arriba, ni que otxokuartos, hay está en el sesto"**.

Argi zegoan, mutila bilatzen egoana, otzaran egoala.



Amaitzeko, gertakizun barregarri bat. Bermion betidanik Perciran "mantekauek" famatuak izan dira eta antzinan "vainillazkoa" bakarrik eukitzen ebanez, ba guretzat hori izan da erreferentzi bakarra.

Bermiotik kanpo - Herritarrak- **"Me da mantekau ! "**
- Dendariak - **"Quiere helado ? "**
- Herritarrak - **"Si "**
- Dendariak - **"De que quiere ? "**
- Herritarrak - **"De mantekau !"**.

Gure nagusiek, erderaz hitz egiterakoan **mantekau** esaten eben, ze euskeraz **amantekaue** esaten eben. Helaue ta bainilla biak bardin.

.....

Ezetz igarri

Begidsek bai, baie ezin ikusi, errekie pasa ta batelik ez. Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?**

Talan kantie > ENTZUN

Erositako berbak

Hizkuntza guztiak hartzen dabez berbak beste hizkuntetatik eta herritarrak zenbat eta munduan zehar gehiago ibili, orduan eta berba gehiago ekarriko dabez kanpotik. Nabarmena da gure artean ingelesak dauan eragiña, argi dago gure nabegantiek izan dirala, sombreruek, zapata zuridsek eta abarrekaz batera, berbak ere erosi eta ekarri ebezanak.

Atxurtxue hartu eta aixarretan ibiltzie lez, bilatzen ibili ezkero, aurkitu leikez hainbat berba "kurioso".

Munduan zabalduta dagoan **Club** berbea oso erabilia da gure artean, gure ikutua emonda noski, **Kluké**, *"Kluken esan dauie, entrenadore barridse datorrela"*.

Eskerrak emoteko ere, sarritan urteten deuskun berbea **mérsi** da, izatez frantzeseko "merci" .

Oso famatua izan zan abesti baten ondorioz edo, gure artean benetan sustraiturik geratu dan berbea **Mammy blue,** horrela zeozer oso ondo dagoanean esateko "**Egualdidse dau mami blu**", "**Okelie dau mami blu**".

Musikigaz jarraituz, atziñen lamerara etorten zan orkestiri, "orkestiñie" edo **jjásbana** deitzen jakon, azken hau Jazzband tik dator, nahiz eta joten ebana ez izan jazza, pasodoblea baizik.

Atuneroen bizimodutik ekarritakoa da **espíbota,** (speed boat), behintzat belarrire "lantxarrapidie" baño hobeto joten dau. Merkantien eraginez, **estánbaien** (stand by), itxaroten egoteari esaten jako.

Lagun ! edo laguntxu ! esateko, **maífren** (ingleseko my friend- nire laguna), horrela tabernan entzun dezakegu, *" Txo maifren, nire txikitue ?"*. Beharbada latinen edo italieraren eraginez, **tútili klas,** klase guztietakoak edo danatarikoak. Eta frantzezetik, **mamaselá** (mademoiselle), neska gaztea, baie guretzat, istitutrize edo aberatsen etxeetako andereño, **"Atakontu mamaselágaz hasitxe dauela".**

Inglesezko **ment** atzizkia , Bai zera ! esateko, zeozer popértsakue danean edo dudie daukaguncan, adibidez **"Esan dost gero itziko dauela karruen"** entzutean erantzuteko **"Hara zuri karroménta"** . Antzekoa da, eguraldia kilin kolan edo dudan dagoanean esaten dana **"Egualdidse dau parlaménta".**

Bere burua largata dauenari edo beste bateri *"Agur ondo ibilli"* eta baita *"Itzi berton"* edo *"Larga berton"* esateko **léberman !** esaten deutsagu, esatie lez, *"Agur ni banue, berton geratu"*.

Baie kirola da berba gehien ekar dauen gaia, adibidez boxeoan golpea hartuta konorta galdute dagoanari, **Nokau, nokieta** edo **keo** dagoala diñogu, inglesezko (Knock out eta K.O.) tik, baita **grogi** (groggy) dagoala. **Fubola** ere argi dago gure artean inglesak asmaturiko kirola dala (Football), horrela radidso edo telebisiñoko lokutorigaitzik **Espíkerra** (speaker) baita entzuna da **esplikerra**, arbitrue edo **albitrue**gaitzik **Refério** (referee)tik eta jokoz kanpo dagoanari **Órsaien** dagoala (outside)tik. Norbait zeozer desegokia egiten harrapatzen dabenean, **órsaien atrapa dauie** esaten dogu.

Amaitzeko, atzerritarren batek zeozer galdetzen euskunean, ta ez dakigunean zer diñoskun, erantzun bitxi bat emoten deutsagu, **"Zeure ama baezpada"** , halan zeozer txarra esan badeusku bardin gauz eta ez padauen esan, ba lengotan gauz alkar ezer ulertu barik.

Ezetz igarri

Popitas ?

ZUBIDSÉ

Errepikamenak

Argi ta garbi, bat baño hobeto bi

Arguiñano sukaldariaren *"rico-rico"* esakerie oso ezaguna egin da, baña euskeraz betidanik esan da zeozer jan ondoren, **"gozo-gozue"** izan dala.

Berbak errepikatzea, esatera goazana indartzeko izaten da, Gotzon Garatek (Jakin 92 zk. 1996) diñoanez, bizkaiera, gipuzkera baño aberatsagoa da errepikamenaren bidez esamolde politak sortzen. Ba bizkaiera aberatsa bada, gure herriko euskera, popitas.

Ikusi daiguzan gure errepikamen batzuk. Aditza aldi ezberdiñetan errepikatuz :

"Zu zauz egotekue" , **"Etorri zatoz ?"** , **"Ekarri dakar"**, **"zuzela zuzen lekure"**, **"duela-duen lekure"**, **"Okin dakoie"**, **"eruen daruie"**, **"Ibilli dabillenari pasaten jako "**, **"Zer dan edo zer ez tan..",** eta antzekoak egunero erabiltzen doguz.
Bermion "oso" berbie ez dogulez erabiltzen, berbak errepikatuz indartzen dogu gure esanahia, horrela lehen aipaturiko "Gozo-*gozo* "tik aparte, beste honeek ere badagoz:

Be-behien edo **Go-goidsen**
Lodi-lodidse **Argal-argala**
Gogor-gogorra **Bigun-bigune**
Argi-argidse **Illun-illune**
Zuri-zuridse **Bal-baltza**
Handi-handidse **Txiki-txikitxue**
Poli-politxe **Moz-motza**
Garbi-garbi **Loi-loi**
Bizi-bizi **Lotan-lotan**
Justo-justo edo **Ostaz-ostaz**
Hor-hor ibili edo **justo-justo ibili**
Gizon-gizontxue edo **Andra-andratxue** (ime formalei)

Gosie dakot gosie ! - Zelako gosie !
Egualdidse dau egualdidse ! - Zelako egualdidse !
Barro-barruen (danan azpidsen)
Gane-ganien (danan ganien)
Erdi-erdidsen (erdikaldean)
Leban-leban (geldi-geldike)

Esakera - **"Leban-leban, Konsuelon bizarra lez"**
Mela-meláta (buztita)
Kétan-kétan (ketan)
Zabal-zabal (lasai edo handi)
Bakar-bakarrik (bakartadan)
Saka-sakaka (alkarri sakatuz)
Gora-goraka (aldarrika)
Mandaz-mandazka (edanda)
Urre-urre (oso hurbil)
Dauen-dauenien (dagoen moduan)
Koiso-koisoka (koixorik)
Salta-saltaka (saltoka edo pozik)
Ján-jan barik (batzuk)
Jan da jan (jaten lotu barik)
Moskitsuek **jan-jan** egin nauie.
Manga-mangata (nekatute)
Manga-manga (jo)
Masí-masí (jo), baita umea mosuka jan
Aska-askaka (azgurekaz)
Bene-benetan (zintzotasunez)
Fin-fiñe (langillie)
Bero-bero (erreteko moduen)
Ostu-ostuke (ezkutatzen)
Laban-laban (jeusteko moduen)
Toro-toroka (okasiñuen)
Biri-bírike (buelta-bueltaka)
Igar-igarridsen (igarteko moduen)
Bare-bare (ure platera lez)
Poz-pozik (poztuta)
Epel-epel (txise lez)
Beragaz-beragaz (beti beragaz)
Bidsek-bidsetara (Biak antzekoak)
Ustelien-ustelien (alperkerian)
Altuen-altuen (gehienez)
Gauten-gauten (ilunpean)
Marrá-marrá (kejaten)
garan-garan (sagarra gozo)
zanga-zanga (edan)
Maute-maute edo **Muste-muste** (Jatekoa, hatzamarrak txupeteko moduan dagoanean)

Zoro-zoroka edo **Txori-txorike** (Iñor topaten soratuta ibiltzeari)
Etxien-etxien edo **Ohien-ohien** (Kalera urten barik)
Altori-altoka eta **Siri-sirike** (Atziñeko jokuek)
Pentsa-pentsa barik edo **Tontun-tontuen** (Bapatean, konturatu barik)
Parra-parra Bala-bala eta **Bota-botaka** (Ugari)
Zati-zatike Apur-apurke eta **Gitxi-gitxike** (Pingoka)
Minke-minke Tenka-tenka eta **Aska-aska** (Jakin gurien edo erregatieten)
Lotu-lotuke, Geldi-geldike eta **Tiñuen-tiñuen** (Astiro)

Ber-berton edo **Berton-berton.** Plazan- **"Ber-bertoko kerizek diez ¡!"**
Ber-bertan edo **Bertan-bertan.** **"Ber-bertan egon diez"**

Zeozer hurbil edo **eskuera** dogunean, **bérera-bérera** dogula esaten dogu, adibidez, **"Etxie bérera-bérera dako !".**

Nondik hasiko gara? - Erantzunak -**Be, be, betik !** edo **Go, go goitxik !**
Tontue da ! Erantzuna – "Tontue dala**, geu gara gu** tontuek ! "
Non dau ? Erantzuna " **Be, be, behien** edo **go, go, goidsen"**

"Hotzan-hotzagaz gogortute", "Beruen-berugaz enójata/pásata", "biarran-biarragaz errementata", "gosien-gosigaz okertute" edo **"dolorien-dolorigaz deskonortata"** esaten dogu. Zentzu berean, errepikamen barik, bardina esateko erabiliena, **"Otzan pasiñugaz gogortute", "biarran pasiñugaz errementata"** eta abar.

Zerbait egiteko guk besteari azalpenak emoten deutsagunean, eta berak kasurik egin barik, nahi duena egiten duenean, **"Esanda be, be ! "** esaten edo aldarrikatzen deutsagu.

Lanari edo beste zerbaiti lepoa emoteari, **"dar-dart"** egitea esaten deutsagu. Benetan hutsik dagoanagitik, **huts-hutsik** dagoala diñogu.

Gauzak aldatu arren, azkenean beti euren lekura itzultzen dirala adierazteko **"Buelta-bueltan txibidsie kostara"** edo **"Gero ta gero be, be"** , diztantzia laburrera **"arrarik-arra"** esaten dogu eta norbaiten izakera, edonogaz batzekoa danean, **"batun-batun"** dala diñogu.
Sarritan egiten dan zeozer adierazteko, **egunero, astero, hillero** eta **urtero** baño erabiliagoak dira " **egunien-egunien", "astien-astien", "hillien-hillien**" edo **"urtien-urtien"**, eta sarritasun hori handia danean, **otzeko-otzeko, otzien-otzien, danga-danga, sarri-sarri** edo **pitxin-**

pitxien egiten dogula diñogu. Egitekoa **bidsar-bertan** egitekoa danean, **bidsar-bidsar** egingo dogula diñogu.

Gure esanahia benetan indartzeko, berbak bikoitzak ere erabiltzen dogu, horrela hemen berbea indartzeko **"amen berton"**, danak berbea indartzeko, **"dan-danak"**, **danak danatara** edo **"danak guztidsek"**, guztiok esateko **"danak guztidsek eta bakotza"** eta ezezkoa indartzeko, **"Iñondik eta iñora bez"** esaten dogularik.

Berba sinonimoen bakuteka ere erabiltzen dira, esan nahi dana indartzeko, adibidez, norbait abiadan doala esateko, **"Andana korridsen due"** diñogu.

Zeozer egiterakoan, txandaka eta alkarren atzean goazela edo egin behar dela esateko, **"Zaindsen-zaindsen, txarri buzkentzak"**, esaten dogu.

Barreka zatitsu

Bermiotar bategaz ezkondute dagoen kanpotar bat, euskeraz ikasten ari zanean, beran senarragaitzik galdetu eban esanez, **Jon ?**, eta etxekoren batek, zera erantzun eutson, **Jon janda junda !.** Ez dakit euskera ikasten jarraitu baeban, baña seguru berak, euskera baño afrikar hizkuntzaren bat zala pentsatuto ebala.

Ezetz igarri

Zer da besteei emon arren, geugaz geratzen dana beti. Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?**



zangá-zangá !



baré-baré



bákar-bákarrik

Agurrak eta deiak

Besteak agurtu edo kasu egiterakoan ere, oso bereziak gara, modu ezberdinak erabiltzen bait doguz, bestea nor dan arabera. Ez dau agur bardina emongo, atso edo gazte batek , ume, gazte, zahar, lagun edo etxekoari egiten deutsonean.

Kalean kasu egiteko, **agur !** arrunta da gehien erabiltzen doguna. Bestearen agurrari **"Bai agur "** , jolasean **"agur Benhur"** edo **" eperdi labur "** , eta amaitzeko ***"Bai"*** arruntari ***"Baitxe"*** (Baita) erantzunez.
Epa ! ere asko erabiltzen da, **" Epa bai "** erantzunez. Abade edo medikuarengana zuzentzeko ***"Jaune !"***.

Baina geu garenean besteak agurtzen dogunak :

Agur zera ! , Agur salada ! , Agur saleroso ! , Agur zeuri ! , Agur zeuoi ! , Agur bidsoi ! , Agur, eperdi labur , Auntxe lez !,
Aurrera beti ! , Bazuez ! edo **Bazauz !** beste jesarrita dagoanean,
Bazuzie ! , Bueno ! , Da ? , Dale beti ! , Eeeh ! , Kaixio !, Zer diñozu ! , Zer diñozu legoie ! , Zer diñozu aspaldiko txoridse !, Zer edo? , Zer lagun ! , Zer txo ? , Zer laguntxu ?

Gure ezaguna beste bategaz doanenan, agurtzean kontutan hartzen dogu, **Agur Tomas da konpañie** edo **Agur Karmen ta konpañie** esanez.

Aipatutakoak aparte, gizonezkoak honcek ere erabiltzen dabez :

Da legoie ¡

Da lebatza !, Da legoie ! , Da lagun ! , Da lengus !, Da keritx ! , Legoien azala !

Goizetan izaten da kasu egiten hasten garanenan, normalean eguraldiari aipamena eginez,
Egunon, egun ona dau eta ! , Egunon guzurre da baie ! edo **Egunon, ez tau onik baie !**

Beste kasu batzutan, **Egunon** esaten dogunean, erantzun modura esakera batzuk entzungo doguz, adibidez, **Jaingoikuek halan emon !** edo **Ez tau edonon !.**

Aspaldian ikusi barik egon bagara. **Ameeeen !** (hemen) , **Hamen hau !** .
Aspaldikue ! , Bizi gara ? , Bizi zara ? , Bizi zarie ? , Neure txikitxeko lagune ! , Txikitxeko lagune ! , Zelan zabiltzie ba ? , Zer diñozu aspaldikue ?, Zeu zara ?

Bizi diranak alkar topaten dirala bizitzan zehar esateko, **"Mendidsék mendidsegaz ez tau toperik eitzen, baie personiek bai !".**
Deitzeari berari, **eupadatxue** esaten jako, hau da **Gero eupadatxu bet egin Tomasari ta esan gero jjungo naiela !.**
Beste etxeren batera bisitaldi txiki bat egitera goazenean, **"Oles bat", "kiku bet", "kikadie", "kikadatxu bet"** edo **" sartun urten bat "** egitera goazela esaten dogu.

Familiko edo ezagun diran ume edo gazteei .

Geure ! edo **Neure ! , Geure gozotxue, Neure bidsotza !,... Neure zatitxue !., ...Geure mutil/neskatil handidse, ...Geure atun biribiltxue !,...Geure diputaue !,....Geure angerotxue !,....Geure galanta !,....Geure gosue !,..Geure guapissimue !,...Geure kaskabela !, Geure konpostolie !, Geure amuma kontsola, Geure pastela ! , Geure babaloratxue ! ,....Geure makatsa,....Geure matxotie !,.Geure morroskue !, Geure obispotxue !,...Geure ondasune !,...Geure pitxarrosatxue !,....Geure politxe !, Geure pitxoitxue, ...Geure printzesatsue !,...Geure tronbolintxue !,....Geure txirloratsue !,... Neure brindsoie** (frutie),....

Beste pertsona batengana zuzentzerakoan, izenaz (**Kontxa !**) edo familitasunaz (**Anai, Aiste, Tie !** edo **Lengus !**) aparte, beste era honeetara ere zuzentzen gara, bestea nor dan ikusirik.

"Agizon, ze ordu de mesedez ?"

Geure mutil handidse !

Gazteek - **Txo, alabátxi, alatxi, andrie** eta **agízon .**

Gizonek - **Txo, txo amorroi, txo lengus, txo lagun, txo laguntxu , txo gazte, txiki, gazte, amutil, amorroi, lagun, alabátxi, alatxi, alatxu, zu** eta **andrie** edo **andratxue.**

Gure andrek — **Laztan , Laztana, txo, txetxotxu, txetxo, txikito/a, alabátxi, zu, andrie, andratxue, fulána, salada, gizona** eta **gizontxue** esateaz gain, **entzuizu ! , lágune, zu, zera** eta **zeratxu !** ere erabiltzen dabe.

Txetxotxu, ernegaidsona ba edo **txetxotxu ernegaistak pa !**

(Kanariasen be gure antzean gizonei **"cho"** eta andrei **"chona"** deitzen jake. Antza gure arrantzaleek atunak ez ezik, berbak be deskarga eben haretan portuetan).

Alabátxi, argaldu ein zara !

Txo, nor da hori ba ?

Anai, gabon !

Sarritan agurtzerakoan edo norbaitengana zuzentzerakoan izena esan beharrean , ikusi dogun moduan **"Agur zera"** eta **" Zeratxu"** esaten dogu, batez ere andrazko nagusiek , neuronak jubilatzen jakezenean. Horrela iñoiz honelako esaldi bitxiak ere entzun doguz:

" Zeratxu, zeran dauen zera, eruen zerara " edo **" Zera zertun badan, orain zegaz zertuku zera ba "**, hau da gauzen izenak aipatu barik ulertzea.

Hau benetan oso bitxia da, gainera nire ustez eziñezkoa beste hizkuntzetan, bestela froga ezazue erdaraz adibidez.

Azkenez, bitxikeri modura entzundako pirópoak – **Amen, geure makállo gazidsé !, Neure Áfrikako amapóla berdié !**

Ezetz igarri

Popitas ? **ESKUÉ**

Erantzunak

Esakeren artean, badaude bizi handiko batzuk, hau da guri besteek zerbait esan edo galdetzen euskunean, erantzun gisa emoten doguzanak. Danatarioak dira eta batzuk gusto txarrekoak iruditu arren, geure geureak dira danak.Erantzun danak daukie euren esanahia, gehienetan erraz ulertzekoak dira,baina badagoz beste batzuk, erdi galduta doguzan tresna edo berbak aipatzen dabenak. Esate baterako ;

- **Baie ..** - **Baie kakuen ta urune auzuen !**

Baié edo **galbaié** – (Bahe, galbahe). Arto urune eralgi edo pasatzeko tresna.
Kakué – Baserrietako portalien edo kanpokaldean, erropak edo tresnak eskegiteko gantxua.

Baie kakuen dago, eta urune auzuen edo alboko baserrian. Gurean badago zegaz, baie arto urunik ez. Erantzun gisa ez ezik, kexu modura ere erabiltzen da, guk badaku tresnak baie ez dogu lanik egin nahi esateko.

- **....** (edozer) - **E, hoba ez !** (Besteak diñoana ezinbestekoa iruditzen jakunean)
-….(edozer) ……. **Hauri dok errozoie, sague ez tala arratoie !**
- ... (edozer) – **Ai zuuu, zurelako bat on zan, ta bera katuek jan zauen !** (norbait goraipatzeko)
- **Abadiek ....** - **Abadiek, kapien azpidsen gitarrie !** (bera ere gizona dala adierazteko)
- **Aberatsa !** - **Aberatsa, popan atsa infernuko lebatza !**
- **Aberatsak !** - **Aberatsak baño eukitsuek ei diez hobiek !**
- **Ahastu jast!** - **Astue kortan ta mandue etxien !**
- **Agur** - **Agur eperdi labur !**
- **Agur** - **Agur Benhur!**
- **Agur** - **E, ezetu bez !** (albora begira doanak)
- **Agur** - **Ekarri lepo bete egur !**
- **Agur zeuri !** - **Agur zeuri be !**
- **Agur zeuri !** - **Baitxe zeuri be !**

- Agurie ! - Agurie ona da, ha gurie, bestie gurie, atsue da txarra, han tsue, bestien tsue !
- Agurie - Ha gurie, ta bestie iñona !
- Ai ! (min hartuta) - Guarda pa kuando no hay !
- Ai ama - Ai ama, ta iñon miñik ez !
- Ai amatxue ! - Amatxue ta pepetxue !
- Ai ena ! - Ai ena ta enie, zein ete da hobie !
- Ai ene ! - Ai ene, da iñon miñik ez !
- Ai gure fiñe ! - Bai, Holandan agindsu ta egiñe !
- Ai Jaingoikue ! - Bat eta bera neikue !
- Akabo ! - Akabose Martin gose, beti jan da beti gose !
- Akordaten nai ! - Akorda pasaidse pásata !
- Ama ! - Ama aitxe, Peru ta Maridse !
- Ama ! - Ammma, ago beteko ammma !

- Ama putie ! - Ama putie ta aitxe mal pescador !
- Amandongilek - Amandongilek eta potxorroskilek !
- Amañarrabak.... - Amañarrabak, errrrre asko dakola !
- Amen ! - Zu hor ta ni hemen !
- Amorroi ¡ - Amor hoy y mañana gerra !
- Andrie ! - Andrie, nondik dau Bilbora bidie ?
- Andrak ! - Andrak andrari, katuek hiru begi !
- Apurtxu bet ! - Bai bi be !
- Arin ! - Arin da ondo, txoridsek hegaz !
- Artie dako e! - Hori badan artie, ni trañe. (Arte lan bat ikusterakoan)
- Artritis dakot ! - Hori badakizu zer dan, Zartritis !
- Asko gazak eta ! - Ta geidsau eitzen !
- Atension ! - Atension sirifliu !
- Atzie ! - Atziek ez ei daki, aurrien barririk !
-Atxissss ! - Jesus !
-Atxissss (umeak) - Kesus !
-Atxissss - Damistiku ! (Latinezko, Dominus tecum – jauna zurekin)
-Atxissss - Zapi katuri !

-Atxissss	- Zer ostu zu ?
-Atziñen	- Atziñen atziñekuek, ta orain orainguek !
- Atziñekue da!	- Atziñekorik ez tau, atziñekue gaue ta egune !
- Atzo	- Atzo hil zien hamalau atso
- Hauri !	- Auri, los cojones de Mauri !
- Ay que lio ! -	- Ay que lio Juan Mantxuek, katuek jan txonien txorisuek !
- Ba diez !	- Ba diez da balitz, alkarren atzien dabiltz !
- Baie !	- Baie kakuen ta urune auzuen ! Ikusi >>>
- Baie !	- Baie perue da !
- Bale !	- Bale-baleka ibiltzeko edaderik ez taku gero !-
- Bale !	- Bale-báleka ta bapíruke !
- Balego	- Balego ta balitz, alkarren atzien dabiltz
- Banuen !	-Bai gorantzidsez amañarrabari !
- Batek daki !	- Florentino Botakik ! (Botaki ezizena)
- Berakatsa	- Berak hatza ta nik usiñe !
- Berez	- Berez, kaka be ez ta eitzen gero !
- Bero dakot !	- Zer dakozu bero?
- Besterik ?	- Ez dotela egon gure bakarrik !
- Bestie !	-Bestie ta zeztie, ta hautsen odolostie !
- Besútakue da!	- Besútakue ta ísterratakue !
- Beti	- Beti, txakurrek buztanpetik !
- Beti	- Beti, Mari Iñazi busturitzik !
- Betiko	- Betiko ez tau ezer, betiko Jaingoikue !

Bi, zeure amak titi bi !

- Bi	- Bi ?, bibero bete !
- Bidiek eitzen nuen!	- Bidiek eindse dauz !
- Biejie	- Nik ez dok gure, biejarik, gaztiek baño ! (erderazko viejagaz hitz jokoa eginez)
- Bihar eitzen dau (lan) –	- Bestala dau Biarritzen ! (Biarritzen dauala entzun daualakoan)
- Bueno !	- Buenuek Kofradidsen !
- Bueno ba nuen	- Bai, gorantzidsek amañarrabari !
- Buruko miñe dakot!	- Buruko miñe iñori eingo lekizazu zuk !
- Dezente!	- Dezente, Astralaganeko txakurre !
- Dakidsenak daki!	- Da ez dakidsenak baleki !
- Dakonak tako!	- Da ez takonak baleko !
- Dana dau karu !	- Guzurre merke !
- Difunto ederra !	- Hilda gero, danak ederrak !

- Dirugaitxik .... !

Dirugaitxik, txakurrek pe dsantzan ein zauen !

- Domekie!	**- Zure amak popan muñekie !**
- Edozer !	**- Edozer dala, bedar usiñe !**
- Egidse !	**- Egidse, surren ganien begidse !**
- Egon !	**- Egonda erbidse atrapaten da !**
- Egun on!	**- Halan Jaingoikuek emon !**
- Egun on!	**- Baitxe zeuri be !**
- Egun on !	**- Bai ona dau ta !**
- Egun on !	**- Ez tau edonon !**
Egun on !	**- Bai, ez tau onik baie !**
- Egun on !	**- Eu tampoco !** (Eu non entzun dauelakuen)
- Eguzkidse !	**- Katuen gloridse !**
- Eiñek ein	**- Ta erramintzek lepora** (edo **kajara) !**
- Eh !	**- E dok hori !**
- Eh !	**- E ei de hori !**
- Ekau !	**- Ekau, txakurrek au !**
- Ekau ! (portuen eskien)	**- Ekau ta emon, Izaron biziko naitzeke !**
- Emoistek amure !	**- Bai, bietz punten !**
- Emon ba!	**- Emonak eitzen ei dau, etxie galdu !**
- Émon ba !	**- Emonák ei dako mermié !.**
- Emon, emon !	**- Bai emon, aman burue be ez da ta !**
- Emon gorantzidsek !	**- Bai emongotsatez, ez takoie pisorik eta !**
- Emoten tsutenagaz!	**- Zuk eta nok !**
- Ene bada	**- Ene bada ta ni, bestiek biharrien ta neu geldi !**
- Errena !	**- Errena, erren dungulu !**
- Errime!	**- Errime, gorputz ta arime !**
- Errozoie !	**- Errozoie ordidseri**
- Errozoie dakot !	**- Errozoie dakozu baie kartzelara jun bizara !**
- Es que ...	**- Eskien dabilena txarto dabil !**
- Esan txiste bat !	**- Txistek atunetako onak !**
- Esanakaitzik parkatu!	**- Ta urren dan lekuen sakatu !**
- Esatilez.	**- Esatilez ta datilez, popatik emotilez !**
- Eskandalue !-	**- Eskandalutatik emon tsoien Martzianari !**
- Esker txarrekue da !	**- Eskoie okingo dau ona !** (Ezkerra entzun daualakoan)
- Eskerrak !	**- Eskerrak emon ta eskoie hartun !**
- Eskerrik asko!	**- Bai, emongotsagu !**

- Eskerrik asko !
- Eskerrik asko !
- Eskerrik asko !
- Eskerrik asko !
- Eskerrik asko!
- Estule entzutean
- Etzi
- Euridse
- Ez ta ardure !
- Ez ta makala !

- Bai esango tsagu !
- Bai, ekarri asko !
- Bai ta eskoirik bapez ? (ezkerra entzun daualakoan)
- Ezkerrak asko ta eskoirik bapez !
- Ez ta geuze asko !
- San Blas, Santue da ta !
- Ezin bada itzi !
- Euridse gauze garbidse !
- Ardutsak Frai Mieleri !

Ez ez ta makaela, berdela da !

- Ez tako !
- Ez tako !
- Ez tok txutxue makala !
- Ez tot gure !
- Ez tot pier ! (baserritarrak. " ez dot behar") -
- Ezebez !
- Ezebez !
- Feo !
- Fiñaue da bera !
- Gaur San Juan
- Gauze bat!
- Gauze gitxi !

- Ez takonak baleko, ez tauen lekuen balego!
- Ez tako, ta badako, kamisen kaka dako !
- "Txutxuek eta merengiek, lusiñeko kantiñen"
- Ez tot gure, badot gure, danak gure matsan ure !
- Estopie balandriek ! (arrantzaleak)
- Ezebez, begireko ona ta partikerarako txarra !
- Ezebez dala bedar usiñe !
- Feo kauten bizarrak, baie berak pe aldien eruen bitsuz !
- Fin-fiñe ei de, santarran urrengokue !
- ta bidsar joan zan
- Gauzie aldien falta barik !
- Gauze gitxi,bapezan urrengue !

- Geuzétxu bet
- Gaztetute zauz !
- Gaztie zara zu !
- Geroarte !
- Gizonak ez gazak pa !
- Gorantzidsek !
- Gorantzidsek !
- Gose nai !

- Geuzetxue aldien, falta barik
- Gaztetute ez taitx, baie gastatute bai !
- Bai gaztie izanikue !
- Geroarte, Bonaparte !
- Bai, gizon eskasak ! (hitz jokoa)
- Gorántzak, zintzedunek !
  (aintzinako gorántzak edo korsetak gogoratuz)
- Bai pisorík ez takoie ta !
- Jango lekizu, astunak pe albardata !

- Gosie dakot !
- Gozo!
- Guzurre !
- Guzurre !
  Hala ba !
- Halako eskandaluri !
- Halako markarik!
- Halako markarik
- Halako markarik !
- Hamabidsek!

- Gosie badakozu kankámuek jan !
- Gozo ta gose !
- Guzurre, popan hazurre !
- Guzurre, bazurre, popako hazurre !
- Alava capital Vitoria !
- Eskandalutatik emon tsoien Martzianari !
- Markie Baieruen alabiek !
- Markie, Frantziko erraidsien !

(titi bien arteko marra)

- Hori ez ta markie, hori arrakalie be bada !
- Platerera begire begi bidsek !



- Hamairu!
- Han bez !
- Han dakozu fulana
- Han dakozu fulano
- Han duc!
- Hartu !
- Hasarratu nai
- Hasarratu nai!
- Hasikerie !
- Hay caldo.
- Hau !
- Hau dok e !
- Hola !
- Hor konpon !
- Hor konpon !
- Hori dok e !
- How do you do ...
- Idse !
- Idse hil !
- Igual bai !
- Igual da !
- Ikarie dakot!
  Ikarie dakot !
- Imiek .....
- Isilik !
- Isilik !
- Itzi !

- Hamairu, fraillien dozenie !
- Han bez, hemen bez, hartu ta berakatsa jan gurez !
– Hobeto zeu ta bera, añe bazuzie Donostire !
- Hobeto zeu ta bera, Izarora bazuzie lapatan !
Han duc, Atakaneko manduc !
- Hartu edo itzi, baie kunplimento gitxi !
- Hasarratutiek gatz bi dakoz gero; hasarratutie ta lagun eitzie !
- Ha zarratu ta bestie igiri !
- Hasikera ta akabukera !
- Caldo danak baño hobeto, katillo salda bat (letreroa ikusiaz)
- Au, au, txakurrek eitzen dau !
- Hau dok e , haudokenekue !
- Ola que es madera !
- Hor konpon, Aritzatzu ta Tonpon !
- Hor konpon, Marianton !
- Horidokenekue !
- Zeure ama baezpada !
- Idse hil egin zan bat, baie bizirik lotu zan !
- Idse hil hobeto ba, idse bizi baño !
- Igual barik !
- Igualda Rusian !
- Ikara asko ta bildur gitxi !
- Ikara y krus !
- Imiek eta amiek !
- Isilik eta kallando !
- Isilik eta mau !
- Hartu ta itzi, baie kunpliento gitxi !

- Jesuse ! - Jesuse edo oremuse !
- Jeusi barik ! (Kontuz !) - Eneki gure !
- Jun da etorri ! - Jun da etorri, mamala zar hori !
- Jun da etorri ! - Jun da etorri, kapela gorri !
- Kaka ! - Ein dse maska !
- Kaka ! - Kakak dako atsa, bera dalakon balaza !
- Kariño! - Amak etorteko diño !
- Kategoria ! - Kate gorria eta lodia !
- Kiñú egiten deuskunean - Hogeitamaike musien !
- Klik-klok - Klik-klok, gaur enozu ikusi, bidsar ikusiko nok !

- Koitxadue ! Koitxadue, infernuen atitan dauena !
- Koblan bi ! - Kose otxolok andriri, baie ez beranari !
- Kontuek ! - Kontu-kontalari, senar emaztiek hiru begi ! (bat otzólue zalako)
- Konzentzidse! - Konzientzidse azakaz jaten dala !
- Konzentzidse ! - Konzentzidse astuek jan zauen !
- Laban ! - Laban badauen erre eingo jatsu!
- Laban ! - Laban bazauzen, erre barik gero !
- Lar ! - Larra, dana txarra !
- Lebatzá ! - Para la gente aberatsa, da atune la gente komune !
- Legoien azala ! - Bai, legoien atzazala !
- Lekeitxo ! - Lekeitxo, barreka itxo !
- Listo ! - Listro, Calistro !
- Lobie ! - Lobie bai, baie lóbie ! (loba jenidsosiegaitxik)
- Majo ! - Majo Arrietan, kaka freskue Meñakan!
- Mañana más y mejor ! - Atziñen komediantiek !
- Mañana mas y mejor ! - Komediantie lez !
- Mekauen la puñeta ! - Mekauen la puñeta, andra ta koñeta !
- Mesedez ! - Mesediek abadiek ta eurek pe ondo pagata !
- Mesedez ! - Mesedez eta faborez !
- Mesedez ! - Mesede barik !
- Mille erriel! - Mille errielak zeuk aldien !
- Mundo kabroie! - Mundue ez, mundukuek baño !
- Ni caso - Nicasio Perez, kasurik perez !
- Nikasio - Nikasio Perez, kasurik perez !
- Nik ez taitx ! - Ez taitxik ez dau, gogue badau !
- Nok esan tsu ? - Neuk zeuri !
- O, la . la ! - Kuarenta kilometros mas palla !

- Ondo !
- Ondo eindse dau !
- Ondo ibilli !
- Ora pro nobis
- Osasune ta bakie!
- Osasune ta bakie !
- Ondo, zeruen dauen atsue !
- Ondo eñen pague, ate onduen palue !
- Gitxi gasta ta buelta etxera !
- Ora pro nobis krieleison, otzara bete gizon !
- Ta boltsillue ondo betie !
- Ta lapiko betie !

- Oye !
- Parkatu !
- Pater noster !
- Parie
- Parientie!
- Parientie !
- Pazentzidse !
- Pazentzidse !
- Pazentzidse !
- Pazentzidse! esateko baña esan barik – **Intsentsue, berakatza ta porrue !**
- Plaust (zeozer jausten dancan) – **Berau ez tue ¡**
- Potxua, potxua (Lekeitxarrak alabátxi esateko) – **Sartuidsok amari popatik kortxua!** (bermiotarrak)
- Saldu
- Santue da !
- Santue da !
- Señor !
- Señora !
- Si señor !
- Si señor !
- Subiñe !
- Subiñe !
- Suerte de potro !
- Tie !
- Ohie lo eitzeko ona edo bueno pa dormir !
- Da urren dan lekuen sakatu !
- Zuluen laster !
- Pariek bai ta jokorik ez !
- Parientiek parientiri, txarridse ostu !
- Parientie ta arrañe etxien, hiru egun da nahikue !
- Pazentzidse gauze handidse !
- Plazentzi herri ederra !
- Pazentzidse azakaz jaten dala !
- Saldue, galdue !
- Santuek altarien ta curek pe egurrezkuek !
- Santue arpeidse ta kolkuen barrabasa !
- Gure etxien ez tau iñor !
- Señora, ez hadi juen iñora !
- Si señor, gure etxien ez tau iñor !
- Si señor y no señor, fueron dos señores !
- Subiñe, beste ama batek iñe !
- Subiñe, subillé ! (subillé ikus. Masamorrie)
- Suerte de potro, tener marido y dormir con otro !
- Bai, odola metuteko dala ona ! (teie entzun dauelakuen)

- **Tomorrow morning seven o´clock** - **Etorten ba haiz ikuskon nok !**
- **Tú !** - **Popan ikutu !**
- **Tuju, tuju** (estule) - **San Blas santue da ta!**
- **Txikito !** - **Txikito, ezer ez dala betiko !**
- **Txo !** - **Txo atziñen, orain agizon !**
- **Urte barrí** - **Urte barrí, soruek pe igarrí !**
- **Urrun !** - **Urrun da fitz betiko ta betiko !**
- **Vale !** - **Bale-baleka ibiltzeko edaderik ez daku guk !**
- **Vale !** - **Bale-báleka ta bapíruke !**
- **Vale !** - **Baleike ta balitz, alkarren atzean dabiltz !**
- **Zaharrá !** - **Zaharrák izen txarra !**
- **Zaharrak !** - **Zaharrak trapuek !**
- **Zara !** - **Sarita Montiel !**
- **Zartzara .. !** - **Zartzara Artzara !**
- **Zartzara !** - **Zartzara, pausue txikitsu, ta kikille handitsu !**
- **Zartzien itzela!** - **Sartzie ez ta txarra, ataratie da txarraue !**
- **Ze egun dan bez !** - **Segundan bez, primeran !**
- **Ze feo!** - **Feo katuen bizarrak, baie berak pe aldien ibil bitsuz !**
- **Zera !** (Bera! edo Bai zera !) - **Zera ta bera ta Txilibistro, harek zien hiru gizon !**
- **Zerbikalak !** - **Zerbikalak osatuteko, horizontalien para !**
- **Zerien ¡** - **Zerien da merien ¡**
- **Zeru gorridse !** - **Haizie edo euridse !**
- **Zeure errue !** - **Erruek beidsek !**

Erantzuna hitz-jokoa eginez, "suek" entzun dauielakoan.

-

- **Zugaz daku etxe bete !** - **Etxe bete badakozu ondo zauz, etxe hutse da txarra !**
- **Zuk eingo zu !** - **E, ein biarra gogorraue !**

Lagun bi berbetan dagozanean eta batek besteari zeozer kontatzen ari jakonean, sarritan ahaztu egiten jako norbaiten izena, lekuren bat edo beste zerbait, **"Zelan okin zauen izena ba……?", "Baie non ezan zan ba….?"**

Esanez, besteak zera esaten deutso, **"Dana dala !"**, bardin dse eta jarraitu egizu esateko.

Txilibistro eta beste biak

Norbaitek, **zerá**, **berá** edo baita **nora** esaten dauenean, besteak zerá luzatzen deutso ;

Batek - **" Zerá ..."**
Besteak - **" Zera ta berá ta Txilibistro, harek zien hiru gizon "**
Batek - **" Berá ..."**
Besteak - **" Bera ta zerá ta Txilibistro, harek zien hiru gizon "**

Batek - **" Norá ..."**
Besteak - **" Norá ta zerá ta Txilibistro, harek zien hiru gizon "**

Batek **uzkerra** bota lagunak **Arrastro !**

Andrazkoen artean, batek zerbait egin edo esaten dauanean, besteak sarritan **Ene alabie !** esaten deutso, bere harridura edo hasarrea adierazteko.

Badagoz izen batzuk entzuterakoan ere, erantzunak emoten dogunak.

- **Akis !** - **Akis, malezidsek dakiz !**
- **Andres !** - **Potruek dandarrez !**
- **Andres !** - **Lau kopa ta lau tremes !** (tremes- antziñako ogi mota bat)
- **San Andres** - **Kapie dandarrez !** edo **beti al reves !**
- **Anton !** - **Bide berton !** edo **Bire berton !**
- **Antonio** - **Antonio polonio, pasa por aquí, errotako txakurrak erderaz daki !**
- **Bixente** - **Bixente potente !**
- **Enrike** edo **Rosarito** **Rosarito la papa, arbolara idsen ta ikuek atrapá !**
- **Erramon** - **Zuelako panderorik ez tau Durangon !**
- **Felipe** - **Bestiek diñona neuk pe !**
- **Isabel !** - **Isabel kaskabel !**
- **Jose!** - **Jan da beti gose, edan da beti egarri, Jose beti baragarri !**
- **Jose Mari !** - **Jose Mari zapatalari !**
- **Jose Migel !** - **Jose Migelen batela, txitxarrue ta berdela!**
- **Julian !** - **Kaka surrian !**
- **Katalin !** - **Katillo barridsen kaka egin !**
- **Kontxita !** - **Kontxita Ulia, purita pla !**
- **Maribi !** - **Maribi, jo popan ta erdi bi !**
- **Margarita !** - **Margarita, tronuan jarrita !**
- **Petra !** - **Petra, zazpi letra !** (llebadiegaz ezango da)
- **Pio !** - **Pio ta Duo, trio !**

- Tomasa - Tomasak emoten dauela lanbasagaz eta Xixilik isisilik !
- Txomin - Txoridsek hankan min !

Neuri askotan - **" Jose Migelen batela, txitxarrue ta berdela ".**
Nire erantzuna - **" Txitxarrue beti soñien, ta berdela noizik peiñien".**

Bitxikeri modura, aintzina "añe" ibilitako Bermioko andra batek, bere "señoriri" esandakoa.
Bilbotik Bermiora heltzerakoan, Lamerapunten gelditu ziran, portura begira.

Señóriek - - Ah! que panorama!
Áñiek - - Señorita, no es panorama, es Bermeo !

Besteen galdereei erantzunak

- **Ama ta ?** (Gurasoek zelan?) - **Amatateen !** (Nagusiek gero eta txarrago)
- **Ama ta ?** " - **Amata ta biztu !** (Amatatu entzun dauelakuen)
- **Ama ta ?** " - **Amata ondo, biztu txarto !** "
- **Apellidue ?** - **Jose karnizerue !**
- **Bai ?** - **Ananai !**
- **Baguez ?** - **Ez enai bague !**
- **Baguez ?** - **Bague zeu ezango zara !**
- **Bazatoz ?** (Leku neketsura edo ordu penasien) - **Urren egualdi txar baten !** (Ezetz esateko)
- **Besterik ?** - **Ez dotela egon gure bakarrik !**
- **Bidsar ze egualdi eingo dau ba ?** - **Bidsar ikusi !**
- **Da ?** - **Daketá, estropué ta toletá !**
- **Eh ?** - **O, biribillaue !**
- **Eh ?** - **E dok hori !**
- **Eh ?** - **E ei de hori !**
- **Eh ?** - **Brekeké !**
- **Eh?** - **Elantxobe !**
- **Eh ?** - **Elantxobe Ogoñopien !**
- **Eh ?** - **Elantxoben ama gorrari !**
- **Eh ?** - **A la madre Lekeitxon !**
- **Eh ?** - **E , patata ximele !**
- **Egidse ?** - **Neure begidsekaz ikusidse !**
- **Eingule ?** (zeozer egiteko asmoz) - **Eidsok amari !** (Karnadie eskatu deutsolakuen)
- **Eta gero ?** - **Eta gero, hotz ez dana bero !**
- **Eta gero ?** - **Gero gerokuek !**
- **Gusta jatsu ?** - **Bai erregusta be !**
- **Guzu?** - **Guzu geisuri esaten jatso!**
- **Guzu?** - **Guzu, Don Karmelon txakurre !**
- **Hau ?** - **Au, txakurrek eitzen dau !-**
- **Holan da ?** - **Holandan berau Rusia !**
- **Holan da ?** - **Holandan, gaztaie merke !**
- **How do you do...?** - **Zeure ama baezpadan !**
- **Izena?** - **Okela gizena ta apellidue Jose Karnizerue !**
- **Noiz ?** - **Berandu baño goiz !**
- **Noiz ?** - **Oin baño goiz !**
- **Non ?** - **Emarandon !**
- **Non dau nire ..?** - **Neure katrien , isterratako mandan !**
- **Non dau nire ..?** - **Zeure musturren aurrien !**
- **Non dau nire ..?** - **Amen, txakurre ezan bazan, hainke !**

- Nondik nora (Zelan?) **- Bermiotik edonora !**
- Nor ? **- Edonor !**
- Nora zuez ba? **- Bidiek eitzen !** **- Bidiek eindse dauz gero !**
- Nora zuez ba ? **- Eindse dauena botaten !** (kumunera)
- Nora zuzie ba? **- Cabo Culorantz !** (etxerantz)
- Nora zuzie ba? **- Emoten badauie jaten !**
- Nora zuzie ba? **- Izarori bueltie emoten !**
- Nortzuk? **- Mokordo bitxuk !**
- Notaki? **- Botakik !** (Botaki ezizena)
- Notaki? **- Neuk eta Florentino Botakik !**
- Okupeta zauz ? **- Bai, San Juanen kanpaie lez !**
- Orain? **- Ez, orain ez, auntxek !**
- Orain ? **- Bai, auntxek, bitse galdu barik !**
- Que dices ? **- Kerizez !**
- Que dices ? **- Kerizez en mayo !**
- Que dices ? **- Kerizez y mallukis !**
- Que son esos ? **- Antzorapeko lapa preskos !**
- Suministruc noizko ? **- E, zeu zaranien presidente !**
(zu ministrue entzun dauelakoan)
- Urten tsu loteridse la ? **- Bai, partikeratik !**
- Zeitxik ? **- Haitxik !**
- Zeitxik ? **- Bi dauen lekuen, hiru ez itxi !**
- Zek hil ete zauen ime bakue ? **- Euki ezak !** edo **Ez okiñek !**
- Zelan? **- Kaka zure velan !**
- Zelan ? **- Zelan musikie, halan dantzan !**
- Zelan? **- Zelan zeruen halan lurrien !**
- Zelan edo **zelan da ?** **- Zelandan garidse merke !**
- Zelan dakozu izena? **- Okela gizena !**
- Zelan ondo ? **- E, tapateko onduen !-**
- Zelan bizi ? **- Tamañuen !**
- Zelan ondo ? **- Hobeto gure bez !**
- Zelan zabiltz ? **- Hobeto gure bez !**
- Zelan zabiltz ? **- Hobeto guren !**
- Zelan zabiltz ? **- Ibilli txarto, baie bizi ondo !**
(nagusiek edo koixuek)
- Zelan zauz ? **Mundekako lorue lez, jodite !**
- Zelan zauz ? **- Zapatak ondo !**
- Zelan zauz ? **- Tenpleu gitarrie lez !**
- Zemata ? (zenbat da) **- Se mata y se muere !-**
- Zeozer piketeko ? **- Piketeko moskitsuek !**
- Zeu zelán ? **- Zeúzelan !** (nola edo hala, zeozelan)
- Zer ? **- Kaka pareser !**
- Zer ? **- Einba tres !**

- **Zer?** - **Zerbesie ta kandelie !**
- **Zer?** - **Baietz !**
- **Zer?** - **Zor !**
- **Zer ?** - **Zer, zer?**
- **Zer ?** (ulea hartzen) - **Emoistek amure bietz punten !**
- **Zer?** - **Báietz !** (azalpenik ez emoteko erantzuna)
- **Zer da ?** - **Estidse erreta !**
- **Zer da?** - **Zer da, txarri emie !**
- **Zer diño?** - **Zerdiño Galizidsen txarri kumiri!**
- **Zer edo ?** - **Edozer !**
- **Zer ein got?** - **Ogi handi-handi bat eta merke-merke saldu !**
- **Zer eindse ba ?** - **Ze eindse ? Atso bat seiñe eindse, ta bera be titi bakue !** (ezinezkoa)
- **Zer eingu ba ?** - **Hil arte bizi !**
- **Zer diño egualdidsek ba ?** - **Ezebez, ondiño ez taki berbetan eta !**
- **Zer esanzu ?** - **Zapatak hamalau !** (zeozer esatigaitxik)
- **Zer esanzu ?** - **Amak aistek eta jan gurez !**
- **Zer esanzu ?** - **Frantsezak Bermiotarrari kis ki di !**
- **Zer ete da ?** - **Zer ete da, nor ete da erropiaren joskillia !.....** (abesti baten zati bat)
- **Zer moduz ?** - **Como un trolebus !**
- **Zer, ondo ?** - **Ondo jodite !** (txarto)
- **Zer, ondo ?** - **Tamañuen !** (halan-holan)
- **Zer, ondo ?** - **E, tapateko onduen !** (ondo)
- **Zer, ondo ?** - **Azalien !** (ondo)
- **Zer, ondo ?** - **Hobeto guren !** (halan-holan)
- **Zer, ondo ?** - **Hobeto gure bez !** (ondo)
- **Zer, ondo ?** - **Ondotzat !** (halan-holan)
- **Zer, ondo ?** - **Ondo biko !** (beharko)
- **Zer pasaten da?** - **Txistue samatik !**
- **Zetako ?** - **Hatako !**
- **Zetako?** - **Jaingoikue gizon handise dalako !**
- **Zeu be gaztie zara ?** - **Bai, gaztie izanikue !**
- **Zuek ?** - **Bai artifizialak !**
- **Zer esantsu ba ?** - **" Batako, ez taitx zer da badai zer, ta besteko, ez tai nor da badai nor, azkanien ez tost esan ezer "**

Azken hau entzun da gero, bakarrik falta da, bestiek "**Ez ta ezango egidse !** " esatie.

Ilunpetan norbait dabilenean, eta uste dogunean ezaguna dala, **Tomas zara ?** galdetzen deutsagu, Tomasen erantzuna, **Ba pai !** (bat bai !) izaten dalarik.

- Zer pasa da ?, lustre labana, txirristadie emonda, jon popaz gora"

(Umeren bat jeusten danean kantaten dana)

Berba bardinekaz, hitz joko bitxiak

Batek, **"Zeu zélan ?"**, besteak, **"Zeúzelan !"**
Batek, **"Zer édo?"**, besteak, **"Edozér !"**

Barreka zatitsu

Lameran, irakurtzen ez zekien agure bat egunkaria eskuetan dala. Bere ondotik pasaten dan lagun bat, eta egunkaria berantz begire daukala konturatzean, **Zer diño periodikuek pa ?** galdetzen deutso. Ta bestiek erantzun, **Barco a pique !.**

Egunkarian agertzen zan bapora, bueltie emonda ikusten ebalako.

-La estación por favor ?
-Ez gorantza ez berantza, aurrez-aurrez harantza, pit estasion !

Horrengañe datogaz edonok topaten dau estaziñue.

Antzinan maisu batek galdetu eban, **"Que es el kilogramo ?"**, gaztetxoek jakin arren bildur erantzuna emoteko. Halako baten, altzaten da bat eta diñotso oso-osorik, **"Lo que tiene Maria Zestero para aguantar la puerta".**

Maria Zesteroren dendea, San Juan Portaletik beherantz eskoitzetara egoan. Atea ez isteko, jabeak pisatzeko erabiltzen zan burdinezko kiloa jartzen zuen atearen kontra.

Ezetz igarri

Lau hanka ta gorputzik ez, eperdidse bai, baie uzkerrik ez. Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?**

Konparaketak

Norbaiten edo zeozeren ezaugarria edo egoera azaltzerakoan, besteren batekaz konparatzen dogu, eta antzekoa dala adierazteko, **lez, lakue, gañe** edo **antzekue** atzizkiak erabiltzen doguz .
Gure elkarrizketetan, gaur egungo egoeraren bat, orain dala denpora asko gertatutakoagaz konparatu edo gogoratu nahi dogunean, **Atziñekulez, txikitxekulez** eta iñoiz ez gertatutakoa edo konparatzeko modukoa ez danean **iñoizkulez.** Zeozer egiterakoan edo kasu egiterakoan, oraingo gure egoera ona jarraitzea adierazteko, **Auntxe lez !** eta **Legoie lez.**
Fisikoki daukagun ezberdintasunak adierazteko, **manduen gañekue, tutuelakue** edo **zozpalalakue** eta abar esaten dogu, baña badagoz guretzat jatorragoak diranak.

Tútuelako etxie edo **etxe tútue.**

Algortako porrue lez - Espabilleta, tente, artez
Ardi galdue lez - Bakardadan, nora ezean
Arime fiela lez - Argal-argal
Arrañe pesetielez - Fresco, dizdiratsu
Artzan ari lez - Ugari, asko
Aspaldidson karta lez hiltzen da jentie - Asko
Astue lez biarrien - Gogor
Astun tapilez etor jaku - Oso ondo, eratara
Aterkiñegaz manikomidsoko morroie lez – Egualdi ona ta aterkiñegaz
Atziñeko lapurre lez, ein da eitzen - Zeozetan lan da lan
Auko ogidse lez - Derrigorrez, nahi ta ez.
Bakar-bakarrik errosaidsue lez - Bakartadan
Baso txarridse lez - Loditsute
Bastarreko postizue lez - Etxure barik
Bazpidse lakue - Potozorridse
Besata, biberuko arrañe lez -Ohituta
Begidsek, ur handiko lotsie lez - Igiri igiri eindse

Beti okupeta, San Juanen kanpaie lez - Batez be beran egunien
Bitxe lez, beti ganetik - Beti berak azkaningoko berbie
Buelta-bueltaka euli mandue lez - Harantz ta honantz
Burue tanborra lez - Buruko miñegaz
Buskentza lez - Deskantsuen
Buskentza lez loditsute - Etxure barik
Erromerue lez ibili - Zeozer lortuten
Esne otzetako sopielakue - Pertsona arpi garratza
Estidselako pertsonie - Ona
Euli mandue lez ibilli - Buelta-bueltaka, nora ezien
Harriko trapulez egon - Destartalata
Herri txakurre lako morroie - Itsosuri dar-dart egiten deutsonari
Hori imic, barrabasan hankilakue da - Gaiztue, okerra
Imajiñielakue - Birjiñilakue, politxe
Ime txikidse lez negarrez - Negar da negar
Iñor ez lez - Atentziñue deitsuten, edozelan, etxure barik.
Isterrak okertute, baideko txitxarrulez - Oker-oker eindse
Itsotxoridsen kontu lez, zarrau eta ederrau - Edaderantz gero ta lodiago
Jan du erregilez, beraz txarridsek jan badau geurelez - Ondo jan da gero
Jantzi bako txoritxue lez - Ule barik
Jezarri patron de Galizia lez - Zabal-zabal
Kakan antzeko morroie - Potozorridse
Kamarako sagarra lez - Simeldute
Katalan barrille lez loditsute - Txiki ta lodi
Katuek edo **lebatzak auen ibilliko moduen** - Bigundute
Kaza txakurren antzeko morroie - Non zer hartziko dabillenari
Kisketalako surre - Sur handidse ta okerra
Kofrie lez jan - Arin ta asko jateari
Kolko bete kurubidsu lez - Zeozer pillotute
Konpostolie lakue - Ederra, lodidse
Kromue lez pegata - Norbait beti albuen dogunean

Kurtzioko txiliñe lez - Pelmadie emoten

Lanbasalakue - Koipestue

Larrosie lez - Gazte

Legoie lez - Ederto

Leba-leba Konsuelon bizarra lez - Geldi geldike gorantz

Lo sakulez - Lo ta lo dauela esateko, sako baten moduen

Makatza lez - Nagusia itxuroso edo umea jateko moduen dagozanean

Manduen ostikadie lez etor jaku - Bapatean zerozer txarra etotzeari

Mañana más y mejor komedientilez - Bihar gehiago

(Atziñeko komediantien esakerie)

Mari kákien antzekue - Txori pendejue, pelmie

Matxeta lez - Ondo/ Lekutara orduen heldu

Motor-txikiko mutille lez ibili - Norbait,harantz ta honant ibili.

Erd. Como el pito de un sereno

Motorra lez - Arin, urduri edo itsututa dabilena

Obispue lez beran lekuen - Mobiten ez danagaitik

Oridsu lez, beti ganetik - Harek beti berana ¡

Ososoko santu lez ego - Plaust eindse

Ostidse lez - Oso ondo

Otso buruzkuen edo otso babastuen antzekue - Koipestue

Serpentiñilakue da - Edonora, danatara ailegaten dana

Tenpleu Arturo lez - Lasai, patxadaz

Tolle lez egon plaust eindse - Bertan bera

Txakurren besteko atunek - Atun handidsek

Txakurren buztena lez - Atzetik ibiltzeari

Txilipitxeruen antzeko morroie - Señoritue

Txingauen antzeko morroie - Txingaueri

Txikitxekulez - Antziñeku lez

Txirta lez - Lerden, gazte

Txise lez - Epel epel

Txori mosolu lez - Bakarrik, inori itxaroten

Uliek hegaberie lez - Uliek gora begire, orraztu barik.

Ulie dakozu Santa Klarako arratoie lez - Loitsute
Uren bitse lez - Beti ganetik, beti errozoie atara behar
Urrien bitse lez - Zeozer garbi-garbi dauela esateko

"Herriko haiziek Taraskan sastarrak batzien dizelez, batzien dizela santarrak pe !"

Azaltzen ari garana, besteen aldean ezberdina bada, **baño** (sarri **paño** ahozkatuta) erabiltzen dogu konparazioa egiteko. Eta konparatzen ara garana, iñoiz baño hobeagoa, txarragoa eta abar dala adierazteko, **egunokorik** erabiltzen dogu

Egunokorik gozuen, egunokork merkien, egunokorik ariñen, eta abar.

Abarketic baño sikuau Okelie edo beste jatekoren bat siku dagoanean
Abuxek baño odol gitxiau - Odol bakue
Akarran adarrak baño okerrau - Oker-oker eindse
Arto burue baño inusentiaue - Total iñusentie
Arto txoridse baño zentzun gitxiau - Buru ariñe
Artzako basie baño santarraue - Alperra
Artzie baño zarraue - Benetan zarra
Astuen barrabaiek baño santarraue - Alperra
Atxa baño gogorraue - Pertsona gogorra
Atziñeko lamaikue baño faltsuaue - - Faltsue. Lamaikue. antziñako dirue
Hauri hormie baño arpi gogorraue - Lotsa bakue
Azukara morenue baño bobuaue - Benetako bobue
Bañe palue baño artesau - Artez-artez
Barrabasa baño geistuaue - Elementue
Basie baño santarraue - Alperra
Beintisinko baño arruau - Arrotute
Beintisinko baño pozau edo **arruau** - Poz-pozik
Berakatz atala baño fiñaue - Persona fin-fiñeri
Beraune baño astunaue - Pisu askoko zeozer
Bodalok baño teatro geidsau - Kopla asko daukana
Bokar txikidsek baño enemigo geidsau - Danak bere kontra daukana

Braie baño itsuaue - Itsumendidsen dabilenari

Durdoiek paño mosu handidsauek - Mosu handidsek

Eperdikarie baño ariñaue - Gauzak ariñei eitxen dauena

Erroidse baño baltzaue - Baltz-baltza

Eskoba palue baño artesau - Artez artez

Fotá baño arruau - Arro arro

Frantxun atxetako arratoiek paño geidsau jakin - Espabilaue

Garizimie baño luziaue - Benetan luzie

Gerizpetako porrue baño handidsaue - Benetan handidse

Habanako pálue baño ártesau - Artez-artez

Hilbizíkue baño kolore makálauek - Geiso antza

Iketza baño báltzaue - Bal-baltza

Ikezkiñe baño baltzau - Benetan baltzitsute

Iko órridse baño latzaue - Latza

Infernuko barrasa baño geistuaue - Benetan geistue

Iton baule baño handidsaue - Kabide handiko lekue

Justuridse baño ariñaue - Pertsona ariñe, azkar dabilena

Kaldo danak paño hobeto, katillo salda bat - "Hay caldo" letreroa ikusterakoan.

Kallejak paño kuento geidsau - Upiñe zemakure

Kandelie baño artesau - Artez-artez

Kaskabelak baño pozau - Pozarren

Kinpuliek baño erropa geidsau - Erropa asko daroanari

Lizien arrotzak paño bigunau - Bigun-bigun

Maisonen atunek paño geidsau entzungozu - Kofraditik etxera heldu arte, bera Lameran lotu-lotuke berbetan gelditzen bait zan.

Marikoien uzkerrak paño indsar gitxiau - Makala, indar bakoa

Marmok arrañe baño molda bakuaue - Molda bako trena

Mastapalue baño artesau - Artez-artez

Mikuen popie baño motzaue - Oso motza , itsusia

Miserikordidseko txarridse baño lodidsau - Benetan lodi

Misto palue baño argalaue - Benetan argal

Mundekarrak paño mosu handidsuek - Mosu handidse

Muruetako astuek baño ister luziauek - Hanka kuzie

Normalcko fota baño arruaue - Etxurosue. Normal denporie,gerra aurreko denporiri deitzen jakon eta fota, ordungo ogi mota bateri.

Ogoño baño handidsaue Goidse jotekue, handidse

Ormazuloko arratoiek baño geidsu jakin Espabillaue

Pitxarrosien azala baño latzaue - Benetan latza

Pizkazurre baño txikidsaue - Potozorridse

Polakuen arrotzak baño baltzau - Bal-baltza

Popako uliek paño txingauaue / tentelaue - Benetako Txingaue / tentela

Putxie baño bigunaue - Total bigune

Sartenan popie baño beruaue - Sexu kontuetan, andra berue

Satorrák paño geidsau daki - Espabilaue

Tabardíllie baño gogorrau - Benetan gogor

Tabardíllic, geisue baño hobeto da - Ume elementue be, osasunegaz hobeto

Taketá baño gogorrau **>> IKUSI** - Benetan gogor

Taluc baño arpi handidsaue - Fisikoki arpi handidse

Tanbolin palue baño ister argalauek - Txanka meiek

Tiadorin baño txarraue izan - Ezer ulertu ez, edo dana ahaztuten jakonari

Txakurren popie baño motzaue - Motza, itsusia

Txibidsie baño zuridsaue - Zuri-zuridse

Txikiko fuetie baño ariñaue - Buru ariñe

Txilindrue baño lotuaue - Odol bakue

Ur handiko lotxiek paño begi handidsauek - Begi manduek

Usuen kontzentzidse baño baltzaue - Baltz-baltza

Zimarroiek paño geidsau jakin - Asko jakiteari

Ezetz igarri

Popitas ?

AURKIDSÉ - aulkia

Nasteborrastie

Atal honetan, nasteborrastean, edozelan, ordena barik , gure herriko berba edo esakera bitxiak edo barregarriak ikusiko doguz. Amuman kamaran edo atxitxen loijjen gauzak egoten diran moduan, alkarren ganean, zahartuta, erdi apurtuta, loituta, baina modu erakargarrian, gure gustuko zeozer aurkituko dogun esperantzan.

Masamórrie

Aborrotsa – Zarata handia, Harrabots.

Adarretatik buztenaraino – Goitik behera. Erd. De los pies a la cabeza.

Adurré – Babie. "Adurré daídsola !".

Ago beteko hazurregaz geratu – Zurtutc, czin sinestu.

Aguarda ! - Kontuz ! min ein barik.

Ai gure galantá, itsuek andriri – Ez dakian zerbaitetaz, kontatzen ari jakunari .

Ai hálan !, Ai hólan ! – Ze ondo e !.

Ai zuúu ! - Zurelakorik ez dau !, Zuk badakizu !

Aiko´! – Koño, Beitu. Erd Vaya!. "Aiko hori !", "Aiko barrabasá !"

Aikomaikuek – Atzakidsek. "Aikomaikutan ez ibılli gero !".

Aitxetú – Aipatu, esan. "Aitxetú be ez egin".

Aitxiarenka – Harriduraz, zerbait ikustean edo entzutean, aitaren egitea.

Ajáta – Kolorea galduta, estropieta.

Akulukeidsek – Maltzurkeriak, martingalak, tranpak.

Ala ibili edo alatuten Norbaiten kontra mar-mar ibiltzea.

Alagorá – Soldata, sueldue.

Alaménak – Kejak.

Aldabatera / era batera – Batera.

Aldatsá piké – Aldats-gora gogorrá.

Aldien – Soñien (soinean), "Aldien dakot". Konparaketa, "Neskan aldien, mutillek formalak diez". Aldíen > baserridsen.

Alíjo ibili – Arin, bizkor, azkar.

Alper –Nahiz eta .., arren. Alferra, ardurabakoa. "Alper partiduc irebazi, segundara", "Partidue irebazi arren, segundara".

Alperrik, alper-alperrik – Alferrik, enbalde " Alper-alperrik da hareri ezer esatie ! ".

Alperrikaldute – Pertsonca makalduta edo janaria erdi ustelduta .

Ama perrien etxien, ama putien etxien – Urrun, asau.

Ámen !-Hemen. Baita Beitu !, Beitu nor dan!, Ámen hau, Aspaldiko ! zentzuan.

Amenazopien – Mehatxupean.

Amidetsue okin – Norbaiti gurezana edo begikotasuna izan. Zerbaitek kaidie edo mandie izan. "Amidetsue dakotso berari neskiri". "Honek botaberiek amidetsue hartunde dako".

Amotzá – Zorroztu bakue. "Amuztute dau hau kutxillue".

Amurrué edo **amorrue** – Gorrotoa. Gogo handia. "Zelako amurrue dakotso ba !", "Tximinoien amurrué dakot", "Amurrugaz jaten dau", "Amurrugaz eitzen bazu urtengo tsu "

Amurrútute Hasarre, arrabia izan. "Amurrútute dau", "Txakur amurrútue".

Amúskidse- Jan barik datorren karnadie "Apaijjuen ondo enpike bidela amuskidse ! ".

Andekisola ! - Emon deidsola handik !. Erd. "Que le den dos duros" .

Andra bako etxien, eraizu nabo hazidse eskatzien – Gizonak etxerako zikiñek.

Andrakillé, - Plamíkie, panpina, muñekie.

Antzidse bako geuzek – Inportantzi bako geuzek.

Antzireko hartu – Kontutan hartu. "Antzireko bez ez tau hartu".

Añénak – Berba motzak, juramentuek.

Ápatxa – Txoiloa, pagotxa, zortea. "Ápatxa dakozu horregaz".

Apélue – Gorrotue, manidse. "Apélue dakotso".

Aplákata – Lasaituta, motelduta.

Apropós – Olgetan, txantxetan. Érara etorri. "Apropos esan tsut", "Apropos datost bertorako".

Ardi txikidse, beti bildots – Txikiak beti gazte itxura.

Arien bez – Ezebez, arrastorik pez, ez ta pentsa bez.

Árnas úske – Andana korridsen ibilita gero, arnasie hartun ezinik.

Arpígue – Ankillié. Erd. Ancla.

Arraíntze – Ordenatu, txukundu.

Arrazarik pez – Arrastorik pez. "Edukaziñuen arrazarik pez".

Arren - Atzizkia Nahiz eta..., alper, erregua. "Partidue irebazi arren, segundara". "Zeugaz egotiarren". "Jaingoikuen amoriarren !".

Artekadú – Larri, istu, kakatán.

Artez esatea – Egia esatea. "Artez esateko gorridse politxaue da". Erd. "A decir verdad".

Asko izan – Arraroa izan "Asko da zeuretzat !", "Asko da berantzat".

Asmá – Entzun. Igarri, nabaritu."Ez ta asmaten iñor" .

Átakontu – Pentsa leike "Ilúnpiri, átakontu gaue dala"

Atésuen egon – Txikotak edo kordelak ten dagozanean. Egoera ekonomiko larrian egotea.

Atézkero – Hori halan bada, honezkero, orduan "Atézkero, neu be banutak".

Atsokeidsek edo **zaharkeidsek** – Gazteak izan arren, nagusien ideiak edo jarrerak.

Atzakidsekaz ibili – Koplakaz, paristekaz ibili.

Atze ta aurre urten – Txarto urten. "Horreri kasu eitzen batsazu, atze ta aurre urtengozu".

Atzekoz-aurre – Jantzia soinean atzekaldea aurrean, ez eratara, ez iruntzitara.

Atzekoz aurre urten - Txarto urten. "Horreri kasu eitzen batsazu, atze ta aurre urtengozu".

Átzera – Barriro, ostabere.

Atzien ganera – Etzanda, etzunde.

Atxiapítxiak –Esamesak, txaskarrílluek.

Auen barruen berba – Bestiek ez entzuteko moduen berba egiteari .

Auntxe lez !, Auntxeku lez ! (Oraintxe legez)– Ez itzi, gogor, animoak suspertzeko.

Auntxe pe ! (Oraintxe bere) Zer zoaz egitera?, Zerbait gertatuko da! .

Auntxetakutan bai – Oraingoan bai.

Aurbérie – Desnibela

Aurkí – Antza danez. "Gaur datoz aurki".

Aurrezpidié – Lehenengo berbea "Horreri ezin jatso aurrezpiderik emon ".

Aurrezpidié – Adiskidetasuna, amistadie edo hartu-emona.

Autuek okin–Beti batabategaz berbetan edo zepaitxegaz zeozer egiten, beste ezeri kasu egin barik egoteari. "Autuek dakoie", "Autuek dakoz beragaz makiñe iñusentigaz".

Auzpez – Aurrez bera, buruz bera edo goikuz bera. Auzpez jeusi.

Aza-pórruek – Karta jokuen (briskan batez be), balio bako kartak.

Azkaningo dabillenari, erramu apurtue – Epelenari, tresnak be txarrenak

Baiba – Baietz ba !.

Baie bost ! - Bai zera !, Baie potrutatik ! . "Topakozu, baie bost ! " (Ezetz topa !).

Baitxe, baitxe... - Baita askoz gehiago.

Baiezko kontue – Baietzean egon. "Baiezko kontue esan dauie".

Baiezmenakaz ibili – Dudatan ibili, kon-kan ibili.

Bale-baleitseke – Posible balitz, Ezan balekide.

Balústrie – Barandíllie.

Banan-bananguek – Bereziak, selektoak.

Bando egin – Norbaiten alde egin-"Aitxek bando eitzen tso".

Bapezna – Hutsna, zero-zero markagailuan.

Bapeztu – Desagertu, txikitxu

Barbáran zazpi barriek – Barre asko. Barbára izeneko andreak ohitura zeukan beste andrei, "Erdu hona zazpi barriek eitzen" esateko.

Bardin prezidsuen, gizónan abarketak – Bardincan handiagoak hobeto.

Bardiñien – Kondizio bardinetan. "Bardiñien naidsau dot hau gorridse"

Barrabasak eruen – Zeozegaz gustura egon ta bapatean amaitzen dancan. "Barrabasak eruen dost !".



Barrabásak okin – Norbait trebea, ausarta, abila dala, "Barrabásak takoz".

Barritz – Ostera, aldiz. "Orain barritz ez zatoz gugaz".

Barruteídsek – Gauzen edo izakien barrukaldean dagozanak.

Bastarreko postizue lez – Etxure barik. Antzinan Madalen bezperan, Bastarren baserritar jantzita jartzen ziran panpinak gogoratuz.

Bastarreko postizuek jasten - Denporie galtzen. (Madalen bezperan jartzen ziran panpinak).

Bátabat – Nopaitxe, Nonor, Norbait.

Bategaz chun – Zeozer jausi ta zatitsuten jakunean. "Ai ba, bategaz chun ! ".

Bátun-bátun – Edozeinegaz batzen danagaitik.

Batzarreídsek – Kotilleuek. "Batzarreri bet esango tsut".

Begi bídsetatik negarrez – Egoera txarrean edo larrian .

Begidsek beté – Zerbait gustatu, liluratu.

Begidsek lau eindse – Denpora luzean, zeozer begira edo zeozer topaten, begiak nekatuta izatea .

Begizkuné – Begizkoa. Erd. Mal de ojo.

Behinbat – Behintzat, behintzet.

Bera da ba !-Morroie makala !– Izatez edo egitez trebea, gogorra, txarra, edozer. Erd. "Pues no es nadie el pollo/la tia".

Beran burugaz egin - Beran burugaz beste egin, Burue bota.

Beratú –Uretan bigunduten edo gatza kentzien. "Indsabak beratuten"

Berba handirik ez egin – Berba gitxi egitea. "Ez tu berba handirik egin".

Berba lágune – Momentu konkretu batetan, berba egiteko aurkitzen dogun pertsonea.

Berba lekue emon – Zer esana emon.

Berbiek berbie dakar – Esaten dauanak, entzun be egin beharko dau.

Beragazkue egin – Norbait gureganatu. Ama beragazkue egin eziñik. Amak karrerarik ezin egin beragaz.

Bere biziko ... - Iñoizkorik .., iñoiz baño ... "Bere biziko onduen".

Bestalá – A ze ederto, a ze ondo. "Bestala zauz berton".

Betazpidsek – Ojerak.

Bete-betien – Benetan sinestuta egon. "Bete-betien egon nahi zeure semie dala ta".

Betik gora ez altxateko berbak - Ganorabako berbak, azalekoak.

Bezata – Ohituta, egoera barriari eginda. "Bezata nau biberoko arraiñe lez"

Biarra gogorraue - Gogo barik ere egin behar. "Jjun biarra gogorraue !".

Bidsek-bidsetara edo **bi-bitzera, bidsok-bidsotara** – Bestelako bi, biak antzekoak. "Bidsek-bidsetara be antzekuek tiez ".

Bidsorkadié – Hanka edo besoa okertu edo trokatu.

Bidsórrak – Txikotak erabilearan porazuz izaten daben oker guneak.

Bidsortú – Erropei edo harriko trapuri, ura kentzeko bueltak emotea

Bidsotza auen dala ! –Bihotza ahoan dala. Korrika ta presaka.

Bidsotzik ez hil horregaitzik – Ez arduratu horregaitik.

Bietz harridsek topa – . Denporea galdu. Zerbait egitera joan eta norbaitekin topo egiteagatik berandu heltzerakoan, "Zer, bietz harridsek topa zuz ela ?".

Bilbo egin – Zerbait jeusi, apurtu, laskitsu,.. "Auntxek pe Bilbo eingozu".

Bínke ! - Bai horixe !, ya lo creo !, errozoie !.

Biringánien – Behegainean, lurrean. "Txo, biringanetik altxako zara !".

Birrindsúte – Zatitsute, txikitsute.

Bitse galdu barik – Zerbait egitea gogoz eta lotu barik. Uretako jokoa.

Borbolera bota edo **etxa-** Norbait kaka saltzien bota. Borbolera botata, mezpreziaturik edo iñok guzik dagoana. Etxean gauzak bere tokian barik, eskina batetan utzita badagoz, borbolera botata dagoz.

Bost ! – Bai zera !. " Berak eingo zauen, baie bost !".

Botikeko egune – Okasiño edo disgustu egune .

Brekeké – Ganora eskasa. "Zuk dakostazu brekeké "

Brekeké !– Hauri !, a zelakoa !. "Hotza dau brekeké !".

Brekeké atara – Agirika edo jo. "Brekeké ata tso" (atara deutso)

Brekeké zuri – Joan zaitez hortik. "Etxa gatza zuri !".

Bueltan-bueltan... - Hau ta bestea, ta azkenean ezebez.

Bukoié – Barrillé. "Horrek bukoié be edango lekidau "

Burugiñé – Berekoia, iñon pentsamenturik ez daukana.

Burutasuné – Zorotasune, erokeria. Erd. Cabezonada.

Búrrie – Bidearen bihurgunea edo kurba.

Dabillenak eitzen dau zai ta urun – Zerbait egiteko lan egin behar da. Zaidse ta urune egiteko be bai.

Dalá (esaldiaren azkenean) - "Zigarrue aguen dala", "Eskuek partikeran dala". Daroala, daukala edo antzekoen zentzuan.

Dále beti ! - Lanean edo ekinean dabilena agurtzean.

Damutu jast zazpi bider – Benetan damututa gagozanean.

Dana ez ta jakiñe, miñe be asko da – Jakitea ez da dana.

Dana dan lékuen – Edonon, leku guztietan.

Dának danatará ! - Danak be antzekoak.

Dának guztídsek – Dan danak, guztiak

....n dánik – Danatatik ....."Bermeon danik abíllena", "Munduen danik txarrena".

Malétie dandarréz

Dandarréz – Narrascan, arrastaka ibili. Zeozer edo norbait tiraka eraman.

Dandarréz ibili – Lanean nekatuta atsedenik barik edo osasunez makalik.

Dandílizke – Zintzilik, dindilizka, daídsola (dariola).

Dánok barrú ! - Batzekoak diran danak batu diranean baieztatzeko edo galdetzeko ea izan behar diran danak dagozan.

Itsasontzia portutik urten baino lehen, jakiteko " barruko " danak dagozan edo ez. Antzinan pelotaka "kalera étxaten" ibiltzean, batek irabaztean, barriro jokoa hasteko. Batzarretan, txokoetan, lagun artean eta abar, izateko diran guztiak barruan dagozan edo ez jakiteko, "Dánok barrú ?" galdetzen da.

Danok pe ! – Gu ere, danok ere antzekoak gara.

Dar-dart egin – Kasurik pez, ezetza emon, lepoa emon.

Defrén Aldatz beran eta frenaten. "Halan defren, geidsau kantsaten nai".

Dirue, errez irebazi, errez eresi – Erraz irabazten dana, erraz joaten dala.

Dizela ta ez tizela – Dirala ta ez dirala. Zerbaitek edo norbaitek diodanak buruhaustea eragiten deuskunean. "Beran erropak dizela ta ez tizela, zoratu nau".

Doidsé – Dohain, grazidsé, birtutea. Erd. Don. "Zeozer dako barrabasak, doidsé dako". Intuizio, bihozkada. "Doidsek emon dost gaur datorrela".

Dolorés ibili – Arazoekaz ibilli. "Juli doloréz dabil etxekukaz".

Domá – Norbaiten izakera txarra aldatu. "Doma bakue da hori !", "Doma be ez ta eitzen !", "Arpidse doma be ez jatso eitzen", "Apur bet doma da".

Duén – Debalde, doan.

Edozelan, edozetara – Etxure barik.

Egabanatu – Ihes egin, alde egin. "Aguazillek etor zien ta danak egabanatu".

Egunek argi egin – Konturatu, bonbila piztu."Auntxek eintso egunek argi".

Egunien baño egunien .... – Gero ta ... hobiau, txarrau, .handidsau,. " Mari, egunien baño egunien gaztiau zauz!".

Egúno – Iñoiz ikusi, ezagutu edo gertatu bakoa. Eguno halako andrarik! Eguno halako biderik !.

Egúno bez – Sekule bez, inoiz bez. Eguno be ez da etorri !, Eguno be ez dost emon !.

Egúno halákorik ! - Halako markarik !, Halako ostirik !.

Egúnokorik – Inoizkoa baño,... hobeagoa, txarragoa, handiagoa, txikiagoa,...Egunokorik hobien ibil gara !, Egunokorik goizen zatoz !.

Egualdidse – Zerbaiten gogoa. "Egualdidse ez tau hatara ","Egualdidse hatara dau ".

Eidséz – Eginaz, bide batez (Erd. De paso)- "Kafie hartun eidsez, deskantzaldi bet eingu".

Eidsó – Eho,birrindu. "Káfie eidsó" (erd. Moler)

Ein barrí – Orduntxe eginda.

Ein da eitzen, atziñeko lapurre lez – Norbait zerbait egiten ekinean dabilenagaitik.

Ein, eten edo urrutu – Egiteko dana, momentu horretan egin behar dala.

Ein lo gerízpetan ! - Beste batek diodanari kasurik pez edo beraren jarrera ez jakunean gustatzen. Egon berton !, Bai zera ! zentzuan .

Ein alien – Egin ahalean. Egin da egin, zerbait egiten lotu barik. Baita jan alien (jan da jan), ekarri alien (ekarri tse ekarri), ...

Einbatién/ einbatekue – Jarraian, jarraitzekoa. Erd. Continuo.

Eindse daucna, eindse dau – Ez dau atzera botatzerik.

Elizen deitsu bakue – Molda gitxikue. "Elizen deitsu bako jjostune".

Endekátute – Sikatute, argaldute, etxurie galdute.

Eñen damurík – Egindakoaren damurik, damuturik. "Ez tako harek eñen damurik".

Entzun da gor – Entzun da kasurik pez.

Entzúte handikué – Ospetsue, famosie/ue.

Era batera / aldabatera – Batera.

Eraiñik pez – Mellarik pez (Erd. Ni mella). "Eraiñik pe etso egin".

Eralgí – Pasatu, tamizatu. "Urune eralgí".

Beidse erázten

Frakak eránzten

Erantzí – Soinekoak edo oinetakoak kendu.

Eratsí – Animalei, ardiei, ahuntzei, behiei, esnea ataratzea.

Erbéstien – Euskal Herritik kanpo.

Erdikíñien – Erdi eginean. Erdi eginda.

Érlaue – Goizeko garue. Kostipaue.

Erresála – Igarri, antzeman.

Erréskiñe – Hondákiñe, sobrak.

Erreskítze – Miatu. Erd. Registrar . "Guardidsek errezkítze ein nauie"

Errézki –Antza danez. (señal que). "Errezki oporretan dauzela !".

Errosaídsue lez egon – Bakar-bakarrik.

Ertz-ígiridsen – Erdi igiritze.

Esaípa ! edo **esaípe !** - Esaidazu ba !. Esaik ba.

Esakúnie – Esakerea, esaera.

Esán báietz ! - Bai zera!.

Esan be eitzie ! - Esan be !, Esatea ere !.

Esan daiten ! – Lehen esandakoa erratuta egon danean. Hobeto esanda.

Esana bat, emona bi, esanagaz konforma hadi – Esanagaz konformatu behar.

Esáte bat – Esakera bat, adibide bat.

Esáte baterako – Adibidez, kaso baten.

Eskatutie libre da, zeure aue alkate – Zeozer saltzerakoan edo erosterakoan, prezioa jartzea libre da, baita besteak erostea edo saltzea be.

Eskíñe guztídsetan – Edonon non-nahi.

Esko-bíarra – Esku lana.

Eskopolotá – Armairua, komádie baño txikiagoa.

Eskuáldidse –Zaindsie, txanda, turnoa.

Eskumuturré edo **eskuturré** - Eskuko muñekie.

Eskuek katigu – Eskuek lotuta, ezin egin ezer, erabakia beste batzuena.

Eskure ekarri – Zerbait edo norbait arteztu, bide onera ekarri.

Esnien bitxe izan – Sensiblie. Kejosie. "Esnien bitxe zara la ? ".

Estaídse batekuek – Adin edo kintada batekuek.

Estartzie edo **estratzie** – Bide istua eta sasiz betetakoa

Estrúkuluke – Isterrak zabalduta, astoan edo zaldian joatea.

Eta hona - Ordutik aurrera esateko, **eta hona** esaten da. Esate baterako, "ein danik eta hona", "erosi dunik eta hona", "jun danik eta hona", ...

Etórridse – Berba egiteko erraztasuna. "Zelako etórridse dako ba !".

Etxe bete egin – Zeozer apurtu, balio gabetu.

Etxe-kartzélie – Gaisotasunez, eguraldi txarrez edo norbait zaintzen, etxean luzaroan egoteari.

Etxe-áldatza – Etxea aldatzean, altzariak eta abar eroateko lanak.

Etxégune – Itsasora joan bako eguna. Atseden eguna.

Etxe beté egin – Zeozer apurtu edo laskitsu.

Etxekálte - Etxeko ekonomía kontutan hartu barik, gehiegi gastaten daunari.

Etxeplástue – Zepaitxe jeustea eta apurtzea, "Etxeplastue ein barik gero !". Baita ezusteko gertaera ezkorrean, "Halako etxeplastorik !", edo norbaitetaz pelmie dala esateko, "Etxeplastue dok hori ¡".

Etxien gerrie ta kalien barrie – Kanpoeder danagaitik.

Eutsé okin – (Hautsa). Tontaldia, nahastea. "Zelako eutsé dakozu baie !".

Ez astarik, ez bustenik Ez bururik, ez hankarik, zentzu gabekoa

Ez deutso lebarik !· Ez dau kasurik egiten "Gurasoei ez deutso lebarik".

Ez edateko be, sagidsen albuen – Itxaropena ez da galdu behar, badaezpada inguruan egotea komeni.

Ez gaúziek -Kapritxoak (Adibidez, jateko bereziak, egunerokoak ez diranak) .

Ez ta, ez ta, ... – Ez ta pentsa bez. "Ez ta, ez ta, Sanson ezanda bez, horrengañe indsar".

Ez tá makalá ! - Ez ta txantxetakoa, erderazko Joder !.

Ez tai zer ta ba badai nor / Ez tai zer ta ba badai zer -Ez dakit zer eta badakit nor, hau ta hori.

Ez taitxik ez dau, gogue badau - Zeozer egiterakoan, sarritan egiten jakitea baño, egiteko gogoa behar dala.

Ez siñestútekue – Sinestezina.

Ezan deidsela adu onerako ta suberta onerako – Nopaitxetaz zepaitxe enteratzen garanean eta ondo izatea opatzen deutsaguncan.

Ezébebakue – Pertsona apala, umila.

Ezer ez da zaratie, iñor ez da gerizie – Norbaitek berba asko ta esan ezebez.

Ezer ez talákuen – Ezer ez dalakoan. (Erd. Como si nada). Ardura gehiegi barik. "Harek esan dau, ezer ez talakuen".

Ezeupidie – Ez bikote, ez etxeko, ezta laguna dan pertsonekaz daukagun ezagutza harremana.

Ezezko kontue – Ezetzkotan egon. "Bazuzie la ?" – "Ezezko kontue !".

Ezgaúzie – Gauza edo persona eskasa, txikia.

Ezgaúziek – Kapritxoak, gozokiak.

Ézketiño – Ezkero . "Neuk esan ezketiño !.

Eztitxú – Injertatu. "Hori arbolie eztitxú ein bide".

Eztitxué – Txertoa, bakunie.

Ezúnie- Ezúnetxue – Ekonomiaz, osasunez,.. momento txarra.

Gaillurré – Etxeetan teilatu azpiko haga nagusia. Baserri inguruan, burdietan kargea trinkatzeko, ezpatatik atzekaldera jartzen dan egurra.



Galasóta – Debekatuta.

Galdu biarra dauenien, ezin dse gorde – Gauzak txarto egiten dogunean, ez dago zer eginik, ta gainera arpeidse emon behar da.

Galdu biarren gogorrez ibili – Norantz egin ezien.

Galdu gará ! - Zeozer gure gogoaren kontra gertatzen danean.

Galdu gordién – Azkaningoko momentuen edo modu txarrean. "Galdu gordien topa dot", "Galdu gordien salba da", "Galdu gordien etor diez motorrak".

Galtzué – Gariaren lastotxoa.

Gánez egin – Batek bestearen gainetik bere gogoa egitea.

Garán-garán – Frutie heldute dauenien, ez gogor ez helduegi. "Sagarra garan-garan".

Garau baten bez – Iñoiz bez.

Garnué – Txisé. Nagusiek erabiltzen eben, txisé antza danez umeentzat sortutakoa da.

Garrá – Suaren indarrá. Asko, ugari. Olatu handien "euri" fiña "Jentie kotxietan garrá jjun da", "Oye, no atraques ahí que te viene garrá".

Gatzúretan – Ur gazitan.

Gaueri gau erdi ibili - Parrandan ibili.

Gaur bada, bidsar ez ta – Pertsonek eta gauzak, onetik txarrera berez.

Gaur ez ta bidsar gero! - Gauzak aldatu egiten dirala.

Gauze ariñek, pisu gitxi – Azaleko berbak, ganorabako berbak.

Gauze onerako – Onerako. "Arineidse einzu gauze onerako".

Gaztie ezan bako zarrá – Gaztetasunik izan ez dueña.

Geídsauko barík – Beste barik, beste azalpen barik. (Erd.sin más).



Geiztokeídsek – Txarkeidsek, gaiztokeriak.

Géro ! – Kuidadito, batez ere umeei. Géro, nok emtso imiri !".

Gero ezango diez kontuek eta errozoiek ! – Gero izango dira arazoak.

Geró gerokúek – Gero ikusiko dogu.

Geró ta geró be, be ! – Hau ta bestea, ta azkenean ezebez.

Geroarte agur – Neiko da ta banuen.

Geuné – Luzeroan geldi egoteak, gauzetan eragiten dauan loia. Erd. moho

Geure barruen – Gure itsasontzian "Hori atziñen, geure barruen ibil dse" Baita **geugaz ibil dse.** Azken hau beste lanbieetan be esaten dalarik.

Geure kítxien – Geure kontura , "Geure kitxien jjungo gara".

Gilbérie- Koskille askodun pertsonea.

Gizonák ! – Hasarre gagozanean, Halakorik ! zentzuan.

Gogaitsú – Gogaitu, iñor azpertu.

Gogórraue esan – Ondiño handiagiagoa esan. "Ondiño gogorrauck entzun bikuz".

Gogoz kóntra – Gustukoa ez den zerbait egin beharra

Gogue bota éziñik – Ezin egin leku edo herri batetara.

Goizión - Gaur goizean, goiz honetan.

Gora-bérak okin – Arazoak izan. "Goraberaren bat okin dsauie".

Gordín-gordín okin – Ondiño memoridsen okin, ahaztu barik.

Gorgollé, intxorra edo **pizkazurre** - Samako hazurre . Ikusi >Urbedemkatónizidse

Gorítsute – Bero-bero idse irikitzen. Ure goritsute.

Gorrué – Lapué, gazteek jápo.

Gu hirurok bost – Zerbait txart urten jakunean. Amen gu ! –" Mari, gu hirurok bost ".

Gure pozak pósure – Ametsak ezerezean.

Gúren (gurean) – Zerbaiten nahiaz edo gogoz. "Erosi gúren gauz", "Euridse ein gúren dau". Norbaitek galdetzen badigu, "Zelan zauz ?", "Hobeto guren" erantzuteko be bai.

Gurézana – (Gura izana)- Maitasuna, kariñoa.

Gureztalá – (Gura ez dala)- Gure barik, nahi gabe.

Guzurte egin – Norbait guzurtitzat itzi. "Guzurte ein nau".

Gúzute – Gura dozu edo gura dozue sinistu "Gúzute ez naiela entera !" edo "Gúzute siñestu…..". Erd. Quieres creer, quereis creer.

Ha dana, hori dana,... - Norbaiten kexuak azaltzeko "Ha dana, hori dana, beti dako zer esana".

Ha, bestie ta sestie – Gauzak azaltzerakoan, hau, hori, hura zentzuan. Erd. Esto lo otro y lo de más allá".

Ha dana, hori dana... - Hirugarren baten aitzakiak, lagun bateri azaltzen.

Ha dau ótekue ! – Zelakue da baie.

Ha ta guzti be ! - Hala ta guztiz ere, Hala ere.

Haitzik ..- Orduan .. "Haitzik ez zatoz !"

Hala ta be – Hala ta guztiz ere.

Halako upin líbrurik ! – Halako markarik !.

Hálakotu edo **zertú/ Hálakotuten** – Zeozer egitea, zer dan aipatu barik, , esate baterako konpondu, "Zeuk hálakotu horregaz", "Ez patsu hálakotuten neuri esan", "E nai halakotu !" (Ez naiz gogoratu, konturatu, ..).

Halakuen bost ! - Bai zera !, Ez ta pentsa bez !. Erd. De eso nada.

Halan dala ta – Erd. Como si tal.

Hainbet aríñen – Ahal danik ariñen.

Hámen gu ! - Ta orain zer !.

Hámen hau ! Bapatean agertzen edo aspaldian ikusi barik izan dogunari.

Hámen hau hamalaugarrena ! – Hamen hau falta dana !.

Han !- Bapatean zeozer entzutean. "Han, bostak !", "Han, fuétak !".

Han due ! – Norbait estropuz eginda edo zerbait jausi edo jausteko zorian ikusten dogunean.

Han gáneko laukuek ! - Iragarpen txarrak egiaztatzen diranean, lehen expresioa.

Han jeusi, hor altxa ! - Osasunez edo ekonomi makalean dabilena.

Han zaralakuen hamén (hemen) – Joan da etorri arin. "Juen dendara ta han zaralakuen hamen".

Handidsek eta asko egin – Asko eta txarrak. "Horrenak handidsek eta asko diez !".

Handik, hortik, hemetik ... - Gauza bat dala, bestie dala,..

Handikeidsek – Arrokeriak.

Hará ! - Beitu ! " Hara, hau da esan tsutena ".

Hara ba¡ Ez pentsa. Halan holan. Zelan ibili zarie ba ? – Hara ba ¡.

Harék eitzen ... - Harek esango zauen....

Hari albino baten pentsure – Kilin-kolan, postizuen.

Hari siku barik – Bustita,mela-mela eginda.

Harri txíngerra – Behengainean egoten diran harri txikiak

Hatan – Horretan "Hatan ez gara geratu ba ?". Baita briska jokoan, besteak botatako kartearen palu bereko karta handiagoa botatea. "Hatan egin !".

Hatan egon – Erratuta egon, sarritan buru gogorrez.

Hatzamar bategaz eruteko modukue – Pertsona erraza, lasaia, ona.

Hatzgurié – Hatzkura. "Aiii hatzguriri !".

Hau, bestie ta zeztie –Hau ta bestea. Erd. Esto, lo otro y lo demás alla.

Hau dok upiñe, talo burdiñe – Upiñe amaitsurerakoan.

Hau dok barri barridse, da pasadan astien miserikordidse ! - Upiñe amaitsurerakoan.

Hau ta hori ta bestie, ta hautsen odolostie – Gauza asko esan ta ezer ez. Promesa asko egin, ta azkenean ezer ez. Azkenean hautzez beteriko odolostea.

Haur,.... – Norbaiteri egindakoa azaltzen gagozanean, "eta orduan .." zentzuan. "Haur jjun zan Bilbora eta....".

Haur bá ! - Hor ba !. Erd. Mira por donde.

Haur geró.... – Eta gero .... Zerbait azaltzerakoan.

Haur horí ! - Beitu hau ! , beitu hori !, gehienetan mespresuz.

Haúri ! - Ona, txarra, politxe, motza, asko,gitxi ..(Gehienetan onerako, asko, politxe, asko,..) "Egualdidse hauri !", "Kotxie hauri !", "Partillie hauri !". Aldiz, txarrerako **"Izena".** "Egualdidsek izena !", "Kotxiek izena !".

Hauri dala ta ez tala.. – Eta horregaitik, horrexegaitik,..

Hautse kendu barik– Egocra barriari oraindik egin barik egon, despistatuta.

Hazi-orrazídsek – Atxiapitxiak, esamesak. "Hazi-orrazidsek batzikue da".

Hobá ez ! - Klaro !, Zelan ez ¡.

Hobalekizu ! – Ojala.

Holakuen bost ¡ - Bai zera ¡.

Honek kontuek ez dau kontako mutuek eta ikusi bez itxuek ! - Ikusten edo entzuten ari garana, ikusgarria edo bitxia danean.

Hori baño ezpada – Hori bakarrik bada, Hori da dana !?.

Hori dau egotekue ! - Zelakue da baie !.

Hori dé ba ! – Halan da !. Besteak diñoanari gure oneritzia emoteko.

Hori esaizu be ! - Halan da !. Besteak diñoanari gure oneritzia emoteko

Hori ta ezebez, dana ezebez !- Hori bada zeozer, dana ezer ez.

Hormiri esan -Alperrik, enbalde. "Horreri esan da hormiri esan bardin dse !".

Horreitxiño – Baña baezpada. "Baie horreitxiño, zeuretzat bai ekarzu !".

Horrek atze gogorra ekarko dau - Egindako zerbaitek, ondorio txarra izango dauala.

Hospitsalera mantatan juen – Ezer emoteko ez dagoen lekura eskatzera doanak, hartzen dauan erantzuna. **"Itzikoztazu dirue ?"- "E, hospitalera zatoz mantatan !"**. "Leko onera dator madari kargie !"

Hotzmiñé – Edurretan ibili ta gero, hatzamar puntetan izaten dogun miña.

Huts ala bet – Jokoa (harria edo dirua esku baten). Bai edo ez, arriskua hartu behar dala.

Hutsé – Bakarrik. "Gizon hutsek etor diez", "Kristel hutse apurtu de".

Idié edo **irié** – Ira edo iratzea. Bedar mota bat. Erd. helecho.

Idsetsuen – Ia itoan Arnasie hartu ezinik, presaka, korrika.

Iduné – Kokota, samie.

Igurtzí ondo gero!

Iguzí txikidsena be gozue !

Igurtzí edo **igurdí** - Frotá. "Eskuek igurdí ".

Iguzí – Laztanak edo karizidsek egin.

Ikusidsen ganera – Gauzak zelan doazen ikusita gero. Erd. Ver venir

Illunetan – Lagun artean, beste baten aurka berba egitea, larrua kentzea. "Bai, esanzu zeozer illunetan" (nahiz eta egun argian esan)

Imien-imeko – Belaunaldiz-belaunaldi, gurasoetatik seme-alabei.

Imeteridse – Umeteria. "Imeteridse zer egon da bertan ba !".

Ingidirik – Lotsa edo beldurra. "Ez takot ingidirik hara jjuteko.

Intxorra, pizkazurre edo **gorgollé** - Samako hazurre .

Iñoizkorik – Inoiz baño ... hobien, txarren, gozuen, poitxen, e.a. (Ikus.bere biziko)

Iñokusik (Iñok gura ezik) – Iñok kasu egin barik.

Iñon miñek, iñor ez tau hiltzen – Sentidu bai baina arazoa besteena danean.

Iñon lepótik – Besteen kontura ibiltzea edo bizitzea .

Iñondik eta iñora bez – Besteak esandakoari, Pentsa bez ! esateko

Iñor ez lez Atentziñue deitsuten, edozelan, etxure barik.

Iñori sorbaldak altxaten – Beste batentzat lanean

Iñuzentilakue – Ganorabakue, "Iñuzentılako okelie", "Iñuzentılako andrie". Gauza txikia edo balio gutxikoa. "Iñuzentilako telebisiñue".

Iñuzentekeidsek – Potozorrikeidsek.

Ipíngidsek – Erropetan ipintzen diran txaplak edo erremiendoak.

Iritxuek –Iratxoak, mamuak. Erd. Duende."Amen etxien iritxuek tauz antza !".

Irulí - Leku batetik beste batera zeozer bóta, hutsitsú edo deskargatu. Ura ontzi batetik beste batera, harriak kamiotik lurrera, e.a.

Iruntzitara – Jantzia barrukaldea kanpoan dala, ez eratara, ez atzekoz-aurre.

Isilik on ! - Itxaron !, Entzun !. Berbetan gagozanean, esakeratxo bat.

Isillekuek – Etxekoek jakin barik doguzan diruek.

Istindiko baten – Arin baten, Erd. En un Santiamen.

Istu – Estu. Urduri, artekadu. "Istu egon da, zeu etorri arte".

Istu ta larri – Urduri, presaka.

Itsosotie – Itsasora irteera, zaindsie. Farol gorridse, ez tau itsosoterik.

Itsosuek apurtuten – Itsosuen lan egitea.

Itsumendidsen ibili – Zeozer egiterakoan, arinka, itsuka, despitatutarik.

Itzitsasune – Utzikeria, alferkeria.

Izena ! - Txarra, motza, ,gitxi..."Egualdidsek izena !", "Kotxiek izena !", "Suelduek izena !", Aldiz, **"Hauri"** Ona, txarra, politxe, motza, asko,gitxi... (Gehienetan onerako, asko, politxe, asko,..). "Egualdidse hauri !", "Kotxie hauri !", "Dirue hauri !".

Izentaziñue – Opari xumea, konpromiso gitxikue.

Jakin bide noiz errie ta noiz ala – Emoten ta hartuten jakin behar da.

Jjanpague – Erd. Pensión completa. Ikus. Lopague.

Jjasá (dsasa) – Ganorie. Zuk takoztazu jjasá.

Jjik eta jjak – Gauzak arin egitea.

Jjilibidsue – Nastie.

Jjo ta pása – Gauzak arinka eta ardura barik egitea.

Jjo ta su – Jo ta ke, ekinean ibili.

Jjosó – Altxatu, jaso.

Juízioala – Juzidsue, epaiketa.

Kálba egin – Huts egin, pira egin. "Eskolara kálba ein dsauie".

Kaisetú – Arduratu. "Bera ez ta kaisetuten".

Kalai malai – Erdipurdiko, ganorabako zeozer.

Kalba egin – Eskolara huts egin.

Kalinpan ibili – Kale-kale ibili.

Kamarie arreglaten edo **konponduten** - Ileapaindegira

"Kandela bigaz gure egin argi" - Persona bi eztabaidan, eta hirugarren batek biei errozoie emoten eutsenean.

Kankinkabaraka – Kilin-kolan, halan-holan. Baita osasunean.

Kanpoeder – Etxean gerrie eta kalien barrie dana.

Kanta-pápelak atará- Famá egin, zabaldu. "Kanta-pápelak atako tsuie".

Kantsa gúrie izan - Denporea galtzea. "Ez takot kantsa gurerik !".

Karrájue – Pasillue.

Kaso baten – Esate baterako, adibidez .

Kate gogorrak egin – Diruek egin.

Katuen gloridsen – Epeletan.

Ke ta lañú – Lotu barik erretzen. Ernegaten dauana.

Kíkuke – Kíku egiten. Kikuka. Ikusi Kíñuke ta zíñuke

Kikunbera egin – Uretara buruz salta. Baita, kikimera edo kikumera.

Kikunbera egon – Zeozer buruz bera edo desnivelan egon

Kinto atrapa / orsaien atrapa – Norbait bapatean erru batetan harrapatu.

Kiñé – Akulatu, zirikatu, probokatu, arrotzak berotu."Beti dabil kiñeten !".

Kíñie – Etxean jolasteko bingoa.

Kíñuke – Kíñu egiten, begi bat istea. Keinuka. Ikusi Kíkuke ta zíñuke.

Kíñu-kíñuke – Biztu ta amata dabillen zeozer, esate baterako bonbillie.

Kirrí-kirrí – Ogidse nahiko errata.

Kiskildsúte

Kiskildsú – Benetan erre.

Kobriek galdariri, eperdi baltz – Eta biak bardinak izan.

Komádie – Erropan armairua .

Kondutie krielien – Norbaiten izen ona dudatan jarri.

Konkan egon, ibili – Zalantzan egon, baiezmenakaz ibili.

Konorta galdu – Adimena, konozimientue galdu.

Konortera ekarri – Konozimientue hartzera lagundu. Zeozer egoera txarrean egoana, bide onera ekarri, loi egoana garbitu esate baterako.

Koplakaz ibili – Atzakidsekaz, paristekaz ibili.

Korrikúnie – Pertsoneak ibiltzeko daukan modu berezia. Ibilkerie

Korrídu !, Korri ! - Goazen !.

Kreselá – Itsasoko ura.

Krísko egin – Lapurtu, ostu, mio egin.

Kuidadito gero ! Batez ere umeei, zeozer txarto egiteko dagoanean.

Kunplimento bakue – Tonteri bakue.

Kunturrune – Ingurua. "Maidsen kunturrunean jente asko partidie ikusten".

Kuskurré – Ogidsen puntie.

Lapué – Gorrué, gazteek japo.

Larreidsek kalte eindse – Bizimodu onegiak, izaera edo portaera txarrera eroan.

"Larrosak eta klabeliñek, usiñe eitzeko ta neskak eta mutillek, alkarregaz ibiltzeko".

Laskitsú – Desordenatu. "Ohie laskitsu zu".

Lastátidse – Baserrietan, kortien ganien, lastoak, bedarrak eta abar godetxeko lekua.

Lau kuadrokue – Handia, indartsua.

Lau kuadroko arpeidse – Arpi handidse, arpi gogorra.

Lau torriek – Kartzelie. "Lau torrietara eruen dauie".

Leko onien dau madari kargie - Zeozer gertatzen dancan, baina seguru gagozancan konponduko dala. "Harek eintso jugadie, baie leko onien dau madari kargie".

Lehen kaballo ganekue bille, ta gero asto ganekue bez – Neskazarra.

Leko danatan, txakurrek oinotzik – Leku guztidsetan gertatzen dira antzekoak.

Leko onera dator madari kargie ! – Ezer emoteko ez dagoen lekura eskatzera doanak, hartzen dauan erantzuna. **"Itzikozazu dirue ?"- Leko onera dator madari kargie !** , "E, hospitalera zatoz mantatan !".

Lekuen lekuek, ardi banakak kanpuen – Leku guztidsetan gertatzen dira antzekoak .

Lekútara juen - Arazoak konpontzeko behar dan tokira joan.

Lengotán egon - Beti bezala, guk itzi dogun moduan, aldatu barik.

Listo beti ! – Adi egon, kontuz.

Lopague – Erd. Alojamiento Ikus, janpague.

Lotsak emoten – Norbaitek arrazoiegaz edo ez, guri kontuak eskatzen

Iñor lotsatuten – Etxekoren baten jarrerak edo itxurak, gure lotsa atereaz.

Lupué – Berenue. Ume elementue edo haize hotza "Ime lupué", "Haize lupué"



" Amuma, ez ta makala ! "

Makala – Berbeak, gaisoa edo epela badiño be, guretzat ederra edo ikusgarria be bada. Edadie makala !, etxie makala , gosie makala.

Makának – Koplak, paristek.

Maná egin – Zerbait sinestezin edo ulertezina egiten zaigunean. "Mana eitzen jjast ...."

Manduen ostikadie lez – Zeozer txarra, bapatean gertatzen jakunean.

Mangié okin- Pertsona batek beste bateri, gurezan berezia izan. "Mangié dakotso meisuek".

Mantarrá – Balio gitxikoa, zaharra. **Mantartúte** - Zaharkituta.

Manuen – Indar barik, kolokan.

Mar-mar ibilli – Batabaten ala, norbait alatuten ibili.

Marradié – Agirika. "Marradie eintso patroiek".

Martingálie – Trankanillue edo trukoa. Akulukeidsek, maltzurkeriak.

Masamorrie – Edozelan, loitsuta, koipeztuta edo itxura barik dagoan tokia .

Masapálatute – Aplástata.

Mataputxetá – Atunak buruan jotzeko egurrezko mazoa.

Medidsorik gañe erremedidso – Arazo danak daukie euren konponbidea. "Horregaitxik ez istutu, medidsorik gañe erremedidso dau te"

Ménduek – Izakera, ohitura edo egite txarrak. "Aitxen menduek dakoz".

Mengelá – Gauza fiñe, sinplea, errez apurtzen dana.

Miekié – Einjjadie edo atunen belarridse.

Mies-erropak – Izarak eta ajuarreko telak.

Miestu – Gitxitxu, Argaldu.

Mietxuré barik – Barri-barri, zahar itxura barik.

Miétxute – Kolorie galdute, zaharkituta.

Miluk zuri ! - Zer dakastak! (hatzamar bigaz begi bat igiriaz).

Mintzé – Azal fiñe. Batez ere okeleak izaten dauan azaleko telatxoa edo baita arrautzeak azalaren barrukaldeko telatxoa (Ikus. Osasuna).

Mirandan egon – Balkoian kalera begire egotea.

Misketúte – Konsentite dagoana, batez be umeek. "Misketúte dau hori !".

Modu zarrakaz – Berba gozoekaz, boza altxa barik, nahi duena egiten duena

Modukaz – Besteengan, edukazioz eta berba onez zuzentzen dana.

Móltzue – Pillue, montoie. Erropan móltzue, kaka móltzue.

Txo, hori gitarradun morroié ez ta Etebekue ?

Morroié – Gizonezkoa, baina ez kridsadue. Deitzeko "Amorroi !".

Morroie makala !– Bera da ba !- Izatez edo egitez trebea, gogorra, txarra, edozer. Erd. "Pues no es nadie el pollo/la tia".

Mundo kabroie ! - Zeozer txarto joakunean.

Mundu guztidsen eta dana dan lekuen – Leku guztidsetan.

Mundun bazan bez – Zeozer benetan ahaztu egin jakunean.

Murketik pez – Berbarik pez. Erd. Ni mu.

Musikie zelan jo edo **Zelan tanboliñe jo, halan dantzan** – Gauzak datozen moduen hartu behar.

Muskillé – Sagarra edo madaidse ainkadaka jan da gero geratzen dan ondakiñe .

Mutututе – Luzeroan geldirik, lotuta.

Nasteborrastie – Enpatxue, folloie.

Negarrez zotinke – Negarrez ta suspiruke.

Negar-ánpurue - Negar malkoa, anpulua.

Nehiko da berbarik ! - Nahiko da, ez esan gehiagorik, haserrean.

Neu onai ba ! - Neu egon naiz ba !, Neuk esan dot pa! .

Neuk ez tiñopa ! – Baie zer nau ikusten, entzuten,… ?. Erd. Si digo yo.

Neuk halan ! - Eta nire buruari esan neutsan.

Neupaitzen be !- Nopaitzen be ! - Bai zera! zentzuan. Erd. Ni que fuera..

Neure kitxien – Neure artien.

Ni taitzela – Nık dakidala. "Ni taitzela seme bi dakoie "

No tiñó ! - Haserrea adierazteko. Zer diozu ? edo Nork diño? Zentzuan.

Noizgure – Sarritan. Erd. Cada dos por tres. >>> Ikusi antzekoak

Noizik noizera – Noizik peiñien

Non dan ..... – Hori halan izanik, orduan.....

Non zan bez - Batabat edo zepaitxe, ez dakigunean non dagoen.

Non zer .... "Ez takitz non zer dakoten "," Ez taki non zer esan bidauen "

Non zer barri – Besteen barrien jakin gurean ibiltzen dana.

Non zillué eingo dabil – Bere lekua egiten edo bilatzen ari danagaitik.

Nondik eta zelan ?- Zer dala ta ?, Zergaitik ?.

Nondik nora ? – Zer dala ta ? Harridurazko galdera. "Nondik nora zu haregaz ? "

Nongo ? - Besteak diñoanari, Zer ? edo Zer diñozu ? zentzuan,gure harridura adierazteko. " Nongo ?, hori ez padan haren semie !". Baita "A zelako" zentzuan, "Nongo hotza dau alabatxi", "Nongo mutil handidse eindse",. .

Nopaítxe – Nonor, batabat, norbait. "Nopaitxe ctor da gu baño lelau !"."Nopaitxek ekar dau hau !".

Noraguré ibili – Edonora, harantz edo honantz.

Noraezien ibili – Errunbo barik.

Norárik ez – Hautabiderik, aukerarik ez. "Ez takok norarik".

Nórez – Oker, Trabez, gauzak txarto joan. "Norez gabiltzela ¡".

Nórezko berbak – Ganorabako berbak.

Noreztalá – Horrez gain. "Hori noreztala, hau be bai".

Ño !- Harridura adierazteko. Koño ! "Ño salturi ! ".

Ogi-gáztaie – Mustela, erderaz comadreja.

Ogírune – Ogi-urune, panrraiaue.

Oídalakue – Handia, ederra, izugarria.

Oidsélak – Ume txikien oihalak. Erd. Pañales.

Oidsé – Ahoko zerua edo paladarrá.

Oin be ! - Orain ere !, orain be bai !.

Okárana – Hotzak eraginda, sudurretik dariola izaten dogun urtxue.

Oker úne bat – Momento txar bat.

Ólgetan – Jolasean. Txantxetan, bromatan. " Olgetan esan tsutela ! ".

Olluen pópak – Hotzak, hotzikareak edo egocra hunkigarri batek eragindako, azalaren itxuraldaketa.

Ondo biziko garala ta, dana guzurre – Gauzak ez doazenenan guk nahi dogun lez.

Ondo eiñen pague, ate onduen palue – Eskertu bako biarrak.

Ondo hartu hamar hatzamarrakaz – Kontuz, jeusi barik.

Onez ta bakez – Iskanbila susmoa dogunean. "Onez ta bakez gauz berton ?!".

Ongo gara ! - Zentzun onean, Egongo gara! edo haserre, Ikusiko gara.!.

Oñartekuek oñarteko, ta laban tirue – Andrazkoa medikuarengana eta honek supositoidsue (labana) agindsu. Orain arte danatarikoa hartu eta orain hau ? zentzuan.

Orrostókidsek okin – Lar jakiñe izan.

Orrostókidune – Sorginkeridune.

Orrotzatik harakue – Gauza egin barria. "Orrotzatik harako etxie".

Osálie – Jateko hondakinak (txarridsénak), erremolatxa, kalabaza edo beste zeozegaz nahastata, txarriei emoten zana. Janaria masamorratute dagoenean.

Osasune ta bakie, ta boltsillo ondo betie – Eskatzekotan dana.

Oskié – Koska, harmaila, lurretik altxaten dan zeozer.

Ososoko Santue – Pertsona ona. Oso osokoa.

Ososoko Santue lez – Erdi erdian, enbarasuen, bertanbera egon.

Ososorik – Malezi barik, lasai. "Nik ez tot jakin, ososorik esan tsat".

Ososorik jeusi – Gorputz osoa jeustea "Jeusten dok ososorik !"

Ostabere – Barriro, barriz, atzera.

Ostantzekue – Ezberdina, diferentea.

Otié, otábarra

Otc, otazka. Basoetako pintxodun bedarra. Erd. árgoma. Otábarra, pertsona ligorrá danagaitik be esaten da..

Ikusi pasadizue >>>Barreka zatitsu

Otú – Gogoratu. "Ondiño otu eitzen jast, berak esanikue".

Paparrá – Bular gainea. Alkondarako botoiak askatuta badogu, **paparrá ágidsen** (agirian) egongo gara. Ezizena be baegoan **papar-górri**.

"Paparretik agarraten bazaitsut e ¡".

Papelitos cantaran, Don Benanzio – Gero ikusiko dogu zer gertatzen dan.

Paristekaz ibili – Koplakaz, atzakidsekaz ibili.

Pasiñúgaz – Gehiegiaren eraginez "Hotzan pasiñúgaz gogortute",(Hotzan-hotzagaz gogortute), "Jatekuen pasiñúgaz kartolataraiño"

Pékue Susmoa. "Tomasan pékue dakot !" (Uste dot Tomasa ezan dala!), "Zeozerk ein tso kalté ta saltsien pekue dako" (Uste dau saltsiek egin deutsola kalte).

Pentsa-pentsa barik – Bapatean zeozer gertatu.

Péntsure Neure péntsure, geure péntsure. Gure kontura, geure esku.

Pinportá – Kisketá baie biribille.

Piper látie – Orokorrean lata altutxoak. "Piper latako melokotoie".

Piperrik pez – Ezebez. "Piperrik pez tau ikusten".

Pizkázurre – * Frutuen hazurre. Antzinan mutillek, albarikokeen hazurrekaz olgetan ibiltzen giñan. Kaleetan, kolarren aurrean egoten ziran zulotxoeta, hatzamarrekaz bota eta sartzen zan jokoa. Pizkazurre behengainean gasta, zulotxoa egin eta hazidse kenduz, txístue egiteko erabiltzen gendun. * Popako hazurré. Denpora luzean jesarrita egon bagara, "Pizkazurreko miñe be eindse dakot" esaten dogu.

Pizkázurre, íntxorra edo **gorgollé** - Samako hazurre. Ikusi >>> Urbedeinkatóntzidse

Plamíkie - Andrakillé, panpiña, muñékie.

Politxó – Ederto. Asko. "Politxo jan du", " Jentie politxo etor da".

Pondéra – Alabatu, goretsi. "Asko ponderaten dau bera neskie ".

Popértza-popértza – Derrigorrez. "Popertza-popertza bidot gero !".

Popértsakue – Balio gitxiko, ganorabako gauza.

Popítas – Asko, ugari. Dirotan horrek, popitas.

Popítas – Igarkizuna ez dakinuean, erantzuna eskatzeko.

Porasuz – Poderioz, egi da egin. "Arin ein biarren porasuz, dana txarto"

Potozorrikeidsek – Iñuzentekeidsek.



Pustíllie – Haragian sortzen dan anpulua. Uren edo jaboien burbuila. Negar arindun umea.

Putxe emon – Norbaiti errozoie emon edo beran alde egin.

Putz egin – Bero dagoen zerbait hozteko, erreten dagoan zerbaiti garrá ateratzeko, kandela, misto edo su txikia amatateko, puztukiak handitzeko edo beste edozertarako, ahotik haizea botatzea. "Egin putz ¡".

Púzke – Nekatuta, berotuta edo hasarretan, ahotik haizea botatzea.

RRA ! - Erraz. " RRA zartziko zapatak ", Atze bako zapatak. Erraz zartzikuek.

RRA ! - Zuzen, hurbil. " Ezkerretara ta rra dakozu bertan !".

Sagidsé – (Saria ?)- Propíñie.

Sakuek beran amarrie ez tau falta inoiz – Gauza danak daukie berana.

Sakuste baten – Barranko edo zulo baten.

Sarnié falta arraskateko - Danatarik daukaguncan edo danatarik ikusten dogunean, "Ez taku ezeren faltarik, sarnić falta arraskateko" esaten da.

Seguru be ... – Antza danez, Diñoie antza ...

Senádidse – Hondartza txikia, kalatxoa. Erderako ensenada.

Sídsaue – Ziaboga. Bidean buelta emotea. Baita zigzag edo dribliñe egitea.

Sikeran – Gitxienez.

Solidsé – Alaia. Pertsona solidsé, zarata solidsé.

Somatená – Non zer barri, jakin gurean dabilena. Somatená polizi mota bat izan zen. Somatén (som atents – adi gaude) Catalunyan sortu zan, nahiz eta gero estatu guztira zabaldu.

Subillé- Idiaren kikillé sikatute (larru itxura). Antzinan maisuak umeak joteko erabiltzen zan. Subillé tertzien txikot zati mehe bati eta berba gitxiko pertsoneari ere deitzen jako.

Suétie edo **sútie** – Ezkatza, koziñie.

Súndie - Bakarrik diñogunean zeozeren atsa dago, aldiz garbi sundie badiñogu, usin gosue edo garbi itxuraren señalie.

Surtzílluek – Sudurreko zulotxoak.

Surre ebai ezkero, aure dator odola (Odola-ahora) – Etxeko batabateri zeozer gertatzen jakonean, min emoten deusku etxekoa dalako, nahiz eta beragaz hasarre egon.

Surretako putxegaz bota – Norbaitek beste bat bere aurretik bota, irainez,arrokerriz.

Ta bi geidsau – Esaten dana indartzeko. "Hori dabil, berak gudauelez ta bi geidsau", kasu honetan, berak nahi dauan guztia egiten dauala.

Ta bidsar egunek eingo dau argi !- Bihar ikusiko da zer gertatzen dan.

Taidsué– Gogoa/ Eguraldi txarra. " Taidso barik nau". "Dauen taidsuen nora zuez ba".

Tanto kuánto baten – Gitxi gora behera.

Tartánie –Geldiro dabilen ibilgailua. Berbetan arazoa daukana.

Taurketik pez- Apur bat bere ez.

Tinditxu bat – Apurtxo bat, baina likidoetan, esne, ur, ardau,..

" Tire osabañe !"

"Tire haiziek hartzien !"

Tíre – Joan zaitez, onean edo txarrean.

Tíre ! - Besteak diñoanari, "ez ta horrenbesterako ta", zentzuan."Tíre konponduku ta !", " Tire alabatxu, ez hasarratu horregaitzik ! ".

Tíre ! – Besteak diñoanari, "ondo dago, " zentzuan". " Tire, ez ta karue".

Tokaten dan moduen – Izan behar dan moduan.

Trankanillue – Martingalie edo trukoa.

Trenak ekarrikue – Kanpokoa, maketue.

Txirribótuek – Zirriborroak.

Triste ta erruki nau, ta arime mundokorik ez tatost – Bakarrik bizi dana.

Truben ibili – Noraezien, harantz ta honantz.

Trukutekuen ibili – Iñuzentekeidsetan ibili.

Txakur txikidsen fuetie baño pisu gitxiaukue – Pertsona ariñe, azalekoa.

Txáplie – Erropen edo beste zerbaiten zulotxoa konpontzeko jartzen dan zatitxoa.

Txar barik – Malezi barik, intentziño onagaz.

Txar baten – Gauzek norez badatoz. " Txar baten, bera be etor leike bertora".

Txarkeidsek – Geiztokeidsek, txarkeriak.

Txarra izan – Ez da txarra. " E, txarra dok !", "E, txarra dona !".Erd. No esta mál.

Txarrenari emonda – Norezko gauzak egiten dauana.

Txarridsénak – Jateko hondakinak, txarriei emoteko gordetzen ziranak.

Txibíllue – Umeak jolasteko balanzeari.

Txikito, ezer ez dala betiko – Zabal edo kontuz, gauzak aldatu egiten dira ta.

Txikitxekue lez – Antzinekue lez, gazte denporakue lez.

Tximurtúte – Tximurrez beteta, pertsonea edo erropea.

Txiñérue – Tokadorá.

Txiperrá – Mangerie edo beren txorrotadea.

Txitximárka



Ukubillé

Ukúndue

Txitximárka – Batek besteari, hatzamar bigaz indarrez, papuan, besoan edo gorputzean, egiten deutson zapalketa mingarria.

Txistué lez egon – Epel-epel.

Txólie – Mordue, fajue, pillue. Lora txólie, gari txólie,..

Txori zantarrak, kanta zantarra – Eginak pertsonearen araberakoak dira.

Txurupiñek pasa – Txarto pasa. Erd Canutas. "Txurupiñez pasa dauie ".

Ugerrá – Lohidsé, zikinkeria. "Ugerrá daidsola".

Ukubillé – Eskua itxita. Poza, hasarrea adierazteko edo joteko erabiltzen da.

Ukúndue - Besoaren artikulazioa.

Ukundue okin – Lekuren baten norbait ezaguna izan mesede egiteko. "Horrek ukúndue dako han".

Úlerrie – Baserri giroan badaezpadakoa, ez fidatzekoa.

Ulerrié – Ulea permanentien permanentigaz erreta daukana.

Umore onagaz – Jarrera hobeagoaz. "Bidsar jjungo gara umore onagaz ".

Unadie, unedie – Gunea, ingurua, zonea. Erdi unadie, garbi unadie, baltzunie

Ur eztidsé – Ur gaza. Kresela edo gazidse ez dana.



Urbedeinkatóntzidse –

Saman, gorgollé. íntxorra edo pizkázurren behekaldean, daukagun sakunadie. Elizen kanpokaldean, ur bedeinkatuaren ontzia.

Urrien – Antza danez. "Barruen dau urrien", "Urrien berak esan dau lelau".

Urrumadie – Tronpiek edo beste edozek atarako, rrurru itxurazko zaratie. Norbaitetaz edo zerbaitetaz dabilen zurrumurrua.

Urrun da fitx, betiko ta betiko – Umeak hasarratzen direnean.

Urren dan lekuen - Ikusiko da non.

Urrutú – Azalean, urradura edo arraskadea egin. "Belaun búrue urrutúte".

Urtike – Iñon ala. alper-urtike, santar-urtike, ... "Beti zabiltz santar-urtike beragaitxik".

Usába, usándrie - Nagusia, jabea.

Usadídsue – Ohitura.

Usiñien egon –Arazo edo gairen baten gainean. " Bera dabillelez usiñien, berak esangotsu".

Usubillue – Zer esana, zurrumurrua.

Úzkidse – Popako zuloa.

Úzkidsek urten arte – Indar edo esfortsu handiko lana, popako zuloa bera bc urten arte.

Úzkidsek hazten - Alperkerian, bertan bera egon, popak hasten.

Zabal ! - Lasai, tenpleu.

Zabal, gaur ez ta bidsar eta – Egoerak aldatu egiten dirala.

Zaburreídsek – Zaborrak, hondakinak, sastarrak.

Zaharkeídsek edo **atsokeídsek** – Gazteak izan arren, nagusien ideiak edo jarrerak.

Zaidsé – Zahi. Zerealen azala, gariarena esaterako. Norbait joten dabenean be, "Zaidsé ata tsoie" esaten da.

Zaíndsie – Eskuáldidse, Txanda, turnoa. Kanpáñie "Zaindsie hartu bi de", "Zaindsen jjun bi gara", "Aurrerauko zaindsen kontramaisue geisotu zan".

Zar eta sal okin deizula ! - Laguna agurtzerakoan , osasuna eta bizi luzea opatzeko.

Zaradátxue – Pasadatxue, arinka garbitu.

Zártzien itzela – Zahartzaroaren gogorra.

Ze – (esaldiaren aurrean) – Zer, zein, zeren . "Ze esan dau", "Ze ate da", "Ze berana politxaue da ¡".

Ze (esaldiaren azkenean) – "Apurtu eingo dala ze " , baie edo bakarrik zentzuan.

Ze ardure tso frailiri, lego bat, hil arren ba ? - Gauza bat galtzeak ez dau gura esan nahi dana galdu dogula.

Ze eñekidso ! - Zer egin jakin barik "Ze eñekidso, ze eñekidso, aman moñuri be sue emon".

Ze, ze, ze eindse – Hauts eginda, txiki-txiki eginda, batez ere jatekoa.

Zegán dan bez - Kaka badan bez - Kasurik pez.

Zeiñek geidsen Nor gehiagoka kiroletan, korrika, pelotaka,..

Zeitxik e, zeitxik e ze , (zeren) – "Zeitxik e berak erosi dau"

Zelako tertzie, halako kriela - Gauza danak daukie euren zergaitia.

Zeñetan – Ze, zeren. "Zeñetan berak esan dau".

Zemat ate, haren beste kabille Gauza danak daukie euren zergaitia edo baita euren zergaitia.

Zeozer da hori be ! - Zeozer zeozer da. Erd. Algo es algo.

Zepaitxe – Zeozer, zerbait. "Ikerrek zepaitxe ekar dau", "Zepaitxek ein dsost kalte !".

Zepeliñe – Arin dabillena edo pertsona nerbiosie, nahiz eta zepeliñe astiro joan.

Zer da berton lujue ta banidadie ! - Pertsonaren edo lekuren bat ikustean, ikusitako erropa, bitxi , altzari edo beste edozer, gehiegizkoak iruditzean.

Zer dala ta ? – Zeitxik ?.

Zer dan edo zer ez tan – Dana edo ez dana.

Zer edo ha – Zeozer. Zepaitxe. "Zer edo ha eun biko dau !".

Zer eñezien – Zer egin jakin barik.

Zer gauz ikusteko ! - Zer gara ikusteko !

Zer konta emon – Egindakoak edo esandakoak besteengan zer esana emon.

Zer konta okin – Jakindakoa edo ikusitakoa kontatzeko euki.

Zérdune – Zera daukana. "Zerdune halakotuteko".

Zertú edo **hálakotu/ Zertuten** – Zeozer egitea, zer dan aipatu barik, , esate baterako konpondu. "Zelan zertuzu hori ba?", "Ez patsu zertuten neuri esan".

Zibilize bakue – Basatia, edukazio bakue. "Zibilize bako morroié".

Ziestúte –Zirastuta, argalduta eta luzetuta.



Tripeko zillé agíridsen

Zillé – Zil, zilbor. Tripeko zillé. Umeren bat negar da negar dagoenean, amak zera esaten deutso, "Egin negar, tripeko zille zarratute dakozu te".

Zintz – Mokuak kentzeko surretatik indarrez haizea botatzea."Zintz egin!"

Zíñuke – Miñe atara edo beste burlazko keinuak egiteari. Imintzioka. Ikusi Kíkuke ta kíñuke.

Zipiér – Lan asko eta gogor. "Biar zipier ein dsau beran denporan".

Ziri-zárakue Balio gitxikue, ganorabakue. "Ziri-zarako jjostunc".

Zirkíllue – Horman edo behengainean dagoan karkabea edo zulotxoa.

Zolidsé – Zarata bizidse, sakona.

Zor nahi mor – Nahitaez, ezinbestean. " Hori zor nahi mor ein bidu".

Zoridsonien – Ordu onean, eskerrak, ordu txarrean, zoritxarrez,. .

Zoridsoneko – Ditxosozko. "Zoridsoneko musikie !".

Zu barritz ! - Zu barriz !, Ba zara e !, Zelakue zara baie !.

Zu ta ni tren bi – Ganora bako bi. Bestalako bi gauz gu.

Zu zauz egotekue ! - Zelakue zara baie !.

Zugaz daku guk etxe bete ! - Zeozer txarto egin edo apurtu dogunean, entzun beharko dogu, zeu zara nahiko etxe dana hondatuteko esateko. Eskerrak erdi olgetan esaten dala.

Zuk esateko niri, txori-herrikue, zein herri ete da txori bakue – Guk esan edo egindakoa, bestearen gustokoa ez danean, eta arpeire botaten deuskunean, bera gure antzekoa edo txarragoa dala esateko, emoten deutsagun erantzuna.

Zuk takoztazu brekeké! (Hik takostak brekeké!) - Zelako ganorie dakozu baie !

Zumitzé – Otzárak egiteko erabiltzen diran gaztainondoaren tiratxoa.

Zure ederráren – Ez zugaitik, ez zure edertasunagaitik. "Zure ederraren ez da etorko" Ez da etorriko zugatik, beste interés bategaitik baizik.

Zurtz eindse/ Zurtúte – Harrituta. "Zurtz eindse geratu nai" "Zurtute geratu de".

Ezetz igarri

Bera Italiako herri politxe, ta beran isterrak beti bustitxe. Badakizu edo popitas ?. **Popitas ?**

Txo, geldik ongo zara !

Ea > Ia > Bia

Agindua emoteko edo baita hasarratzen garanean bestea mehatxatzeko, ezetz esan edo barriro ezetz egiteko zentzuan. Sarritan burruka hasi orduko

Egon bia ! Ea egon, itxaron apur bat zentzuan. "Egon bia apur baten"

Egon bia ! Ea egon , hasarre . Banator eta orain ikusiko dozu.

Esan bia ! - Ea esan eidazu. Barriro esan, hobeto entzuteko, apuntatzeko,..

Esan bia ! - Ea esan eidazu, hasarre. "Ezetz esan barriro" edo "Esan barriro eta ikusiko dozu". "Esan bia ostabere !"

Itzi bia !– Utz eidazu ea, Ekarstak ea . "Itzi bia, ia zelakue dan"

Ekarri bia ! Ea emon, ikusteko zelakoa dan.

Emon bia ! Hasarre, burruka hastean, "Emoten batsuten e !" entzutean, gu ez garala kikiltzen "Ea emon ", "Ia emon " erantzuteko.

Íso edo Uie izan

Zerbait gogoko ez dogunean, zerbaiten kontrakoak garanean, edo zerbaitek bildurtzen gaituenean, gauza horren iso edo uie garala esaten deuskue, esate baterako; **uren íso , medikuen íso, okelien íso,** e.a.. edo baita **uren úie, medikuen úie, okelien úie**.

Isó astuari (azentoa aldatuz) gelditzeko esaten jakonagaitik eta **uie** erderazko huyetik, batetik zerbaiten aurrean isó egiten dogulako eta bestea zerbaitetik ihez egiten dogulako

Éne edo ené

Éne ! – Zepaitxek harritzen, liluratzen gaituenean. " Éne , ze politxe ", "Éne ez tot jakin".

Ené ! – Zerbaitek ezustean bildurtzen gaituenean. Susturi !, Ikariri !. " Ené !, ikaratu nai ", "Ené, zer da ?"

Ené- Zeozer azaltzerakoan, Bera, hirugarren pertsona bat, lehen esandako hori, . "Ta ené mutil hori etor zan gero!", "Ene dendic, zarratuteko ei de", " Ene mediku hori, gernikarra ei de".

Ene –Norbaiti gozotasunezko agirika biguna egiteko "Ene semie, etsut esan txarrerako", "Ene alabie, zer einzu ba ?".

Ene – Zepaitxek kezkatzen gaituenean. **"Ai ene badatxue"** edo " **Ene badatxue, zer gauz ikusteko " .** Aldiz norbaitek **"Ai ená !"** edo **"Ai enatxue !"** badiño, errezki ondo ezagaz edo zeozegaz min egin dauala.

Batek " Ai ene ! " esaten dauanean, besteak " **Ai ene ta enie, zein ete da hobie "** erantzungo deutso.

Hagiñcko miñegaz dagoan umeari, **"Ai ene, oi ene, hagiñeko miñe medikuañe"** edo Andra Maidsetan parrandan gagozanean kantatzeko.

Erre edo Ege

Jakina da, umeak besteen akatsen aurrean, erruki bakoak edo krudelak izaten dirala.
Berba egiterakoan, norbaitek arazotxoa daukanean, arazoaren arabera **berba hartue**, **auen bolo**, **tartanie** edo **potorrue** dala diñogu. Norbait potorroa danean, hau da, **erre** ahozkatzeko arazoa daukanean, ondorengo esakerak esatera behartuta izaten da.

"Tangarruen barruen kaskarratoié" > **Tangaguen baguen kaskagatoie**
" Potorro harridsen potorrue " > **Potogo agidsen potogue**
" Erramonen motor barridse, gorridse" > **Egamonen motog bagidse, gogidse**
" Akerrak adarrak okerrak dakoz" > **Akegak adagak okegak dakoz**

Bermion DA

Aditz laguntzaileen artean, DA izango da orokorrean erabiliena, baina gure herrian esaldiaren arabera, sarritan beste itxura bat hartzen dau.

DA - Nor da ? , Bermiotarra da, Merkiaue da.
DE - Ze ordu de ?, Talan bizi de , Atie igiri de.
DSE – Bardin dse ! , Ondiño arin dse , Apurtu ein dse.

"Arin da ondo, txoridsek hegaz"

Daídsola (Dariola)

Adurre daídsola - Babatán, gustora, arró
Ugerra daídsola – Loituta, zikinduta
Kaka daídsola - Loituta, zikinduta
Kaka daídsola - Ikaratuta, bildurrez
Uzkerra daídsola – Uzkerretan
Ure, odola daídsola - Ure jeusten, odoletan

Ri (Zelako, a zelako)

Hotzarí ! Zelako hotza ! , a zelako hotza !
Berurí ! Zelako beroa ! , a zelako beroa !
Gosirií! Zelako gosea ! , a zelako gosea !
Egarridserí ! Zelako egarria ! , a zelako egarria !
Logurirí ! Zelako logurea ! , a zelako logurea !
Etxétxuri ! Zelako etxea ! , a zelako etxea !
Lotsáridseri ! Zelako lotsaria !, a zelako lotsaria !
Egualdítxuri ! Zelako eguraldia !, a zelako eguraldia !
Sústuri ! Zelako sustoa !, a zelako sustoa !
Ikarirí ! Zelako ikarea, a zelako ikarea !

Zer da ! (a zenbat, a zelakoa, zenbat, asko)

Zer da hotza ! Zelako hotza !
Zer da berue ! Zelako beroa !
Zer da lorie ! Zenbat lora !
Zer da etxie ! Zenbat etxe !
Zer da berori ba ! Zelakoa da bera ba ¡

" **Zer da berton lújue ta banidadié ¡** " (zenbat lujo ¡ , zelako lujoa ¡)

.....

Ezetz igarri

Popitas ?

Venecia



Óstidse

Elizak aspaldidanik esana dauka, berba hau ez dala erabili behar **ogia** edo **Kristoren gorputza** adierazteko. Hori dala ta, aztertu daigun, ezetariko bildur barik eta inor mindu barik, berba honek gure herrian daukan erabilpena.

Óstidse izan - Zelakoak gara baie (onerako ta txarrerako). Ostidsek da gero ! , ostidse zara gero !
Óstidse - Kolpea, ostikadie, ukubilkadie,..-Zelako ostidse hartun dot ba ?
Óstike egin, óstike erre, óstike baltzitzu, óstidsek emon, óstidsek atara - Peilekan egin edo jo.
Óstike bez - Ez ta ostike bez ! , ez ta pentsa bez.
Óstidse - Madarikatua. Egualdi ostidse !, Ime ostidse !
Óstidsen - Madarikakua. Ostidsen morroie !,..
Ósti txarra - Jenio txarra. Osti txarrekue da hori.
Ósti txarrien - Hasarratute. Osti txarrien dau.
Óstidselakue - Zerbait handia, ederra eta baita ona edo jatorra. Ostidselako morroie !, ostidselako etxie !.
Óstidse lez - Ederto, hobeto ezin. "*Ostidse lez ibili gara* ", ostidse lez jan du !
Óstidse baño ... – Gehiago ezin. Ostidse baño onaue, gogorraue, politxaue,..
Óstidsen beste - Asko
Halako Óstirik ! - Halako markarik ! , Halako kolperik !
Óstirik pez - Ezebez, bapez. Ostirik pez ez taku.
Óstidsek ! - Zeozer txarto urteten deuskunean, Kaka zaharra ! zentzuan edo beste batek esaten dauanari, Bai zera ! esateko
Noiz ósti ? - Noiz arraidso ? Noiz osti datoz horrek pa ?
Non ósti ? - Non arraidso ? - Non osti itzizu jakenarrue ba ?
Nor ósti ? - Nor arraidso ? - Nor osti da hori morroie ba ?
Ze ósti ? - Ze arraidso ? - Ze osti diño ?, Ze osti eindsauie ba ?
Ze ósti da ? Ze arraidso da ?, zer pasa da !, Zer da hori ?
Zelan ósti ? - Zelan arraidso ? - Zelan osti jeusi jatsu ba ?
Ósti guztidsen Makiñe guztidsen, fulespidien, korridsen.
Ez tok óstidse makala ! - Ez ta ezango egidse !, Halako markarik !

Baie jatorrena*k*.....

Ósti tse guztí ! - Azkar, arin.. "Osti tse guzti *jun gara bertara* " !
Óstidsegaz berágaz ! - Azkar, arin, .. Juen ametik ostidsegaz beragaz !
Ósti bi tse erdígaz ! Azkar, arin. Jan hori osti bi tse erdigaz !
Óstidsek eta bi, hamábi ! Zeozer txarto urteten deuskunean, Kaka zaharra ! zentzuan.

Demoniñué eta beran famílidse

Demoniñué berbeak beran esanahi arruntetik kanpo, hau da inpernuko enkargaue, badauka beste erabilpen batzuk;

Haize demoniñué – Haize hotza, berénue, lupué,..
Imé demoniñué - Ume gaiztoa, madarikatué, ime lupué,..

Demoniñue bakarrik ez dago, badako beran familia. Lehen aipatutako erabilpenetarako eta beste zeregin batzuetarako, besteak beste hiru senide dakoz; **barrabasá, zentéllie** eta **tabardíllie**.

Barrabasá da demoiñuen anaidsie, bikotza ganera eta lan beretsuak egiten dituena.

Haize barrabasá – Haize hotza, berénue, lupué,..
Imé barrabasá - Ume gaiztoa, madarikatué, ime lupué,..

Demoniñué ez da iñorekin ezkontzen, aldiz Barrabasá bai, Zentellíegaz batuta dago. Andrazkoa danez, badauka beste zeregin batzuk.

Sentélle barrabasá - Ume gaiztoa, madarikatué, ime lupué,..
Zentéllielako hotza/Zentéllie baño ariñau - Hotz handia, azkar,..
Zentéllie baño gogorrau – Benetan gogor (Ogia esate baterako)

Eta amaitzeko, Barrabasán eta Zentéllien semetxoa. Umeak **Tabardíllie** dauka izena eta gaiztokeriak egin behar dauanez, esan onekoa da eta amak egiten dauana egiten dau.

Tabardílliclako hotza/Tabardíllie baño hotzau - Hotz handia
Tabardíllie baño gogorrau – Benetan gogor (Ogia esate baterako)

Erdi euskeraz, erdi erderaz

Guk euskeraz berba egiterakoan, erderazko berbak sartzen dogula, gauza jakina da, eta ez jako garrantzi gehiago emon behar, ze hizkuntza danan kontua da. Baina gure herrian, erdaldunak be, erderaz berba egiterakoan, sartzen dabe euskerazko berbak, esaldi benetan barregarriak eginez.

Hay un sagutxu
Laztana, no llores por eso
A tú pentzu
Has hecho las lanas
Que te ha dicho la andereño
Vaya zartza
Cuerpo a la basatza !
Dejame bakien
Tenemos etxegun
Vaya putetxe que hay
Vaya naste que has armau
No me nastes !
Vaya txarrikorta
Esta silla tiene manda
Es un arrotz handi
Es una tela gózo
Tengo bihotzerre
Estoy larri
Hasta bidsar
Vamos de gaupasa, vamos de jaia
Es de atziñe,
Es un koipesto, es una ganorabako, es una moldabako
El último aldarri
A palabras necias, oidos jakenarros

Bermion pailasoa, pepíñue eta txingaue, pallásue

Berbak jateko ordue

Hizkuntza bizietan, arin hitz egiterakoan beti jaten dira berbak, gure kasuan itsason-tzietako motorren zaratak eraginda, nabarmendu egiten da gure berba gosea.

P jaten dogunean - **Atraa, eskaa** < atrapa, eskapa
Alátxi < Alabátxi < alabatxu < alabatxui
Gure bozu edo **gure bazu** < Gura badozu
Guzanda ein dsot < Gura izanda egin dot
Atataz erropak < Atara dodaz erropak
Einkeran, jankeran, junkeran, etorkeran, jantzikeran, erunkeran, erosikeran,.. Egiterakoan, jaterakoan, joaterakoan, etortzerakoan, janzterakoan, eroaterakoan, erosterakoan,...
Lengulez, atzokulez, oraingulez, gaurkulez (lehengoan, atzokoan, oraingoan, gaurkoan legez).

Neuk pitaz < Neuk bitaz- behar dodaz)
Neuk bizan dot < Neuk behar izan dot
Jun bizu < Joan behar dozu
Jun biku Joan beharko dogu
Iñokuzik Inork gura ezik
Goizion Goiz honetan, gaur goizean
Ez tu biar - Ez dogu behar
Geuk ein bidu < Geuk egin behar dogu
Geuk ein biku < Geuk egin beharko dogu
Geuk pidu < Geuk behar dogu
Emon bitsatez < Emon behar deutsadaz
Enbidela Egin behar dela
Bidamoduen Behar dan moduan
Atataz < Atara dodaz
Adiskitu < Adiskidetu
Pasan astien - Pasa dan astean
Usandrie < Usaba andrie
Santamañe < Santa Marina, mariñe, maiñe, mañe
Hirutamar < Hirurogei ta hamar
Larota bedatzi < Laurogei ta bederatzi
Zozer < Zeozer- zer edo zer
Ohadi < Egon hadi < egohadi
Amataku ? < Amatatuto dogu?
Erosku la ? **Engule ?** < Erosiko dogu ala ? Egingo dogu ala ?

Jatorrago

Tzen/Ten – (tzan/tan) – Zeozer bila joan

Gai honetan, gurean atzizkirik erabiliena "Tan" bada ere, karakoletan, perrotxikotan, lapatan, atunetan, ezkiretan, txilipitxerotan,.., berben amaieraren arabera, badira beste atzizki batzuk ;

"Ogitzén jun da" (ogitan) - " ogidse bille jun da "
"Ardautén jun da" (ardautan) – " ardaue bille jun da "
"Arraintzén jun da" (arrantzan) – " arrainek bille jun da "

Ei /i – (omen) - Antza danez, dionez, diotenez

" Bera ez ei de jjungo" (ez i de jjungo) - " Bera ez tula"
" Julenek ekarko ei dau" (ekarko i dau) - " Julenek ekarko dauela "

Ete – (ote) – Zalantza

" Nor ete da ?" - Nor da ba ?
" Egidse ete da ?" - " Egidse bada la ?"
"Zein ete da hobie ?" - "Zein ezango hobie ba ? "

Nentz –

– Galderen errepikamena indartzeko atzizkia.

Bazuez Bilbora la ? E ? **Bilbora bazuzenentz !**
- Erosi dau ela ? - E ? - **Erosi dauenentz !**
- Bertan emoten tsuie la ? - E ? - **Bertan emoten tsuienentz ?**

Ia - (ea) -

Agindua emoteko - **" Ia ze orduten zatozen gero ! "**
Jakiteko gogoa - **" Ia zelakue dan, erakutsi ! "**
Gogoak zuzpertzeko - **" Ia mutillek, ez itzi ! "**

Kañe/Ñe - Gañe (rengana -bezain- beste –bezalakoa- hainbat)

Amañe - Amarengana
Ikerreñe - Ikerrengana
Lagunekañe - Lagunengana
Hareñe - Harengana
Imiekañe, imieñe - Umeengana
Arantzan gañekue da - Arantza bezain handia da
Athletiken gañe puntu - Athletikek beste puntu
Bermion gañekue - Bermio bezalako handia.
Ez ta euri asko, baie egune laskitsuteko gañe - Eguna laskitzeko beste
Zeure gañe ule dakot - Zeuk hainbat ule dut
Horren gañe ekar dau ?.....- Horrenbeste ekarri dau ?

Alá edo ála,

Ala - alá ibili - Norbaiten aurka berbetan. **Neure alá dabil**

Ala - atune ala - Zerbait jasotzean. **Atune alaten, sarie alaten**

Ala - jan ala (ahalean) - Lotu barik, ekinean. **Edan ala, egin ala gastá**

Ala - ála etorri - Goazen. **Alabátxi ála ba !, ála Jontxu etxera !**

Ala - ála kalera ! - Kanpora botateko. **Ála porai ! , ála kanpora !**

Ala - ála gazte ! - Animoa emoteko. **Ála mutilek !, ez itzi !.**

Ala ta guzti be, ala ta be (hala ta guztiz ere) – A ta guzti be

Ala mierdara ! – Kaka saltzien bota, (baie ez musulmanei).

Bermion "gauze" edo "geuze" asko

Argi dago gure herrian gauza asko eta gehienak onak dagozala. Baina ikusi daigun **gauze, geuzie**, **gauzie, gauzétxu** edo **geuzétxu** berben erabilera.

Batek - **"Geuzétxu bet"**
Besteak - **" Esan bi be !"** (esan bat, bi edo zeuk guzun beste)

Batek - **" Gauze bat !"** edo **"Gauzetxu bet !"**
Besteak - **" Gauzie aldien falta barik !"** (norberan gauzie beti geugaz)

Batek – **" Gauze gitxi"**
Besteak – **" Gauze gitxi, bapezan urrengue dala !"** .

Andrak gizonen sexuari, **"bera jenerue"**, **"bera geuzie"**, edo antzeko modu bigunagoan (?)deitzen deutsie.

Ez ta gauzé! edo **E nai gauzé** – Makalik edo gorputz txarragaz
Gauzé ez tan moduen - Osasunez makal dabil
Ez ta gauzé ! - Ez ta kapaz, ez daki . "Ez ta gauzé hori eitzeko"
Gauze ez tana – Balidso bakue, aberidseta,
Gauzie da ze.... – Zeozer azaltzerakoan, eta orduan , eta horrela,....
Gauzie dan moduen ... – Artez esateko..., egia esateko...,
Gauzetxuek egin – Apaijjue egin, andratan egin

"Imiri emoten batsazu kordela luzé, harek eingotsu edozer gauzé"

ETA Bermion

-Euskal herrian, juntagailu edo konjunzio modura **"eta"** eta **"ta** badira erabilienak, gure herriak badaukaz beste modu batzuk,

ETA - Zazpirek eta hamar, merkiek eta onak , ...

TA - Lo ta lo, jo ta su, zeu ta bera, Bermio ta Mundeka, ...

DA - Jan da jan, jun da etorri, negar da barre, Julen da bidsok,

Da legoie ?, Da noiz da ba ?, Da zer esan dau ba ?,....

TSE - Argi tse garbi, euri tse euri, zazpi tse erdidsek,...

TE - Zabal gero jangu te, etorri hametik ariñau eingu te !,....

- Kiroletan, emaitzak emoterakoan danatariko juntagailuak erabiltzen doguz ;
- **Bat eta bapez, bi tse bat, hiru te bapez, bost da bat, ...**

- Itsas-gizonentzat, "**Eta**" berbeak badauka beste esanahi bat.
- (ETA Estimated time of Arrival – Portura heltzeko, emoten dan gitxi-goraberako egun ta ordue)

- Itsasoan bermiotar kapitan bi berbetan.

- Batek – **Ze ETA dakozuie ba ?**
- Besteak - **Militarra !** (txantxetan)

- Beste egun baten portuan, kapitan batek ofizialari (biak bermiotarrak)

- Kapitainak - **Imiñi ETD gaur zortziretan !-**
- Ofizialak - **Zer ba Athleticen partidue dau ela ?** (ETB entzun dauelakuen)

- (**ETD** Estimated time of Departure – Portutik urteteko, emoten dan gitxi-goraberako egun ta ordue).

Gure bideak

Bermiok sartzeko eta urteteko hiru-lau bide daukaz, beste herri batzuk beharbada izango dabe gehiago, baina **bide** berbea erabiltzerakoan, segurutik ez dauela beste herririk, gure beste **bide** daukanik.

- **Bide – bidea** – Erabilpen zabala dauka berba honek, **bide ona, txarra, luzea, laburra, erdian, ertzan, okerra, artesa, erreza, penasa, ederra, bakarra, asko, gitxi, zabala, istua, trenbidea, burdibidea, anda-bidie** (hiletetan, gorpua baserritik kanposantoraino eroateko bidea), **bide zídsorra** (mendietako bide istua, pertsona bat edo astoa pasatzeko modukoa).

- Pertsonek aipatzerakoan euren bizilekua edo jaiotetxe ingurua gogoratzen dogu **Mundeka bidekue, Bilbo bidekue, Almike bidekue**,e.a.
- Sarritan baita euren zaletasuna be, **elize bidekue** (eliza zalea).
- Baie bide jatorrenak, **bide erdi** eta **bide batez** dira.

Bide erdi egin – *"Ogidse* dakatsut eta bide erdi egin" - etorri bidera, etorri honantz, etorri bille edo antzekoen aldien, askoz jatorragoa dogu.

Bide batez – *"Amari eruen hau bide batez" "De paso eruen hau amari"* esateari "paso" eginez.

Herrian bide asko badira, gure etxeetan oraindik gehiago. **"Garbitsu bidén"** egunero entzuten da gure artean. Antza danez, berba honen jatorria frantzezezko **"bidet"** tik dator (behor edo zaldi emea). Kumunetako bideei, zaldietan edo astoetan montateko **bastien** edo sillien antzatik jatorkie izena. Bide hau ere herri guztietan dago, baina urrengoa ez.

Bi dé (behar da) esan ezkero, badakigu zerbait edo zeozer behar dala, edo hobeto esanda zepaitxe bidela. **Ein bide** (egin behar da), **Jjun bide** (joan behar da), **erosi bide** (erosi behar da), e.a. . Hau bai dala geure bidie.

Zera zertzien

Berbetan gagozancan, besteari esateko dogun dana ezin dogu lez gogoratu, komodinak erabiltzen doguz alkar ulertzeko. Komodinetatik komodinenak zera eta beran enpadu guztiak dira.

Zerá - Ha edo hori. Zera etor da, zera erosi dot.
Zeraríkzerík - Ha edo hori galderatan. Ba dau zerík ?
Zeraaá ! - Fulana ! , Zu ! , Zeratxu ! (Deitzeko)
Zératxuuu ! - Fulana !, Zu ! , Zerá ! (Deitzeko)
Zerá ..... -Berbetan gagozala, esateko dogun izena ahaztuten jakunean edo **Bai zerá !** – Hori ezin da izan.
Zeraue - Halakue do horrelakue baño
Zertú - Ha edo hori egin . Baita **hálakotu**
Zerák - Harek edo Horrek
Zérdune - - Ha edo hori dakona
Zerako - Hango edo horko
Zerán/zerien - Han edo hor Ikusi zerien
Zerañe - Harengana edo horrengana
Zerará - Hara edo horra.
Zerarí - Hareri edo horreri.
Zerágaz - Haregaz edo horregaz
Zertzíen - Ha edo hori egiten.
Zertzíko - Ha edo hori egiteko. Baita **hálakotuteko**
Zerantzat - Harentzat edo horrentzat
Zerantzako - Harentzako edo horrentzako

" Agur zera ! " - " Agur fulana !", " Agur zeuri !"
" Zerá da hori....!" – "Zera dozu hori, Tomasan subiñé "
" Zertuzu zerá ?" -" Egin dozu ha ?"
" Zer einbizu zeragaz ba ?" – "Zer egin behar dozu haregaz ba ? "
" Zera zertziko bidotela !" - " Ha egiteko behar dodala !"
" Zeratxu, zeran dauen zera, eruen zerara "
" Zera zertun badan, orain zegaz zertuku zera ba "

Batek - **" Zerá ..."** Besteak - **" Zera, berá ta Txilibistro, harek zien hiru gizon ".** Hirukote honen esakera gehiago ikusteko, joan " erantzunak" gaira.

Amaitzeko, errepikamenaren guinnessak, **"Zeratxu, zeran dauen zera, eruen zeragaz batera zerari, ez taitx zelako zegaz zertziko bidau eta ! ".**

-Batek - **" Zer esantsu ba ? "**
-Besteak- **" Batako, ez taitx zer, da badai zer, ta besteko, ez tai nor, da badai nor, ta azkanien ez tost esan ezer "** . Hori ezer esan barik.

Ondo entzun dot ?

Sarritan esaten doguna, berben soinuak eta sekuentzien eraginez, besteengan beste zentzun bategaz heltzen da, une barregarriak sortaraziz.

Batek, "**Semie dako Alabaman ",** besteak, **"Zer ba, ez tau korriten amak ela ?".** Ala ba ama! entzun dauelakuen.

Patxi Aritzatxun ta Kontxi atxitxen etxien ! - Bandako platiluek joten

Ai ze ondo, haizonduen ! - Ederto pasitan

Patatak atitara atataz - Bandako tronpetie

On ba berton ba – Atakontu Afrikako baltzen bat dagoala berbetan

Ayuntamiento – Hay huntamiento !

Udaletxie – Udal letxie !

Amanera due – Bestie hasarre amaneradue esan deutsolakoan

Kumunik eizu ? Amak alabeari etxeko lanak egin duen galdezka eta alabaren lagun irlandarrak harrituta, etxeko amak ingelesa zekiala pentsatu eban. (Communication) entzun daualako.

Oraingutan ez -(Oraingoan ez) Hau entzutean, herritik zebilen kanpotarrak, Bermion zoologikoa egoala pentsatu eban (Orangutanes).

Jjo hormigaz ! (Jotzen bazaitut) - Eta kanpotar berbera behera begira jarri zan, iñurriak topaten.
Ez tala Talan ! (Talan ez dela) - Lehengo bera, elizeko kanpaia noiz jo zain.
Formalak kariez – Eta kanpotarrak odontologak zirala pentzatu eban (forma la caries).
Haizi da ! (Haizea ahal da)- Oraingoan kanpotarrak, "Hay sida" ulertu dau.

Ama ta bat (aman antzekoa) – Eta bestiek erantzun, **"Ta beste danak bistute ? "** (Amata bat entzun daualakoan).

Ama ta diez (ama eta dira)– Eta bestiek erantzun, **"Biztute on diez ela ?"**

Bihar itzen dau (Behar egiten dau, lanean dago)– Eta bestiek erantzun, **"Ta zer eitzen dau Biarritzen ba ? ".**

Batek, **"Laguntziño handidse ! "** esan eban eta lagunak erantzun, **" Txo txiñuek txikidsek ez tozak pa? "**(Lagun txiño handidse entzun daualakuen).

Beste egun baten andra bat lagun bategaz berbetan egoan, hirugarren baten kontura ta diñotso, **"Bera askotan etorten da ! "**, besteak erantzun, **"Zer ba, estomangotik delikada dabil ela? "**. Beraskotan entzun daualakuen.

-Suministrue noizko ? **E, zeu zaranien presidente !** (Zu ministrue noizko, entzun dauelakuen)

Barreka zatitsu

Beste batzuetan, hizkuntza desberdinetako berben soinu antzekoak eragiten dabe momentu barregarriak.

Gasolindegian kotxea lotu ta gidariak dinotso bertako mutileri, **"Beté ! "**, mutila harrituta nagusiengana, **«No se lo que le pasa, me ha dicho vete».**

.....

Antzekoa, senarra gaizoz izandako andra batek, losa batetik bestera andra lagunari, hospotaletik etorri direla esateko, **"Etxien gauz !"**, baina lagunaren albotik zihoazen mutil taldea haserre itxuraz jarri ziran, eurei **"E txingaus !"**esandakoa zelakoan.

.....

Kalean losa batetik bestera, andra batek lagunari galdetzen deutso ea zer dan eskuetan zeramana **"Zer da ?"** , besteak lapurretatik babesteko bolantean jartzen dan tramankulua erakutziz **"Kótxina !"**. Agurtzen dira gure andrak. Baina handik zebilen kanpotar bat harrituta, berak (**Cerda !**) eta (**Cochína**) entzun zuelako.

.....

Madalen eguna goiza, andra bat balkoian, kaletik gazte ezagun bat doa, andreak badaki Madalenera doala, baina ez nogaz. Kuriositatea asetzeko galdetzen deutso, **"Kepagaz ?"**, gazteak erantzun **"Rafagaz !"**. Goiko kanpotar berbera, barriro harrituta, berak **"Que pagas ?"** eta **" rafagaz !"** entzun dauelako.

Pertsonaiak

Ondorengo orrialdeetan ikusiko doguzan pertsonak, ez dira ospetsuak izan, ez dabe herriaren historia aldatu, baina pertsona arruntak izan arren, euren izaeragaitik herriarentzat "pertsonaiak" ere badira.

Herrikoiak, alaiak, jatorrak, eta balore handikoak izan diranei, herriak leku berezi bat egiten deutse eta betirako gogoratuak izango dira.

Pertsonen benetako handitasuna,
ez dago ez eukitean, ez jakitean,
izatean baizik.

AURELIUS Bermioko Iparragirre

BIXENTE kantatzeko jaioa

GAZTE-LEKUKO KANDIDO

KARMELO TABERNIE

JUAN PURILLOS

MARFIL berezi hartua

AURELIUS
Bermioko Iparragirre

Aurelio 2009ko Andra Marietan

Merezi dauanari, berea bizian emon behar jako eta oraingo pertsonaiak ere benetan merezi dau.

Aurelio Langak, bizitza gehiena itsasoan emon dau, bai arrantzan eta baita nabegazioan, beti bere bizkortasuna eta bihotz ona mundu guztian zabalduz. Gero herrian ere lan egindakoa dogu gure Aurelio, nork ez dau ezagutu **Psicodelic** dantza tokia eta **Nautilus** tabernie, izen honeek ere berak jarritakoak ziran.

Bere irudipena oso aberatza izan da beti, hori adierazteko adibide argi bat. Bermioko Arrain Azoka jaio zanean, herriko agintariei bere proposamena emon eutsien azokeari slogan bat jartzeko. Erderazko slogana **"Bermeo bonito, bonito del norte"** eta euskerazkoa **"Bermeo politxe, jente ona ta gozo marmitxe".**

Munduan zehar beran bidaiak, historiak eta musikarako beraren doi berezia kontutan hartzen badogu, ikara barik esan leikegu, gure Aurelio, Bermioko Iparragirre izan dogula. Munduan zehar ibiltzea, hizkuntzak ikasteko ere balio dau. Hori dala ingelesez, portugesez, gailegoz, italiarreraz eta beste hizkuntza batzuetan ere moldatzen da Aurelio. Euskeratik aparte, hizkuntza guzti honeetan berba eginez gain, abesteko ere benetako erraztasuna dauka oraindik.

Bermioko Abesbatzaren sorrerakoa ere izan zan, oraindik gogoratzen dauala hogeitabost pezeta jarri ebiela hasierako gastuetarako. Musika izan da beti bere bapateko doia, itsasoan bertan eta irolean bertan ere sarritan idatzi dauz abestiek, gehienetan bere Bermiori buruzkoak. Hainbat abesti daukaz eginda, baina gogoratu daiguzan Bermio buruzko hiru kanta.

BERMIOTXU

Bermiotxu, villa noble y generosa,
de bravios arrantzales, igual no se pueden hallar
Bermiotxu, tu mirador de Gaztelu,
y tu hermoso parque Ercilla, son dignos de admiración
Chavalas como en Bermeo, chillonas pero atractivas,
de una estampa que seducen, sin rival como bonitas
Bermiotxu, yo con ternura infinita,
a ti dedico mi canto, con sumisión y humildad
Bermiotxu, neure herri maitxie.

I LOVE YOU MY QUEEN XIXILI (Poema)

Gau eta egun, hotz eta bero, ilargi, izar eta eguzki
Truboi eta tximista, alba eta eguerdi
Pozik eta itzal, adiskide eta hasarre, ,
Gerra eta bake, bete eta gose,
Bizi eta hil, Bermeoko lamia haundi
Ezkerretik gure San Juan Ermitzea
Eskumetik, gure Santa Klara
Atzeko aldetik, Lamia txikia,
Kurtzio, Erribera eta Almike
Aurretik bat, Xixilin eskumetik
Bermeoko txapel haundia, Insula dan Izaro maite
Gure Xixili maite maitea, Lamia guztien erregina
Mundu danetan entzun handia, sorgin artean famatua
Alper lur guztian, baita itsasoan
Zurru murru eta murmurazioa,
baina Bermeo guztiak adoratua
Akelarre gau erdian, San Juan bezpera egunean
Gure Xixili Lamia dantzan jo ta ke, su handi gainean

MAITETXU - Doinua - Luis Marianoren "Fandango"

Cuando es la fiesta en Bermeo,
musica, musica y txistu,
trajin de gente de aquí para alla,
riendo, cantando y bailando
Junto a una hermosa neskato,
bailando el zabaletako,
al son de banda y acordeones,
del txistu y del tamboril
Maitetxu, maitetxu, etxetik urteizu,
eta zuk eta nik baltxian ein biar du,
maitetxu, maitetxu, ondo entzun badozu,
ederki jantzi ta bajatu
Trairalaralara, trailaralara.....
Lo que tiene el buen bermeano
es corazón y ternura,
tanto en su pueblo como fuera de el,
se distingue por su buen humor
El dia de Santa Eufemia,
llegan los baserritarras,
y algún que otro turista frances,
el cual parla "o la la , tre bien"
Maitetxu, maitetxu, etxetik urteizu,
eta zuk eta nik baltzian ein biar du,
maitetxu, maitetxu, ondo entzun badozu,
ederki jantzi ta bajatu
Trairalaralara, trailaralara.....

Bermiotar ona, lagun ona eta baita seme ona ere.

Behin baten hamasei urte eukazala, bere ama oso gaisorik jarri zan, sendagileak ez eutson egun bat bakarrik emoten bere biziari. Gure Aurelio goizeko zazpiretan altxa zan motorrera doala esanez, baina San Juanera joan zan, bere amagaitik erregututen.

Esan behar da, amak beste hogeita hamar urte bizi izan zala. Jaunak badaki nori egin kasu.

Pertsonen benetako handitasuna,
ez dago ez eukitean, ez jakitean,
izatean baizik.

BIXENTE kantatzeko jaioa

Hasi da funtzioa

Goiko Plazan 1950eko Andra Maidsetan. Bixente Zarandona kantaten eta atzean behera begira Prudentzio Barbarias "Otxito".

Sarritan ikasketak eta edukaziñue nahastatu egiten badira ere, argi dago ez dirala bat. Bixente Zarandona gizatasuna eta edukazio aldetik goi mailako gizona dogu, ez tau hori ukatuko dauanik. Hori da berak daukan gauzarik handiena.

Baña Bixentek beti izan dau antzerki eta musikarako doi berezi bat. Aintzinan tellapekuen bizitza guztia kaleetan egiten zanean, makinetxu errepresentazio eta kanta egindakoa dogu Bixente. Bere penarik handiena, gaztetan gitarrea jotzen ezin izan zuela ikasi, itsasora joan behar eta ez zegon gauza horreetarako denporarik.

Torronterun, Goiko Plazan, Batzokian edo baita Frantxun atxetako loidsetan ere antzeztu eta abestutakoa dogu Bixente. Gabonetan ere, lagunek euren etxeetara gonbidaten eben jaia alaitzeko. Herritik kanpo, aipatzekoa da, Radio Bilbaoko kantu lehiaketan ere hiru aldiz saria irabazitakoa dala. Urrengoetxea maisuak sarritan deitu eutson, beragana joateko musika eta kantua ikasteko, baña lehen esandakoa, Bixentek itsasora joan beharra eukan.

Ikusi daigun zelan bere abestietan, sentimentu guztidsegaz, bere Bermio, Aberria eta Bakea dirala nagusi. Gainera, kasu bitan ezezik, beste abesti danetan, musika edo doinua ere, Bixentek berak asmatutakoak dira.

EPERRAK (Musika Luis Mariano) --

Eperra kantaten dot, goizian goizetan,
ongi pilotan eta, harri labanetan,
Arraintzaliak gara eta bermiotarrak,
eta despeskan dagoz Bermioko portuan,
Ailetun tikitun, aletun aile, ...
Guztiz ederra da eta Bermioko herria,
baita neska ta mutil, hain diez ederrak,
Gure Almikeko Ama, guztiz da ederra,
bermiotarren artean, guztiz maitatua,
Ailetun tikitun, ailetun aile, ...

ARRIVEDERCI MIRENTXU-

Arrivederci Mirentxu, itsasora noa ni,
arrivederci Mirentxu, arrantzera noa ni,
arrivederci Mirentxu, bidsar etorriko naz,
arrivederci Mirentxu, arrivederci Mirentxu,
bidsar ikusko gera.

ESTA VILLA MARINERA (Musika Rosa Mª Lobos) –

Esta villa marinera, de mi pueblo que es Bermeo,
donde las olas del mar, me despiertan de mañana,
Tiene magia, tiene encanto y belleza sin igual,
tiene marcha por el puerto y tambien por la Lamera,
Este Bermeo querido, que tanto quiero,
este Bermeo del alma, que es un tesoro,
lo llevare muy dentro de mis entrañas,
y no te olvidare nunca, nunca, nunca, Bermeo del alma.

GURE OTOITZAK

Mendi horretan dagoz, ikurrinak eskeita,
danok esan behar dogu, !Gora Euskadi askatuta,
eta gure biotzak guztiz samurtuta,
Aberriaren alde, Jaunari gure otoitzak.

ABERTZALE-

Abertzale ez egin negarrik egin,
abertzale ez negarrik egin,
gure aberri laster ikusiko du,
argi ta garbi, laster ikusiku,
Tralaralarailalailala, abertzale,
Tralaralarailalailala, abertzale (Bis) ,
Hemen goaz mendi tontorrera,
hantxe dago gurtze eder bat,
hantxe dagoz euskotarrak,
euskotarra gugari hazi dan,
beren aitak ta beren semeak,
danak gudariak ziran,
Agur, agur gure lagunari,
agur agur gure bihotzetik,
agur agur gure Irujori,
agur agur gure Nabarrari.

Azken zati hau (Agur agur) Irujoren hileta egunean abestutakoa.

Berba bitan, esan daikegu Bixente, errespeto handiko gizona, berbetan eta entzuten zekiena eta bake zalea zala. Horrez gain, argi dago, kantateko ere doi berezi bategaz jaio zala.

Pertsonen benetako handitasuna,
ez dago ez eukitean, ez jakitean,
izatean baizik.

GAZTE-LEKUKO KANDIDO

edo herri pikareska

Pertsonek, euren izakerak kontutan harturik hil ondoren ere bizirik geratzen dira, besteek euren esakerak eta jarrerak gogoratzen bait dabe, oraindik gehiago herri mailan pertsonai famatua izatera heltzen bada eta iñor izan bada, Gaztelekuko Kandido bai.

Bere tabernara mota guztietako jendea sartzen zan, kanpokoak ere ezagutzen eben bere salazoiko bokartak, ozpiñetako atuna, pisu biko tortilla eta abar.

Zer esanik ez bere tabernako garbitasuna, mahien eta kumuneko lejia usaina, kumunen ez zan faltaten egunkari orririk, Beatrizen "itsosupeteko eskatza", dana bikaiña, baña benetako ikuskizuna Kandido bera zan, beran pikareziaz beteriko erantzunekin.

Hona hemen berak utzi deuskun gogorapenak, batzuk neuk bizitakoak dira, egunero joaten bait nintzan "Kandidori kiku bct eitzera".

Nork ez dau entzun, berak kobrateko orduen gorantz begire esaten eban, **"Zeu zaralakon"** edo **"Zeu ezatigaitxik ...."**, diñoe Bilboko medikuren batek ere, gero bere kontsultan bardin egin eutsola.

Benetako erraztasuna eban bapatean erantzunak emoteko. Behin baten eskale bat sartun zan tabernara esanez **"Me da cincuenta pesetas para el autobus"** eta jarraian bere eskua eskalearen lepoan ipiniaz zera esan eutson **"Ya sabes que vasaser, vienes a las sinco entonses el jefe te va dar sien pesetas**.", eskalea joan zanean, bertan egoan bezero bateri esanez , "**Bostatan itxitxe *dakotelez*".**

Niri gertatukoa, txikitoa peseta bi balioten zauenean, lagunak eta biok txikito bana hartu genduan, nire lagunak ogorloko bat emon eutson, da beran bueltak emoten ahaztu, nire lagunak **"Kandido pesetie..."** ta berak **"Trankil emongostazu".**

Antzeko zerbait gertatu jakon Bermion lan egiten eban Bilbotar bati, egunero joaten zan pintxoa jatera ta baekien prezioek, dirua emon eta Kandidok buelta gitxiau emoterakoan, **"Kandido no me has cobrado bien",** Kandido segundu bi pentsakor geratu ondoren *"Toma toma, que si no luego no me cuadra caja"* esan eutson.

Berak esandakoa danez erabiltzen da **"Ave de paso, escopetaso"**, bere pikardia horregaitik herriak kariñosamentien **"Kandido bandido"** deitzen eutson.

Behin baten esan eustan, biajante batek egin eutsona, serbesa bat hartu eta bost peseta gitxiau emon ta kalerako bidea hartu eta Kandidok **"Oiga uste, las sinco pesetas"** ta biajanteak arpeidse mobidu barik **"Pal bote",** Kandido ago beteko hazurregaz geratu zan, baña berak esan eustan, bost pesetak baño grazi gehiago, erantzunak emon eutsola.

Baekien non egiten neban lan, hala ta guztiz ere iñoiz esan eustan ,**"Zer etor zara nabegaziñotik"** ta nik bereari jarraituz esaten neutsan *"Kandido, laster jjuteko be bai"*, hori bai dana seriotasun guztiaz, horrela izaten bait zen bere pikareska .

Beste arlo batetan ere aurrerakoia izan zan, marketing munduan, berak domekatan irratiz entzuten eban futbol albisteak eta "egurrezko kartelera" batetan ipintzen eben emaitzak , horrela Itxas-ganeko partidua amaitu bezain azkar, danok joaten giñan bertara, beste ekipoek zer egin eben jakiteko, baekien zelan erakarri bezeroa.

Honekaitxik eta beste antzeko pasadisuekaitxik, ez taku ahaztuteko gure Kandido. Goian Bego.

Pertsonen benetako handitasuna,
ez dago ez eukitean, ez jakitean,
izatean baizik.

KARMELO TABERNIE

Ardaue salgai ta bizi poza doan

Pertsonen izaerak gehienetan hilda gero baloratzen doguz, euren hileta elizkizunak egiterakoan izaten dira goraipamen guztiak. Orduan **difuntu tristie**, **difuntu ederra**, koitxadue/ie eta abar esaten doguzalarik, nahiz eta hildakoa oso **alaia, txikia** edo **gaiztoa** izan. Egia da ere, noiz behinka bizian ere egiten dirala homenaldiak eta antzeko ekitaldiak.

Bide batez famili baten izaera gura dot goraipatu. **Karmelo**, **Kristi** eta **Juanjek** osatzen daben familiak, ez dau ez miraririk egin, ez izugarrizko lorpenik lortu, euren meritorik edo baliorik handiena, euren izaeran bait dago. Uste dot herritar gehienak egongo dirala ados, euren **bizi poza**, **alaitasuna** eta **bihotz ona**, neurriz kanpokoa dala esaten badogu.
Bizitzaren txapelketa luze eta gogor honetan, benetako txapeldunak dira.



Etxeko hirurak

Gainera, euren bizi poza, alaitasuna eta bihotz ona, ez dira barruen erutekoak bakarrik, azal azalean ikustekoak baizik, euren tabernara sartzen diranei "birus" bat bezala nahastateko modukoak .

Txikito, pintxo, saldea hartzera edo afaltzera sartzen garan guztiok, berehala somatzen dogu zerbait berezia, aidean dago. Hartzen dogunak ere beste sustantzi, bertute edo onure berezi bat izaten dau, bihotzerrea bera ere ikaratu egiten dalarik bertan sartzen.

Eurei laguntzeko ere beti dago norbait prest. Baña dirudienez bizi poza, alaitasuna eta bihotz onaren azterteka pasatu behar dabe, ez dago Luis "**Marfil**" ikustea baño gauza argiagorik. Lotu barik barruan eta kanpoan, tabernaren lema kaleratzen, **barre atsegiña, barru barrutik egiña**. Kalean be edonogaz berbetan lotzen da, bere abotza azautik be entzuten dalarik.

Juanje, Kristi, Luis "Marfil" eta Angela

Maisuagaz ikasitakoaz, arro dauen harrobia

Athletikek eukan zaletuen talderik handiena ere, Karmelo tabernan eukan bere egoitza. Non eta Bermion, taldearen izena zein ta "Bizkai Buru" ta gainera Karmelon, non egongo da talde handiagorik ba.

Aitaren gerizi, ohorea merezi

Karmelo (Goian Bego), Kristi eta Juanje, nire izenenan eta herriaren izenean eskerrikasko zuen izakereagaitik.

Pertsonen benetako handitasuna,
ez dago ez eukitean, ez jakitean,
izatean baizik.

Pertsonen handitasuna ez da aldatzen, ez tximurrez, ez agurrez

Katxutxo, Eujenio Katorse ta Karmelo

Daniel Tutu, Fidel Txurrerue eta Karmelonekuek

JUAN PURILLOS

edo herri pikareska

Sollube tabernaren kanpokaldean, Juan Zabala "Purillos", lagunekaz.

Juan Zabala eukan bere jatorrizko izena, baña gure herriko patroi famatua, "Juan Purillos" ezizenez ezagunagoa izan zan, bere ezpanetan beti puroa ebiltzen ebalako. Bere ezaugarririk nagusiena bere buru argia eta bere alaitasuna ziran, bere ekintzetan ere oso azkarra zalarik.

Juanen baporak "**Primero de mayo**" izena eukan, baña Francon demanduen galazo egin eutsien izen hori, langileen eguna zalako eta orduan gure Juanek bere buru azkarra erabiliz, "**Dos de mayo**" ipintzea erabaki eban eta arazoa laster batean geratu zan konponduta.

Sasoi hareetan, gizon guztiek batzen ziran tabernetan, orduan ez zegoen txokorik eta, Juan Purillos Moderno tabernan lotuten zalarik.

Egun baten Juan kartaka egoala, itsosotik etorren gizon bat sartu zan tabernan, ta Juanek diñotso - **Kaixio , zer ekarzue ba ?,** gizonak erantzun - **Afairik pez Juan !** , ta diñotso Juanek, **Ez kaise horregaitik, eguerditzen jan geidsau !.**

Behin baten baporeko mutilleri berek txokoluek ekarteko zera esan eutson, **"Txo, ekarri neure sandalidsek ".** Gauza txikienetan ere bere grazia ipintzen eban.
Juan eta bere lagunek musien ebiltzanean, maidseko kunturrene guztia beteta egoten zan, benetako espektakulua izaten zalako. Juanek museko kartak eta numeruek esateko ere modu bitxia eukalako, horrela,

- 11 esateko - Monjana
- 12 esateko - Frailena
- 7 esateko - Zapi katuek (*)
- 2 esateko - Zueneko amanak
- Oruek - Urriek
- Bastuek - Makillek
- Ezpatak - Guardia zibillen arraintxue
- Kopak - Gabonatakuek

(*) Zapi ! katuak izutuleko edo ikaratuteko erabiltzen dan expresioa .
Esan dogu bere ezaugarririk nagusiena, bere buru argi ta azkarra zala eta hori adierazteko jarraian adibide batzuk .

Baten batek esaten baeutson - **Juan esan txiste bat !** , beran erantzuna **Txistek atunetako onak !** izaten zan.

Baporan lan egiteko orduan norbait adibidez Pepito izeneko bat makaltxue zanean, berak zera esaten eutson, **" Pero Pepito que droguero eres !"** . Droguerue bata zuria jantzita, bezeroen zain beti geldirik egoalako.

Beste egun baten galdetu eutsien, **Juan ze ordu de ba ?,** da berak beste galdera batez erantzun, **Errebesilla baño berau zein herri dau ?,** beste gizonak erantzun **- Lastres !,** ta Juanek orduan **Auri ordue !.**

Beste batean barruko batek galdetu eutson itsosoan, **Juan ze errunbotan guez ba ?,** ta berak atzamarra surren punten imiñi ta diñotso **- Amen !** , bestea behar bada Juanen erantzun bitxiak jakiñik, konturatu zan baporan errunboa **Sur** zala.

Ziur zeruan bertan ere gure Juanen erantzunak dirala ta, jendea barreka lotu barik egongo dala . Goian Bego gure Juan Purillos.

Pertsonen benetako handitasuna,
ez dago ez eukitean, ez jakitean,
izatean baizik.

"Marfil" berezi hartua



Edonork ezin dau gauza bera esan. Luis leku danatan eta jende guztiak berezi hartzen dau, berezia dalako. Berezi hartua da.

Izenez be Luis Bereziartua da. Ezizena be balio handikoa "Marfil". Niretzat ezaugarri guztiak dituana herriko pertsonaia izateko.

Ez dau ezer berezirik egin, bera da berezia. Jende askok gauza handiak egin ditu, baina ez dira bereziak.

Hamabi urtegaz Bilbon osabaren tabernan hasi izan lanean. Gero itsosora Bermion, Ondarrun arrastan, Kanariasetik, Dakarretik eta ibilitakoa. Ezer ez berezirik.

Txikitatik bizkorra, alaia eta bihotz onekoa, hor dago berezitasuna. Ba al dago gauza handiagorik ?.

Umetan tabernan lan egindakoa eta orain be tabernan laguntzen, baña sekula ez dau txikito bat edan, limonadie edo kolagaz nahastata ez bada. Erretzea izan da izan dauan bizio bakarra.

Irribarrea eta poza saltzekoak balira, herriko aberatsena izango litzake. Halan da guzti be, aberatsa da, munduko gauza baliotsuenetan. Arro nago haren laguna naizelako, eta batez be berak lagun modura naukalako.

Luis zeozer tristea, harrigarria izan dozu zure bizitzan ? galdetu neutsan. *Ezebez !.*

Izan badau be, ahaztu dau eta bizipozak gehiago balio dau, iñuzentekeidsetan ibiltzea baño.

Pelota zalea, baña batez ere ehiztaria. Mendira joan eta hutsik sekula bez. Txori arruntak ez badira, tomate edo sagar antzeko txoriak beti etxera, zerbait jan behar zan eta.

Emazteari (Bonifacia Eguzkiza) ez deutso sekula deitsu haren izenagaz, txantxetan Dorotea edo burura jatorkon beste edozein izenez baño. Beti umoretsua eta barruko umea sekula galdu ez dauana.

"Marfil" zoriontasunaren eredu

Baña itsosoan ikusiko zendun zerbait harrigarria?. *"Ezebez. Bueno gauzarik harrigarriena, nire patroi bateri gertatutakoa."*

Behin bokartean, patroia zerbaitek jota, arrain sakura jeusi zan. Atera gendunean, haren eskoko erlojuaren esfera barruan lau bost eskama egozan. Hori egi santue da.

Askok ez dau sinesten, neuk ere dudan jarriko neukan beste batek esandakoa balitz, baña Luisek, *"Neure begidsekaz ikusikue da" diño.* Nahiko da.

Ezagutzen dogunok badakigu, Luis gizon herrikoia, apala, eta bihotz onekoa dala. Hor bere handitasuna.

Luis goi mailako persona

Pertsonen benetako handitasuna,
ez dago ez eukitean, ez jakitean,
izatean baizik.

ITSASTEGITXOA

Itsasoso hiztegitxoa

Badira hainbat artikulu, liburu, hiztegi, itsasoko eta arrantzaleen berba arrunt eta teknikoak batzen dituztenak. Hiztegitxo honen helburua, izenburuak diñoanez, ez da haren parean jartzea, askoz apalagoa da, irudien laguntzaz oinarri oinarrizko berben errepasoa egitea baño ez da.

Sarritan, gure arrantzaleen berbak, herrian beste esanahi edo erabilera bat izaten dute, edozein gaian eta batez ere "Olatuek ekarrikuek " izeneko gaian ikusiko dugunez.

Atal hau ere zelan ez, Aingeru Astuiren laguntzaz egindakoa da.

Arrantzaliek kantie > ENTZUN

Abantién

Erremuetan aurrerantz egiten danien ; gaztelaniazko, bogar.

Abantién

Aidsená

Itsasontzia edo baporá / motorrá amarraten dan lekue.

Artzako aidsénak

Amudié

Atunetarako kazako apaidsuen karnada faltsue : amo-bikotza lastuekaz disimuleta atunek arrainen bat dala « pentsateko ».

Amudié

Ámue

Arrainek atrapateko alanbra lodi okertué punte zorrotzagaz. Punten gailé okitzen dau arraine hobeto agarrateko.



Ámo lapurré edo lapur-ámue

Lebatzetako apaijjuetan, amuen behekaldean bide batez beseuren bat arrantzatzeko jartzen zan beste ámu txikiagoa.

Ámo porrostué

Ámo okerra, gailé eta palié eztakozena batera.

Amúskidse

Kordié edo palangrie alaten danien amuetan datorren karnadié arráinek jan barik.

Apáijjue

Arrainek atrapateko erabiltzen dan zera, kordelak eta amuekaz egindse.

Arráspie

Amúdek eitxeko erabiltzen da, amue tapaten dauien lastuek « orraztuteko ». Egurrezkoa eta punten orrotzakaz.

Ártie

Zerkueri edo trañeri deitxuten jatzo. Gaztelanizko « arte = red »

Sarié

Arrainek atrapateko zera, aridsekaz mailedun altorrakaz egindse.

Trañé

Sare mota bat, bokarta eta sardinie-ta atrapateko. Zerkue da, biribilien botatekue arrain sardien bueltan, eta gero azpitxik zarratu, sakue egin arte.

Batelá

Enbarkaziño txikidse, tximinoitxen eta arrain txikitxen ibiltzeko. Orain baporetako « ausiliarrá »-ri be holan deitzuten jatzo.

Batelá

Bibérue

Atunetarako karnada bizidse eruteko lekue.

Búdsie

Uretan, flotan, dagoen burdinezko, oholezko edo plastikozko bolie edo zilindrue, argoile bategaz, non enbarkazinuek amarraten diezen.

Búdsek

Botabérak

Kaza-apaidsuek errieteko kostado bidsetatik ataraten diezen palo luziek. Bakoitzetik hiru-lau apaidso errieten diez.



Enbarkazinue atunetan botabérak zabaldute

Dsitú

Batelen saidsetan batzen dan ura hutsitú edo atxíke.

Entzadúek

Uretako erropak. Ez uretan ibiltzekuek, ure aguentatekuek baino. Traje osue diez « jakenarrue » eta « frakonezkue » eta aintziñe buruko « suestá ». Erd. Encerado.

Gizona entzaduekaz lemakánie eskuen dala

Estropué/estrepué

Toletan erramué sartziko, espartzuegaz edo txikotagaz egindako borobila.

Irolá

Guardakoleko komuneko atien dauen letrerue.

Jakenarrué

Entzaduen jakie.

Kaelá

Enbarkazinuen karela edo hegala. Erd. Regala



Kálie

Arrantzatzen dan gunea, baie fijue danien, hondoko arrainek atrapateko apaidsuekaz. Azaleko arrainek ez diez kalan atrapaten, harantz eta honatz duez eta : atune, bokarta, berdela eta holakuek.

Kankámuek

Traiñén beheko mandan imintzen diezen burdinezko eraztunak, nondik pasaten dan « bragerue ». Bragerue alaten danien traiñé zarratu egiten da azpitik arrainek eskapa ez deidsen.

Kartólak

Kárruen eta kamioien kajie albuetatik eta atzetik zarratuteko erabiltzen diezen oholak.

Kófrie

Itsosoko txori mota bat. Erd. Alcatraz.

Korostá

Bi dakoz enbarkazinuek : bat aurrien (áurreko korostá edo korostá) eta bestie atzien (atzeko korostá). Enbarkazinuen hasikerie eta akabakerie diez : korosták apurtuten dau itsosue, eta atzeko korostien dagoz élize eta lemié.

"Doniene" atuneruen korost zorrotzá

Korrostokolá

Batelaren saidsen, saietz artien batzien dan ure dsielera pasateko erabiltzen dan olezko palatxoa.

Korrostú

Batelaren saidxen, saietz artean biltzen dan ure dsielien batu, gero dsitúteko. "Txo, saídsie korrostú".

Krielá

Tertzak plamieta imintzeko kajatxo edo otzaratxoa.



Tertzak plamieten krielién

Lanbasá

Itsasontzia garbitzeko tresna. Erd. Fregona. Lehen palo bateri trapuek josten jakozan.

Lastúek

Artuen orridsek **amudek** eitxeko erabiltzen diezenak. Klase bi dagoz: **gordiñé**, naturala, beran kolorezkue, eguraldi normalagaz erabiltzeko amudek egitxeko; **eta lejiatakue**: lejiatan okinikue zuritxuteko, eguraldi ilunetan erabiltzeko amudek egiteko.

Lemié

Timoié.

Maridsé

Arrantzaleen artean banatzen dan dirua.

Mataputxetá

Pórrie, enbarka eta gero, atuneri buruen joteko hil deidsen.

Otzárie

Arrantzaleek itsasora jan-edariak eroateko saskia.

Paelá

Saídsie tapateko ohola edo baporeko neberan kajoitxuek egiteko erabiltzen dana. Ikusi trabeseko paelá.

Palasié

Apaijjuek, amuek, beraunek eta abar gordeteko norberan kajatxue.

Plamíe

Amuetan karnadie jositxe, tertzak krielan imini.

Potorrué

Itsasoko txori mota bat. Marroi iluna da eta portuan ikusten da sarritan. Ugerlari onak dira: Hondora sartu arrainaren bila, eta inork ez daki nondik urtengo dan. Hegoak zabalik parata ikusten dira sarritan, lumak sikatuteko. Erd. Cormorán.



Potorrué

Sáidsie

Ontziaren behekaldea, neberako odolak, oridsuek, eta abar joaten diran tokia. Batelaren behekaldea non ure batzen dan.

Señerué

(Señek eitzen dauana). Eguraldiaren egoerea jakiteko ardura zeuzkaten lau edo bost laguneko talde bat. Eguraldiaren egoerea ikusi eta "pronostíkue" egin ta gero, itsasora joateko edo ez joateko agindua emoten eben.
Itsosuen be, eguraldidxen aldaketarik edo ikusi ezkero, portura itzultzeko aginduten eutson beste enbarkazinuei. Honeen aginduak bete beharrekoak dira isunpean.

Sídsaue

Biradie. Erd. Ciaboga.

Trainerue sídsaue eitxen

Sídse edo sidsendó

Enbarkazinue atzerantz eroatea . Erd. Ciar

Sídse edo sidsendó

Singén

Atzeko singe lekuen erramue dala, batela aurrera egitea. Erd. Singar

Singén

Soídsie

Karelganien imintzen zan mukur-erdi bat, aparidsuek bertatik ala eta erriateko, karela arraidse ez deidsen.

Suestá

Aintzinako entzaduen kapelie edo txainue.

Pípie ezpainen eta suestá buruen

Taketá

Atune hiltzeko matxeta.

Tertzié

Beseuteko palangrien zati bat, 150en bat amodune. Hainbat tertza lotute alkarregaz osotuten zan palangrie. Tertzien kordel lodidxena zan "subillé", eta honeri joten izan jakoz "potxérak". Potxérai jota egoten ziren amuek.

Tertza kantie > ENTZUN

Toletá

Estropué ta erraiñue sartziko, batelak karelien dakon egurré.



Tólie

Metalezko pitxartxue, kafie eta edateko.

Trabeseko paelá

Txalupe eta batelatako aurre eta atzeko mandako paélak, trabesetara imintzen ziralako. Pertsona okerrari be holan esaten jako.

Tragolá

Kordelak batzeko edo "koidsiteko" uztidse edo oholtxuekaz eginiko laukidse.

Tragola kantie > ENTZUN

Trinkadorié

Enbarkaziño ofiziala, guardakostie edo guardapeskasen erara. Beran biharra itsosue eta arrantzie jagotie izaten zan, legeak betetuten ziran edo ez. Izena "trincadura"-tik dator ze, hori zan XVIII. eta XIX. mendean horretarako erabiltzen zan enbarkazinoa.

Trisié

Belak eta banderak izéteko txikota."Trisie amure emon, oidsidié dator da". Oidsidié – Haize gogorra.

Tuntuxé

Palangriek, batez be beseutekuek, azalerantz eusteko hondotik botata ez geratuteko.

Txirrítxie

Kordelak eta txikotak eitzeko makinie, eta zabaleraz, lekue.

Txisté

Arrain handidsek enbarkaten lagunduteko asta luzedun gantxue edo kakué.

Ugérie

Itsasontziak ibilian itsasoan uzten dauan estela. Baita korrontak edo arrainek ataraten daben ur arrastoa. Uhara.

Uxúxue

Bokart-txoria da. Iluna da eta bular zuria dau. Kikunbera egin eta hondotik ibiltzen da arrainaren bila. Pinguinoen antzekoak dira. Erd. Frailecillo común.

Gure inguruko Uxúxo mota bidsek

.....

San Juan, gure irudirik ederrena

Herriek bere esakeraz eta izakeraz egiten dira. Gure subkontzientean berbak, bizikerak eta irudiak gordetzen doguz, eureak dira gure herria, gurea Bermio.

Irudi ederrak edonon dagoz, danak merezi dabe gure mirespena eta lilura.

Arrokeri barik baie arrotasun osoaz, ze politxe da geure geurea dan San Juan Gaztelugatxekoa







XIX. mendeko litografia

Harrokeri barik, baie harrotasun guztidsegaz, Bermiotarrak gara,

Harrokeri barik, baie harrotasunez beterik,

𝄞 Ai nire Bermio 𝄞

Ai gure Bermio
esakerak eta izakerak
Joseba Mikel Ugalde